HITZ-ELKARKETA/3



LEF BATZORDEAREN LANAK

EUSKALTZAINDIA



HITZ-ELKARKETA/3

LEF BATZORDEAREN LANAK

HITZ-ELKARKETA/3

EUSKALTZAINDIA
1991

Txostengileak

Kepa Altonaga, Miren Azkarate, Martxel Ensunza,
Jose Mari Larrarte, Juan Karlos Odriozola, Lourdes Otaegi,
Beñat Oyharçabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna,
Tomas Uribeetxebarria, Patri Urkizu, Mikel Zalbide

Liburuaren moldatzailea

Miren Azkarate

© Euskaltzaindia
Lege-gordailua BI-1531-91
Inprimategia Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

AURKIBIDEA

Sarrera gisa XVII

I. ADITZ-ELKARTEAK 1

I.1. Egiazko aditz elkartuak 3

I.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 3

I.1.1.1. izena + aditza 3
I.1.1.2. A + *etsi/eritzi* 4
I.1.1.3. Leku-denborazko mugatzailedunak 5

I.1.2. Emankortasuna 6

I.1.3. Berrelkarketa edo garapena 7

I.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 7

I.1.5. Idazkera 8

I.2. Aditz-esapideak 8

I.2.1. Izena + *egin/eman/hartu* 8

I.2.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 8
I.2.1.2. Emankortasuna 12
I.2.1.3. Berrelkarketa edo garapena 12
I.2.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 13
I.2.1.5. Idazkera 13

I.2.2. Aditzoina + *erazi* 14

I.2.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 14
I.2.2.2. Emankortasuna 15
I.2.2.3. Berrelkarketa edo garapena 15
I.2.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 16
I.2.2.5. Idazkera 16

I.2.3. Aditza + *behar/nahi* 18

I.2.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 18
I.2.3.2. Emankortasuna 18
I.2.3.3. Berrelkarketa edo garapena 18
I.2.3.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera 19

I.2.4. Partizipioa + *gogo/uste (izan)* 19
I.2.5. Izena + *izan* 19
I.2.5.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 19
I.2.5.2. Emankortasuna 20
I.2.5.3. Berrelkarketa edo garapena 20
I.2.5.4. Hots-aldaketak eta idazkera 20
I.3. Sintaxi-egiturak 21
I.3.1. Izenaz osatutako Predikatu Sintagma + *egon/joan/ egin/bihurtu* 21
I.3.2. Izenondo/aditzondoaz osatutako Predikatu Sintagma eta aditza 22
I.3.3. *Elkar* + aditza 22

II. HITZ-ELKARTE SINTETIKOAK 25
II.1. Sarrera 27
II.2. Elkarte sintetikoen sailkapena 31
II.2.1. Egile-elkarte sintetikoak 32
II.2.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak. Berrelkarketa eta garapena 32
II.2.1.1.1 Errokariak 33
a) A-*gin*, A-*gile* 33
b) A-*zain* 35
c) A-*dun* 35
II.2.1.1.2. Soilak 38
II.2.1.1.3. Egile-elkarte osatuak 39
a) A-x-*(tzai)le* 39
b) A-x-*garri* 42
c) A-x-*ari* 42
d) A-x-*ki* 43
e) A-x-*tu* 43
II.2.1.2. Osagaien arteko hots-aldaketak 44
II.2.1.3. Idazkera 45
II.2.2. Ekintza-elkarte sintetikoak 46
II.2.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak. Berrelkarketa eta garapena 46
II.2.2.1.1. Errokariak 46
a) A-*gin(e)an* 46
b) A-*gintza*, A-*gite* 47
c) A-*zantza* 48
II.2.2.1.2. Soilak 48
II.2.2.1.3. Osatuak 49
a) A-x-*t(z)e* 50
b) A-x-*keta* 52
c) A-x-*pen* 53
d) A-x-*era* 53
e) A-x-*kunde/-kuntza/-dura* 53
f) A-x-*tza* 54
II.2.2.2. Osagaien arteko hots-aldaketak 54
II.2.2.3. Idazkera 55

II.2.3. Jardun-elkarte sintetikoak 55
II.2.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 55
II.2.3.1.1 Soilak 56
a) A-*bila* 56
b) A-*eske* 56
c) A-x-*zain* 57
d) A-*pasa* 57
II.2.3.1.2. Osatuak 57
a) A-x-*ka* 57
b) A-x-*ari* 58
II.2.3.2. Osagaien arteko hots-aldaketak 58
II.2.3.3. Idazkera 58
II.2.4. Exosintetikoak 58

XI. *JARLEKU* MODUKO HITZ ELKARTUAK 61
XI.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 63
XI.2. Emankortasuna 67
XI.3. Berrelkarketa 67
XI.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 68
XI.5. Idazkera 73

IX. ATRIBUTU ETA KOORDINAZIOZKO ELKARTEAK 75
IX.1. Atributuzko *AB* izen-elkarteak 79
IX.1.1. *A* den *B* 79
IX.1.2. *B* den *A* 80
IX.1.3. *A* nolako *B* da 80
IX.1.4. Emankortasuna 81
IX.1.5. Berrelkarketa edo garapena 81
IX.1.6. Osagaien arteko hots-aldaketak 81
IX.1.7. Idazkera 82
IX.2. Koordinaziozko elkarteak 83
IX.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 83
IX.2.2. Emankortasuna 84
IX.2.3. Berrelkarketa edo garapena 84
IX.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera 84

X. APOSIZIOAK 87
X.1. Sarrera 89
X.2. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 90

X.2.1. Izen propioa + izen arrunt bizigabea 90
X.2.2. Izen propioa + izen arrunt biziduna 94
X.2.3. Izen arrunt biziduna + izen propioa 95
X.2.4. *Jaun/andere* osagaitzat duten aposizio-elkarteak 96
X.2.5. Izen arrunta + izen arrunta 97
X.3. Emankortasuna 98
X.4. Berrelkarketa eta garapena 99
X.5. Hots-aldaketak 99
X.6. Idazkera 99

III. ASMO-ELKARTEAK 101
III.1. A/x + *gura* 103
III.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 103
a) Izena + *gura* 104
b) Aditz-partizipioa/aditzoina + *gura* 104
III.1.2. Emankortasuna 105
III.1.3. Berrelkarketa eta garapena 105
III.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 105
III.1.5. Idazkera 105
III.2. A/x + *nahi* 106
III.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 106
a) Aditz-partizipioa + *nahi* 106
b) Izena + *nahi* 106
III.2.2. Emankortasuna 107
III.2.3. Berrelkarketa eta garapena 107
III.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 107
III.2.5. Idazkera 107
III.3. A/x + *-gale* 107
III.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 107
III.3.2. Emankortasuna 108
III.3.3. Berrelkarketa eta garapena 108
III.3.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 109
III.3.5. Idazkera 109
III.4. A/x + *gose, egarri* 109
III.4.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 109
III.4.2. Emankortasuna 110

III.4.3. Berrelkarketa eta garapenak 110
III.4.4. Hots-aldaketak eta idazkera 110
III.5. A/x + *uste, usteko* 110
III.5.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 110
III.5.2. Emankortasuna 111
III.5.3. Berrelkarketa eta garapena 111
III.5.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 111
III.5.5. Idazkera 111
III.6. A/x + *min* 112
III.6.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 112
a) Aditz-partizipioa + *min* 112
b) Izena + *min* 112
III.6.2. Emankortasuna 112
III.6.3. Berrelkarketa eta garapena 113
III.6.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera 113
III.7. A/x + *behar* 113
III.7.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 113
a) Aditz-partizipioa/aditzoina + *behar* 113
b) Izena + *behar* 113
c) Aditzlaguna + *behar* 113
III.7.2. Emankortasuna 114
III.7.3. Berrelkarketa eta garapena 114
III.7.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 114
III.7.5. Idazkera 114
III.8. A/x + *beldur* 115
III.8.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoa 115
a) izena + *beldur* 115
b) aditz-partizipioa + *beldur* 115
III.8.2. Emankortasuna 115
III.8.3. Berrelkarketa eta garapena 116
III.8.4. Hots-aldaketak eta idazkera 116
III.9. A/x + *larri* 116
III.9.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 116
III.9.2. Emankortasuna 116
III.9.3. Hots-aldaketak eta idazkera 116
III.10. A/x + *gogo* 117
III.11. A/x + *asmo* 117

IV. IZAERA-ELKARTEAK 119
IV.1. x-*gaitz*, x-*erraz* 121
IV.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 122
IV.1.2. Emankortasuna 124
IV.1.3. Berrelkarketa eta garapena 124
IV.1.4. Hots-aldaketak 124
IV.1.5. Idazkera 124
IV.2. x-*ezin* 124
IV.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 124
IV.2.1.1. *ezin* + partizipioa / partizipioa + *ezin* 125
IV.2.1.2. Aditzoina + *ezin* 125
IV.2.2. Emankortasuna 126
IV.2.3. Berrelkarketa eta garapena 126
IV.2.4. Hots-aldaketak 126
IV.2.5. Idazkera 126
IV.3. x-*zale* elkarteak 127
IV.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 127
IV.3.1.1. Izena + *zale* 127
IV.3.1.2. Izenondoa + *zale* 127
IV.3.1.3. A-*ra* + *zale* 128
IV.3.1.4. Aditz-izena + *zale* 128
IV.3.1.5. Izen-sintagma/aditz-sintagma + *zale* 128
IV.3.1.6. Zalantzazkoak 129
IV.3.2. Emankortasuna 129
IV.3.3. Berrelkarketa eta garapena 129
IV.3.4. Hots-aldaketak 130
IV.3.5. Idazkera 130

VII. *LOTSA-GABE, LO-FALTA* 131
VII.1. *Lotsa-gabe* mota 133
VII.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 133
VII.1.2. Emankortasuna 135
VII.1.3. Berrelkarketa eta garapena 135
VII.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 135
VII.1.5. Idazkera 137
VII.2. *Lo-falta* modukoak 137
VII.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 137
VII.2.2. Emankortasuna 138

VII.2.3. Berrelkarketa 138
VII.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera 138
VII.3. Izena + *ez(a)* 138

V. *EZKONBERRI* ELKARTEAK 139
V.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 141
V.2. Emankortasuna 143
V.3. Berrelkarketak 143
V.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 144
V.5. Idazkera 144

VI. BAHUVRÎHIAK 147
VI.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 149
VI.1.1. Izena + izenondoa 149
VI.1.2. Zenbatzailea + izena 151
VI.1.3. Bestelako Bahuvrîhi Exozentrikoak (Posesibo ez direnak) 152
VI.1.4. Zalantzazkoak 153
a) Bukaeran eratorpen-atzizkia dutenak 153
b) Izena + *huts(-ik/-ka...)* 155
c) Izena + *gorri(-rik, -an...)* 156
d) Beste hainbat esapide 156
VI.2. Emankortasuna 157
VI.3. Berrelkarketa eta garapena 157
VI.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 158
VI.5. Idazkera 159

XII. *ERDI-ASE* ELKARTE-MOTA 161
XII.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak 163
a) *erdi* + izenondoa 163
b) *erdi* + aditza 164
c) *erdi* + aditzondoa 164
d) *erdi* + izena 165
XII.2. Emankortasuna 168
XII.3. Berrelkarketa edo garapena 168
XII.4. Osagaien arteko hots-aldaketak 168
XII.5. Idazkera 169

XIII. HITZ-ANDANA IHARTUAK 171
XIII.1. Izen-sintagma barneko hitz-andana ihartuen sorrera eta bilakaera 173
XIII.1.1. Ihartze-mailak 174
XIII.1.1.1. Ihartu gabeko hitz-andana libreak (izen-sintagma arruntak) 175
XIII.1.1.2. Osabetezko hitz-andana ihartuak 175
XIII.1.1.3. Ihartze-bidean dauden hitz-andanak 176
XIII.1.2. Ihartze-neurpideak 176
XIII.2. Ihartze-ereduak 177
XIII.2.1. *Galtza-motxak* eredua 177
XIII.2.2. *Gernikako Arbola, aitapontekoa* eredua 179
XIII.2.3. *Artizarra* eredua 180
XIII.2.4. *Emagaldua* eredua 181
XIII.2.5. *Gurutze Gorria* eredua 182
XIII.3. Gainerako hitz-elkarteetako hitz-andana ihartuak 183
XIII.3.1. Hitz-elkarte sintetikoak 183
XIII.3.2. Bestelako hitz-elkarteetakoak 184

ADIBIDETEGIA 187
Kodeen azalpena 189
Aditz-elkarteak 193
Hitz-elkarte sintetikoak 231
Jarleku moduko hitz elkartuak 303
Atributu eta koordinaziozko elkarteak 343
Aposizioak 353
Asmo-elkarteak 365
Izaera-elkarteak 383
Lotsa-gabe, lo-falta 399
Ezkonberri elkarteak 405
Bahuvrîhiak 411
Erdi-ase elkarte-mota 425
Hitz-andana ihartuak 431

BIBLIOGRAFIA 453

SARRERA GISA

Hiru urte luze igaro dira 1987ko ekainean Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeak *Hitz-Elkarketa/1* liburua kaleratu zuenetik. Euskaltzaindiaren Hiztegigintza Batzordeko atal den Batzorde hau ez da ordutik hona geldirik egon, ordea. 1987 eta 1988. urteetan Jardunaldiak egiten jarraitu zen, *Hitz-Elkarketa/1*-ean argitaratu zen sailkapenaren ildotik, hitz-elkartu mota desberdinak aztertuz. 1988ko irailean Gernikan eta urte bereko azaroan Uitzin egindako Jardunaldietan eztabaidatu ziren txostenak dira, hain zuzen, gaurko liburukia osatzen dutenak. Hamabi txostenetan landu ziren beste horrenbeste elkarte-mota, Belokeko sailkapeneko VIII. saila osatzen zuten *Eguzki-lore* motako elkarteak kenduz gero, aztertzeko geratzen zirenak.

Harridura sor dezake, dena den, *Hitz-Elkarketa/3* kaleratzeak bigarrena baino lehen. Bi urtez, 1987an zehar eta 1988ko udaberria arte, hamabost azpisailetan banaturik landu zen *Eguzki-lore* motako menpekotasunezkoa da *Hitz-Elkarketa/2* osatuko duena. Baina ulertzekoa da bakarka idatzi eta aztertu ziren hamabost txosten horietan zenbait puntu eta gai errepikaturik aurkitzea. Horrexegatik, hamabost horietatik bakarra egin behar delako, eskatzen du liburu horrek askoz lan handiagoa. Beste bide bat izan zitekeen gaur ateratzen den honi *Hitz-Elkarketa/2* izena ematea, baina, esan dugun bezala, bi izenez osatutako menpekotasunezko izen elkartuak dira berez *Hitz-Elkarketa/2*-ko gaia, eta bidezko dirudi hala izan dadin. Izan ere, liburu honetan aztertzen diren hainbat elkarte-mota menpekotasunezkoak direla diogunean, mota honen ezaugarriak aldez aurretik landu eta finkatutzat ematen dira. Horrenbestez, hilabete batzuren aldea egonik ere liburu baten argitaratzetik bestearenera, nahiago izan dugu luzarora begira, hasieran pentsatua zegoen kaleratze-ordenari eustea.

Azalpen labur honen ondoren, gatozen berriro gaur plazaratzen den liburuaz zenbait argibide ematera. Belokeko sailkapena, *Hitz-Elkarketa/1*-ean azaldu zena, izan dugu begien aurrean, hasieran esan bezala. Sailkapen horri dagozkio, hain zuzen, elkarte-mota bakoitzaren aurrean ageri diren zenbaki erromatarrak. Hala ere, behin eta berriro esan genuen lehen liburuan sailkapen hori behin-behinekoa zela, lanean hasteko bide bat baino ez zela. Eta aldaketa nabarmenik egon ez arren, mota bakoitza zehazkiago aztertu eta landu den neurrian, ezinbestean gertatu dira aldaketa batzuk. Halakoetan, beti saiatu gara Belokeko sailkapena nola eta zergatik aldatu den argitzen. Era berean, sailkapenean zalantzak sortu dizkiguten egiturak ere bereziki azpimarratu nahi izan ditugu, eta, edozein sailkapenetan gertatzen den legez, zenbait mugako adibide, sail batean zein bestean koka litezkeenak, beren anbiguotasun osoan aurkeztu nahi izan ditugu, errezeta errazegietatik ihes egin nahirik.

Elkarte-mota guztietan aztertzen diren azken bi puntuez, osagaien arteko hots-aldaketez eta idazkeraz, zerbait esan behar da. Izan ere, garai hartan Euskaltzainbu-

ru zen aita Villasantek *Hitz-Elkarketa/1*-en sarrera-hitzetan zioenez, «lantalde honen helburua edo xedea ez da erabakiak hartzea, gaia bera istudiatzea eta sakontzea baizik». Eta horretan ahalegindu gara atal horietan, adibidetegiaren emaitza aztertzen; deskripzio soila izan nahi du, eta behar du, beraz, hots-aldaketez eta idazkeraz diogunak. Ez dagokigu guri hortik inolako araurik ateratzea, eta ez genuke nahi beste inork horrelakotzat har ditzan puntu horietan esaten direnak. Bide beretik, adibidetegian agertzen diren lema edo sarreren idazkerek ez dute inolako biderik markatu nahi; gehienaz ere, horretan aritu garenon joerak adieraziko lituzke. Eta askotan horixe ere ez, sarrera horiek modu batera edo bestera idatzi beharrari eman zaion ahal bezalako erantzuna baino ez bait da. Horrexegatik, Batzordean bertan ere jokabide eta eritzi bakarrik ez dagoela adierazi nahian, ageri da batzutan beste zenbaitetan falta den marratxoa. Adibideetan, azkenik, jatorrizko grafia gorde da, egin den aldaketa bakarra gandorraren ordez, **rr** grafiarena izan delarik (eta berau makinak zailtasun handia zuelako ´ zeinua kontsonante gainean ezartzeko).

Elkarte-mota guztiak aztertu ondoren, liburuaren bukaeran, adibidetegi osoa doa, *Hitz-Elkarketa/1*-ean egin bezala. Adibidetegi hau ere hamabi sailetan dago banatua, elkarte-mota bakoitzari dagozkion adibideak berariazko sailetan bildu dira eta. Baina hor amaitzen da adibidetegiaren sailkapena, elkarte-mota bakoitza aztertzean egin diren azpisailak adibidetegian jasotzea ez bait zaigu beharrezko iruditu. Areago, adibide jakin baten bila doanari sail xeheegiek nahi duena aurkitzea erraztu ordez oztopatu ere ez ote lioketen egingo iruditu zaigu. Horregatik egin ditugu beharrezko iruditu zaizkigun azpisail eta atalak mota bakoitza aztertzean; baina gero, amaierako adibidetegian, elkarte-klase horri dagozkion adibideak zerrenda alfabetikoaren arabera bildu ditugu. Adibideon mekanizazio-lana, ordenagailuan sartu eta sailkatzea, UZEIn egin da. Adibidetegiarekin batera, noski, horko kodeen azalpena ere ematen da, adibidetegia osatzeko baliatu ditugun liburuen zerrenda, alegia.

Azkenik, geure azterketa eta sailkapenak oinarritzeko eta irakurleari ere sail bakoitzaz ahalik eta informazio osoena eman nahian, han eta hemen aipatzen ditugun liburu guztiak bildu ditugu *Bibliografia*-ren atalean.

Eta eskerrak ematen hasi aurretik, hitzerditxo bat estiloaz; luma desberdinak ageri dira. Nahita utzi ditugu idaztankera desberdin horiek, bereziki egilearen euskalkiari zor zaizkion ñabardurak liburua aberastu besterik egiten ez dutelakoan.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkie LEF Batzordeak Gernika eta Uitziko udalei, Jardunaldiak egiteko egoitza eta laguntza osoa eskaini zutelako.

I. ADITZ-ELKARTEAK

Aditz-elkarte deiturapean Belokeko sailkapenean azaltzen diren egiturak ikusita, badirudi lehen lanak txosten honetan terminologia bera argitzea izan behar duela. Egia da orain arte *elkarte* inolako oztoporik gabe erabili dugula (*Bahuvrîhi*-elkarteak, *Eguzki-lore* elkarteak...) beti ere aztertzen genituen egiturak elkartuak, konposatuak ziren heinean. Oraingoan, ordea, txostenean zehar egindako planteamenduak eta egitura bakoitzari buruzko zehaztapenak zuzenak badira behintzat, *Aditz-elkarte* hauen barnean egiazko *Aditz-elkartuak* eta bestelako egiturak, *Aditz-elkarte*, edo *Aditz-perifrasi* edo beste moduren batean bataiatu beharrekoak ditugu. Gauzak hala badira, eta txostena atzekoz aurrera idazteko arriskuan eroririk ere, ikus ditzagun zeintzuk liratekeen aditz elkartuen ezaugarriak, eta honenbestez erkatu ahal izango dugu gainerantzeko egiturek ezaugarri hauek badituzten ala ez.

Euskaraz, aditz elkartuek, *Menpetasunezko Izen Elkartuen* antza dute. Hau da, bigarren osagaia, eskuinekoa izan ohi da garrantzitsuena, egituraren kategoria gramatikala erabakiko duena. Honek, noski, esan nahi du bigarren osagaia beti aditza izango dugula. Horretaz gain, egitura elkartua den heinean, osagaien hurrenkera aldakaitza izango da, ezingo ditugu lehen eta bigarren osagaia lekuz aldatu; hitz elkartuko osagaiek, sintaxikoek duten askatasunik ez bait dute izaten. Esan gabe doa, noski, bi osagaiek aditz elkartua eratzen dutenez, elementu lexiko bakar bezala azalduko zaizkigula gero perpausetan; lehen osagaia ezin da inoiz perpauseko atal beregaina izan. Oinarritzat bi erizpide hauek harturik, lehen osagaiaren kategoria gramatikala zehaztu eta, ondorioz, aditz elkartuen barnean euskaraz emankor diren egiturak zeintzu diren erabakitzea izango litzateke gure eginkizuna. Honekin batera, bigarren osagaia aditza denez, lehen osagaia zein motatako konplementu edo osagarria den ere azter dezakegu; hau da, perpaus batetan, lehen osagai hori zein motatako osagarria izango litzatekeen aditzari buruz.

Guzti hau gogoan izanik, ekin diezaiogun *Aditz-elkarteak* ataleko egitura desberdinen azterketari.

I.1. EGIAZKO ADITZ ELKARTUAK

I.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

I.1.1.1. izena + aditza

Egiazkotzat jo ditugun aditz elkartu hauen ezaugarri morofologiko eta semantikoak zein izan daitezkeen hobeto aztertu ahal izateko, ikus ditzagun lehenenego zenbait adibide:

> «Askok eta askotara azaldu izan dute miragarrizko *antzaldatze* hori» HE27, 297
> «gañeraco guciac guelditu ciran guciz *biotz-aldatuac*, len ciran ez-bezalacoac» HE08,98[1]

[1] Egia da hemen berez predikatu sintagma osatzen duen partizipioa/izenondoa dugula, *Hitz-elkartu Sintetikoen* artean ikusiko ditugunen erakoa (ik. *gogolanduak* etab.). Beraz, agian

«piztu zala, haec *gurutziltzatu* zuen Jesu Christo» HE08,98
«begietan *bur-txoratzearen* kandelak piztu» HE58,54[2]
«guero garija erne onduan, biar da jorratu, *escu-etendu,* zalguia ta bedar char guztija aterateco» HE20,150
«*odol-usten* ari zaigu arnasa galdurik» HE18,48
«bardoen antzea *gatzoztu* zen izigarritan» HE30,235
«gauza guztiak *itxuraldatu* ziren» HE27,371
«Baña Christauac etciran batere bildurtzen: orregatic etsaiac aec castigatzeco, cebiltzan asmatzen castiguric gogorrenac:... *larririquitzen* cituen, ta ateratzen cizten sabelac» HE08,115
«ongi *gizazi*-bearrez» HE17,50
«bere buruak *odol-oztu* ta onezkoak egiten dituzte» HE38,165
«eguzkiarekin eta ilargiarekin *maitemindutzea* » HE56,9[3]
«Agur zuei bere, gure artetik goizegi *errialdatu* zaren Broussain ta Agirre» EJ06,76
«hain justu neurrirat heltzen bainintzen, eta etzen *lokartzerik* » EJ04,81
«*loac artu* = dormirse» EI31,330
«*hotzildu zen* poliki-poliki» HE27,375

Zalantzak zalantza, goiko adibideetan azaldu zaizkigunak aditz-elkartuak direla esan dezakegu: aditza dute bigarren osagaitzat, izena da lehen osagaia, biak hurrenkera finko, aldakaitzean doaz, azentu bakarraz ahoskatzen dugu aditz osoa... Aditz hauek gainera badute berezitasun bat: lehen osagai den izena, perpaus batetan aditzaren *aditzlagun*[4] litzateke, ez osagarri zuzen, esaterako. Horrela ditugu: *antzaz aldatu, gurutzean iltzatu, odolez hustu, itxuraz aldatu,bihotzez aldatu* (aditz-elkartutzat hartu behar baditugu behintzat)... Horrexegatik dira gehienak *da* (nor) motakoak. Nor-motakoa izanik ere, lehen osagaiari dagokionez salbuespena, *lo(a)kartu* dugu, mugatzaileak oraindik ere ergatibo marka gordetzen bait du. Dena den, lehen osagaiak ergatiboa jasotzen dueneko adibideak ez dira hain bakanak *Elkarte Sintetikoetan* aurrerago ikusiko den legez.

I.1.1.2. A + etsi/eritzi

Era berean, egiazko aditz elkartutzat har ditzakegu *etsi, eritzi* bigarren osagaitzat dutenak:

asketsi, berantetsi, betetsi HE34,31[5], eder eretxi HE24, ederretsi , erdietsi, ezetsi (esetsi), gacherechi, gacherichi HE20, gaitzetsi, galetsi HE18,75, goretsi, gupidetsi,

---

zuzenago litzateke adibidea *Hitz-elkartu Sintetikoen* sailera eramatea. Hala eta guztiz ere, 'Espiritu Santua hartu zutenak bihotz-aldatu ziren' perpausak ez dirudi ezinezkoa, are gutxiago ez-gramatikala.

2 Hemen ere *burtzoratu* aditz-elkartu ote ala *burtzoro* Bahuvrihia gehi *-tu* , beraz, aditz eratorria? Bi eratara har daitekeela iruditzen zaigu.

3 *Maitemin* + *-tu* ala *maite* + *mindu* ote? Lehen kasuan oinarritzat Menpetasunezko Izen Elkartua duen aditz eratorria genuke; bigarrenean aditz-elkartua, 'maitez mindu'.

4 Ikus *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* I Aditzlagunaren definizioa.

5 Autore jakin batek erabili duen adibide ez hain ezaguna denean zehaztu dugu liburuaren kodea. Bestelakoetan adibidea soilik eman dugu.

gutiagoetsi HE03, handietsi, hautetsi, luzetsi, miretsi, oneritzi[6] (= 'maitatu'), onetsi, sinetsi, zilegi etsi HE28,90

«Parke bustiaren bakardadeari biotzez betesten eta ederresten ez dakitenak» HE34,31
«Txoarre bildurkorren eran mugitzen ditu bere niniak; eta betetsi ezin nik» HE34,65
«Poz ar-emanak ezin lezake maitetasuna galetsi» HE18,75
«Irakurleak obeki uler dezan zillegi etsitu dugu aldakuntza narro hau» HE28,90
«abegi au eder eretxirik, erregea poztu zan» HE24,134
«gacherechi eutsan Camilori alango billauquerija ta oquer eguin biarrac» HE20,217
«gutiagoets neçaque» HE03,100
«zeren, bada, hon deritzat hon ezteriztanari? A que, pues, amar al que no me ama?» HE01,114
«emendic aurrera nayçaytyt onerici, eta seruiçatu arrazio den beçala» EJ57,89

Lehen osagaia oro har izena edo izenondoa da; salbuespena Orixeren *galetsi* dugu, *galerazi*-ren esanahia duela dirudiena.

Etsi bigarren osagai duten aditzotan ere osagaien hurrenkera aldakaitza, azentu bakarra... aurkituko ditugu. Bi osagaien arteko erlazio sintaktikoari behatuz, ordea, jatorriz lehen osagaia aditzaren predikatu osagarri zela ohartzen gara; hots, *etsi*-k garai batetan gaur ez bezalako esanahia zuen, '-tzat hartu, kontsideratu' edo antzekoa; gaur oraindik ere bizkaieraz, zenbait lekutan behintzat, *eritzi*-k gordetzen duena, adibideen artean ikusi ahal izan dugunez (ik. 'luze eritzita nengoen' etab.). Alde honetatik, Marchand-en (1960: 14-15)[7] iritziz ez dute egitura elkartua izateko ezinbesteko den baldintza betetzen: sintaxian ez bezalako egitura osatzearena, alegia. Jatorriz gaurko *luze joan, luze egin*...-en pareko egiturak ziratekeen, denboraren poderioz elkartu direnak. Beste maila batean, baina *Hitz-andana Ihartuen* antzekoak beraz.

Bada azkenik adibidetegian adibide berezi samar bat *on aipatu*, testuingurua ikusirik bi osagaien artean predikatu sintagma-aditz erlazioa dagoelakoan (bigarren osagaitzat *etsi/eritzi* daramaten elkarteetako erlazio sintaktiko bera, alegia), hemen sartu duguna:

«Oi danez, jana on aipatu du» HE18,80

I.1.1.3. Leku-denborazko mugatzailedunak

Hirugarrenik, hasierako sailkapenean 'Leku-denborazko mugatzailedunak' deitu zitzaienak ditugu:

aurreikusi HE39, azpimarkatu HE33, gainbiurritu HE18, gainxuritu EJ03, goraipatu HE33, EC16, goraltxatu EC16...

---

[6] *Oniritzi* izen bezala ere agertzen da testuetan:
«celango onirichi ta asco-guria artuten ezteutsa bere ugazabari?» HE20,92
«beguiratu cion Jaungoicoac oniritziz Abeli» HE12,4

[7] MARCHAND Hans 1960: *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*, Wiesbaden

«goraltchatu = engrandecer» EC16,114
«gizonki ta kementsu jokatu bait ziren goraipatuak izatea merezi dute» HE33,85
«izorratzea ere beraz aurreikusirik dagoela gure kodioan?» HE39,50
«esia gainbiurrituz utsartez-utsarte» HE18,67
«gainxuritzen jakin bear dik batek; maltzurkeriaz jokatzen» EJ03,59

Adibide gutxi dira, mende honetakoak, eta badirudi lehen osagaia aditzlaguntzat har daitekeela: 'aurrez/aurretik ikusi', 'azpian markatu', 'gainetik bihurritu/xuritu'. Ez dirudi, beraz, azken urteetan zenbait erdal aurrizki hauen bidez ordezkatzeko hedatzen ari den joerak tradizio handiegirik duenik. *Azpimarkatu*, bestalde, bi eratara uler daiteke: *azpi* + *markatu* ('azpian markatu') aditz elkartu bezala, edota *azpimarka* +-*tu* aditz eratorri gisa; bigarren kasu honetan, oinarria menpetasunezko izen elkartua genuke, 'leku-denborazko mugatzailea' duena. *Gora* aditzlaguna mugatzaile duten *goraipatu*, *goraltxatu* eta aurreko saileko den *goretsi* aipa daitezke azkenik, emankorregi ez dirudien egitura-motaren adierazle direnak. Dena den, Marchand-en erizpideari jarraituz, hemen ere sintaxi-egitura ihartu bat besterik ez genuke izango, *-ra* kasu-markaz osatutako aditzlaguna eta aditza biltzen dituena.

I.1.2. Emankortasuna

Autore batek baino gehiagok aipatu du inguruko hizkuntzetan aditz-elkarteen urritasuna; hau da, frantsesez, espainieraz, ingelesez, alemanez... aditz-elkartuen kopurua benetan txikia da izen edo izenondo-elkartuekin alderatuz gero. Areago, zenbaitek aztergai zuen hizkuntzan aditz-elkarturik ez dagoela ere esan du[8]. Horrenbestez, ez da harritzekoa euskaraz ere 'izena + aditza' moduko elkarte gehiegirik ez aurkitzea. Beste edozein izen-elkarturekin alderatuz, —dvandvak, atributiboak, edo menpetasunezko izen-elkartuetako edozein azpisailekin—, benetan adibide gutxi azaldu zaizkigu corpusean. Baina, esan bezala, ez litzateke euskararen berezitasuna, hizkuntza desberdinei ere badagokielako, ikuspegi teoriko batetik aztertu beharreko murriztasuna baizik.

Etsi/eritzi bigarren osagaitzat duten aditzen emankortasunari dagokionez, egitura ihartutzat jo ditzakegu. Alde batetik, mende honen hasierako zenbaitzu (eta beranduagoko bakanen bat, gaurko *zenbatespen* ere hor legoke) alde batera utzita, aspaldidanik ez dugu aditz berririk sortu. Bestalde, gaur egun etsi, aditz hauetan duen

---

[8] Ikus, esaterako, Marchand-ek (1960: 59) dioena, gaur egun ingelesez ez dagoela egiazko aditz-elkarterik. Edo Giurescu-ren (1975:92) hitzak, «les verbes composés, beaucoup moins nombreux que les noms et les adjectifs composés, apparaissent surtout dans le registre familier» (Giurescu Anca 1975: *Les mots composés dans les langues romanes*, Mouton), aditz elkartuak, izen eta izenondo elkartuak baino askoz urriago izateaz gain, bereziki lagunarteko erregistrokoak direla, alegia. Oso antzeko baieztapenak egin dituzte Bauer L. 1983: *English Word-formation*, Cambridge University Press edo Henzen-ek (1947: *Deutsche Wortbildung*, Tübingen) ere.

balioan, bera bakarrik erabiltzen ez badugu, hitz elkartua osagai beregainez eraikitzen denez, sor al ditzakegu era honetako egitura *elkartuak*? Ezetz dirudi.

Leku-denborazko mugatzailea duten aditz-elkarteak ere urriak direla erakutsi digu adibidetegiak, dozenerdi adibidetik gora aurkitzea nekeza da eta. Leku-denborazko mugatzaileekin elkartzen den mugakizuna izena izan ohi da (ik. *Hitz-Elkarketa* II); bestelakoak, *gain, goi, aurre...* + *aditza* erakoak nahikoa bakanak, areago gehienak mende honetakoak, dira gure literatur tradizioan.

I.1.3. Berrelkarketa edo garapena

Adibidetegian ez zaigu berrelkarketa kasurik azaldu. Garapenaren eremuan, bestalde, edozein aditzi dagozkion eratorriak izango genituzke, hau da, egilea edota ekintza adierazten dutenak: *gainxuritze*, *miresle*, *hautespen*, *antzaldatzaile*... modukoak.

I.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Adibideetan zehar ikusi ahal izan dugunez nolabaiteko aldaketa izan zezaketen mugatzaileak hartuz, honakoa aurkitzen da:

— gehienetan gertatzen den hots-aldaketa bokal-kontrakzioa da, batez ere *etsi* mugakizun duten elkarteetan: **a** + **e** → **e** eta **e** + **e** → **e**; **a** + **a** → **a** ere ikus dezakegu:

asketsi, betetsi, goretsi, gupidetsi, hautetsi, itxuraldatu, luzetsi, miretsi.

— beste batzutan, ordea, kontrakzioa egin zitekeenean, forma osoak gordetzen dira:

aurreikusi, errialdatu, escu-etendu, ezku-izkribatua,.

— mugatzailea bi silabako izanik eta **u** bokalaz amaiturik, **-u** → **Ø** (buru, larru → bur-, lar-):

bur-txoratzearen HE58, larririquitzen HE08

lehena ekialdeko autore batena, (oro har Mitxelenak dioenez aldaketa hau ekialdean egiten da), mendebaldeko XIX. mendekoarena bestea.

— mugatzaileak bi silabatik gora izanik azken bokala erori eta ondorioz **-r** → **-l** aldaketa gertatu da *errialdatu* EJ06 elkartean.

— **gizon** → **giza-** aldaketa ezaguna (azken sudurkaria erori eta bi silabako mugatzailea denez **-o** → **-a**) ageri da *gizazi* HE17 aditz-elkartuan.

— inolako aldaketarik gabe ditugu, aldiz, *handietsi* HE38, EC16 eta *zillegi etsi* HE28. Lehen adibidean mugatzailea bi silabako izanik, **-i** → **Ø** gerta zitekeen eta ondoren **-d** → **-t**, *hantetsi*. Bigarrenean ere bi silabatik gorako lehen osagaiak gal zezakeen azken bokala eta ondoren herskaria neutralizatu, *zilletetsi* emanaz. Ez da, ordea,

halakorik gertatu. Bietan *etsi* delarik mugakizuna, pentsa daiteke agian horrelako elkarteetan bokal kontrakzioak beste aldaketarik ez dela gertatzen; baina hipotesi hau baieztatzeko nahikoa datu ez dugu. Konstatazio soil gisa gera bedi, beraz.

I.1.5. Idazkera

Idazkerari dagokionez, aditz-elkarte hauetan zenbait kasu bereiz daitezke elkarte--motaren arauera:

— 'Izena + aditza' modukoetan bi osagaiak elkarturik edo marratxoaz loturik agertzen zaizkigu; bi osagaiak banandurik, ostera, adibide batean besterik ez:

antzaldatze, biotz-aldatuac, bur-txoratzearen, errialdatu, escu-etendu, gatzoztu, gurutziltzatu, itxuraldatu, larririquitzen, lokartze, maitemindutzea, odol-usten HE18, EJ78, odolustu HE39, EJ50, hotzildu.

eta banandurik: *loac artu.*

— 'A/x + etsi/eritzi ' elkarteetan bi osagaiak elkarturik agertzen dira ia beti *etsi* denean mugakizuna, inoiz behin marra (*eder-ets* HE02...) edo bi osagaiak banandurik azaldu arren: *zilegi etsi*, *gaitz etsi* ED46, 209, *andi esten* HE38,161. *Eritzi* bigarren osagai denean, ordea, errazago aurkitzen dira bi osagaiak banandurik: *eder eretxirik* HE24

— 'leku-denborazko mugatzailedunetan' ere bi osagaiak bata besteari loturik doaz aurkitu ditugun adibide urrietan.

I.2. ADITZ ESAPIDEAK

Ondoren, arrazoi batengatik edo bestearengatik aditz elkartutzat, konposatutzat hartu ez ditugun egiturak aztertuko ditugu.

I.2.1. Izena + *egin/eman/hartu...*

I.2.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Aditz esapideetan bereizi dugun lehen sail honetako osagaiak honakoak dira: izena eta oro har *egin*, *eman*, *hartu* aditzak eta agian besteren bat (*jo*...). Dena den, aditz jokatu forman azaldu zaizkigun adibideak bakarrik hartu ditugu kontutan; izan ere, *-t(z)e, -t(z)en*... forman azaltzeak ez du besterik gabe esan nahi aditz baten nominalizazioaren aurrean gaudenik: *harri jasotze*, **harri jaso*-ren nominalizazio dela uste duena oker dago (ikus 'Elkarte sintetikoak'). Horrela

«meza da sacrificio eguitea Christo gure iaunas, eta adicera ematebat» EJ57,7

ez dugu *sakrifizio egin* aditz esapidearen adibidetzat hartuko.

egin:

lo egin, hitzegin, amor egin, alde egin, otoitz egin, negar egin, eztanda egin, bekatu egin, farre egin, agur egin, salto egin, oihu egin, zin egin, huts egin, burla egin, proba egin, bultza egin, entzungor egin, zurrut egin, bide egin, gogoeta egin, juramentu egin, dei egin, topo egin, poto egin, gogait egin, ihes egin, txistu egin, zintz egin, tink egin, tupust egin, txirrist egin (ohar gaitezen lehen osagaia onomatopeia ere izan daitekeela), leku egin, on egin (ikus 'A + *etsi/eritzi*' sailean sartu dugun *on aipatu*), orazio egin, orru egin, so egin, tiro egin, promes egin, galdegin, porrot egin, lan egin, fin gaitz egin, dei eztitsu egin, ez ikhusi iduri egin[9]...

eman:

amor(e) eman, animu eman, antzeman, aurpegi eman, amorru eman, buru eman, gibel eman, hauteman, hitz eman, kontu eman, musu eman, laztan eman, leku eman, beldur eman, kontentu eman, lur eman, ohore eta errespetu eman, poz eman, su eman, buruko min eman, fabore eman, gogo eman, ats eman, kontseilu eman, kunplimentu eman, parte eman, begi-eman...

hartu:

min hartu, eskuhartu, etsenplu hartu, atsegin hartu, kargu hartu, onartu, su hartu, parte hartu, plazer hartu, gogo hartu, fin hartu, gorroto artu, hats hartu, kontu artu, lur-hartu, neurri artu, poz artu...

eduki:

esku eduki, intencio eduki, contu eduqui, on eduki

eragin[10]**:**

amets eragin, atseden eragin, dardar eragin, gogait eragin, ihes eragin, leher eragin, negar eragin, barre eragin, juramentu eragin, zin eragin...

«nik neuk eztizut orregatik akar egiten» HE38,165
«bando egin zuten guri etxeetan lo tokiak atontzeko» HE23,46
«buruko min eman zerauen» HE58,75
«Jainkoak esku eduki nahi draukula» HE02,63
«bizi izateak poz emango du gure mundu zabalean» EJ69,66
«latinak ere on eduki zuen» HE04,58
«guardiari tiro egiteko gogo eman zidan» HE23,107
«ezin begi-emango diotet atzez-aurreka baizik» HE17,21
«danai kontu artu ezinik» HE23,98
«figura guziek fin hartu ukhan dutela» HE02,24
«gorroto artzen die aita ta amari» HE25,33
«atheak ere maiz, ez ikhusi iduri eginik hertsten zaiztela» HEAX,45

Adibide guztietan lehen osagaia izena dela esan daiteke (salbuespena *on* lehen osagai duten *on egin, onartu, on eduki*...ditugu), aditzaren osagarri zuzena jasotzen

---

[9] Osagaiak kategoria berekoak izanarren, hots 'izena + *egin*', hor dugu *ahalegin* izen balioa duena, eta, horrenbestez, salbuespentzat har dèzakeguna.

[10] *Egin*-en erazlea delako sartu dugu hemen, baina *erazi*-ren ondoan ere izan dezake leku, hots, aditz erazleen artean.

duena hain zuzen (*egin* aditzarekin onomatopeiak ere agertzen dira lehen osagai gisa). Inoiz behin, izen soilaren ordez izen multzoa, izena eta izenondoa ere aurki daiteke: *fin gaitz egin, dei eztitsu egin:*

«bizikidetasunera ta alkartasunera dei eztitsu eginaz» HE28,82
«heriotzeak atrapaturik, fin gaitz eginen duzu» HEAX,105

Ohar gaitezen, dena den, lehen adibidean ez dugula aditz jokaturik, partizipioa baizik; hau da, azken batean ez dugula *dei eztitsu egin zuen* bezalako aditz forma baten lekukotasunik.

Zein arrazoi dugu, ordea, goiko egiturok *aditz elkartu* ez, baizik *Aditz Esapide* edo direla esateko? Argumentu bakarra ematekotan, izenak sintaxiko beste edozein osagarri zuzenek bezala jokatzen duela esan dezakegu, berezitasun bakartzat bere mugagabetasuna duelarik:

1. Izenak partitibo marka har dezake: edozein euskaldunek esan dezake lasai asko «ez du lanik egin», «ez du negarrik egin», «ez du minik hartu», «ez diote minik eman», «ez diote konturik hartu»... Marchanden ustez hitz elkartuaren funtsezko ezaugarri dena, beraz, ez da betetzen. Honek ez du esan nahi, noski, partitibo marka beti eransten dugunik; areago, zenbaitetan izena eta aditza esapide estu bihurtu direnetan, ezingo dugu partitiborik erabili. Ezin dugu esan, adibidez, «ez du alderik egin» edo «lurrik hartu al du?», izan ere, esapide edo lokuzioaren ezaugarri nabarmenenetako bat osagaiak beren askatasuna galdu eta bata bestearekin urtzea bait da[11]. Hona gure corpusetik hartutako zenbait adibide, ezezko perpausetan esapideko izenak duen jokabide bikoitza —batzutan partitibo marka hartuaz, bestetan inolako markarik gabe azalduaz— erakusten dutenak:

«aitzitik amorik eman gabe» HE04,59
«premina andi baga, bearric eguin, edo eguin-erazo badozu» EC61,130
«gaurko nornahik ez dezake entzungor egin» HE27,302
«barre egitea osagarria da. Barrerik egiten eztauana galdua dok» HE44,5
«gogait eguingo ezpacendu» HE20,139
«zirka hori ez du huts egin behar Martik» HE32,40[12]
«orhoit hadi heure lan guztietan eta huts eginen eztuk biziko egunetan» EJ80,151
«munduaz eta mundukoez etsitzen du, eztu hetzaz konturik egiten» HEAX,61

---

[11] Ikus puntu honetaz eta, oro har, 'izena + *egin/eman/hartu* ' egiturako aditzez Mitxelena L. "Notas sobre compuestos verbales vascos" in *Palabras y Textos* , Euskal Herriko Unibertsitatea Argitarapen Zerbitzua, 1987, 311-335 or. Ikus, era berean, Sarasola I. "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes" in *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* XI, 1977, 51-90 or.

[12] *Huts egin*-ek bi adiera ditu: bata, hemengoa, *trena huts egin* eta antzekoetan agertzen dena, beste IS absolutu bat onartzen duena, eta, horrenbestez aditz esapide hauen artean oso berezia dena. Bestea, hurrengo adibidekoa, non *huts*-ek IS absolutuaren lekua hartzen duen.

2. Izena galdegai/mintzagai gisa lekuz alda daiteke:

«eguin det becatu» HE07,303
«diz diz alaxen egiten dezu nola izarrak zeruan» HE61,67
«eguizu farre gaizqui mintzacenbadut» EJ00,192
«Hartzak ematen dit beldur, erantzun zion nagusiak» EJ53,97
«ceruiçaceco conueniden gucia, eta emandrazon fauore obratan eçarceco» EJ57,56
«geroak erranen du nork eginen duen amor» HE59,115
«lanak ukan baitituzte katedralerat sartzeko bide ezin egin araziz» HE14,159
«aradenagatic, aurrera indaçu fauore, eta gracia emendanadin» EJ57,89
«egizu kontu egizu gogoeta, ea zenbat urthe duen bekhatutan zaudela« HEAX,87
«ezcon-gurari lecu gueyegui emanic» HE07,320
«beste barik, egizu otoitz nire alde» EJ05,178
«orra, maite politak klaro eman parte» HE61,30

Guztietan, galdegaia perpauseko beste atalen bat delako, esapideko izena aditzaren atzean azaltzen da, edota izenaren eta aditzaren artean beste elementuren bat tartekatzen da, hitz elkartuetako osagaien hurrenkera aldakaitza erabat hautsiaz. Hitz batetan, izenak, perpauseko osagarri zuzen gisa jokatzen du. Areago, aditz esapide hauetako izena, bera bakarrik azaldu ordez, zenbatzaileekin ere ager dakiguke IS osatuaz. Baina IS absolutu konplexuagoa osatu arren, ez da esanahia aldatzen:

«orrenbeste erronka jo gabe, esan ezakean» HE57,146

Bi arrazoi hauek direla eta, zuzenago dirudi 'Izena + *egin/eman/hartu*' egiturak aditz elkartutzat ez hartzea. Jatorriz sintaxi-egiturak direla esan daiteke, erabileraren poderioz ihartzera jotzen dutenak, aditz esapide bihurtuaz.

Esan dezagun, azkenik, literaturan zehar aurki ditzakegula beste aditz bakan batzu ezkerretara osagarri zuzenaren funtzioa beteko lukeen izen mugagabea daramatenak, baina sail luzeago baten adierazle ez diruditenak:

«Baimen eskatu genun Arenas'etara joateko» HE23,28
«azquen adio esan» EI31,271
«barkhamendu eskatzen zaie» HEAX61
«gero frantsesak eremu galdu bazuen ere» HE30,209
«gaitz sofrituz "soportando el mal"» HE01,122
«ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran» HEAX,17
«neure guraso leguez, contu escatuco deust, niri eustan maitetasun, ta asco-gurearena» EC61,42
«eta desseorequi atraceco prouechu alas eta ascota joatengaradenean» EJ57,45
«Herreros'en arkitu diat arotz ikasteko lantegia» HE50,75

Eta *jo* aditzarekin sail luzexeagoa: *txistu jo, lur jo, erreka jo, txalo jo, erronka jo...*

«oroi gaitezen, eta txalo jo dezaun!» EJ51,90
«laster lur jo biar du jauregi orrek» HE54,151

Ez da nahasi behar, bestalde, 'izena + *egin*' esapidea, 'aditza + *egin*' egiturarekin:

«identifikatu den neurrian, hil egin behar dugu» EI94,49
«alaba, gure beste laguna eta nik, sukaldetik apurtxo bat irten egin bear izan genduan» EJ49,85
«eta irakurtzeko, papiro-zerrendari tiratu egin bear izaten zitzaion» EC07,93

Bigarren egitura hau, mendebaldean aditza galdegai dela azpimarratzeko bidea besterik ez bait da eta, horrenbestez, mintzagai/galdegai egiturari dagokiona, ez lexikoari[13].

I.2.1.2. Aditz esapide hauen emankortasuna

Adibideen zerrendan ikusi ahal denez, 'izena + *egin*' da emankortasunik handieneko egitura, ehunetik gora adibiderekin. Ondoren, *eman* aditzarekin osatuak ditugu, eta, azkenik 'izena + *hartu*' motakoak. *Eduki*-rekin, aldiz, hiruzpalau besterik ez zaizkigu azaldu.

I.2.1.3. Berrelkarketa edo garapena

Egin edo *eman* aditzaren ezkerreko izena (beste aditzekin ez zaigu adibiderik azaldu) izan daiteke aldi berean izen elkartua: hots-uztardura (*guilli guilli, diz diz*), koordinaziozko elkartea (*irribarre*), edota sail bereko bi esapide elkar daitezke, errepikatzen den aditza eskubian gorde eta izen desberdinak juntagailu bidez elkartuz (*ohore eta errespetu eman...*).

bizi ta su eman HE28, diz diz egin HE61, ernegu eta iuramentu egin HEAX, guilli guilli eguin HE20, irripar egin HE35, ler, edo estanda egin HE20, mehe eta barur egin EJ04, negar eta negar egin HE39[14], ohore eta errespetu eman EJ80,147

«ametsetan irripar egiten du» HE35,44
«latza dago, guilli guilli eguiten deust» HE20,117
«xahal tipiari bi eskuekin lepotik oraturik negar eta negar egin zuen» HE39,35
«izarrak diz diz egiten dute zeruko urdin puruan» HE61,67
«bizi ta su eman oi zion "Marsellesa"ri» HE28,78

Lehen begiratu batean, Berrelkarketan sartuko genituzke ondokoak ere:

apur-apur egin, garbi-garbi egin, trimin-trimin egin, epel-epel egin, neka-neka egin, zati-zati egin, oker-oker egin, triska-triska egin, bero-bero egin, zapal-zapal egin...

«guztia itxiko ebala apur-apur eginda» HE21,24
«mutilla bero-bero eginda amarengana joan zan» HE57,124
«an zerbait galdetzera joanta-edo, an zagoen ederki-ederki jarria, epel-epel egina» EJ79,61

---

[13] Ikus EUSKALTZAINDIA 1987: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I. Eraskina*, Bilbo, 21-46 or.

[14] Balio indargarria duena.

«garbi garbi eguinic guaz mai batera» HE20,145
«egunsentian neka-neka eginda, Aramaio'n agertu ginan» EJ49,112
«an etorri zitzaigun pintxea, ardia bizkarrean zuala, oker-oker eginda» HE29,127
«gabico oneec daruez trimin trimin eguitera» HE20,138
«trisca trisca eguinda, nosian bein escu ta belaunagaz samurtuten dabee igortzijac emonaz» HE20,139
«zapal-zapal eginda itxirik etxeko seme batzuk» HE21,36
«idazki ori zati-zati eginda... botaizue» HE21,44

Adibideok astiroago aztertuz, ordea, zenbait desberdintasunez ohartzen gara:

1. Lehen osagai den bikoiztapenak ez du osagarri zuzenaren funtzioa, predikatu sintagma edo antzeko zerbaitena baizik.
2. Areago egitura osoa, 'bikoiztapena + *egin*' da IS absolutu baten predikatu sintagma.
3. Goikoaren ondorio dena, egitura hauek ez zaizkigu inoiz aditz jokatu forman azaltzen, *egin* partizipioa eta aditzondo-atzizkiren bat (*-ik*, *-ta*...) da bigarren osagaia.

Azkenik, aditz esapide hauen egilea edo ekintza bera adierazten duten eratorriak ditugu Garapenaren atalean:

aldegite, bekatu egite, bekatu eragile, otoitz egite, otoitz egile, min hartze, min emate, irri egile, kontu hartze, lan egite...

etab. luzea.

I.2.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Esapide hauetako izenak duen askatasunaz esanak kontutan izanik, ez gaitu harritu behar izenaren eta aditzaren artean hots-aldaketarik ez aurkitzeak. *Hauteman* edo *gogartu* bezalako bokal kontrakzioren bat kenduz gero, bi osagaiek jatorrizko itxura gordetzen dute.

I.2.1.5. Idazkera

Idazkerari dagokionez ere, bi osagaiak banandurik idazteko joera gailentzen da, inoiz behin marraz loturik azaldu arren:

antz-eman HE17, begi-eman HE17, galde-egin, gibel-eman HE17, hitz-eman HE60, igues-eguin HE45, HE13, klisk-egin EJ50, lecu-eman HE45, lur-artu HE30, oju-egin, otoi-egin EJ63, zin-egin EJ50.

Bi osagaiak elkarturik ditugu, azkenik:

(h)atzeman, antzeman, bategin, bidęgin, galdegin, gogartu EJ05..., hitzartu HE17, HE59, hitzeman, hotseman, hutsegin, jaunartu, minhartu, on(h)artu, otsegin, soegin HE58, zinegin HE34.

Hauen ondoan, ordea, ia beti (*hauteman*, *(h)atzeman* eta agian besteren bat kenduz gero) agertzen da esapide bera bi osagaiak banandurik:

so egin, itz eman, galde egin, bide egin, gogo hartu, iges egin, zin egin...

I.2.2. Aditzoina + *erazi*

I.2.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Aditzoinak (zenbait kasutan, bereziki mendebaldeko testuetan, partizipioa izan arren lehen osagaia, gogoan izan behar dugu aditzoina dela lehen osagaiaren forma jatorra) eta *arazi/erazi*-k osatutako egiturak ditugu.

Adibideak:

abiarazi, adierazi, asaldarazi, bilaka arazi, bazka erazi, damu erazi, ezagutarazi, entzun erazi, esanarazi, ezar arazi, egin erazi, ekarrarazi, galerazi, ganbiarazi, hel arazi, iraunerazi, hilerazi, isilarazi, irudi arazi, inprimierazi, ikusarazi, ihes egin erazi, jaso--erazi, lotsarazi, nekarazi, oroitarazi, mugierazi, nekarazi, sortarazi, sorrarazi, sumin erazi, ukierazi, utz erazi, xahuarazi, zorarazi, zutiarazi, ireki arazi, irakin arazi, ipin arazi...

Arazi/erazi-ren ordez *eragin* eta *erazo* ere aurki ditzakegu bereziki bizkaieraz:

atera eraguin EJ07, bearric eguin-erazo EC61, boterazo HE45, damuerazo HE20, emon eragin HE20, ernegarazo EC61, eser-erazo HE45, ezconerazo HE45, galerazo HE20, HE21, HE45, gomuterazo EC61, igarri eragin EJ59, il eragin HE21, illerazo HE07, HE45, iraunerazo EC61, jausi-eraso EC61, juramentu eguin eraguin EC61, kendu--erazo HE31, zoraerazo HE20.

Añibarro, Mogel, Lardizabal, Kirikiño, Agirre Asteasukoa... dira *erazo* edo *eragin* formak darabiltzatenak. *Eragin* bera, bestalde, *egin*-en erazlea denez, aurreko puntuan aipatu ditugun 'izena + *eragin*' saileko esapideek (*iges-eragin*, *juramentu eragin*, *negar eragin*...) ere balio faktitiboa dute. Hauen ondoan, dena den, *nigar eginarazi* HE51, *galde eginarazi* EJ68, *par eginarazi* HE18... aurki ditzakegu, zenbait euskalkitan *egin - eragin* bikotearen ordez *egin - eginarazi* erabiltzen bait dute.

Eman berri ditugun egiturok aditz elkartutzat ez hartzeko zein oztopo dugu? Hasteko, *arazi* ez da osagai beregaina; bera bakarrik ez dugu inoiz erabiliko; bere eginkizuna, aurrean daraman aditzoinari [+erazle] tasuna erastea besterik ez da[15]. Euskaraz, aditz erazle, faktitibo edo kausatiboen kategoria markatzeko elementu lexiko batez baliatzen gara beste hainbat hizkuntzatan bezala. Hein batetan, Postposizioen pareko genuke: zeregin gramatikalerako baliatzen dugun elementu lexikoa.

---

[15] Ikus aditz erazleez Euskaltzaindia 1987: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. II, Bilbo, 60-64 or.

Euskal gramatikalariek ere ez dute aditz elkarketan sartu: Azkuek[16] (1923-25:§252) 'auxiliar' deitzen dio. Lafitterentzat[17] (1944:§445) 'suffixe' da. Rebuschirentzat[18] (1984:391 e.h.) euskaraz 'kausatiboa' adierazteko marka besterik ez da. Aita Villasantek[19] (1974) ere «Composición Impropiamente Dicha» sailean sartu zituen *esan arazi* bezalakoak.

Azkenik, edozein aditzoinek onartzen duen elementua izateak berak ere, besterik gabe, pentsaraziko liguke ez gaudela aditz-elkarketaren aurrean, hitz-elkarketaren berezitasunetako bat, nolabait esatearren, elkarketa bakoitzaren bakartasuna izanik.

I.2.2.2. Emankortasuna

Emankortasunaren aldetik, *arazi/erazi* edozein aditzoinek har dezakeenez, horrelako aditz formen kopurua ia mugagabea dela esan daiteke; aditz berri bat sortzen edo mailegatzen dugun bakoitzean izango bait du ondoan bere forma erazlea.

I.2.2.3. Berrelkarketa edo garapena

Berrelkarketari dagokionez, bi eratako egiturak aipa ditzakegu:

1. *Erazi/arazi* aditz esapideari elkartzen zaionekoak:

   nigar eginarazi, galde eginarazi, juramentu eguin eraguin, irripar eginarazi, par eginarazi...

   «zuc guzurraz juramentu eguinaz, edo eguin eraguinaz» EC61,129 (*juramentu eragin-* en ordain bitxi samarra)

2. Aditzoina bera elkartua, edo hitz elkartu batetik eratorria denean: *euskal kontzientziaratzea* EI94

   «euskal arazoen giro hortan sortu zen belaun berriaren euskal kontzientziaratzea» EI94,70

   Alde honetatik, adibidetegian ondoko forma erazlerik agertu ez bada ere, *gurutziltzarazi*, *antzaldarazi*, *onets arazi* etab. erabat zilegi genituzke. Hau da, lehen puntuan aztertu diren 'izena + aditza' eta 'izenondoa + *etsi/eritzi*' egiturako edozein aditzen forma erazlea sor daiteke *arazi/erazi* erantsiz.

Eta garapenean, aurrekoetan esan bezala, 'x-*erazle*' edo 'x-*erazte*', hots, egilea edo ekintza adierazten duten formak.

---

[16] Azkue R.M. 1923-25: *Morfología Vasca* (1969 Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)
[17] Lafitte P. 1944: *Grammaire Basque* (1979 Donostia, Elkar)
[18] Rebuschi G. 1984: *L'estructure de l'énoncé en basque* , Paris, Selaf
[19] Villasante L. 1974: *Palabras compuestas y derivadas*, Oñate, ed. franciscana Aránzazu

I.2.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Bi eratako aldaketak somatzen dira gure adibideetan:

1. *Arazi*-ren kontrakzioa da bigarren osagai gisa agertzen dena: *azi*, hizkuntza mintzatuaren erregistroari dagokiona, euskalki mailakoa (gipuzkerazko testuetan azaltzen dena batipat), eta idazteko gomendagarri ez dena:

   baimenazi HE64, eramanazi EJ64, errendiazi HE33, galazi HE57, gogorazi HE33, irtenazi HE23, itzegin-azi HE55, jakinazi HE50, xamurtu-azi HE28, zoritu-azi HE28

   Desberdina da aditzoinaren bukaeran *-ra* dugunean gertatzen den laburpena: **-ra + arazi → -razi**

   atzerazi HE27, aurrerazi HE27, dardarazi HE27

2. Aditzoinaren bukaeran gertatzen diren hots-aldaketa bakanak:

   amilderazi EC48, ernegarazo EC61, ezagutarazi, ezkontarazi HE57, gomuterazo EC61, idekarazi HE14, ikustarazi HE27, EI94, jarraikarazi HE59, mugidarazi HE04, oroitarazi HE33, HE27, EJ68, sortarazi HE27, ugaltarazi HE17, utzirazi HE13

   Bokal kontrakzioak (*gomuterazo, ernegarazo, jarraikarazi, idekarazi*) eta erabat irregularra den *utzirazi* (cf. *utz erazi, utzarazi*) alde batera utzirik, **t** herskaria da eztabaida handienak sor ditzakeena. Epentesi kontsonante da ala aditzoinaren atal? *Ugaltarazi* eta *ikustarazi*-ren kasuan, behintzat, garbi dago epentesi kontsonantea dela, *ugari*-tik eratorritako aditza dugulako batean (ezin da pentsatu *ugald → ugalt-* azken posizioan geratu den herskaria ahoskabetu duen aldaketari zor zaionik **t** hori), eta *ikusi* partizipioaren aditzoina, ezinbestean *ikus-* delako, bestean (hemen herskaria ezin da inola ere aditzoinaren atal izan). Beste horrenbeste esan daiteke *ezkontarazi* formaz ere: *ezkon* hartzen dugu aditzointzat, ez *ezkond- → ezkont-*. Zalantzazkoagoak dira *sortarazi* (nahiz *sor arazi, sorrarazi...* ondoan izan), *oroitarazi* eta *ezagutarazi*; batez ere azken honetan *ezagut* erabiltzen bait dute aditzoin gisa zenbait euskalkitan. Ohar gaitezen, azkenik, lotura kontsonante denean, herskari ahoskabea, **t**, agertzen zaigula, bai kontsonante ozenen (**l** edo **n**) ondotik ere *ugaltarazi* eta *ezkontarazi* formetan; baina hor dugu *amilderazi* ere, herskari ahostuna daramala lotura kontsonantetzat. *Mugidarazi*, aldiz, erabat forma bakana da, askoz normalagoa den *mugiarazi/mugierazi*-ren ondoan; izan ere hor ez dago aditzoinean **d** herskari ahostuna eskatuko lukeen kontsonante ozenik.

Oro har, ordea, aditzoina eta *arazi/erazi*-ren artean ez da hots aldaketarik gertatzen.

I.2.2.5. Idazkera

Idazkerari dagokionez, nahaste handia ageri da adibidetegian. Badirudi aditzoina eta elementu erazlea elkarturik idazteko joera gailentzen dela:

harrierazi, aserretuarazi, hautemanarazi, hedarazi, helarazi, illerazi, illarazi, hitzemanarazi, iganarazi, igonerazi, ikustarazi, inprimierazi, irakinarazi, iraunerazi, idekarazi, irtenazi, ixillarazi, issurarasi, itzalerazi, iziarazi, jakinarazi, ipinerazi, jakinerazi, jarriarazi, jarraikarazi, jauzarazi, joarazi, jostarazi, kenarazi, kenduerazi, kordokarazi, kurrierazi, leherrerazi, lerrarazi, liluratuarazi, limurrarazi, lotsarazi, maitarazi, minarazi, minçaraci, mugiarazi, mugidarazi, mugierazi, murgilduarazi, nekarazi, obediarazi, oroitarazi, oroiterazi, sarrarazi, sartuarazi, sarrerazi, sentiarazi, sinestarazi, sorrarazi, sortarazi, sortuarazi, sorterazi, ugaltarazi, ukierazi, urmariarazi, utzirazi, utzarazi, zartarazi, xutiarazi, zorarazi, abiarazi, adierazi, agerrarazi, aiderazi, alharazi, amilderazi, asaldarazi, galaraci, aurrerazi, baimenazi, bazterrarazi, belaunikarazi, bilakarazi, biziarazi, dardarazi, eranazi, eguinarazi, egosarazi, ekarrerazi, emanarazi, entzunarazi, eramanazi, errendiazi, erranarazi, esanarazi, esnarazi, itsiarazi, ezagutarazi, ezaguterazi, ekontarazi, galduerazi, galerazi, galazi, ganbiarazi, gelerazi...

adierazo, boterazo, damuerazo, ernegarazo, ezconerazo, galerazo, gogoerazo, gomuterazo, illerazo, iraunerazo, zoraerazo, farreragin...

Gutxiagotan azaltzen da marra:

agur-egin, ager-arazi, auldu-arazi, aintzin-arazi, argitara-arazi, aurreratu-arazi, atera--erazi, berma-razi, eran-azi, egon-arazi, ekarri-arazi, eman-erazi, erran-arazi, eçar--araci, gal-erazi, geldi-arazi, gelditu-erazi, hel-arazi, ill-erazi, itzegin-azi, huts-arazi, ibil-erazi, ikus-arazi, irakin-arazi, atzar-arazi, iraun-arazi, iraun-erazi, iduri-arazi, itxuri-erazi, yaiki-arazi, jetxi-arazi, jakin-arazi, iar-erazi, jaso-erazi, jo-erazi, joan--arazi, kurri-arazi, luza-razi, oler-zaletu-arazi, pasa-arazi, sar-erazi, sartu-erazi, sort--arazi, sor-erazi, sufri-arazi, utz-erazi, zabal-erazi, zati-arazi, zoritu-azi...

eser-erazo, jausi-eraso, kendu-erazo, iges-eragin

Eta bi osagaiak banandurik:

aurki araci, bide egin arazi, bazka erazi, ekarri arazi, eman arazi, entzun erazi, etzan erazi, ezkon erazi, gal arazi, garbitu arazi, geratu erazi, gueldi araci, gogoratu erazi, gorritu arazi, asarretu arazi, hil arazi, ikus araci, iben arazi, iragan araci, isuri eraci, itzal erazi, jakin erazi, jo erazi, korriji erazi, kurri erazi, lo arazi, pitz arazi, sar arazi, senti arazi, sinhests arazi, sor arazi, sumin erazi, trabailla arazi, utz erazi, uztar erazi...

amets eragin, atera eraguin, bekatu eragin, dardar eragin, juramentu eguin eraguin, emon eraguin, barre eragin, gogait eragin, il eraguin, igarri eragin, juramentu eraguin, ler eragin, negar eragin, zin eragin...

Erraz aurki daiteke, dena den, aditz forma bera hiru/lau modutara idatzia:

sorrarazi, sort-arazi, sor arazi, sor-erazi, sortarazi, sortuarazi, sorterazi; hil arazi, illerazi, illarazi, ill-erazi / jakin erazi, jakin-arazi, jakinerazi / ikus araci, ikus-arazi, ikustarazi / sar-erazi, sar arazi, sarrarazi, sartuarazi, sarrerazi, sartu-erazi / gelerazi, geldi-arazi, gueldi araci, gelditu-erazi, geldierazi, geratu erazi...

Zaila da, horrenbestez, idazkera bakar bat proposatzea. Datu hauek sakonkiago aztertu ondorengo lana dateke, nahiz 1971.eko *Euskera* aldizkarian ere arreta berezia eskaintzan zaion puntu honi.

Aditz erazlearen formari dagokionez, berriz, *arazi* ala *erazi*, bietatik bakarra bultzatu behar ote den etorkizunean, ala biak libre utzi behar diren, hiztegigileek eta Euskaltzaindiak erabaki beharreko auzia litzateke.

I.2.3. Aditza + *behar / nahi*

I.2.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Osagaien kategoria zein den garbi dago: partizipioa eta *behar*, baina, 'Aditz elkarteak' aztertzen ari garenez, *behar izan* aditz balioan azaltzen zaigun neurrian (partizipioa eta *beharra*, izena, egiturakoak 'Asmo-elkarteak' sailean aztertzen bait dira). Era berean hemen sartuko lirateke 'partizipioa + *nahi /gura izan*' egiturak ere.

Adibideak nahi adina aipa genitzake edozein partizipiori erants diezazkiokegulako *behar* eta *nahi* :

> aldegin behar, aitortu behar, parkatu behar, bete behar, egon behar, eman behar, babestu bear, egin behar, eruan bear, erre bear, errespetatu egin bear, eldu bear...
>
> aldegin nahi, aitortu nahi, parkatu gura, bete nahi, egon nahi, eman nahi, babestu nahi, egin nahi, eruan gura, erre nahi, errespetatu egin nahi, eldu nahi...

Ez dirudi zuzena, ordea, 'partizipioa + *behar/nahi izan*' egiturok aditz elkartutzat hartzeak. Inguruko hizkuntzetan 'perifrasi modal' eta antzeko deiturak eman dizkiete. Lafittek (1944:§647), esaterako, 'Principaux verbes employés dans les locutions' atalean, 'des noms à valeur modale' azpiatalean ematen ditu. Azkuek ere (1923-25:§738) 'Locuciones verbales' sailean aipatzen ditu, lokuzio edo esapide direla eta ez aditz konposatu bereziki azpimarratuaz.

Horretaz gain, partizipioa eta *behar/nahi izan* ez dira nahi eta ez hurrenkera honetan azaltzen, egitura hanpatuetan *orain behar duzu erabaki* bezalakoak esaten bait dira, bereziki ekialdean. Hitz-elkarketan ezinbestekoa den hurrenkera finko, aldakaitzaren baldintza ez da, beraz, betetzen.

Gogora dezagun, azkenik, hitz-elkarketan, kategoria lexikoek (izena, aditza, izenondoa...) hartzen dutela parte; ondorioz, aditzoina izan beharko luke lehen osagaia, ez partizipioa. Baina euskalki guztietan, bai eta aditzoinaren erabilera zuzena gorde duten ekialdekoetan ere, partizipioa da lehen osagaia.

I.2.3.2. Emankortasuna

Edozein partizipiorekin elkar ditzakegu *behar izan* eta *nahi/gura izan*, ekintza horri buruzko 'beharra' edo 'nahia' ñabardurak adierazteko. *Arazi/erazi*-ri buruz esan duguna errepika dezakegu, beraz.

I.2.3.3. Berrelkarketa edo garapena

Egiazko aditz-elkartuak ez diren heinean, zaila da benetako Berrelkarketa edo Garapenaz hitz egitea. Ezer aipatzekotan, partizipioa, hobeki esan, partizipioari dagokion aditzoina bera egitura elkartua deneko kasuak sartuko lirateke hemen:

gurutziltzatu behar, odolustu behar, aitamatu behar, neska zahartu behar...
gurutziltzatu nahi, odolustu gura, aitamatu gura, neska zahartu nahi...

lirateke askoz sail zabalagoaren adibide gutxi batzu.

I.2.3.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera

Ohi bezala, partizipioa bere horretan gordetzen da, inolako aldaketarik gabe. Idatzi ere, partizipioa eta *nahi/behar izan* banandurik idazten dira.

I.2.4. Partizipioa + *gogo/uste (izan)*

'Partizipioa + *behar/nahi izan*' egiturez esan duguna errepika daiteke hitzez hitz hauetan ere. Berezitasuna, ekialdeko euskalkietako aditz esapidea izatea litzateke.

Adibideak:

egin gogo, esan uste, edan gogo, hil uste, garaitu uste, mirakuillu egin gogo izan...

«Zer egin gogo duzu?» HEAX,142
«Hil uste duenak» HEAX,144
«erabaqui zuten eraso bear-zanean, cucha santua berequin eramatea, onen babesean garaitu uste zutelako» HE45,192
«eztuzunaz egin gogo duzu mirakuillu» HEAX,71

Aita Villasantek 'Locuciones o perífrasis verbales compuestas' sailean ezartzen dituenak. Azken batetan berehala aipatuko ditugun *gogo izan, uste izan*-ek menpeko perpauseko aditza, sujetuak erreferentzikide diren heinean, partizipio gisa onartzeak esplikatuko lituzke halako egiturak. Bestalde, lehen ere aipatutako osagaien hurrenkeraren finkotasunik eza garbi ikusten da azken adibidean.

1.2.5. Izena + *izan*

I.2.5.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Aditz esapideen artean, azkenik, 'izena + *izan*' aditzaz osatutako egiturak ditugu. Hauen artean, bi azpisail egin daitezke, *izan* aditzak berak har ditzakeen bi balioen arauera; edo, nahiago bada, 'izena + *izan*' eta 'izena + **edun*' egiturak bereiz daitezke.

Adibideak:

lotsa izan, beldur izan, gose izan, egarri izan, gai izan...
maite izan, gorroto izan, higuin izan, nahi izan, behar izan, balio izan, merezi izan, ezagun izan, damu izan...

Azkue eta Lafittek ere aditz esapidetzat hartu dituzten egitura hauek hein batetan lehen ataleko 'izena + *egin/eman/hartu*' motakoekin lotu beharko genituzke:

a. osagaiak izena eta aditza dira

b. haietan bezala, izena aditzaren atzera eraman daiteke beste osagai bati galdegaiaren lekua utziaz: *bihotz-bihotzez zaitut maite* etab.

Desberdintasunak ere badira, baina, bi egituron artean. Izan ere, aztertzen ari garen hauetan *izan* eta **edun* ia laguntzaile soilak direla esan daiteke, aditzaren aspektu balio desberdinak adierazteko bidea; hau da, aspektu burutua edo burutugabeari dagozkion markak aditz laguntzaile hauek hartzen dituzte: *maite izan dut*, *maite izaten dut*, *maite izan nuen*... Areago, balio puntukaria adieraztean, *izan* edo **edun* partizipioak ez dira agertzen izenaren ondoan: *maite dut*, *higuin dut*, *gose naiz*, *egarri naiz*...

Bigarren desberdintasuna, lehen osagai den izenaren funtzioan legoke. 'Izena + *izan*' esapideetan, izenak atributu funtzioa betetzen du; horrexegatik, ez dirudi alde handiegirik dagoenik esapide hauen eta *egoki da, zilegi da, zori da...*, loturazko aditzaz eta atributu sintagmaz osatutako aditz sintagmen artean.'Izena + **edun*' dugunean, aldiz, izena ez da objektu zuzena ('izena + *egin/eman/hartu*' esapideetan gertatzen den legez); horren frogarik argiena, perpausean objektu zuzenaren funtzioa hartzen duen sintagma absolutua agertzea da: *soineko berria behar dut*[20]. Izena egiaz aditzaren barruan dagoela esan daiteke, beraz, aditz bihurtu dela, **edun*-en laguntzaz.

I.2.5.2. Aditz esapide hauen emankortasuna

'Izena + **edun*' egiturakoak 'izena + *izan*' modukoak baino ugariago izan arren, adibideek zerrenda dagoeneko osatua eratzen dutela dirudi; horrelako esapide berririk ez dela aspalditxoan sortu, alegia. Sinkroniaren ikuspegitik ezingo genuke, beraz, 'emankortasuna'z hitzegin.

I.2.5.3. Berrelkarketa edo garapena

Berrelkarketaz hitz egiteko aukera bakarra, izena egitura elkartua izatea litzateke; eta ez dirudi horrelakorik aurki dezakegunik. Garapenean, bestalde, ekintza adierazten duten *gose izate* edo *behar izate* bezalakoak ditugu; ez bait dugu euskaraz **iza(i)le* formarik.

I.2.5.4. Hots-aldaketak eta idazkera

Izenaren eta *izan*, **edun*-en artean ez da inolako hots-aldaketarik gertatzen. Idatzi ere, banandurik idatzi ohi dira bi osagaiok.

---

[20] Badira hauen artean 'deponente' deitzen diren aditzak ere, hots, nor-nork motakoak, baina nor-sintagmarik gabe erabiltzen direnak: *balio izan.*

I.3. SINTAXI-EGITURAK

Aurreko ataleko aditz esapideen ondoan, baditugu erabat sintaxi mailako egitura direnak, eta, horrenbestez ez aditz esapideetan, are gutxiago aditz elkartuetan, lekurik ez dutenak. Hiru egitura jasoko ditugu hauen artean, ezaugarri nagusiak labur-labur azalduaz:

I.3.1. Izenaz osatutako Predikatu Sintagma + *egon/joan/ egin/bihurtu...*

Lehen begiratuan 'izena + *egin/eman/hartu*' esapideekin nahas daitezkeen sintaxi-egiturok, predikatu sintagmaz eta aditzaz osatuok, ongi bereizi behar dira.

Adibideak:

> preso hartu, soldadu joan, guda-mutil joan, gizon bihurtu, gizon egin, idolo bilakatu, ikasle egon, kaletar bihurtu, lagun hartu, morroi bidali, morroi etorri, morroi joan, morroi sartu, mutil egon, neskame ibili, orfeoi bihurtu, otoi bihurtu, mandatari etorri, preso altxatu, soldadu ibili, Israel-co erregue hartu...

Nahiz eta itxuraz *argi egin* eta *apaiz egin* egitura bereko aditz esapideak iruditu, egitura horiek nolako perpausak osatzen dituzten aztertzean, berauen arteko desberdintasun sakonaz jabetzen gara:

> «ez degu beti izango onelako alderdi onik, ta onek argi egin dezayeke besteai» HE61,28
> «Periko, apaiz egin zan» HE50,17

Bigarren adibidean, bi IS ditugu, bata *Periko*, bestea *apaiz*. Aditz laguntzailea, bestalde, nor motakoa dugu, *zan*. Horrenbestez, perpaus honen analisia egitean, *Periko* subjektua dela esango dugu (nor motako aditza dugunez, absolutu kasua hartzen duena) eta *apaiz* subjektuari dagokion predikatu sintagma, mugagabean ageri zaiguna (ikus Euskaltzaindia 1985: 132)[21]. Lehen adibidean, ostera, nor-nork motako aditza dugu, *onek* IS ergatiboa delarik subjektua eta *argi* IS mugagabea objektua. Kasu honetan *argi*-k ez du ondoan beste IS absoluturik onartzen, ez subjektu, ez objektu funtzioa beteko duenik, ez bait da beste IS bati dagokion predikatu sintagma, egiazko IS objektuaren funtzioa hartzen duen osagarria baino.

Garbi dago, beraz, goiko *apaiz egin* eta antzekoek, hots, beste IS absolutu bati dagokion predikatu sintagma eta aditza biltzen dutenek, ez dutela inolako loturarik aditz esapideekin. Gramatikak, perpausen atal desberdinak aztertzean, emango digu horien berri. Predikatu sintagma, izenondoak ere osa dezake, noski, *pelma jarri*, *triste egon*, *alfer egon*, *merke saldu* eta abarretan ikus dezakegun legez (beti ere izenondoak osatzen duen sintagma hori IS absolutuari bait dagokio). Hona, azkenik, argigarri gisa, predikatu sintagma (mugagabea) eta aditzaz osatutako zenbait adibide:

---

[21] Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* - I, Iruñea, 132. or.

«gure aita zana-ta, gure aitona-ta, artzaiak ziran. Ni ere *artzai ibilli* nintzan gaztetan» EJ79,46
«bada haur beror gerthatzen da, *alfer dagoena* baithan ere» HEAX,39 (kasu honetan izenondoa da Predikatu Sintagma osatzen duena, ez izena)
«gosari arrunta iduri eta begira-begira egon ondoan haragi bila joatea erabaki zuen» EJ53,31
«Etxepare jauna buru eman zutelarik» HE59,17
«beren gizonen etsai bihurtu zituen» HE58,79
«beste danak gaizto jo, geu bakarrik ontzat, auxen da gozamena gutar askorentzat» EJ69,83
«Jainkoa, azkenik, gizon egin zen» EI94,44
«aspaldiko mendeetan hauts bihurtu zirenen nahiak» HE27,315
«historian zehar kultura jakin batekin nahasturik idolo bilakatu bai da Jainkoa» EI94,43
«Henares-eko ikastoki famatuen ikasle egon zen» HE52,4
«zu baldin bazatoz mandatari dudarik gabe» HE61,78
«Santusek eskatu ziolako morroi bialdu ninduan» HE50,48
«ni eliz-etxean morroi negoan garaian» HE50,56
«Patxienera morroi etorri zan» HE50,47
«baserrira morroe joan nintzan» HE50,49
«eliz-etxean morroe sartu nintzan» HE50,49
«edozein lekutan eta edozein ordutan, edozein talde orfeoi bihurturik» HE44,12
«zein ederra dan olerkaritza otoi biurtzen danean!» EJ50,17

Egitura hauetako predikatu sintagma, absolutu kasuan doan izenak betetzen duena, beste izen sintagma absolutu mugatu bati dagokio.

I.3.2. Izenondo/aditzondoaz osatutako Predikatu Sintagma eta aditza

Goiko egitura bera dugu azken batean, predikatu sintagma izenak osatu ordez, izenondoak osaturik.

Adibideak:

kantari etorri, konforme gelditu, lodi jarri, loi-loi itzi (utzi), pelma jarri, triste jarri...

«oso pelma jartzen ari naiz» HE35,52
«kea pafa-pafa egotziz gozoro ola egiten dut nigan gogoeta» EJ50,75
«eta Timoteogana zucenduaz prestatua eta ernai bici dedilla» HE40,62
«Etxeberria'ren berri nik emanik, oso triste jarri zaitzaigun gajoa» EJ49,83
«Gelditu ziran biyak konforme» HE61,82

I.3.3. *Elkar* + aditza

Elkar izenordain elkarkaria[22], objektu zuzenaren funtzioa betetzen duen sintagma absolutua osatzen duenak, eta aditza ditugu osagaiak; aditz sintagma baten aurrean gaudela esan daiteke, beraz.

---

[22] Ikus Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* - I, 107-109

Adibideak:

elgar hatzeman, elkar galdu, alkar ill, elkar ikusi, elkar maite, elkar jo.

«elgar hatzeman = encontrarse» EC16,123
«bi santuak etzuten artian alkar ezagutzen» HE54,171
«len, egun bat elkar ikusteke ezin pasa» HE57,121
«gaua familier eta communa da elkar maitedutenac, elkarrequin vrron direnean» EJ58,13

Adibidetegian, ordea, beste bi hauek ere azaltzen zaizkigu:

«Bein peri egun batean alkar topo egin zuten» HE22,20
«Beste tribuetako Afrikatarrekin elkarbideratzeko» EI94,31

Lehen adibidea besterik gabe txartzat jo daiteke, *alkar* erabili ordez, idazleak *alkarrekin* erabili beharko zukeela esanez. Baina bigarrena? *Elkar* + *bideratu* ala *elkarbide* + *-ratu* ote zatiketa zuzena? Mujikaren (1981) hiztegian[23] *elkarbide* izena jasotzen da, eta ondoan *elkarbidetu* aditza. Dena den, gauza bat geratzen da garbi, *elkar* erdal aurrizkiren baten (latinezko *cum*-en ordain askotan) edo erdal *se* elkarkariaren ordainetan erabiltzeko azken urteetako zenbait saiok ez duela euskal tradizioan errorik. Honek ez du esan nahi, noski, erabilera berria gaitzestekoa denik. Baina jakinaren gainean egon behar dugu, egitura berria ezartzen ari garela.

[23] Mujika P. 1981: *Diccionario Vasco-castellano* I, Mensajero, Bilbo, 618 or.

II. HITZ-ELKARTE SINTETIKOAK

II.1. SARRERA

Euskal elkarte sintetikoak zeintzu diren mugatu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu hizkuntzalariek mota hau nola definitu duten jakitea. Joan den mendearen amaiera aldera ageri zaigu lehen aldiz deitura hau, Jacobi-k[1] dioskunez, Schroeder-ek[2] erabili bait zuen bigarren elementutzat osagai beregaina ez zuten sanskritozko *Kumbha-Kará*, grekerazko `logo-poios`, edo latinezko *arti-fex* hitz elkartuak izendatzeko. Baina elkarte sintetikoen funtsezko ezaugarria honako hau zen Schroeder-en iritziz: lehenik, atzizkiren baten bidez zein inolako atzizkirik gabe, izen bihurtu den aditzerro bat beste hitz batekin elkartzea. Jacobi-k ere hitz-elkarketa sintetikoa, aditza eta bere osagarria izen bihurtzeko bide bezala definitu zuen.

Schroeder-en definizioaren lehen zatian, hau da, bigarren osagaiaren beregaintasun ezean oinarritzen da Pei-ren definizioa[3]: hitz elkartu bat sintetikotzat hartuko dugu, beronen osagaietako bat, bakarrik ager ez daitekeen forma lotua denean (adibidez *orfèvre* frantsesez, non *or* latinezko *auri* genitibotik datorrena eta *faber* ditugun).

Marchand-ek[4], aldiz, funtsean Jacobi-ren definizioa ematen du. 'Elkartu sintetiko' izenburupean, *householder* 'etxe eramaile', *housekeeping* 'etxe zaintze' edo *heartbreaking* 'bihotz hauste' bezalakoak aztertzen ditu, egitura hauen analisi formalaren eta logikoaren arteko kontraesana azpimarratuaz. Izan ere, ezin da esan goiko adibideok **to household* 'etxe eraman' edo **to housekeep* 'etxe zaindu' aditzetatik (aditz elkartuetatik) eratorritako izenak direnik, gaurko ingelesez ez dagoelako horrelako aditzik. Izen horien egitura formala, gramatikala, beraz, 'house + holder' edo 'house + keeping' da. Esanahiaren aldetik, ordea, zatiketa hori ez zaigu hain egokia irudituko, berehala somatzen bait du hiztunak bi osagai horien arteko aditz/objektu erlazioa. Eta ingelesari buruz Marchand-ek esanak, hitzez hitz balio du euskararako ere: *harri-jasotzaile* ez genuke 'harrien jasotzaile' bezala aztertuko, 'harriak jasotzen dituen (pertsona)' izango litzateke gure azalpena. Hala ere, osagaiak *harri* eta *jasotzaile* direla esan behar dugu, **harri-jaso* aditz elkartuaren eratorritzat hartzea ezinezko da eta. Berezitasuntzat duten azterketa logiko eta formalaren arteko ezadostasunagatik eman zaie, hain zuzen, 'sintetiko' deitura elkarte hauei.

Marchand-en azalpenarekin jarraituz, aurreraxeago honako hau dio: elkarte hauetako bigarren osagaia ez dela askotan izen beregain gisa existitzen. Ez dira inongo hiztegitan agertuko, ez bait dira esanahi-unitateak. *Jasotzaile*-ren balio

---

1 Jacobi H., 1987: *Compositum und Nebensatz*, Verlag von Friedrich Cohen, Bonn, 5. or.

2 Schroeder L., 1874: *Über die formelle Unterscheidung der Redetheile*, Leipzig, 206. or.

3 Pei M., 1966, *Glossary of Linguistic Terminology*, Anchor Books, 273. or.

4 Marchand H., 1960, *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*, Wiesbaden, Otto Harrassowitz, 12. or.

lexikoa[5], esaterako, hutsa litzateke, *jaso* aditzaren egile-aspektua besterik ez omen du aditzera ematen; *harri-jasotzaile*, ostera, unitate lexikoa da. Elkarte sintetikoetan, bigarren osagaiak, lehenarekin elkartzen den heinean bakarrik lortuko du unitate lexiko izatea, hots, esanahidun unitate izatea.

Euskaraz, konposatu sintetikoak lehenik Mikel Zalbidek aipatu zituen, *Hizkuntzalaritza Hiztegia*-n argitaraturiko «Hitz-eraketa: Lexiko-sorkuntzarako baliabideak» artikuluan[6]:

> *Konposizio sintetikoa*: H. Marchand-ek bederen erabili ohi duen zentzu zabalean, ondoko azpimultzo hauek bereiz daitezke gutxienez:
>
> a) eragile-konposizio sintetikoak: itxuraz forma zaharrenak diren *artzain, atezain, oilo-lapur, zamargin, okin, gaizkile, ongile, dirudun, euskaldun*, modukoez gainera, gaur egun erabiliagoak diren *ardo-saltzaile, meza-ema(i)le, harri-jasotzaile, soinu-jotzaile, kilometro-kontagailu, negar-eragile, begi-mingarri* erakoak sartzen dira hemen. Euskarazko bibliografian, halaz ere, lehen saileko *-zain, -gin, -dun* eta abarreko horiek eratorpenaren sailean sartzeko joera da nagusi, bigarren osagai horiek bere hartan autonomia lexikalik ez dutenaren aitzakian.
>
> b) ekintza-konposizio sintetikoak: itxuraz forma zaharrenak diratekeen *artajorra, diru-eskea, logalea, uztarrigintza* eta antzekoen ondoan gaur eguneko *etxe-zuriketa, diru-bilketa, tenperatur gorapena, entropi gehikuntza, hitz-sariketa* edo *urre-bilaketa* modukoak hemen.
>
> Badirudi jatorriz konposizio sintetiko hauek gehienetan "*osagarri zuzen + aditz-erro*" sekuentzia sintagmatiko finkoaren nominalizazioaz sortuak direla (diru(a) bil(du) → diru-biltzaile, diru-bilketa; euskera (e)dun → euskaldun; ate(a) zaind(du) → atezain...) eta, beraz, zenbait hizkuntzalarik agertu izan duenez, eratorpenaren sailean azaltzeko ez litzatekeela arrazoirik faltako. Ikuspegi sinkronikoak dela dela, *diru-bildu, zamar-egin, urre-bilatu, soinu-jo, harri-jaso* moduko eraikuntzek egungo euskal erabide morfosintaktikoetan normalean bizi-arnasarik ez dutenez (...), baliabide hau konposizioaren barrutian kokatzera bultzatu du» (203. or.)

Zalbidek berak dioen legez, berak 'konposizio sintetiko'tzat hartzen dituen hainbat osagai (*-zain, -gin, -dun*...) eratorpen atzizkien artean aztertu dituzte Azkue, Lafitte edo Villasantek[7]. Eritzi desberdin hauen aurrean:

1. Kontutan izan behar dugu Marchand-en eta Pei-ren definizioak ez direla erabat berdinak. Pei-k ematen duen adibidea, behintzat, ez da Marchand-ek ematen

---

[5] 'Balio lexikoa', esanahia da Marchand-entzat. Era berean, 'unitate lexikoa', esanahia duen unitatea.

[6] Zalbide M., 1982, «Hitz-Eraketa: Lexiko-sorkuntzarako baliabideak» *Hizkuntzalaritza Hiztegia* /1. Donostia, Elkar, 197-207 or.

[7] Azkue R.M., *Morfología Vasca*, 1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
Lafitte P., *Grammaire Basque*, 1979, Donostia, Elkar.
Villasante L., 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Serie 'Luis de Eleizalde' sobre unificación del euskera escrito, Fascículo 3, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu.

dituenen (eta oro har ingelesez beste hainbat hizkuntzalarik emandakoen) sail berekoa. *Orfèvre* sinkroniaren ikuspuntutik ez genuke hitz elkartutzat hartuko; *fèvre* ez bait da gaur egun elementu beregaina. Areago, latinez ere *faber/-ri* izena zen, ez zuen aditzarekin inolako loturarik. Marchand-en adibideak, aldiz:

a. formalki behintzat beregain diren osagaiak biltzen dituzte

b. bigarren osagaia aditzetik eratorritako izena da, ekintzaren egilea, edo ekintza bera adierazten duena.

2. Egokiago dirudi Marchand-en bidetik jarraitzea, ingelesez behinik behin horrela ulertu izan delako 'elkarte sintetiko' terminoa (hau da, 'izena + aditzetik eratorritako izena edo partizipio/izenondoa' dute egitura formala, baina logikoki, esanahiari dagokionez, izenak eta aditzak adierazten duten ekintzaren egilea, egitea... bezala ulertzen dena).

3. Marchand-en aztermoldea jarraituz, *ikazkin*, *talogile*, *etxegintza*... izenak elkarte sintetikotzat hartu behar ote diren ala ez eztabaida daiteke nahiz Schroeder-en arauera elkarte sintetiko liratekeen bete betean. Alde batetik, garbi dago aditz/objektu erlazioa badela izenotan; bigarren osagaiak ere ekintzaren egilea (zero atzizkiaren bidez gauzatzen dena *-gin* osagaian) edota ekintza bera adierazten du. Hala jaso zuen Andoni Sagarnak «*Eguzki-lore* moduko A-B hitz elkartu arruntak» izeneko txostenean[8]:

> «Demagun *kale-garbitzaile* elkartea aztertzen ari garela. Osagaien kategoria gramatikalak zein diren galdetzen badigute, agian erantzungo dugu *kale* eta *garbitzaile* direla osagaiak eta biak izenak direla. Gauzak sakonxeago arakatzen baldin baditugu, ordea, beste zerbait ikusiko dugu. *Kale-garbitzaile* elkartea guztiz gardena dugu esanahiaren aldetik. Ados egongo zarete noski nirekin esanahi hori aditzera emateko parafrasirik egokiena *kalea(k) garbitzen d(it)uen norbait* dela esaten badizuet. Ikusten duzuenez, hemen aditz iragankor bat dugu *garbitu* eta honen osagarri zuzena *kalea(k)* da.
>
> Analisi-mota berbera egin dezakegu *behor-gidari*, *gorputz-estalki*, *diruzain*, *bekatu-gin*, etab.ekin. Beti azalduko zaigu sakoneko egituran aditz iragankor bat: *gidatu*, *estali*, *zaindu*, *egin* eta honen osagarri zuzena den izan bat: *behor*, *gorputz*, *diru*, *bekatu*. Horregatik, elkarte hauek A-B egitura ez baina, A-x-ari, A-x-ki, A-zain, A-gin egiturak dituztela, hurrenez hurren, esatea nahiago izan dugu».

Diakronia mailan, garai batean, berjabe ziratekeen *-gin*, *-gile*, *-gintza* edo *-dun*-ek ez dute, ordea, sinkronia mailan inolako berjabetasunik; ezin dugu, beraz, gaur egun esan *talo* + *gile* bi unitate beregain direnik. Horrenbestez esan ote daiteke egitura *elkartuak* direla? Oro har onartzen bait da egitura elkartua bi elementu beregain (edo gehiagoz) osatua dela, eta eratorrian, berriz, elementuetako bat lotua dela.

---

[8] Sagarna A., 1988, «*Eguzki-lore* moduko A-B hitz elkartu arruntak». Eztabaidarako txostena. Lexiko-Erizpideen Finkapenerako IX. Jardunaldiak. Bidarrai.

4. Hitz elkarketa eta eratorpena ez dira, bestalde, beti eta nahi eta ez eremu erabat desberdinak, inolako loturarik ez dutenak. Hizkuntzalari batek baino gehiagok aipatu ditu 'sufijoideak', 'erdi-sufijoak'[9]'..., jatorriz elementu beregain izanik, atzizki bihurtzeko bidean direnak izendatzeko. Bide hori egina dutela goiko *-gin*, *-gintza* etab.ek pentsa dezakegu; nahiz oraindik gorde beren jatorria salatzen duten ezaugarri formal eta semantikoak.

   Orain arte esanaren ondorioz, eta erdibidea izan daitekeelakoan, guztiak aztertuko ditugu 'Elkarte sintetiko'etan, Belokeko sailkapenean agertzen den bezala. Baina aldi berean diakronia/sinkronia bereizketa ez dugu alde batera utzi nahi. Horregatik, *-gin, -gile, -gintza, -dun* edo *-gite*, bi lekutan aztertuko ditugu. Alde batetik 'Elkarte Sintetikoak' atalean, aditz/objektu erlazio hori oso gardena delako oraindik; atzizkien artean, bestalde (ondoren, eratorpena aztertzean), sinkronian, gaurko ikuspuntutik, beregaintasuna galdua dutenez.

5. *Hitz-Elkarketa* /1 liburuan agertzen den 'Elkarte Sintetiko'en behin-behineko sailkapenarekin alderatuz, elkarte mota hau aztertu ondoren:

   — A-*zale* (II.1.1.b) saila kendu egin dugu (eta 'Izaera elkarte'etara pasa). Izan ere, ez dirudi aditz/objektu erlaziorik atzeman daitekeenik *esnezale* eta antzekoetan. *Zale* izenondotzat hartzen dugu azken batez, ez aditz baten egile-eratorri gisa. Eta horrenbestez, Jacobi-rengandik hasita, elkarte sintetikoetarako funtsezkotzat jo den bigarren osagaiaren aditz-izaerarik ez dugu hemen[10].

   — A-*din* (II.1.1.e) ere kendu egin dugu *-din* horren balioa bat ere garbi ez dagoenez. Atzizkien artean ere ez da aipatu izan. Badirudi, hortaz, filologia mailan aztertu beharreko elementua dela; ez sinkronian eratorpenean, are gutxiago elkarketan, sartzekoa.

   — A-*egin*, A-*egite* (II.2.2.a) saila, *hutsegin* edo *hutsegite*, azken batean, aurreko elkarte motaren, hau da, dagokien Aditz Esapidearen (*hutsegin*--en, kasu honetan) eratorri besterik ez dira eta.

Aldaketa hauen ondoren, hona nola geratzen den ondoren zehazkiago aztertuko ditugun 'Elkarte Sintetiko'en sailkapena:

---

[9] Ikus, besteak beste, Marchand H., 1960, *The Categories and types....*, 290. or; Rohrer C., 1967, *Die Wortzusammensetzung im modernen Französisch*, Tübingen, 16. or. Dimitrescu F., 1969, «Notes sur les Suffixoïdes dans le Roumain Littéraire Actuel» *Revue Roumaine de Linguistique*-1, 3-6 or.; Guilbert L., 1971, «De la formation des unités lexicales» *Introduction au Grand Larousse de la langue française* T.I, Paris, Larousse, LXXIII or.

[10] Jacobi H., 1897: *Compositum und Nebensatz*, Verlag von Friedrich Cohen, Bonn, 16. eta 20. or.

II.2. ELKARTE-SINTETIKOEN SAILKAPENA

II.2.1. Egile-elkarte sintetikoak
- errokariak
  - A-gin, A-gile: okin, langile.
  - A-zain: mugazain
  - A-dun: euskaldun
  - x-dun : erostun
- soilak: oilo-lapur, lur-jabe, etxe-maite
- osatuak
  - A-x(tzai)le: kale-garbitzaile
  - A-x-garri: berri-mingarri
  - A-x-ari: behor-gidari
  - A-x-ki: gorputz-estalki
  - A-x-tu: gose-pasatu
  - Bestelakoak: oro-jakintsu

II.2.2. Ekintza-elkarte sintetikoak
- errokariak
  - A-ginean: txixagin(en...)
  - A-gintza, gite: langintza, talogite
  - A-zantza: artzantza
- soilak: artajorra, lurrikara, behaztopa, eskuerakutsi
- osatuak
  - A-x-t(z)e: adar-jotze
  - A-x-keta: diru-bilketa
  - A-x-pen: hats-beherapen
  - A-x-era: bertso-erantzuera
  - A-x-kunde/kuntza/dura: bihotz-erredura
  - A-x-tza: odol-eskaintza

II.2.3. Jardun-elkarte sintetikoak
- soilak
  - A-bila: ostatu bila
  - A-eske: ur eske
  - A-x-zain: eguna zabaldu-zain
  - A-pasa: denbora-pasa
- osatuak
  - A-x-ka : gerri-makurka
  - A-x-ari : kontu-kontari

II.2.4. Exosintetikoak: teleikusle, jainkofago

Ondoren, eta sailez sail, mota bakoitza aztertuko dugu, bestetan bezala, ezaugarri morfologiko eta semantikoak, emankortasuna, berrelkarketa, hots-aldaketak eta idazkerari buruzko xehetasunak emanaz. Dena den, komeni da lehenik bi osagaien

arteko erlazioaz zerbait esatea, hau ere Elkarte Sintetikoen ezaugarri amankomunetakoa bait da: konposatu gehienetan, baina ez guztietan, emaniko definizioa, hots, "osagarri zuzena + aditz (erro)-aren nominalizazioa" betetzen dela, alegia. Objektu/aditz erlazio hori oraindik ere gardena izateak bultzatu gaitu, hain zuzen, *-gin*, *-gile* edo *-zain* elkarte sintetikoetan aztertzera. Horrela, Egile elkarte-etan,

- okin = ogia egiten duena
- langile = lana egiten duena
- mugazain = muga zaintzen duena
- euskaldun = euskara duena
- kale-garbitzaile = kalea(k) garbitzen d(it)uena
- begi-mingarri = begia mintzen duena
- behor-gidari = behor(rak) gidatzen d(it)uena
- gorputz-estalki = gorputza estaltzen duena
- oro-jakintsu = oro dakiena...

bezala definituko genituzke. Era berean, Ekintza-elkarte-etako:

- txixagin = txixa egiteari dagokion ekintza
- langintza = lana egiteari dagokion ekintza
- talogite = talo(ak) egiteari dagokion ekintza
- artzantza = ardiak zaintzeari dagokion ekintza
- artajorra = artoa jorratzeari dagokion ekintza
- behaztopa = behatz(ak) topatzeari dagokion ekintza
- eskuerakutsi = eskua erakusteari dagokion ekintza
- adar-jotze = adar(ra) jotzeari dagokion ekintza
- diru-bilketa = dirua biltzeari dagokion ekintza
- hats-beherapen = hatsa beheratzeari dagokion ekintza[11]...

II.2.1. Egile-elkarte sintetikoak

II.2.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak. Berrelkarketa eta garapena

Egile-elkarte sintetikoetan jaso ditugun hitz elkartuek, bigarren osagaitzat, 'egilea' adierazten duen izena dute (beti ere kontutan izanik sarreran, azterketa morfologiko eta semantikoaz esan duguna): 'zaintzen duena', 'egiten duena', 'zerbait duena'... Lehen osagaia ere izena da gehienetan eta 'zer' zaintzen duen, 'zer' egiten duen, 'zer' duen... norbaitek adierazten digu; beste hitz batzutan esateko, lehen

---

[11] 'Ekintza-elkarte' deitura eman diegu guztiei, nahiz ekintza eta ekintzaren ondorioa ere adierazi; bien arteko bereizketa ez bait da bat ere garbia. Ikus Goenaga, P. 1984: *Euskal Sintaxia: Konplementazioa eta Nominalizazioa*, Doktorego Tesia, argitaragabea, Euskal Herriko Unibertsitatea, bereziki 395-399 eta 422-430. or. Era berean Levy, J. 1978: *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*, Academic Press, New York/San Francisco/London, bereziki 168. or.

osagaiak perpauseko objektu zuzenaren funtzioaren parekoa luke. Horregatik biltzen ditu Marchand[12]-ek halakoak 'objektu-aditz-subjektu' sailean. Baina azter ditzagun azpisail bakoitzaren ñabardurak.

II.2.1.1.1 Errokariak

Egile-elkarte errokari izenpean jaso ditugu bigarren osagaitzat *-gin*/*-gile*, *-dun* edo *-zain* dutenak, hots, Azkue, Villasante edo Lafittek (bere gramatikaren hasieran egiten duen atzizkien sailkapenean behintzat), atzizki direlakoan, eratorpenean aztertu dituztenak. Sarreran esan bezala, hauetan ere garbi dago 'norbaitek zerbait duela/egiten duela/zaintzen duela'. Erlazio hau da, hain zuzen, hemen axola diguna; beraz, lehen osagaiaren kategoria gramatikala eta erlazio sintaktikoa (perpaus-osagai balitz izango lukeena) besterik ez dugu jasoko. Bestelakoak, *-gin* eta *-gile* atzizkien arteko harremana, esaterako; edo zenbateraino den zuzena, zenbateraino den hedatua, *-gin* eta *-ari* aditzoinarekin elkartzea, eratorpenean aztertzeko utziko ditugu. Hemen, 'objektu-aditz-subjektu' erlazio horri dagokiona bakarrik aztertuko dugu.

a. A-*gin*, A-*gile*

Lehen osagaia izena da (*esana* izena bait da *esangin* elkartean); bigarrena, *egin* (edo nahiago bada gaur beregaintasunik ez duen *-gin*) inolako atzizkirik gabe 'egilea', 'egiten duena' adierazten duena; jatorriaren kontuak alde batera utzita (horretarako bereziki Lafon-en 1943ko *Le sistème du verbe basque au XVI*ème *siècle* (1980, Elkar, Donostia) ikus daiteke), hauxe da sinkroniaren ikuspuntutik axola zaiguna: *egin* aditzoinak adierazten duen ekintzaren egilea adierazten duela *-gin*-ek.

> abarketagin, adulteriogin, ardao guin, barkugin, beargin, pecatuguin, bichiguin, bizargin, buruguin, desapijoguin, emagin, gaizkin, gaiztagin, gaztanguin, guerragin, harakin, hargin, eriotzaguin, esangin, ikazkin, ilagin, langin, legegin, luebagin, lugin, okin, papergin, zurgin, zamargin, zapata(g)in, uztargin, sugin, zimaurgin
>
> «pekatu ete-da ba abarketagina izatea» HE31,38
> «Errazkin'go zamargin ez daukat azturik» HE18,15
> «zapatain horrek egiten du zapata onak» EI58,32
> «paperginak ase-ezin batzu omen dira-ta» HE17,22
> «neure eriotzaguinen atzian ibillico etzana» HE20,210
> «gizon ori esangina da: obediente» EJ06,74

Ondoko bi adibideetan, aldiz, *x-gin* dugu, aditza bait da lehen osagaia. Berez ez dira 'Egile-elkarte sintetikoak', ez dago hor inon 'objektu-aditz-subjektu' erlaziorik; 'aditz-subjektu' soilik genuke, edo, nahiago bada, aditza eta egilea adierazten duena.

---

[12] Marchand H., 1965: «The Analysis of Verbal Nexus Substantives», *Indogermanische Forschungen* 70, 57-71. or.

Hori da, hain zuzen, eratorpenean, *-le* eta *-tzaile* atzizkien zeregina. Badirudi, hortaz, zuzenago liratekeela *eraberritzaile* eta *sendatzaile*; baina eratorpenean itzuliko gara honetara. Oraingoz, aski bedi aipamen hau: *eraberrigin, sendagin/sendakin...*

«"Euskaltzaleak"en eraberrigin ta zuzpertzalle» HE17,36
«Donostian egon zinaten sendagin edo medikuarekin» HE16,21

-gile izenaz, goian esandakoa hitzez hitz jaso dezakegu: *egin* aditzoinari dagokion egile-izena dugu; oraingoan, ordea, euskaraz egilea adierazten duen *-le* atzizkia garbi asko ikusten da. Lehen osagaia ere izena da (*gozo* eta *plural* ere izentzat hartu behar direla bait dirudi):

alpargatagille, amesgile, amugile, bearguille, belhagile, bertsogile, birauguille, bizargile, egurgile, eltzegile, eresgille, erlojugille, errebolu ziogile, esanguille, etxegile, euskal-eresgile[13], ezkontzagile, gaizkigile, gaizkile, goxogille, arritaillugille, erriguille, historigile, iltzegile, inflaziogile, iruzurgille, juramentuguille, caridadeguille, kondairagille, labanguille, langile, legueguille, letragile, libruguille, limosnagille, mirarigille, morroilogile, nobelagile, ongigile, ongille, ontzigile, paperguille, penitentzigille, pluralgile, santuguille, taloguille, txipigile, usuraguille, zestogille, zillarguille, zinemagile, zulogille

«auetxek ziran mende bi aietako euskal-eresgilleak, santutegian ez-ezik gure parrokietan ere» EL70,168
«Antxa: Antsa-ren txipigilea, diminutiboa» EJ48,20[14]
«ez amesgileak eta pentsalari "sakonak"» HE27,39
«errillia, edo usuago, erriguillia» HE20,180
«sobietikoak izaeraz errebolu ziogileak direnez» HE37,104
«eta zure alabac, on eta esanguilleac becela, jaquina da gordeco dutela zure aguindua» HE40,146

-gin legez, aditzari loturik ere topatu dugu; ezin esan daiteke, ondorioz, egile-elkarte sintetiko direnik, *osatzaile/sendatzaile* izen eratorrien ordain baino: *osagile, sendagile*

«injineruak, legegizonak, osagilleak, irakasleak» HE31,34
«sendagillea ekarri bearko degu» HE57,107

Lehen osagaia izan daiteke aldi berean izen elkartua: *euskal-eresgile* EL70, berrelkarketa osatuaz. *Larrugilletza* HE23, berriz, *larrugile*-ren garapena dugu, *larrugile*-en ofizioa adierazten duena (*bertsolaritza* etab.en pareko):

«orduan ikasi nun larrugilletza» HE23,125

---

[13] Berez anbiguoa dena, bi eratara uler bait daiteke: euskal + eresgile, hau da, eresgilea, euskalduna dena, eta, horrenbestez, *Eguzki-lore* elkartea litzateke; edota, 'euskal eres(i) + -gile', hitz elkartu sintetikoa, beraz. Bigarren adieran ulertu dugu guk zein testuingurutan azaltzen den ikusi ondoren.

[14] Lehen osagairen kategoria gramatikalaren gainean zalantzak sortzen dizkiguna: 'txipi' izenondotzat hartu behar ote dugu, eta osagaien arteko erlazioa ohizko 'objektu-aditz-subjektu' izan ordez, 'predikatu sintagma-aditz-subjektu' dela esan ('Antsa txipi egiten

b. A-*zain*

Elkarte hauetan ere lehen osagaia oro har izena da, eta bigarrena *zain*, 'zaintzen duena' adieran. Aurreko azpisailean ez bezala, *zaina*, izen beregaina, euskal testuetan aurki daiteke, nahiz askoz maizago agertzen den beste izen bat aurrean duela (hau da, egile-elkarte sintetikoa osatuaz):

> arimazain, artxibu-zain, artzain, athal-zain, ate zain, astazain, baratzazai, beor-zailla[15], bei-zai, bidezai, diruzain, eiherazain, elizain, erizain, errotazain, etxe-zai, euskaltzain, gaxo-zai, gibeltzain, gizazain, aurzain, herrizain, itzai(n), ixtazain, labazain, lemazain, lorazain, mahaizain, mandazai(n), mugazai(n), sabelzai, tripazai, "Txadon Zaya"[16]

> «Amaika bider entzun diotegu orixe "Larreko" ta "Txadon-Zaya" idazleei» HE17,58
> «basakatua lakoxe beor-zaillak dozak ba ta ango baserritarrak» HE21,93
> «nola duten bere athal zaina, eta behar ere bai» HEAX,35
> «aurzaina» HE15,4

Berezia da, bestalde, adibidetegiko *adizai*, lehen osagaia aditzoina delako. Baina *Orotariko Euskal Hiztegiak*[17] dioen bezala neologismoa, hitz berria, da, era horretako bakarra; ez da beste sorkuntza batzutarako eredu izan, beraz:

> «ill ta bereala guertaco da arimea Jangoicoaren Adizain, ta Judicioan» EC61,28

Berrelkarketa kasurik ez dugu aurkitu. Garapen adibide bat bai, ostera: *bakezaingo*, *bakezain*-en erakundea, elkartea, adieraziaz:

> «Antoni, bake zaingoak denentzat izan behar dikek indar ukaiteko» HE58,100

Bestalde, Ekintza-elkarte sintetikoetako A-*zantza* egiturak, horko zenbait adibidek behintzat, badirudi hemen ere lekua izan dezakeela ofizioa adieraziaz, goiko *larrugilletza* horren pareko (ekintza-elkarte sintetikoetan arituko gara honetaz).

c. A-*dun*

Hain ugaria den egile-elkarte mota honetan, bigarren osagaia *duen* erlatibotik datorrela garbi dago; lehen osagaia izena da askotan. Badu, ordea, elkarte honek berezitasun bat, erlatibozko aditzetik datorren bigarren osagai horrek ematen dioena hain zuzen: izan ere, erlatibozko perpausak, orohar, izen sintagma baten ezkerretara azaltzen zaizkigu (*etxea erosi duen laguna* etab.). Horrexegatik:

---

duena' alegia); ala, 'txipitu' aditza ote eta, ondorioz, beheko *osagile* edo *sendagile*-ren pareko izenaren aurrean geundeke?

[15] 'Behor zaile' denez agian 'Egile-elkarte osatuak' azpisailean kokatu beharko genukeena; baina *zaina* eta *zailia* (bigarren hau bizkaieraz batipat) erabat baliokide direnez eta, gainera, forma hau behin bakarrik azaldu zaigunez, hemen, errokarien artean, utzi dugu.

[16] Berez 'eleiza zain'en kide izan arren, idazle baten goitizen gisa erabilia.

[17] Michelena L., 1987: *Orotariko Euskal Hiztegia I*, Euskaltzaindia, Bilbao, editorial Desclée de Brouwer S.A. & Ediciones Mensajero S.A.

1. Bigarren osagaitzat erlatibo laburtua duen elkarte osoaren kategoria gramatikala izenondoa dela esan dezakegu[18], behin baino gehiagotan izen kategoria hartu arren elkarteak.

2. Lehen osagaiak erlatibozko perpaus baten osagai zuzenak izan dezakeen egituretatik edozein har dezake. Izena gehienetan:

   aldun, abarketadun, aberedun, adardun, amodiodun, amonadun, animadun, antiojodun, araudun, ardaodun, arduradun, argidun, armadun, arnaridun, arrazoidun, arropadun, artodun, astodun, axiadun, axoladun, bakaldun[19], baliodun, barnedun, begidun, bazterdun, behardun, belardun, beribildun, betozkodun, bihoztun, bitxidun, bitzdun, bizardun, boteredun, buruñurdun, dirudun, diskobolodun, erretxinadun, erredoladun, errudun, eskerdun, eskoladun, esnedun, etxedun, euridun, euskaldun, "euskeradun", famadun, fededun, fosfatodun, prakadun, gonadun, fruitudun, fusildun, gabardinadun, galdun, galtzadun, garrantzidun, gorbatadun, gorputzdun, gorrotodun, burdidun, ankadun, armadun, harridun, atsdun, haurdun, egodun, idrokarbonatodun, hiztun, hobendun, iretargidun, iledun, indardun, inglesdun, izurdun, kabidun, kakodun, kaltedun, kapitaldun, kargudun, karismadun, karreradun, klasedun, margodun, koxkordun, kulturadun, lanadun, latindun, legedun, lerdodun, letoi(n)dun, letradun, liburudun, lumadun, lurdun, miadun, mokodun, mototsdun, mugatzailedun, mustatxdun, muturdun, negardun, nitrojenodun, tesidun, ondasundun, osasundun, pantaloedun, partedun, paratxudun, pazientziadun, pistoleta dun, potasadun, potrodun, sardekadun, xamardun, raiadun, predominiodun, segadun, seindun, sermoidun, sinesmendun, sokadun, taloidun, tachadun, tituludun, txapeldun, umedun, usaindun, ustaidun, xixpadun, zaindun, zakudun, zaldun, zaragidun, zentzudun, cetacadun, zintzardun, zordun, zurdadun

   «gure bakalduna edo errege Espaiñan laster jarri daigunean» HE21,57
   «galdunak berak ere badu zertaz poztu» HE18,35
   «asieran, lagun oiek, galtzadunak oi-ziran» HE57,122
   «Alemaniako eliz-gizon latindunek izen hori asmatu zuten» HE30,225
   «osasundun beiaren esneak, baldin garbi jetxi ba-da, ontzi garbietan, bereala oztu ta otzetan euki ba-da» EF92,93

Izen kategoriaren barnean sar ditzakegu letra-izena, zenbatzailea (erabilera honetan, bederen) eta *-t(z)e* atzizkiaz eratutako *hartze* eta *siniste*. Dena den, azken bi hauek ez dira beherago ikusiko ditugun 'ekintza-izena + *-dun* ' bezalakoak; izan ere, *hartzek* ez du hemen *har(tu)* ekintza adierazten (*hartzeko*-ren kide da), ez eta *siniste*-k, *sinis(tu)* ekintza ere (ekintza horren ondorioa edo litzateke *sinistea*, azken batean *sinismen*-en sinonimotzat har daitekeena): *H-dun, amardun, hartzedun, sinistedun*

«zientzi mailan erabiltzen diren maileguzko h-dun hitzak ere ez dira zerrendan aipatzen» EJ56,57

---

[18] Azkuek ere Izenondoak sortzeko balio duten atzizkien artean sailkatzen du.

[19] Jatorriz *bat ahal dun* izan arren, erabat ilundua dagoelakoan, oinarrian izena dutenekin batera sartu dugu.

«Amardun[20] batekin jabearen esku utzi, sanotasun osoan» EJ00,188
«belar tratua konkretatu gabe uztea ere alde zetorren, hartzedun baitzegoen» HE39,95

Baina izenetik gorako kategoria ere izan dezake lehen osagaiak. Izen multzoa, hau da, izena + izenondoa, adibidez:

ahalguztidun, aho lasaidun, atorra dotoredun, arpegi ederdun, azal ederdun, azkazal garbi gorriztadun, begi-argidun, begi bixidun, begi urdin ederdun, biotz garbidun, biotz gogordun, biotz andidun, biotz zabaldun, biotz-zintzodun, kolore bizidun, bizarzuridun, bruxa beztun, eguzki berodun, narru baltz eguzkitsudun, estalki zuridun, min gozodun, griña txardun, egal biribil ta lucedun, osto aundidun, ile harrodun, jantzizuridun, lurrusteldun, margo zuridun, piperr zarr mindun, pañuelo zuridun, polo desberdindun, prakazardun, zoru sendodun

«bezero guzien aurrean, begi-argidun errodaballo eder bat eskuetan emeki arturik» EJ64,85
«sartu dira capela querizgarrijac, ta egal biribil ta lucedunac» HE20,94
«saltatu zuen polo desberdindun bi munduen arteko xinpartak» HE39,34
«guk ez dogu ezagutuko gizagurentzat, biotz gogorduntzat... baino» HE21,24

Edota izen sintagmaren egitura: [izenlaguna + [izena + izenondoa]], nahiz zenbatzailedun izen sintagma:

buruko ille luzedun, edurrezko esku zuridun

bi gorringodun, bustin askodun, elebidun, emeretzi urtedun EJ03[21], ogei-etxedun, edozein irabazpidedun, kare gutxidun, lau langadun, lau zango luzedun

«alegia, buruko ille luze dunak» HE50,74
«neurrian bota bear dira ta beti lur-min, kare gutxidun ta bustin askodun lurretan bota» EF92,34
«orain patata multzo zimel bat zetzan zoikoan, lau zango luzedun ehomakina ugarreztatu batek babesturik» HE39,52

Lehen osagaitzat izen elkartua duten ondoko adibideak berrelkarketak genituzke:

arto-bizardun, bitxi-azaldun, egi-itxuradun, ekaitz-itxuradun, euskal-itxuradun, arkoskodun, arpidedun, izenburudun, leka-azidun, lore-aledun, motho-buztandun, on-uste osodun, seme-alaba azidun

«idazki txiki bat egingo nuke, bitxi-azaldun, paper bikañez, sakelerako erakoa» HE17,33
«gañera abono berdetzat artzen diran landareak beti leka-azidunak bear dute izan» EF92,26
«gure artzain on-uste osoduna» HE21,26
«geienak ezkonduak eta seme-alaba azidun gurasoak ziranez» HE57,118

---

[20] Hamarreko bertsoa, erdaraz 'décima' deritzana, alegia.

[21] *-dun* eta *-ko* atzizkien arteko auzian sartu gabe ere, harrigarri egiten zaiguna. Ondo-ondoan *ogei ta amar urteko* azaltzeak esplika dezake agian *-dun* atzizkia aukeratu izana bigarren aldian, errepikapenari ihes egin nahirik edo.

-dun egile-elkartea bera ere izan daiteke beste elkarte bateko osagai, aurrizki bat erantsirik (garapena) edo *Eguzki-lore* motako elkarte bateko mugakizun izanik (berrelkarketa): *anti-euskaldun, pelota-txapeldun*

> «Bestela Orixe'k inperialismoaren eta fazismoaren alderdi anti-euskalduna hartuko zuen!» EJ51,31
> «Josetxu, atorra dotoredun pelota-txapelduna» HE27,311

Izena, ekintza-izen eratorria izan daiteke: *erakuste*, *irabazte*, *joste*..., azken bokala erori eta **-t + d- → t-** bilakatuaz, hots, bi herskarietatik bigarrena, ahoskabeturik, geldituaz. Hauetan, berriz, 'objektu-aditz-subjektu' erlazioa ez dago bat ere garbi; zalantzan jartzekoa da, beraz, ondokoak Egile-elkarte sintetiko diren ala ez (x-*dun* egiturakoak dira, goiko x-*gin* eta x-*gile* bezala; eta hauek bezala, ondoan *erakusle*, *irabazle* etab. dituzte):

> erakustun, ikasidun (*ikastun* formaren ordaina, lehen partizipioa delarik lehen osagai), irabaztun, jakitun, oroyakitun, jostun, jatun
>
> «apezak ez ditugula erakustuntzat onesten» HE59,61
> «ikasidunai, bertsolari ta txistulariai» HE31,20
> «irabaztunak, orde, ez zertaz oillartu» HE18,35
> «euskaldunok oso jatunak gara» HE44,22

II.2.1.1.2. Soilak[22]

Hemen sartu ziren *oilo-lapur*, *lur-jabe* (eta honekin batera 'izena + *jabe*' egitura duten guztiak), *diru-maite, etxe-maite* bezalakoak, egilea zero atzizkiaren bidez adierazia zegoelakoan; edo, nahiago bada, egilea ez duelako atzizki berezi batek biltzen. *-gin* eta *zain* aztertzean ere beste horrenbeste gertatzen dela ikusi dugu, 'egile' adiera dute, baina marka formalik ez. Hain zuzen, zero atzizkia, kategoria batetik besterako aldaketak inolako atzizki formalik gabe gauzatzea, gramatikalari askok aipatu dute[23]. Baina *lapur*, *jabe* edo *maite* atzizki berezirik gabe eratutako egile-izenak ote dira? Hala badira, ekintzaren egilea adierazten duen izenak lehenik ekintza hori adierazten duen aditzoina eskatzen duenez, *lapurtu → lapur, jabe (izan) → jabe* eta *maite (izan) → maite* eratorpenak gauzatu direla esan nahiko luke. Horrelakoetan, alabaina, beti aipatu izan da eratorpena zein zentzutan —hots izena → aditza, ala aditza → izena— gertatu den jakiteko zailtasuna. Lehen begiratu batean pentsa genezake aditza dela izenetik sortua, *-tu* atzizkia erakusten duelako. Baina orduan zergatik ez dugu **lapurtzaile*, **jabetzaile* bezalako egile-izenik? (Bai, ordea,

---

[22] Ikus Bahuvrîhi-elkarteetako VI.1.3. puntua ere.

[23] Beste askoren artean, honakoak aipa ditzakegu: Scalise 1987: *Morfología Generativa*, Madrid, Alianza editorial, 132. or.; Guilbert 1975: *La créativité lexicale*, Paris, Larousse "Université", 164-165. or.; Marchand 1960: *The categories...*, 293-295. or.; Adams 1973: *An Introduction to Modern English word-formation*, London, Longman, 36-55. or.,

maitale; beraz, *maite* ez ote beste biak bezalakoa?). Bestalde, atzizkirik gabe eratutako egile-izentzat har daitezkeen izenon adierek, *lapur* eta *jabe* ez direla agian zaku bereko pentsatzeko bide ematen digute. Izan ere, Sarasolaren hiztegian honako definizioak aurki ditzakegu:

> *lapur*. iz. eta adj. Lapurtzen duen pertsona, ik. *ohoin* (ipar). *ebasle* (kult.). (*Euskal Hiztegi Arauemailea*. Lehen prestaera)
> *jabe* iz. 1. Adierazten dena berea duen pertsona. 2. *Jabe egin*. 3. Adierazten dena mendean duena. (*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*)
> *jabetu* ad. Zerbaiten jabe egin edo bihurtu... (*Euskal Hiztegi Arauemailea*. Lehen prestaera).

Badirudi, beraz, argi samar dagoela *lapur*-en egile-izen izaera. *Jabe* eta *maite* askoz zalantzazkoagoak dira. Seguru asko *ate-aize-jabe* (HE18), *etxe-jabe* (HE28), *idi--jaube* (HE20), *ontzi-jabe* (HE33) '*Eguzki-lore* elkarte'etan ere sailka ditzakegu. *Maite* bigarren osagaitzat dutenak, aldiz, 'Egile-elkarte sintetiko' en artean, baina, 'Osatu'en barnean, 'A-x-tu' egiturakoak direla esango genuke. Hain zuzen, *diru--maite*, 'dirua maite duena' da, hau da, izenondoa (izen funtzioa beteaz askotan agertuko dena), *ezku-izkribatu*, *gogolandu* etab. bezalaxe. 'Egile-elkarte soilak' sailean, bete-betean, 'A-*lapur*' bakarrik geratuko litzaiguke, beraz:

> «Timadoreak dira orreetariko lapurrak, atzipe-lapurrak» HE21,43
> «Bartel zerga lapurrarekin topo egin zuen berriro» HE39,47

Ez da, bestalde, harritzekoa bistako atzizkirik gabeko egile-izenon urritasuna. Zero atzizkiaz ari direnean aztertzen dituzten adibideak 'ekintza-izenak' bait dira (ondoren azalduko ditugun 'Ekintza-elkarte sintetiko soilak', alegia); Adams (1973: 51) da zero atzizkiaz osatutako 'egile-izenak' aipatzen dituen bakarretakoa, beti ere garbi geratzen dela 'ekintza-izen'ekiko urritasuna.

II.2.1.1.3. Egile-elkarte osatuak

Elkarte sintetiko hauetan bigarren osagaia aditzoinaz eta egilea adierazten duen atzizkiren batez osatua dago. Hortaz, formalki,

$$\text{izena} + {}_{\text{iz.}}[\text{aditzoina} + \text{atzizkia}]_{\text{iz.}}$$

egitura dugu; esanahiari dagokionez, aldiz, 'izena + aditza'k biltzen duten ekintzaren egilea.

a. A-x/-*(tzai)le*

-le eta *-tzaile* atzizkien arteko harremanak eratorpenerako utziaz, azter ditzagun hitz elkartu diren aldetik dituzten ezaugarririk nabarmenenak. Egile-elkarte sintetiko diren heinean, osagaien artean gehienetan atzematen den erlazioa perpausean objek-

tu, aditz eta subjektuaren artean gertatzen dena bera da. Elkarte osoaren kategoria gramatikala, berriz, izena dela esan daiteke[24]; lehen osagaia ere izena da ia beti.

-tzaile atzizkiak eratutako Egile-elkarte sintetikoak bilduaz lehenik:

> adarjotzaile, albistari-zabaltzalle, (anai arteko) giro sortzaille, ardizaintzaille, ardao saltzalla, aterki-saltzaille, azeri artzalle, azpi-arrotzale, bake-apurtzaile, belar-pikatzale, bertso-biltzalle, bertso-jartzalle, bide urratzaile, bide zaitzaille, bizikentzalle, danza-sartzalle, enkargu betetzaile, erropa garbitzaille, eskutiz-zabaltzaille, esne-saltzale, echeondatzalle, eche-galzailia, ezkilla jotzaille, ezkontza kolpatzaile, fede asmatzalle, fede austzalle, fedeucatzaille, gai-jartzalle, gaiso-osatzalla, gauza biltzale, german mintzazaile, guezur somatzalle, gizon ezagutzaille, guizon iltzalle, gona-neurtzaile, goxo-saltzalle, agin-ateratzalle, arri jasotzaille, aur-yasotzaille, indar erabiltzaile, inflazio-sortzaile, itun-saltzalle, jai-antolatzalle, jan-ontzalle, janprestatzalle, janari--jartzalle, Jaungoico-ucazallia, kale-garbitzalle, karga-jasotzaille, kitarra-jotzaille, korda tiratzaile, liburu-inprimatzaile, liburu saltzaile, meza-lagunzalle, musika jotzalle, mutur-jotzaile, odolateratzalle, zauri-osatzalle, odolberozailia, ogi-banatzaile, organu-jotzalle, soñu-jotzalle, pipa-artzaille, santu jantzizalle, chardina-saltzale, sasi-garbitzalle, sardina-jantzale, suskriziño-batzailla, talde-zaitzalle, txakolin-saltzaille, txalo-jotzalle, txistu jotzalle, txori-iltzalle, txori zaitzalle, zerga kobratzaile, zezen-iltzalle, zomorro iltzalle

> «Galdezka mendi ta ibarretako gizonai. Ardizaintzailleai» HE31,20
> «nik ainbat erru badu txakolin-saltzailleak» HE16,14-15
> «ez da dudarik inflazio-sortzaile izango zirela» EB20,45
> «batean esan nion emengo gai-jartzalle bati» EJ66,159
> «gizon ori karga-jasotzaillea zan» HE29,42

Inoiz behin beste kategoria bateko lehen osagaia aurki daiteke, aditzondoa esaterako, erlazioa ere orduan 'adberbio-aditz-subjektu' izanik.

> «geldi-asmatzalle, gibelaundi, eta gauza txikiena oartzen aldi luze batean egon oi diranak» HE24,19

Ez da zaila berrelkarketa adibideak topatzea. Ondokoetan, batzutan lehen osagaia dela aldi berean izen elkartua ikus dezakegu; beste batzutan, mugatzaile koordinatua dugu (*ille ta bizar*) mugakizuna, egile-izena, biei dagokiela adieraziaz. Berrelkarketatzat hartu ditugu, azkenik, egile-elkarte sintetikoa beste izen baten eskuinera daramaten adibideak, 'izena + egile-elkarte sintetikoa' osorik Atributu elkarte delakoan:

> toki-izen-billatzaille, txistu ta danbolin jotzalle, ate ta jantzi-kutxa apurtzalle, ille ta bizar moztzale, sagardo, ardo ta kafe-saltzalle, (eiztari) txori-iltzalle, (andracume) azur imintzalla, zatarzar biltzaile, ontzi berri asmatzaile, (abade ta praille) erdera-zabaltzaille...

---

[24] Dena den *mutil gau-eskale* HE18, *abade ta praille erdera-zabaltzailleak* HE21 bezalakoen aurrean elkarte osoa izena ala izenondoa den galde dezakegu. Baina *-le* / *-tzaile* atzizkiek izenak ala izenondoak sortzen dituzten eratorpenean aztertzeko utziko dugu.

«andracume azur imintzalla» HE20,52
«azpi-lapur, ebasle, ate ta jantzi-kutxa apurtzalle» HE28,56
«Raymond toki-izen billatzaillearen eun-urte-buruko omenaldia» HE31,54

-le atzizkiaz osatutako egile-elkarte sintetikoen adibideak, ostera, ondokoak dira:

aljebra-irakasle, apaizjale, ardijaole, argi-emaille, ertilari-ikasle, arto-jale, askatasun eragile, historia egile, bake nahasle, belarki-jale, berri ecarle, berri-emalle, bertsoegile, bertso emale, bide-erakusle, bizi-emaile, botu emaile, dixon-egille, ejerzizio-egille, epai-emale, eskola egile, eskolemaile, eskultura-egille, esne-emale, "Euskal Esnalea", euskaltzaletasun-eragille, euskera emoteille, ezkon-ausle, ezkurjale, filosofia irakasle, frutu emalle, gai emale, gaizki esale, gaizkiegile, gatzemaille, gerla egile, giz-eralle, gitarra joile, gezur-iresle, gorputz maitale, gizon-jale, gun emalle, aragi-emalle, eriotz--emalle, ill-epalla, historia jakile, hitz-jale, izkera-irakasle, hojalatero-ikaslari, hots--emaile, indar-emalle, indar-eraguille, infernura malle, irrati-entzule, justizia egile, kanpai jole, kantu-egile, catu beguirale, kondu-egile, lege-ezarle, lege-hausle, liburu--idazle, lina jailla, luma-epalle, mami-jale, mandatu-emalle, mezemalle, musika-erakusle, nai-eraguille, neque-emalle, neurtitzegile, ogi-egille, ondasun eguille, ongi--egile, otaepalle, paperjale, polizi ikasle, pronostiko-egille, soñu-jole, suspich-emalle, txorijagola, zinema-ikusle, zuzen egile

«Jainkoa zuzen egile da!» EJ71,34
«On Juan Apezetxea dala orain euskera emoteillea Iruneko abadegai etxean» HE31,82
«urrenarte, agur irrati-entzuleok» HE57,131

Hitz-elkarte Sintetikoen sarreran eta Egile-elkarte Errokarietan ere esan duguna, alegia, *-gile* izen beregain ez izan arren *egile* → *gile* harremana gardena zela, garbi asko ikusten da adibidetegian jaso ditugun bikote hauetan:

historigile HE28, EJ61 / historia egile EI94
gerragin HE09 / gerla egile HE58
bertsogile EJ00 / bertsoegile HE35
ongigile HE30, HE06 / ongi-egile HE59, HE32

Eta zer esan ondoko adibideez?:

«ogi-egille edo panadero» EJ62,80
«nik aukeratu nuen ogille joatea» HE50,72
«neque barrijac oguiguinentzat» HE20,151

Aditzlagun-aditz-subjektu erlazioa adierazten duten adibideak ere badira, batzutan lehen osagaia izena bada ere, *gauez* balioa duelako; bestetan postposizioa edota kasu-markadun aditzlaguna delako[25].

gau-eskale, gaujaola, kontra esale, "Montebideorat joaileak"

«biar labean erre ba lezate opil, mutil gau-eskaleak an ba dute zer-bil» HE18,127
«1853-an Abbadie-ren sariketako igortzen du "Montebideorat joaileak"» HE43,14
«zu zera erejien kontra esale zorrotza» HE54,172

[25] *Montebideorat joaile* dena dela, berezi samarra da, ez aditzlaguna hitz elkartuaren lehen osagai izan ohi ez delako bakarrik, bai eta *-le* egile-atzizkia nor-motako aditzarekin azaltzen delako ere.

Berrelkarketa kasurik ere ez da falta:

abere sal-erosle, aker-buru-jale, baba-txior-jale, galarrots egile, poz-negarraldi adierazle

«Amezketa'ko Pedro Sautse, abere sal-eroslea» HE50,24

ez eta garapenaren adibiderik ere:

«euskal liburuen iritzi-emoteilletzan be ugari idatzi dau» HE31,57

b. A-x-*garri*

Besteak bezala orohar objektu-aditz-subjektu erlazioa erakusten duten Egile-elkarte hauei *-garri* atzizkiak ematen dien adiera azaldu nahi bagenu, 'izenak eta aditzak adierazten duten ekintza egin dezakeela' parafrasiaz balia gintezke. Elkarte osoaren kategoria gramatikala, bestalde, izenondoa da, *-garri*-k izenondoak sortzen ditu eta. Badira, halere, izen bihurtutakoak (edo agian hasieratik izen bezala sortu zirenak) *lokarri* edo *ongarri* bezalakoak; orduan elkarte osoa izena izango da, noski. Baina orohar, 'ahoa gozatzen duen zerbait', 'belarria mintzen duen zerbait', 'bihotza sendatzen duen zerbait'... ematen dute aditzera elkarteok:

abarka-lokarri, abel-ongarri, ao-gozagarri, belarri-mingarri, animagalgarri, arratz--apaingarri, bihotz altxagarri, bihotz-berogarri, bihotz-erdiragarri, bihotz-hunkigarri, biotz pizgarri, biotz-sendagarri, biotz-urragarri, buru aringarri, buru eragotzkarri, buruautsigarri, denbora pasagarri, etxe-galgarri, erri-caltegarri, neke-aringarri, placer eguin-garri

«zugaitz-sustraientzat on eta aldaskarentzat galgarri, abel-ongarria bezala» HE39,150
«mortxil-dindil gorriak arratz-apaingarri» HE18,16
«senharrak dauka tratu txarrak izan direla, etxe-galgarriak» HE43,9

Lehen osagaia aditzondo balioko izenondoa delako aditzlagun-aditz-subjektu erlazioa dugu hurrengo adibidean:

«naiz edeak euritik legor-gordegarri» HE18,16

c. A-x-*ari*

-ari eta *-le -tzaile*-ren arteko auzia, hau da *entzulari* ala *entzule*, *neurlari* ala *neurtzaile* behar lukeen, eratorpenean jorratzeko utziaz, elkarte hauen adiera A-x-(tzai)le sailekoena dela garbi ikusten da: izenak eta aditzak biltzen duten ekintzaren egilea, edo ekintza horretan ari dena. Lehen osagaia izena ohi da eta osagaien arteko erlazioa, objektu, aditz eta subjektuaren artean gertatu ohi dena:

aitorrentzulari, ardi-zaindari, beor-gidari, erbi-eizari, film-kritikari, gogo-zaindari, hitz neurlari, ontzigidari, eguraldi asmakari

«zenbait film-kritikariren jipoiaz "bixitua", HE27,307
«aitorrentzularia, frai Diego de Ibarra, gipuzkoarra zan» HE24,132
«gauean ara bilduta jarduna ba dute: eguraldi-asmakari, ipui ta bikote» HE18,46

Bada, ordea, beste *-ari* bat (edo nahiago bada, *-ari* atzizkiaren bigarren balio bat), izen bizigabeak sortzen dituena. *Ehizaria* ehizean ari den biziduna dela esaten dugu; *eskaria*, ostera, ez da eskean ari dena, 'eskatu' ekintzaren ondorioa edo produktua baizik. Bigarren erabilera honi dagozkio ondoko adibideak, mugatzaile den izenak beti ere 'zer' eskatzen den edo asmatzen den biltzen duelarik:

eskubide-eskari, langile eskari, ondasun-eskari

«tenor batetan langile premia dagoelako eta langile eskaria handia delako» EB20,32

Badira, azkenik, *kantari* eta *kontari*, lehen saileko *-ari*-k sortutako izen bizidunak, askotan predikatu-osagarri funtzioan[26] erabiltzen direnak (eta horrexegatik hain zuzen Jardun-elkarte sintetikoetan berriro aipatuko ditugunak):

kanta-kantari, kontu-kontari, maite-kantari

«urretxindorra ote, ene ingurun, maite-kantari?» EJ50,13
«lagunak atsegin zuten ta Tabuyo kanta kantari ari zan» HE61,22

Izen elkartu Dvandva mugatzaile duelako Berrelkarketa-kasu dugu:

«gaurda edo mendi-baso zaindari ipini zuen» HE50,35

d. A-x-*ki*

Tresna, objektua adierazten duen *-ki* atzizkia da aditzari lotzen zaiona elkarte sintetikoa eratzeko. 'Egilea' zentzu zabalean ulertu behar da, beraz, 'burua estaltzen duen zera', 'topina estaltzen duen zera'... bezala. Ez da, gainera, aurrekoak bezain ugaria.

ao-estalki EJ07, buru estalqui HE20, corputz-estalqui HE20, topin-estalqui HE20

«Ameriketatik etorritako ichuran jantzia ao-estalki edo poncho batekin» EJ07,4
«gure euscaldunen buru estalquija zan» HE20,201

e. A-x-*tu*

Elkarte sintetiko mota honi eman diogun deituran, 'x-*tu*'-k aditzaren lehen partizipioa, forma burutua, biltzen du. Izan ere, elkarte hauetan bigarren osagaia partizipio burutua da, beti izenondo balioa hartzen duena (aski bait da euskaraz horretarako mugatzailea erastea[27]). Hortik datorkio elkarte osoari izenondo kategoria. Lehen osagai izenaren (*askojakina* da salbuespena, mugatzailea aditzondo baliokoa duelako) eta aditzaren arteko erlazioa, orain artekoetan bezala, bi eratakoa izan daiteke: 'lotsa galdu duena', 'etxea maite duena', 'kalte hartu duena'..., edota 'eskuz izkribatu d(ut)ena', hau da, aditzlagun-aditz modukoa.

---

[26] Ikus Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-1*, Iruñea, 257-258 eta 333. or.

[27] Ikus Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-1*, 250-254. or.

begi busti, bekoki tximurtua, bihotz-zimurtu, bilo frijatu, buru-yantzienak, eskuazaldu, ezpain-autsi, gogolandu, uste-galduak, zainil, ezku-izkribatua, erdal-kutsatuak, caltartu, askojakina, gose-mindu, erdal-yario, gezur jario, hitz-jario, lerde-yario, poza jario...

«Gure arteko buru-yantzienak» HE17,9
«Giza-alderdi buru-yantzienari eztio gogoak eman» HE17,51
«Ulezuridun, eskuazaldu eta bekoki tximurtua» HE31,18
«Emen zegok ezpain-autsi» HE15,17
«Gogolanduak gertu daude berezitasun orretarako» HE24,4
«Lotsagaldurik balitz andik aizatzeko» HE18,18
«Neskazar uste-galduak orain billa dute» HE18,58
«Zainil, herbail, ergal, okilo eta huntz loti saldo bat omen ziren bakezaleak» HE58,73
«ausardia honi esker onik atera zuen bere "Diario de la Expulsión de los Jesuítas de españa" egunkari ezku-izkribatua» EJ00,196
«dacargun disputaren gañeco joan-etorri onetan gucian caltartuen irteten gueranac gu ezquera!» HE40,119
«Azpeiti Azkoitiko boluntarioak ez dira falso eta gezur jarioak» HE23,74
«Zaharrago eta hitz-jarioago izaten omen gara, gainera» HE27,367

Era honetakoa da ondokoa ere, *-ta* aditzondo-egilea erantsia duela:

«geldi ditezen biotz-ukituta Aita zerukua alabatzeko» HE54,166

II.2.1.2. Osagaien arteko hots-aldaketak

Egile-elkarte Sintetikoetan orohar beste edozein hitz-elkartu motatan atzeman daitezkeen hots-aldaketa berak ikus daitezke. Beti bezala, ez dago salbuespenik gabe gertatzen den aldaketarik; batzuk hedatuago daude, baina beti daude aldaketarik gabeko adibideak. Adibidetegian aurkitu dugunaren nondik norakoak hauek lirateke:

a. **-r** → **-l**, lehen osagaiaren azken bokala erori ondoren:

erdal-zabaltzaille HE21 (baina autore berak: erdera-zabaltzaille), euskal-eresgille EL70, galdun HE18, abel-ongarri HE39 (baina abere sal-erosle HE50, abere-zai HE50, aberedun EF92 etab.), erdal kutsatua HE17, athal-zaina HEAX

b. **gizon** → **giza**, osagaiaren amaierako **-n** galdu eta **-o** → **-a** aldaketaren ondorio: *gizazain* HE15

Baina horren ondoan *gizon ezagutzaille* HE21 eta *guizon iltzalle* HE08, HE40.

Sudurkariei dagokien beste aldaketa bat aipatzekotan, lehen osagaiaren azken bokala erortzean, ezkutaturik zegoen sudurkaria berragertzen da: *gaztanguin* HE20

c. **-e** → **-a**, lehen osagaia bi silabakoa denean: *ilagin* HE27, *etxagile* HE38. Baina hor dugu *etxegille* HE23 ere.

-o → **-a**: *gaiztagin* HE03, HE20, HE10, HE07, HE06, HE51, HE18; *mandazai(n)* HE16, HE18, HE24, HE29, EJ53, EJ66, EI99 (baina *mandozain* EJ72, EJ81), *astazain* HE20 (baina *astodun* HE21)

d. Aspaldiko hitzetan, azken bokala erori ondoren elkarren ondoan geratu diren bi herskarietatik bigarrena (ahoskabeturik) gordetzen da:

og(i) + -gin → okin
harag(i) + -gin → harakin

Edo azken posizioan geratu den herskaria, **t** herskari ahoskabe forman neutralizatu da: *itzai* HE18, *artzai(n)* (gehienetan, baina *ardi zai* EJ49, HE53)

e. **-tz + -g/-d → -z + -k/-t**, hau da, batzutan, txistukari afrikatua frikari bihurtzen da eta ondoko herskaria ahoskabetzen du:

ikazkin, gaizkin/gaizkile (baina baita *gaitzgille* HE08 ere), hiztun (baina hor daude *hitztun* HEAX eta *itzdun* HE25 ere), bihoztun HE27 (eta *bihotzdun* HE59), bruxa beztun HE25.

Hor ditugu, halere:

biotz pizgarri HE58, bihotz-beragarri HE58, gorputzdun HE40, bitzdun EJ70, atsdun HE20, mototsdun HE50, mustatxdun HE60

Txistukari afrikatua frikari bihur daiteke ondoko herskaria ahoskabetu gabe ere:

amesgile HE27, gorpuzdun HE31

f. Bi silabako osagaietan **-i → ø**: *hargin*

g. **-l/-r + z- → -l/-r + tz-**, hau da, kontsonante ozena bukaeran eta bigarren osagaiaren hasieran txistukari frikaria dugunean, inoiz, afrikari bihurtu da

euskaltzain (baina *aurzain, athal-zaina* HEAX), gibeltzain EJ61

h Beste zenbait aldaketa: *lugin* EI99, *luebagin* HE20. Aspaldiko hitzetan gertatzen dena Mitxelenak dioenez, lehen osagaiaren bukaerako **-r** galdu egin da (beste batzutan aspiratu egiten da edota **/g/** herskari ahostun belare bihurtu).

II.2.1.3. Idazkera

Egile-elkarte sintetikoetan aztertu ditugun sail desberdinen idazkera bateraturik egon ez arren, zenbaitetan joera bat edo beste nabarmen gailentzen da. Beti bezala, jokabide desberdinak bilduko ditugu, baina ez gara ausartu gomendio berezirik egiten, azterketa sakonagoa beharko bait litzateke horretara iristeko (egile-elkarte osatuetan A-x-*tzaile* eta A-x-*le*-ren arteko desberdintasuna argitzeko, adibidez). Horrela:

— Errokarien sailean:

- *-gin,-gile* eta *-dun* ia beti lehen osagaiari loturik aurkituko ditugu
- *-zain* bigarren osagai duten elkarteak, erdiak baino zerbait gehixeago elkarturik idatzirik daude. Ehuneko berrogeia inguru marraz loturik; askoz gutxiagotan ikusi ditugu bi osagaiak banandurik.

— Egile-elkarte soilen adibide bakanak aztertuaz, *jabe*, *lapur*... bigarren osagai duten elkarteak gehienetan marratxoa daramate; zerbait gutxiagotan banandurik idatzi izan dira, eta inoiz ez elkarturik, gure adibidetegian behintzat.

— Egile-elkarte osatuen sailean, azkenik:

- A-x-*tzaile* eta A-x-*le* erakoek ez dute jokabide bera erakusten. Lehenengoen artean, bi osagaiak banandurik idazteko joera gailentzen zaio marraz loturik idaztekoari; eta azkenik, nahikoa gutxitan, elkarturik. A-x-*le* egiturakoetan, aldiz, marra aurkituko dugu erditan baino askoz gehiagotan; eta gero banandurik nahiz loturik antzeko portzentaian, alde handirik gabe.
- A-x-*garri* eta A-x-*ari* elkarteak marraz idazteko joera da nagusi, banandurik idaztekoa ondoren (askoz gutxiagotan, dena den, A-x-*ari* modukoetan); oso bakanka agertzen dira bi osagaiak elkarturik. Beste horrenbeste esan dezakegu A-x-*ki* egiturako adibide urriez ere.
- A-x-*tu* modukoetan desberdintasunak ez dira hain nabarmenak. Gure adibideetan, zerbait ugariago agertzen da marra; bi osagaiak banandurik eta loturik dituzten adibideen kopurua, berriz, berdintsua da.
- Azken sailean bildu dugun *orojakintsu* izenondoan bi osagaiak loturik ageri zaizkigu.

II.2.2. Ekintza-elkarte sintetikoak

II.2.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak. Berrelkarketa eta garapena

Bigarren Elkarte-sintetiko mota nagusi honetan, aditzari eransten zaion atzizkiak egile-adiera ez, baina ekintza-adiera ematen dio. Hortaz, elkarte osoak ekintza-izen balioa hartzen du. Aurrekoetan bezala, azterketa formala, 'izena + $_{iz.}$[aditzaoina + ekintza-atzizkia]$_{iz.}$' den bitartean, azterketa logikoa, 'izenak eta aditzak biltzen duten ekintza horren egitea' genuke. Berriro ere, ekintza-atzizkia morfologikoki nolakoa den kontutan hartuaz, honako azpisailkapena egin daiteke:

II.2.2.1.1. Errokariak

Azpisail honetan bildu dira berjabe ez diren ekintza-izenak, nahiz 'objektu - aditz -ekintza' erlazioa oso gardena izan elkartean.

a. A-*gin(e)an*

Bereziki mendebaldean erabiltzen den elkarte mota honek 'A egiten' adiera du. *Txixaginean*, *kakaginean*, *txorixoginean*... bezalakoak erabat arruntak izan arren, elkarte-mota honen kasu bi aurkitu ditugu adibidetegian:

«Baina arabar olerkaria bere bertsoginean nondik nora ibilia dugun erakusgarria dela esango nuke» EJ00,206
«suiña txorixogiñan ibiltzen da» HE21,39

'Zertan' adierazten duen *-n* horri buruz, berriz, Ekintza-elkarte osatuak aztertzean arituko gara.

b. A-*gintza*, A-*gite*

Egintza, *egite*-ren laburdura diren *-gintza* eta *-gite* atzizkiek ezin argiago adierazten dute elkartearen esanahia: lehen osagaiak, izenak, adierazten duen hori egite-ekintza, alegia. Dena den, ez dira emankortasun bereko ekintza-elkarteak, A-*gintza* modukoak besteak baino askoz ugariagoak bait dira; euskalki mailako desberdintasunak ere badituzte, A-*gintza* batez ere mendebaldekoa izanik, eta A-*gite* ekialdekoa.

abarketagintza, gurigintza, gazta-gintza, barkugintza, burdingintza, beargintza, bertsogintza, bidegintza(n), dibujugintza, elizagintza, eungintza, ermitagintza, etxagintza, ezcontza guintzia, gaizkintza, gizagintza, argintza, lanquintza, armagintza, haurgintza, herrigintza, heroigintza, hesigintza, ormagintza, ikazkintza, itsasgintza, izadi-gintza, kulturgintza, liburugintza, literaturgintza, lurgintza, moldaguintza, nobelagintza, okintza, olagintza, ontzigintza, orrazi-gintza, zapata-gintza, zepilo-gintza, paper-guintza, plangintza, poemagintza, politikagintza, saskigintza, pronostikugintza, sozialismogintza, xextogintza(n), zurgintza

«bera baino lehenagoko euskal poetaz, haien bertsogintzaz batikbat, bere usteak eta iritziak» EJ80,9
«hiriko isasgintzak beherapen tamalgarria nozitu behar izan zuen» HE33,93
«Bizkai ta Gipuzkoatik 648 langile ibilli ziran jo ta ke bidegintzan, jaiera utsez, beste alogera gabe. Tripa-truke?» EL70,205-206
«La Editorial Vizcaina derichon moldaguintzan» EJ07,3

-gin eta *-gile* aztertzean ikusi legez, hemen ere baditugu 'x-*gintza*' moduko eraketak, Ekintza-elkarte sintetikotzat hartuko ez genituzkeenak. Izan ere, *hilketa* edo *sineste/sinesmen*-en kide dira ondoko:

«ilquintz izugarri onec guziac arri-eguinic utzi zituen» HE45,218
«lehena eta luzeena sineskintzaz mintzo da. Bigarrena eginbideetaz» EJ71,10

Sendakintza, aldiz, A-*gin* egile-elkarte sintetikoaren garapentzat ere har daiteke, bi adiera izan ditzakeelako: 'sendatzea' (ekintza-elkarte sintetikoetatik kanpo, eratorpeneko dena) eta 'sendakinen ofizioa' (A-*gin* egile-elkarte sintetikoen garapen litzatekeena):

«lenengo bere jaioterrian ekin zion sendakintzari» HE28,61

-gintza-ren mugatzaile den izena izan daiteke aldi berean elkartua (Dvandva, *Eguzki-lore* elkartekoa...) egitura berrelkartuak sortuaz:

artile-arigintza, erdal bertsogintza, izneurgintza, lurlangintza, sasi-absolutuguintza

«... ta beroietatik datozen sal-erosketak (guri-gintza, gazta-gintza, artile-arigintza)» EF92,69

«erdal bertsogintzarako eskolatzen hasten den une berean iturri xotilago baten isuria somatzen diogu arabar bakun honi» EJ00,183

A-*gite* elkarte sintetikoaren adibide ditugu azkenik ondokoak:

egurgite, eleiz-gite, etxegite, languite, hongigite, oracio-guite, plazergite, talogite, txanpon-gite

«txanpon-giteko mailluz jotzean agian, itsas litezke» HE18,87
«Arantzazuko etxegiteak ez du egonik ezagun» EL70,74

c. A-*zantza*

Goraxeago *sendakintza* dela eta aipatu dugun anbiguotasun bera aurkitzen dugu orohar A-*zantza* elkartean, 'izena eta aditzaren bidez adierazitako ekintzaren egitea' nahiz 'A-*zain* egile-elkarte sintetiko errokarien ofizioa' bezala uler daitezke eta ondoko adibideok:

«artzantzan dabillen beste bat ere badet» HE45,207
«ardizaintzan ibilten ziran Mugarrapeko larrabasoetan» HE31,22
«nobizi-aroa asteko oraindik gaztetxo ta misiotaratzeko zaletua dagoenez, gaixo-zaintza-ikasketak egingo ditu lenbizi» EJ03,46

A-*za(i)ntzan* forma dugunean, halere, badirudi ekintza-adiera dugula. Azken adibideko *gaixo-zaintza-ikasketa* (berrelkarketa, bidenabar) 'ofizioa' adieraren barnean sar daiteke erraz asko.

II.2.2.1.2 Soilak

'Egile-elkarte sintetiko'en atalean esanak jaso behar dira hemen ere, oraingoan 'ekintza' balioa, adiera, delako zero atzizkiaren bidez, bestela esan, ageriko atzizki berezirik gabe, ematen dena. Baina 'ekintza-izen soil' hauek beste ikuspuntu batetik ere aztertu behar dira, izan ere, ez dira guztiak maila berekoak nolabait esatearren. Horietatik batzuk hiztegian izen kategoriarekin jasoak daude (*garraio, isuri, ukitu, erauntsi* etab.); beste batzuk, ordea (*alda, eracutsi, sega* edo *ikusi* bezalakoak), ez ditugu ekintza-izen balioan erabiltzen[28]. Hala ere, elkarte hauetan ezinbestean izen balioa hartzen dute; bestela, bigarren osagaia izena ez balitz, nola lortuko luke elkarte osoak izen kategoria? Eta ukaezina da *eskuikusi* edo *esne-ekarria* izenak direla.

Orain arteko elkarte sintetikoetan bezala izen mugatzaileak objektu zuzenaren funtzioa hartuko luke gehienetan. *Egunsenti* eta *uxo-pasa* elkarteetan, ostera, lehen osagaia subjektutzat har daiteke.

arbi-jorra(n), ardo-garraio, arta jorra(n), atxurjorra(n), azpijorra, landara jorra, egunsenti, eskuerakutsi, eskuikusi, esne-ekarria, euri jasa, gaizki-eguina, harri erauntsi, itz-

---

[28] Ikus honetaz Euskaltzaindia 1987: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*, Bilbo, 84-87. or.

-eskaini, kale-ibilia, itz alda, lubagi, odol isuri, poz-eracutsi, beatz-topa, ganadu trafiko, muxar-eize, sokatira, uxo-pasa, zoko-mira(n), itz-jario, zorion-jario, bihotz--ukitu

«arratsalde artan, arbi-jorran aita-semeak ari zirala, onela asi zan semea» EJ62,85
«parrokiari ere eskuerakutsi eder bat egin zion» HE33,71
«sakoneraño jeisten badegu, esne-ekarria geitu egingo da» EF92,91
«onen azpitik izaten dala uxo-pasa» HE23,71
«eta zoko-miran ibilliko nintzan ni; sagarrik al zegoan-edo» EJ87,47
«zorion-jarioak gazteturik edo» HE34,63
«itz-jario jator eta bizi baten bitartez» HE33,63
«Eta ez bihotz-ukitu izila, irrifarre goibela, malko isurtze nabarmena baizik» HE27,318

Berrelkarketa dela eta, ekintza-elkarte soila izan daiteke hitz elkartu bateko mugatzaile:

«lapurtarrek erakuts belar-sega-lanen» HE18,15

edo gerta daiteke Dvandva egiturako ekintza-izen soila izatea, ezkerreko izena bi ekintzei dagokien objektua izanik:

«begi-itxi-edekian pesteguna degu» HE18,17

II.2.2.1.3. Osatuak

Azpisail honetan bildu ditugu,

'izena + $_{iz.}$[aditzoina + ekintza atzizkia]$_{iz.}$'

egituradun elkarteak. Beti bezala, goiko egitura formala ez dator bat elkarte horien egitura logikoarekin, hau da 'izenak eta aditzak adierazten duten ekintzaren egitea' adierarekin. Kontutan izan behar da, bestalde, aditzoinari lotzen zaizkion atzizkien artean, 'ekintza' adierazten dutenak bakarrik axola zaizkigula hemen. Zehazkiago esanda, atzizki hauek adiera bat baino gehiago izan ohi dituztenez, ekintza-adierak bakarrik hartu behar dira kontutan. Adibidez, ez dugu zalantzan jarriko *-keta* atzizkiak ekintza adierazten duenik; baina horren ondoan, 'produktua, ondorioa' ere adierazten du hainbatetan, hala nola *erosketa* izenean. Halaber, *-era*-k ekintza-izenak sor ditzake, baina beste balio batzuk ere har ditzake *-era*-dun izenak: *sarrera* izenak, esaterako, ekintza adierazten du *zure sarrerak harrituta utzi ditu han bilduta zeudenak* diogunean, baina 'nondik sartzen den', lekua, adierazten du *sarreran itxadongo dizut* perpausean. Bigarren adiera hau, edo 'eroste' ekintzaren ondorio diren *erosketak* ekintza-elkarte sintetikoetatik kanpo geratzen dira[29].

---

[29] Aditzoinari eransten zaizkion atzizkien adiera desberdinez ikus Levy J. 1978: *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*, Academic Press, New York/San Francisco/London, 167-172. or.; eta Goenaga P. 1984: *Euskal Sintaxia: Konplementazioa eta Nominalizazioa*, Doktorego Tesia, argitaragabea, 395-399. or. eta 414-419. or.

a. A-*x*-*t(z)e*

-tze atzizkia da edozein aditzek har dezakeena ekintza adierazteko. Horregatik, ez da harritzekoa A-x-*tze* egiturakoek mota ugariena osatzea ekintza-elkarte sintetikoetan. Ekintza soila, inolako ñabardurarik gabekoa adierazten gain, ekialdeako euskalkiek -era atzizkia ezagutzen ez dutenez, mendebaldeko *-era*-ren ordez *-tze* erabiltzen dute (*sartze*, hortaz, *sarrera*-ren ordez). Baina kontutan izan behar da izenak sortzen dituen *-tze* interesatzen zaigula, ez edozein perpaus mugagabe (aditz jokaturik gabeko) bihurtzeko erabiltzen deneko balioa: *zuk barkamena eskatuko diezula esateak ez nau lasaitzen* bezalakoetan duen erabilera alegia.

Ondoko adibideetan, orain artekoetan ikusi legez, 'objektu-aditz-ekintza' erlazioa gertatzen den gehienetan. Baina *urtebetetze*, *prediku-hatse*, *euskalki nahaste*, *jendealdatze*... anbiguoak dira 'subj.-aditz-ekintza', 'nahiz obj-aditz-ekintza' bezala har daitezkeelako.

adar jotze, aditz-jokatze, andra-ikuste, andre hartze(an), arbol botatze, arbola mozte(n), arbola xertatze(n), ardi biltze(n), gaztai egite(n), ardi-jate, ardo edate(n), arpa jotze(n), arraultze egite(n), arta-jalkitze(n), arta-zuritze(n), artourkultze, ate jote, atun-jate, aurpegi-auste, auzo gobernatze(n), aza jate(n), azeri artze, barau auste, barkhamendu erdieste, bei-umatze, belar emaite(n), belar ebakitze(n), belar higitze(n), bertso biltze(n), bertso kantatze(ra), bertso paratze, bertso saltze, beso agertze, bide berritze, bide galtze, bide-konpontze(n), bihotz-gogortze, biko-egite(n), bizar egite(ko), bonba--botatze, bonba tiratze(n), buru-eskolatze(ra), buruauste, buru jazte, buru-lantze, buru--makurtze, denbora galtze, denbora pasatze, diru irabazte(ra), diru-aldatze, diru biltze, diru harrapatze(ko), diru kontatze(n), diru ugaritze, diru xahutze, kamio egite, egur egite(n), eleiza konpontze(tan), eske biltze, esker emate, esker-erakuste, eskola-emote, escu eraguite, escu-uquitze, esku uzte, esne jeiste, esne batitze, etsai-barkatze, etxe bilatze(n), etxe eroste, euskalki nahaste, ezpain estutze, kolore aldatze, eskontza auste, galjaite, ganadu ateratze(n), garagar-aizetze, gariebagite, ogi epaite, guerra irabazte, gezur kondatze(n), giro-berotze, giza-iltze, gizon galtze, gogo-galtze, gogo-lantze, gurdimaneratze, aize-astintze, aize artze, arbi-eraite, haragiste (haragi uzte), arri jasotze, hats-hartze, azi ereite, azi-naste, haur hazte, hegazti jate, este-betetze, ile mozte(ra), itz-alkartze, berbaemote, itz-trucatze, izkera-atalkatze, izkuntz-ikaste, osto biltze, indar galtze, indar-neurtze, ipuin kontatze(n), ipurdi-berritze(n), irabatute(n), irin egite(n), izen trukatze, jai-kentze, jendealdatze, kale garbitze(n), kamio-apaintze, konformitate emate, kozina-laguntze, christau-batze, cristau-izate, labore batze(n), lakatz-biltze(ko), lan-pillatze, lan-uzte, landare-emate, larru kentze(n), lasto kentze, lege-hauste, lio-jotze, lo-galtze, lur-lantze, lur trukatze(n), lur saltze(n), mahats biltze, malko-isurtze, mami aldatze, mekanika egite, neska laguntze(n), nitrojeno galtze, odol aterate, odol galtze, odol-isurtze, ogi joite, ogi txikitze, oihal marruskatze(n), ordenu aldatze, oroimen-galtze, ostatu hartze, ot'epaite(n), patata zuritze(n), peludo harrapatze(ra), pipa erretze(n), pauso-kontatze(n), posesio artze, poxpolo piztutze, postura-hartze, pozoin iate(n), prediku-hatse, prezio-altxatze, prezio-goratze, sagar jate, santu egite, zezeina-jate, senatu berritze, soñoco aldatute, soinu-jotze(ra), sos galdetze(n), tiro tiratze(n), chalo jote, ur-botatze(n), urtebetetze, zama-pairatze, txerri--iltze, txerri-tximeltze, zur-lantze(n)

«lehen bai lehen, peludo harrapatzera!» HE59,30
«ezpaitegu denbora arpa-jotzen galtzeko astirik» HE57,117
«eraintzak ene baitan maitasun-azia; emaitzetan ederren etsai barkatzia» EJ50,11
«euskalki nahastea ere saio tankera horretatik datorkio» HE27,348

Beste adibide hauetan, ostera, argiago ikusten da mugatzaileak subjektuari dagokion funtzioa jasotzen duela:

argi haste(an), argi urratze, argui zabaldute, idazle-ugaltze, oillarite (*oilar-jaite)[30], primadera haste

«idazle-ugaltze orreri» HE17,66
«biharamun goizean, argi urratzearekin, ikusten dut aita» HE59,33

Mugatzailearen kategoria gramatikalaren ikuspuntutik arraro samarra da 'zertan beldurturik'-en baliokide dirudien *zer-bildurtzerik*:

«zer-bildurtzerik etzegoela sinistu nuen azkenik» HE34,41

Izan ere, alde batetik galdetzailea du lehen osagai eta bestalde, ez dugu uste partitibo markarik gabe erabil daitekeenik; hau da, beste ekintza-elkarte sintetikoen pareko izena denik, izen sintagma osatu eta ondoren edozein kasu-marka har dezakeena (**zer-bildurtzeak*, **zer-bildurtzeaz*... bezalakoak ezinezkoak dira). *Zer* lehen osagai denean, bigarren osagaia partizipio burutua izan ohi da (*zeresan*, *zeregin*, *zerikusi*...), ez aztertzen ari garen ekintza-elkarte sintetikoak bezalakoa.

Goiko adibideei azken ohar bat eginez, eta zalantza-iturri izan direnez, esan dezagun 'ekintza-elkarte sintetikoa + *-n* edo *-ra*' egiturak bereziki jaso nahi izan ditugula kasu-marka parentesi artean emanaz. Alde honetatik, ez genituzke nahasi behar:

«garbitoki freskoaren ondoan, ipuin kontatzen hasten zitzaionean» HE39, 90

eta egituraz antzeko den:

«garbitoki freskoaren ondoan, ipuina kontatzen hasten zitzaionean»

Lehen adibideko *ipuin kontatzen* ekintza-izen gehi *hasi* aditzak bere osagarriari eskatzen dion *-n* bezala ulertu behar da, hau da, *dantzan hasi* edo *lanean ikasi* egituren parekoa da, non inork ez duen ukatuko *dantza* eta *lan* izenak direnik. Bigarren adibidean, aldiz, perpaus txertatua da (eta ez izena) *hasi* aditzaren osagarria; honen lekukorik onena, perpaus-osagarriak gehituz sor daitekeen:

«bezperan aitonari entzun zion ipuina kontatzen hasten zitzaionean»

bezalako adibide bat dugu. Lehen adibidean, ostera, ezin da horrelakorik egin, izenak ez bait du perpaus-osagarrien bidezko hedapenik onartzen[31]:

*«bezperan aitonari entzun zion ipuin kontatzen hasten zitzaionean»

---

[30] Jatorriz sail honetakoa izan arren, erabat ihartua dagoena eta, horrenbestez, Hitz-Andana Ihartu-etan aztertuko dena. Ikus honetaz Mitxelena: *Fonética Histórica Vasca*, 68. or.

[31] Ikus honetaz Goenaga P. 1984: *Euskal Sintaxia: Konplementazioa eta Nominalizazioa*, Doktorego Tesia, argitaragabea, 193-194 or. eta 425-426 or.

Berrelkarketa kasuak ere aurki ditzakegu ekintza-elkarte osatu hauetan, subjektu--aditz-ekintza nahiz objektu-aditz-ekintza erlazioak atzeman daitezkeelarik:

abar eta egur eihar karreatze(n), arau-izte edo aldatze, barku-betetze ta ustutze, baxaran-biltze(n), ditxo eta pertsu moldatze(n), alkar-erakarte lege, frogabide bilakatze, itz-barri-eraltze lan, oliba eta amanda biltze, lansari-altxatze, lehen ministru aldatze, olerkari-xuxperrarazte, paper-langille-ugaltze, sagardo edate(n), sare, saski eta otharre egite(n), sasitzar miatze(n), zerrikume eroste

«Mayi abar eta egur eihar karreatzen arizan» HE32,21
«orduantxe ugari: gure itz-barri-eraltze lan atsegingarrijari, beti gogoz jardungo leuskijoenok eurok ere, ase ta aspertzeko lain ere bai» EJ06,85
«igoko balira, ez litzake lansari-altxatze hau inflaziogile izanen berez» EB20,32

b. A-x-*keta*

Ekintza-elkarteak aztertzen ari garenez, begibistakoa da ondoko adibideetan *-keta* atzizkiak 'ekintza' adiera duela (gogoan izan 'ekintza-elkarte osatu'-en sarreran esanak). Osagaien arteko erlazioari dagokionez, aurreko azpisailean bezalaxe, gehienetan agertzen den 'objektu-aditz-ekintza' erlazio moduaren ondoan, 'subjektu--aditz-ekintza' (*osto-loraketa*) erlazioa ere badugu. *-ketan* forma dela eta, bestalde, *-tzen*-i buruz esandakoa hitzez hitz alda dezakegu, ekintza-izena eta aditzaren erregimenak eskatzen duen *-n* kasu-markaren aurrean gaude eta

adimen-azterketa, aitzakiasmaketa, ardi-erosketa, arropa-konponketa, arta-kordaketa, arta-zuriketa, azeri-lapurreta, diru erabilketa(n), diru-kontaketa, egitura azterketa, esku-aldaketa, etxe-aldaketa, etxe-miaketa, froga berriketa(n), ganadu konparaketa(n), gazta-erosketa, gaztain bilketa, gaztain-mozketa(n), gezi-jaurtiketa(n), gizarte aldaketa, gizarte-banaketa(n), gizon-bilketa, arma gordeketa(n), ipui-leiaketa, "ipui-sariketa", yakintza asmaketa, yakintza-eraketa, izen-apurketa, jantzi erosketa, jantzi-garbiketa, jende-aldaketa, margo banaketa, komentu-miaketa, kristau heziketa, lan-banaketa, landare aldaketa, langille-aldaketa, lino ezpateta, liturji berriketa, mutil bilketa(n), mustur astinqueta, nazio definiketa, odol isurketa, ogi-oreketa, oial-joketa(n), olerki--sariketa, ordu-aurreraketa, osto-loraketa, sari banaketa, saski-aldaketa,

«harek zituen "plantation" delako jende-aldaketak asmatu eta obratu» HE30,211
«udaberriko osto-loraketa miragarria an etengabekoa ezagutu izan dute gizaldi guziak» EL70,74
«lehenik esan dezagun marxismoak Stalinen ahoz nazio definiketa bat egiten duela» EJ52,23
«arta-zuriketa zuten gauez Errekalde'n» HE18,46

Lehen osagaitzat izen elkartua duten berrelkarketa kasuak dira ondokoak:

abelgorri-lapurreta, eskualde banaketa, gaixo-zaintza-ikasketa, gaitzizen bilketa, platano ta kakaues-azal bilaketa(n), liburu eta paper-ikerketa, zurgin-lantegi garbiketa

«zurgin-lantegi garbiketa alako lana» HE50,77
«etzituen, bada, ikusi lengoan bat baino geiago, platano ta kakaues-azal bilaketan?» EJ03,15

c. A-x-*pen*

Aurrekoak besteko emankortasunik ez duen ekintza-elkarte osatu honetan lehen osagai den izenak (*maite* izena ere bada ekialdean, *maitasun*-en baliokide) ekintzaren objektua nahi subjektua adierazten du.

berri laburpen, diru ugalpen, hats beherapen, hitzarmen, maite-aitorpen

«asteko berri laburpena» HE17,67
«maite-aitorpen bat, barru-hustu bat, ordainezko karta-eske bat» EJ00,208

Aurkitu ditugun adibide urrietan ez zaigu berrelkarketa kasurik azaldu, nahiz *diru eta ondasun ugalpen*, adibidez, erabat gramatikala litzatekeen.

d. A-x-*era*

Atzizkien beraien azterketa eratorpenerako utzi dugula esan arren, ezinbestekoa da *-era*-k dituen bi adierak, 'ekintza' eta 'ekintza gauzatzeko modua', aipatzea, biak azaltzen direlako ondoko adibideetan. Ondorioz, hiru eratako erlazioak gertatzen dira osagaien artean gure adibideetan: 'subjektu-aditz-ekintza' (*sorgin-bilera, nobizio--sarrera...*), 'objektu-aditz-ekintza' (*bertso-erantzuera*) eta 'objektu-aditz-ekintza modua'. Teorian gerta daiteke 'subjektu-aditz-ekintza modua' motako erlazioa ere, baina ez zaigu halakorik azaldu:

arrai-prestaera, bertso-erantzuera, hitz joskera, jatordu asiera, klase-izakera, nobizio--sarrera, odolki-prestaera, sorgin-bilera, ur-sarrera, XIX mende bukaera

«banan Pastor Izuelaren bertso-erantzuerarik ezagunena, onako au da» HE53,32
«antziñako sorgin-billerak akerraren menpean egin ziran» HE24,59
«nobizio-sarrerako paperak letra garbi eta dotorez ditu firmatuak» EJ00,177
«estatuaren funtsean klase-izakera bera zalantzan ipintzen den unetik» EJ52,42

Berrelkarketetan ere 'objektu-aditz-ekintza' eta 'objektu-aditz-ekintza modua' adierazten duten adibideak jaso ditugu:

«Bedayo-ko kamio egite asiera garai artantxe izan zan» HE50,36
«bakallau, txipiroi ta txitxardin-prestaeretan berdintsu samarrak dira biak» EJ64,81

e. A-x-*kunde*/*-kuntza*/*-dura*

'Ekintza' adiera ala beste adieraren bat duten zalantzak izan arren, bilketa zabala eginaz, A-x-*kuntza*, A-x-*kunde* eta A-x-*dura* egiturak ere ekintza-elkarte osatuetan jaso ditugu. Nabaria da gainera emankortasunaren aldetik orain artekoak baino askoz urriagoak direla elkarte hauek. Ohar gaitezen, azkenik, *abere-sendakintza* eta *erlijio irakaskintza* A-x-*kintza* elkarte direla, egiazko elkarte sintetiko, beraz; ez x-*gintza* soila, *sendakintza* modukoa, elkarte sintetiko ez denaren parekoa. Dena den, aditzoinari *-kuntza* atzizkia eranstea jatorragoa delakoan, A-x-*kuntza* izenpean bildu ditugu adibide guztiak (baina behin eta berriro esan legez, eratorpenean aztertuko da sakonago *-kintza*/*-kuntza* harremana).

iraultza-nahikunde EB20; abere-sendakintza HE26, erlijio irakaskintza HE36, folklore-ikaskuntza HE24; bihotz-erredura HE59

«Ordutik iraganxea zukeen gure mirikuak gerla aintzineko bere bihotz-erredura» HE59,15
«USA-n ere iraultza-nahikunde ugari agertzen da» EB20,50
«abere-sendakintzaz traktatu bat utzi zeraukun» HE26,270

f. A-x-*tza*

Aurreko atalean azaldu dugun atzizkiaren 'ekintza' adierari buruzko zalantza bera izan dugu hemen ere: eskaintze eta eskai*ntza* bereizten ditugun heinean behintzat, *-tza* atzizkiak 'ekintza' soila baino zerbait gehiago adierazten duela dirudi eta. Hala ere izenak aditzaren objektu funtzioa betetzen duenez elkarte sintetikoetan leku izango lukete ondokoek:

birjasotze-ekintza EJ03, gizalantza HE30, "lan eskaintza" EB20, lanordu-eskaintza EB20, odol eskeintza EJ05

«odol eskaintza, Altzu'k egina» EJ05,191
«lansariaren gorapenak ez duela "lan eskaintza" handituko» EB20,28
«gizalantzaren bideetarik ibili nahi badugu» HE30,219

Adibideen artean agertzen den *birjasotze-ekintza* izenak iruzkin berezia merezi du, lehen osagaia ere ekintza-izena bait da. Hortaz, erlazioa ez da objektuari eta aditzaren artean egon ohi denaren parekoa, Aposizio gisako zerbait baino: lehen osagaiak ekintza konkretuki zein den adierazten du.

II.2.2.2. Osagaien arteko hots-aldaketak

Hauek dira ekintza-elkarte sintetikoetan atzeman ditugun hots-aldaketak:

a. **-r** → **-l**, lehen osagaiaren azken bokala erori ondoren: *galjaite* HE20; baina baita *gariebagite* HE31 ere.

b. **gizon** → **giza**, osagaiaren amaierako **-n** galdu eta **-o** → **a** aldaketaren ondorio:

giz-eralle HE08, HE28 (gainera bokal kontrakzioa gertatuaz), giza-iltze HE57, gizalantza HE30, gizagintza EI94

Hauen ondoan badira, ordea, beste hauek ere: *gizon galtze* HE51, *gizon-hiltze* HE08, HE09, EJ71

c. **-e** → **-a** lehen osagaia bi silabakoa denean: *etxagintza* EL70. Askoz gehiagotan dena den *etxegintza* HE56, EB20, *etxegite* EJ51, EL70, *etxe-miaketa* EJ05, *etxe eroste* EJ81...

-o → **-a**: *arto* → *arta-* izan da aurkitu dugun aldaketa bakarra

arta jorra HE19, HE53 (baina honen ondoan artho-jorran HE60), arta-zuriketa HE18 (eta arto zuriketa HE25), arta-zuritzen HE18 (eta arto zuritze HE29), arta-jalkitze HE18, arta-kordaketa HE18

d. **-tz + -g/-d** →**-z + -k/-t**, hau da, txistukari afrikatua frikari bihurtzen da eta ondoko herskaria ahoskabetzen du: *ikazkintza* eta *gaizkintza* HE21, HE40

e. Bi silabako osagaietan **-i** bokala erori ondoren azken posizioan geratzen den herskaria neutralizatu egiten da **-t** izanik leku horretan agertu ohi den herskaria: *artzantza*.

f. Bokal kontrakzioak ere gerta daitezke: *ot-epeite* HE56, goiko *giz eralle* HE08, HE28, *lubagi* HE21 (ikus egile-elkarte sintetikoetan osagaien arteko hots-aldaketak aztertzean honetaz dioguna).

II.2.2.3. Idazkera

Berriro ere joera nagusiak bilduaz:

— Errokariak sailean erabateko joera aurkitu dugu bi osagaiak loturik idazteko. Inoiz behin marra ere agertzen da, batez ere, A-x-gintza egiturakoetan.

— Ekintza-elkarte soiletan nahasketa handiagoa nabari da: zertxobait ugariagoak dira marradun adibideak elkarturik eta banandurik idatzitakoak baino; aldea ez da, baina, handia.

— Ekintza-elkarte osatuetan, azkenik:

- A-x-*t(z)e* erakoetan bi osagaiak banandurik idazteko joera (ehuneko berrogeita-marretik gora) eta marra erabiltzekoa (ehuneko berrogei inguru) dira nagusiak. Bi osagaiak loturik oso gutxitan aurkitu ditugu.
- A-x-*keta* elkarteak ere marraz (zertxobait gehiagotan) edo banandurik idazten dira; loturik idatzitako adibiderik ez dugu aurkitu. Beste horrenbeste esan dezakegu A-x-*era*, A-x-*kuntza*, A-x-*kunde* eta A-x-*dura* modukoez.
- A-x-*pen* eta A-x-*tza* elkarteetan, aldiz, bosna adibide baino ez dugu, honela banaturik:
  - A-x-*pen*: hirutan osagaiak banandurik daude; batean elkarturik eta beste batean marraz loturik.
  - A-x-*tza*: bi marraz, bi banandurik eta bat loturik.

Gutxitxo dira, dena den, inolako ondoriorik atera ahal izateko.

II.2.3. Jardun-Elkarte sintetikoak

II.2.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Kategoria gramatikala da elkarte honi batasuna ematen diona, aditzondo edo adberbio kategoriako elkarteak dira eta sail honetan bildu ditugunak.

II.2.3.1.1. Soilak

Egile eta ekintza-elkarte sintetikoetan egindakoari jarraiki, bigarren osagaiak aditzondo balioa inolako atzizkiren beharrik gabe lortzen duelako eman diegu 'jardun-elkarte sintetiko soilak' izena. Bi mota desberdin bildu ditugu hauen artean:

a. A-*bila*

Ondoan *ibili* aditza eraman ohi duen *bila* dute bigarren osagai mota honetako egiturek, lehen osagaiak, izenak, 'zeren' bila adierazten duelarik:

> abaro-bila, anparo-billa, ardi-billa, ardo billa, argi billa, argitasun bilha, asto billa, ataka-billa, atun-bila, baimen billa, pake billa, pekatu-billa, bide bila, egi-billa, haragi bila, ari billa, inozente billa, jan-billa, lora billa, ogi-billa, operaziyo billa, pausu bilha, sagu bila, segurantza bila, sosegu billa, sustrai bila, ur bila

Berrelkarketatzat har daitezkeen ondoko adibideotan, lehen osagaia izenetik goragoko kategoria ere izan daitekeela ikusten dugu, izenlagunaz eta izenaz osatutako multzoa, esaterako:

> argibide billa, argigune billa, barrusakon billa, Baztango gai-billa, gure diru ta iskillo billa, hilezkortasun bila, "Larreko" osagille ta euskal idazlearen barri-billa, senargai bila

> «Itsaso delako norbaitekin dabiltza beti zirika, atun-bila» HE27,310
> «ta ba dira segurantza bila ibiliaz horietan finkatzen direnak» EI94,77
> «Baztango gai-billa urte askotan ibilia» HE31,78
> «30 indiyotar bazeuden, batzuek gu gorde nayez, besteak gure diru ta iskillo billa» EJ81,47

b. A-*eske*

Berez izena da *eske*, baina 'zerbaiten eske ibili', 'zerbaiten eske etorri' etabarretan predikatu-osagarri balioa hartzen du, aditzondoetatik oso gertu dagoena[32]. Horregatik, mugakizunaren funtzioaren arauera bi kategoria bereizi ditugu: *ogi-eskea egin du* bezalako perpaus batean *eske* izena da eta elkarte osoa *Eguzki-lore* elkartea. *Ardo eske etorri zaigu* diogunean, aldiz, Jardun-elkarte sintetikotzat hartu dugu *ardo eske*.

> ardo eske, argitasun eske, axari-eske, bai-eske, barka eske, bataio eske, bertso-eske, bizitza eska, erabaki eske, euri eske, gupida eske, jaramon-eske, caridade-esque, leialtasun eske, monopolio eske, ogi-eske, olio eske, osasun eske, pillura eske, salbazio eske, seme-esque, ur-eske, lan-sari eske

> «bai-eske natorkizu inola al baleite» HE18,120
> «neronen beste denbora bat agiri baizat, bertan, leialtasun eske bezela» EJ05,195
> «inudea lan-sari eske eta etxe-jabea errenta-zai» HE28,58

---

[32] Ikus Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak/I*, 255. or.

c. A-x-*zain*

A-eske elkarteetan ikusi dugun bikoiztasun bera dugu hemen ere: *artzain* izena batetik, *artzain ibili/egon/joan...* bestetik. Bigarren balio hau da hemen jaso duguna, lehen osagai izenak 'zeren' zain adierazten duelarik:

aberezain, ardi zai, bei-zai, basurde-zain, errenta-zai, ganadu-zai, aur-zai, ontzi zai...

«ango pampetan 35 urte, ganadu-zai, egin ondoren» HE50,9
«azkenik, basurde-zain, artotan estali» HE18,47
«beltz batalloi bat, ontzi zai» HE23,116

Bada ordea *zain egon* esapidean oinarritzen den erabilera berezi bat, 'zeren' zain egon adierazten duen atala perpaus osoa izan bait daiteke:

eguna zabaldu-zai, burura etorri zai, David irten-zai

«mutil kaiku oiei burura etorri-zai egon bear guk» HE57,132

d. A-*pasa*

Elkarte osoak 'nola' adieraziarren, *pasa* aditzoina da eta ez da aditzondo balioan erabiltzen; izena ezkerretara duela elkarte sintetikoa osatzen duenean bakarrik hartzen du halako balioa. Egia esan gutxi dira horrela sortutakoak, adibidetegian jasoa dugun *denbora pasa* eta hitzetik hortzera erabiltzen ditugun *egun pasa*, *gau pasa* (izen bezala ere erabiltzen ditugunak) eta agian besteren bat.

«denbora pasa kantuan asiko dala» HE19,95

II.2.3.1.2. Osatuak

Jardun-elkartearen ezaugarri atzizki jakinen bat duten hitz elkartuak dira hurrengoak.

a. A-x-*ka*

Ekintza edo egile elkarte sintetikoetan gertatzen den forma eta esanahiaren arteko ezadostasuna topatzen dugu hemen ere: *aho + zabalka* egitura formalari 'ahoa zabaldu ekintza eginaz' adiera dagokio. Lehen osagaia izena da, objektu funtzioa biltzen duena:

ahozabalka, ate-joka, arpegi emanka, begizabalka, beatz-topaka, beso gainka, beso-urtika, errosario esaka, esker emanka, esku zartaka, gaitz-esaka, itz-ernarika, itz-etenka, ihurtzuri-eskainka, isats-eraginka, isil-ostuka, mamu atzemanka, mokil-urtika, mutur joka, ostatu-galdezka

«besoak tirahala luzatuz, ahozabalka hasi zen, pozez Otsoko» EJ53,31
«neska-mutillak ibilten dira gaubean isil-ostuka» EJ70,62
«eta horra nolako gizonei dioten gure izenean beren boza eman beso gainka, egun izigarri hautan» HE14,153

«lurrean belauniko jausirik eta bi besoak altxatuz, malkotan blai, itz-etenka, oiu egiten omen zioten giz-eredu eder aiek» EL70,94

Bi adibide aurkitu ditugu Jardun-elkarte soiletako A-*eske* gehi erredundante gertatzen den *-ka* aditzondo-atzizkia daramatenak:

arrai-exur eskeka EJ03, parkeskeka HE44

b. A-x-*ari*

Berez A-x-*ari* egile-elkarte sintetiko direnak, baina predikatu-osagarri funtzioan askoz maizago erabiltzen ditugunak:

«lagunak atsegin zuten ta Tabuyo kanta kantari ari zan» HE61,22
«neguko igande batean zeuden trabenan kontu kontari baserritar batzuek» HE22,83

II.2.3.2. Osagaien arteko hots-aldaketak

Parkeskeka HE44 elkarteko bokal kontrakzioa kenduz gero, **a + e → e**, ez dugu beste hots-aldaketarik aurkitu. Elkarte honetan bertan ere, hor ditugu, ordea, *barka eske* HE27, EJ50. Ba dirudi, beraz, jardun-elkarte sintetikoetan, bi osagaiak bere osotasunean gordetzen ditugula.

II.2.3.3. Idazkera

Bigarren osagaitzat *bila* eta *eske* dituzten jardun-elkarte sintetikoetan, bi osagaiak banandurik idazteko joera nabarmentzen da, nahiz marraz elkartuak ere ez diren hain urriak. Bi osagaiak loturik, nekez aurki daitezke. Jardun-elkarte osatuetan, aldiz, pitin bat ugariago dira marratxoz idatziak banandurik idatziak baino; eta bizpahiru adibide loturik.

II.2.4. Exosintetikoak

Izen hau eman diegu bi osagaietatik bat grekeratik edo latinetik hartua ("kulto" delakoa[33]) duten elkarte sintetikoei. Bi aurkitu ditugu halakoak, biak egile-elkarte liratekeenak. *Teleikusle* izena 'urruti' adierazten duen osagai kultoaz eta erabat gardena den *ikusle* eratorriaz osatua dago, A-x-*(tzai)le* sailekoa da, beraz. *Jainkofago* izenean, aldiz, bigarren osagaia da grekeratik hartua, elkartearen esanahia 'Jainkoa fagozitatzen/jaten duena' izanik; ondorioz, egile-elkarte sintetiko soiletatik ez dagoela oso urruti esango genuke.

«hoa Larraunera Jainkofagoak ezagutzera» HE39,70
«zer kantatuko diezue teleikusleei?» HE39,102

---

[33] Osagai "kulto"ak direla eta, ikus Guilbert L. 1975: *La créativité lexicale*, Paris, Larousse "Université", 224-248. or.; Adams V. 1973: *An Introduction to Modern English Word-formation*, London, Longmann, 128-134. or.

Hitz-elkarte sintetikoen azterketa amaitzeko, hain emankor eta bizia den elkarte modu honen balio praktikoaz bi hitz esan nahi genituzke, oso baliagarri bait zaigu ondoko hizkuntzetako 'izena + izenondo erlazionala'[34] egiturako elkarte sintetikoak itzultzeko. Izan ere, espainolez edo frantsesez askotan egilea edo ekintza adierazten duen izena doa lehen (gogoan izan behar dugu Villasantek azpimarratu bezala euskaraz 'mugatzailea + mugakizuna' egitura dugun bitartean hizkuntza erromantzeetan 'mugakizuna + mugatzailea' hurrenkera dutela) eta objektua bilduko lukeen izena, izenondo bihurturik azaltzen zaigu: *transporte de ciudad* esan ordez *transporte urbano* esan ohi da; *invención de estudiantes* baino askoz maizago entzungo dugu *invención estudiantil*, *responsable didáctico* egitura *responsable de didáctica*-ren ordez etab. Gure etengabeko itzultzen jardute horrek duen arriskuetako bat, betidanik geurea izan dugun *didaktika arduradun* alde batera utzi eta *arduradun didaktiko* bezalako mordoilokeriei atea irekitzea da. Horrelakoetan kontutan izan behar dugu ingelesaren eta alemanaren bidea, euskararenetik askoz hurbilago dagoena, *hiri--garraio* edo *ikasle-asmakizun* esateko, *city transportation* (bai *urban transportation* ere), *student invention* edo *Studenterfindung* bezalako elkarte sintetikoak eskaintzen dizkiguna.

---

[34] Izenondo erlazionalak direla eta, ikus bereziki Ensunza M. 1989: "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" *Euskera* XXXIV, 577-596. or.

XI. *JARLEKU* MODUKO HITZ ELKARTUAK

XI.1. EZAUGARRI MORFOLOGIKO ETA SEMANTIKOAK

Hitz elkartu hauek, osagaien kategoria gramatikalaren aldetik, 'aditzoina + izena' modukoak dira; zenbaitetan, batez ere mendebaldeko euskalkietan, partizipioa ere ageri zaigu mugatzaile gisa:

abialeku, abiapuntu, agerleku, agertoial, aitorleku, agertoki, amiltoki, amil-leku, aterrune, aztersaio, azterpuntu, ikuspuntu, bilgune, biltoki, biltorri/bildu-orri, bizigiro, bizigune, bizkor-belar, borragoma, edanontzi, egon giro, egongune, egonleku, ehomakina, elikatoki, eragin-indar, erakustoki, eraman-indar, erne-indar, erne leku, erosi--txartel, erre-burni, errebedar, esar leku, esertalde, esertoki, etzan-leku, etzun-toki, ezkon-bidaia, ezkon-otordu, ezkon-urte(ak), ezkondu hitza, ezkon-egun, ezkont lege, finkaleku, ezkonsari, gal-leku, garbileku, garbitoki, geldileku, geldiune, geltoki, gertaleku, gertirudi, gorde-leku, ariltoki, asi-garai, haz-ama, haz-pentsione, helburu, helduleku, igi-almen, il-toki, hil-xede, ibil-leku, ibil-egun, idazkola, idaz-makina, idazpuru, idaz-tankera, ihes-leku, ikas-ahalegin, ikasordu, ikastoki, ikus-muga, ipini--ordu, irabaz-lege, irakur-lan, irakurzati, irar-huts, irarkola, irart-oker, iratzar-dei, irten-muga, itxaron-gela, itxi-garai, jaiotegun, jaioterri, jaioteuskalki, jaiot-hizkuntza, idatz-hizkera...

«bizitza arruntean preminazkoen dituen irakurzatiak leitu» EI94,35
«Noemi Moab-en bizi izan zan, Israel-era itzuli gabe, semeac ezcon-urtietara igo arteraño» HE45,202
«tribunaletako paperek erakusten dute, Etxahun maiz ibiltzen zela jujetan, bere haurren ganik gero eta haz-pentsione joriagoak beharrez» HE43,13
«saltokian biltorri (bildu-orri) nabari bat yantzita agertuko nituke: bertan itz arro batzuk, erderaz» HE17,33
«bere bizi tankera eta nortasunari gagozkiola» HE28,55
«lau zango luzedun ehomakina ugarreztatu batek babesturik» HE39,52
«onenbeste-ainbeste eman-agiria sendotzen dutelarik» HE17,69
«idatz-hizkerak, berriz, ororentzat behar du izan» HE26,276
«irar-huts askoz Azpiazuk 1926ko Donestebeko Euskal Jaietan ezaguterazita» EJ00,203

'Aditzoina + izena' egiturako elkarteak menpetasunezko elkarteak dira, hau da *Eguzki-loreak* azken batean: bigarren osagaia, izena, da zertaz ari garen (*tankera* batez, *makina* klase batez, *agiri* batez, *huts* mota batez...) adierazten duena, eta elkarte osoari kategoria gramatikala ematen diona, aipatu berri ditugun adibide guztiak (eta 'aditzoina + izena' elkarteak oro har) izenak dira eta. *Eguzki-lore* izenaz bataiatu ditugun elkarteekin duten berezitasuna, lehen osagaiaren, mugatzailearen kategoria gramatikalean datza: *Eguzki-lore* elkarteetan, mugatzaile nominala, izena, dutenak bildu genituen; aztergai ditugun elkarteotan mugatzailea aditzoina (zenbait adibidetan partizipioa) da. Ez da harritzekoa, ondorioz, *Eguzki-lore* elkarteetako azpisail bat baino gehiago atzematea hemen ere, hala nola:

1. 'Aditzoina + *bide/gai/kide/aldi...*'

aberaspide, adibide, agerbide, aginpide, aharrabide, argibide, aribide, asmapide, aterabide, aurkibide, aurrerabide, azalpide, azterbide, baterabide, bilabide, egi(a)ztabide,

eginbide, entzunbide, erakuspide, eskubide, eskabide, esplikabide, galbide, hazibide, ibilbide, idazpide, ikasbide...

adigai, apaingai, bizigai, eginkai, elikagai, eragingai, erregai, esangai, ezkongai, hedagai, jardun-gai...

agerkide

agerraldi, argitaraldi, ateraldi, azterraldi, edanaldi, egonaldi, eihotaldi, ekinaldi, emanaldi, erakusaldi, eroraldi, eskegialdi, estualdi, etsi-aldi, etzanaldi, geldialdi, asi-aldi, higi aldi, ibiltaldi, ihes aldi, iharrosaldi...

2. 'Aditzoina + *alde* '

bil-aldean, etzinalde, sartalde, sortalde...

3. 'Aditzoina + *mota/modu/molde* '

elika-mota, bizimodu, erran-molde, idatz-molde, egin molde...

4. 'Aditzoina + *lan* '

gertu-lan, irakur-lan, ezkon-lan, itzul lan...

Definizioa bera argia izan arren, adibideak aztertzen hasi orduko, zenbait zalantza sortzen da eta askotan ez daki batek halako hitz elkartu sail honetakoa den ala ez. Eskuartean izan dugun adibidetegiaren azterketak honako zalantza-modu hauek sortu dizkigu:

1. Batzuetan ez da erabat argia izaten lehen osagaia aditzoina den ala beste kategoria bateko elementu bat den, ikuspegi formal hutsetik, —edukin semantikoa aintzakotzat hartu gabe—, behintzat. Honela:

Aberaspide, argibide, atsedentoki, bazkalordu, bazkaltoki, bizkor-belar, dantzaleku, edatetxe, egotaldi, egotoki, erantzunbide, erasoaldi, esataldi, estualdi, ikastaro, geldialdi, hariltoki, ihesaldi, ikastetxe, ikastola, ilunaldi, izudamu, jolastoki, kantaldi, kezkabide, konkistagai, oharpide, pozbide...

Kasu hauetan aditzoina den ala izena (edo izenondoa) den ezkerreko osagaia ez da erabat argia, ikuspegi formal hutsetik:

aberats ala aberas(tu), argi ala argi(tu), atseden (izena) ala atseden (aditza), bazkal-(bazkari izenak hitz-elkarketarako hartzen duen era) ala bazkal(du), bizkor ala bizkor(tu), dantza ala dantza(tu), edate ala edan, egote ala egon, erantzun (izena) ala erantzun (aditza), eraso (izena) ala eraso (aditza), esate ala esan, estu ala estu(tu), ikaste ala ikas(i), ilun ala ilun(du), izu ala izu(tu), jolas ala jolas(tu), kanta ala kanta(tu), kezka ala kezka(tu), konkista ala konkista(tu), ohar ala ohar(tu), poz ala poz(tu)

dagoen kasu horietako bakoitzean, begiratu batera behintzat, ez dago erabakitzerik.

Aipaturiko adibideotan sortzen den zalantza era honetakoa izan ohi da:

2. Izena (edo izenondoa) eta aditzoina berdin-berdinak direnekoa: *argi, atseden, dantza, erantzun, eraso*, etab.

3. Hitz elkartuaren bi osagaien lotgunean azaltzen d(ir)en *-t(e)* fonema(k) aditz-izenari dagokiona(k) ote d(ir)en pentsa litekeenean: *edatetxe, egotaldi, egotoki, esataldi, ikastako, ikastetxe, ikastola...*

   Hauxe da hain zuzen Mitxelenak (1976:249)[1]

   > «Hemos señalado en este mismo capítulo (.10) que muy a menudo *-t* es el resultado del ensordecimiento de una sonora al quedar en final del primer miembro: *bet-* de *begi* y *behi, it-* de *idi*, etc. Esto cuando es un nombre. Si tiene *carácter* verbal, puede presentar la forma del radical nudo, pero puede ir también provisto del suf. *-te* que forma sustantivos verbales»

   proposatu zuen interpretazioa. Mitxelenak lan horretan esaten zuen bezala, ez da beti erraza izaten, ordea, hitz-elkartearen bi atalen banaketa non egin behar den asmatzea.

4. Mitxelenaren azalpenak ez dirudi, ordea, beste kasu hauetan balio dezakeenik: *agertaldi, agertaro, agertoial, agertune* hitzetan ageri den *t* fonemaz, adibidez, zer esan? Izan daiteke *agertu* forma burutuarena? Hori ez litzateke harritzekoa, izena balitz, izen-elkartearen lehen elementuak *-u* bukaeran duenean hau galtzea konposatu zaharretan usu gertatu izan bait da, horrela: *buru*-k *bur-*, *larru*-k *lar* eman izan dute, baina aditzaren forma burutuak batzuetan duen bukaerako *-u* hori galtzea ez da ohizkoa. Gainera, kasu honetan garbi dago *-tu* partizipio bukaera, eratorpen atzizkia dela, *ageri* → *agertu* bikoteak erakusten duenez.

   Bestalde, aipatzen ari garen adibide hauetan (*agertaldi, agertaro,...*) *-t-* hori ezin da izan aditz-izenarena, aditz honen aditz-izenaren formetatik (*agertze, agerketa, agertute*) nekez gera bait daiteke *agert-* forma hitz-elkarketarako.

   Azken posibilitate bat epentesiarena izango litzateke. *t* hori epentetikoa izatekotan (eta halakoa dela dirudi) ez litzateke artikulazioa erosotzeagatik sartutakoa izango (*agerraldi, agerrune...* esateko ez dago inolako artikulazio zailtasunik), *-de, -di, -du, -gi, -gu* bukaerak dituzten hitz zahar batzuetan (*abade, idi, berandu, begi, sagu*, e.b.) hitz elkartuak eratzerakoan ikusten den fonema honen agerpenaren analogiaz jokatuz edo erantsia baizik.

5. Zenbait kasutan hitz-elkartearen lehen elementua aditzoina den ala izenak hitz-elkarketarako hartzen duen era berezia denez da garbi nabari: *bazkalordu, afalordu* hitz elkartuetan *bazkal-* eta *afal-* berdin izan daitezke *bazkari* eta *afari* izenen forma berezituak ala *bazkaldu* eta *afaldu* aditzen oinak.

Batzuetan ikuspegi formal hutsak argitzen ez duena semantikak argitzen du. Honela *hiltoki* (= kanposantu)(1) eta *hiltoki* (= mataderia)(2) desberdin sentitzen dituela hiztunak esan liteke, *hil-* osagaiak duen kategoria gramatikalaren aldetik.

---

[1] Michelena L. 1976: *Fonética Histórica Vasca*, Seminario Julio de Urquijo, San Sebastián.

hiltoki (1) hil(dako)en tokia

da eta

hiltoki (2) animaliak hiltzen dituzten tokia da.

Bi osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, 'xedea', 'zertakoa' adierazten du mugatzaileak adibide gehienetan, izen mugakizuna 'zertako' den alegia. Mugatzailea aditza denez, bestalde, xede hori beti 'ekintza-xedea' izango da, zerbait egiteko izan ohi da izenak adierazten duena. Hala nola:

biltorri = (zerbait) biltzeko orria
agerleku = (zerbait edo norbait) agertzeko lekua
etzan-leku = etzateko lekua
itxaron-gela = itxaroteko gela, etab.

Dena den, ez da 'xedea' elkarte hauetako bi osagaien artean soma daitekeen erlazio-mota bakarra. Hor ditugu, esaterako, *ezkonsari* 'ezkontzean ematen den sari' bezala uler daitekeena, *jaiotegun* 'norbait jaio den eguna', *itzul lan* 'itzultzearekin zerikusia duen lana', *ezkon-bidaia* 'ezkontzean egiten den bidaia', etab.

Inguruko hizkuntzetan ere baditugu 'aditzoina + izena' elkarteak. Ingelesez eta alemanez[2], esaterako:

grindstone, search-light, throwstick, blow-pipe, wash-house, drag-hook, spy-hole, treadmill, drawplate...
Schreibtisch, Zeig(e)finger, Lesebuch, Bindestrich, Backhaus, Lachtaube...

Hizkuntza erromanikoetan ere badituzte 'izena + preposizio + aditza' erako elkarteak:

macchina da cucire, machine à laver, navaja de afeitar, piedra de afilar, máquina de coser, salle à manger, sala de estar[3]

Inguruko hizkuntzetako elkarte hauetan ere 'xedea' da ohizko erlazio semantikoa.

---

[2] Ikus Marchand H. 1960: *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*, Wiesbaden, 27 e.h. Paul H, 1920: *Deutsche Grammatik*, Band V. Teil IV: Wortbildungslehre, 21-22 or.

[3] Honen ondoan *sala de lectura* esaten da espainieraz, ez **sala de leer*. Hau da, euskaraz 'aditzoina + izena' erabiltzen den askotan, espainieraz 'izena + preposizioa + izenkia (aditzetik eratorritako izena)' ageri da. Hor ditugu, urrutirago gabe, gure adibidetegiko *itzul lan* eta *trabajo de traducción*, eta badirudi euskaraz azken urteotan, espainieraren eraginez seguruenik, 'izenkia + izena' egiturak ugaltzen ari zaizkigula; areago orain arteko *jaiotegun* edo *jaioterri* baztertu eta *jaiotze-data, jaiotze-leku* bezalakoak ikustea ez da zailegia. Hor dugu urrunago gabe adibidetegian *Komunikatze-bideak* EI94,63, gaur egun askoz erabiliagoa den *komunikabide*-ren ordez.

XI.2. ELKARTE HAUEN EMANKORTASUNA

'Aditzoina + izena' elkarte-mota oso ugaria da, adibidetegiko milatik gorako adibide-kopuruak erakusten duenez. Kronologiaren haritik, mende honetan bikoiztu egin dela esan genezake hitz elkartu hauen erabilera (baina beste hainbat elkarte--motarekin ere ohar bera egingo genuke, hitz-elkarketa bera bait da mende honetan erruz ugaldu dena). Gainera, kontzeptu berriak izendatzeko erabili da, hitzak eratzeko prozedurak berak ere bizirik dirauela erakutsiz:

> borragoma, deklinabide, ehomakina, erosi-txartel, ezkon-bidaia, geltoki, haz-pentsione, idazmakina, ikasliburu, ikastola, informabide, irar-huts, irarkola, itxarongela...

Eguzki-lore motako hitz elkartuen kasuan bezalaxe, euskara batua erabiltzen duten autoreen lanetan agertzen da *jarleku* motako hitz elkartuen ugaritasunik handiena.

Jakina, garaiak eta euskalkiak baino eragin handiagoa dute askotan autorearen zaletasunak edo hizkuntz erregistroak. Lizardi batek, esaterako, joera handia zuen tankera honetako hitz elkartuak erabiltzeko

XI.3. BERRELKARKETA

'Aditzoina + izena' elkartea izan daiteke aldi berean menpetasunezko elkarte baten (hau da *Eguzki-lore* motako izen elkartu baten) lehen edo bigarren osagai:

> banakola-leio zulo HE21, egur-errauts EF92, Europa-sartalde HE30, euskal esaldi HE27, euskal-itz-jostaldi EJ81, ezkongai gazte pilo HE31, iarrtoki-aurrera EJ70, isilgune-ostean HE18, itz-eratorpide EJ06, jesarleku txiki pillo HE31, jostorratzontzi HE24, kristau-ikasbide HE17, sorgin-biltoki HE24

Izan daiteke 'Dvandva' elkarteko osagaietako bat:

> jostorratz-ariak EJ03, sortalde-sartaldeak HE27

Azkenik, hor dugu adibidetegian *ikas-ahalegin* EJ00 bi eratara uler daitekeena:

1. *ikas-ahal* ('aditzoina + izena') + *egin*, itxuraz 'Aditz-elkarte'etako egitura genukeena, nahiz berauek aztertzean ere esan dugun *ahalegin* berezia dela izena delako, eta ez aditza.
2. *ikas* + *ahalegin* eta orduan aditzoinaren eskuinean doan izena da aldi berean elkartea.

> «"Alfaqui, Ponlebi, Sofi, Zaquizami" eta orduko beste poetakeriak ikas-ahaleginetan liluratuta?» EJ00,184
> «eta gañera Azkoitiko euskal-itz-jostaldiyetan saria izan du» EJ81,5
> «eta ba daroat banakola-leio zuloetara» HE21,55

XI.4. OSAGAIEN ARTEKO HOTS-ALDAKETAK

Hitz elkartuen osagaiak banantzean datza aztergai honek duen zailtasunik handiena. Osagaien kategoria gramatikala aztertzerakoan azaldu ditugun arazoak agertuko zaizkigu hemen ere. Hitz-junturako hots-aldaketak aztertzeko, lehenbizi hitz elkartua nola eratuta dagoen, abioko atalak zein izan zitezkeen asmatu behar da. Hitz elkartu askok eta askok interpretazio bat baino gehiago onartzen duenez, hitz-junturako hots--aldaketei buruz aterako diren ondorioak ere arrunt desberdinak izan litezke onartzen den interpretazioaren arabera. Gauzak gehiegi ez konplikatzeagatik interpretazio bakarra hartu dugu kontutan kasu bakoitzean.

Hots-aldaketok honako sail hauetan bil daitezke:

XI.4.1. Bi bokal berdinen topaketak eragindako kontrakzioak

-a + a- = a

argitaraldi, ateraldi (HE22,10; HE27,367; HE32,75; HE59,12; HE58,68; HE58,85; HE44,32; EJ04,75; EJ60,26; EC16,13; EC16,124; EJ71,27; EJ71,39; EJ66,9; EJ00,183; HE61,13; EJ04,35; HE17,19; HE57,101; HE27,301; EJ50,77), begiraldi (HE07,122; HE07,129; EC48,156; HE07,323; HE07,260), begiztaldi HE58,86, ereinaldi HE40,139, geraldi HE34,50, gertaldi (HE54,169; EC61,127; EJ59,34; HE40,85; EJ89,61), jorraldi HE28,52, jostaldi EJ81,5, kantaldi HE56,11, konfesaldi (HE07,333; HE07,331), kontaldi HE21,97, mintzaldi (HE58,55; EJ20,15; HE58,69; HE52,4; HE56,10; HE58,72; HE58.62; HE58,62), nekaldi EJ76,126, pasarte EC07,47; EC07,47, saltarri HE24,61, sendaldi HE23,95, tentaldi EJ52,22; ED46,162, tiraldi HE22,43, zafraldi EJ04,50, zedarri HE59,53, zirikaldi HE27,337; HE25,78.

-e + e- = e

edatetxe HE21,28, ikastetxe (HE50,79; EJ81,39; EL70,257; EJ68,16; EL70,207; HE46,9; HE16,26; HE30,227, HE23,11; HE28,76), jaioterri (HE31,101; EJ49,136; EJ60,25; EJ64,34; EL70,160; EJ69,23; EL70,133; HE27,373; HE16,9; HE33,21; HE28,61; HE31,13), jaiotetxe (HE25,12; EL70,153; EJ60,33; EL70,186; EJ67,53; EL70,185; EJ66,9; HE31,86; HE25,51; HE19,114), jaioteuskalki HE26,292, jatetxe (HE44,23; HE44,11; EJ64,27; HE17,43), jaztetxe HE17,11, sortegun HE27,302, sorterri (HE33,59; EJ77,83; EL70,153; EJ51,42; HE59,83; EJ51,43; HE58,81; HE56,8; HE27,302; HE56,19; HE58,82; HE27,335; HE52,11; HE56,11; HE56,11; HE28,84; HE04,79; HE89,18), sorterro HE40,185, sortetxe (HE18,112; EJ68,18; EJ68,19; EL70,61)

Kontrakzio hau gertatu dela uste izateko mugatzailea aditz-izena dela suposatu behar da noski.

XI.4.2. Mugatzailearen bukaerako bokalaren galera, bokal desberdinen topaketaren ondorioz

-u + o- → -o-

agertoihal E15,27, biltorri HE17,33. Ikus autoreak "biltorri (bildu-orri)" idatzi duela.

-e + a- → -a-

egitarau EC07,50, egotaldi EC61,51; EJ70,77, eihotaldi HE18,46, errauts (HE20,132; EJ80,155; EF92,27; EF92,26; EJ72,60; HE59,43; HE59,51; HE12,16), esataldi, ibiltaldi EJ81,54; EJ81,39, ikastaldi (EI94,55; HE24,6; EI95,55), ikastaro (HE17,75; EL70,145; EL70,60), ikustaldi (HE31,18; EJ05,180; EJ64,113; HE23,35; HE31,44), sortzaro HE30,217

Beste batzuetan ez dago kontrakziorik:

barealdi, EJ70,134; galdealdi EB20,26

-a + i- → -i-

gertirudi EJ24,22, jostirudi EJ07,3

Beste batzuetan ez dago kontrakziorik: *senda-indar* EJ48,19

-e + o- → -o-

ikastola (EI94,33; HE50,41; HE21,46), jatontzi EJ64,43, jatordu (HE57,120; HE57,118; HE31,23; HE16,22; HE25,84), jostorratz (HE24,58; HE57,104; EJ03,58; EJ60,101)

-e + i- → -i-

jaiotizkuntza EJ00,184

-u + i- → -i-

neurtitz HE33,39; EJ77,12; HE30,229; HE17,30; HE24,118; HE27,389

-u + a- → -a-

sartalde (zHE30,216; EJ69,79; EF92,30; HE50,20; HE30,204; HE50,65; HE28,345; HE12,11; HE50,20; HE30,212; HE57,10), sortaldi EJ04,39

Beste batzuetan ez dago kontrakziorik: puztu-aldi HE28,90, aspertualdi HE53,20, estualdi HE2 ,107, hustu-antzean HE17,42

-u + e- → -e-

sortegun HE27,302, sorterri HE33,59; EJ77,83; EL70,153; EJ51,42; HE59,83; EJ51,43; HE58,81; HE56,8, sortetxe

XI.4.3. Haplologiak

edontzi (edan + ontzi) (HE08,87; EJ70,90), egotoki (egon + toki) HE20,164, esaldi (esan + aldi) (HE27,356; HE27,307; HE17,12), geltoki (geldi + toki) HE21,168

XI.4.4. Kontrakziorik eza

Aipagarria da zenbait bokal-topaketak ez duela inoiz kontrakziorik ageri adibidetegian behintzat, hala nola:

i + a

berrialdi EJ66,147, eseri-alki HE22,41, eskegi-aldi HE39,78, etsialdi HE28,57, geldialdi (HE44,14; EJ66,128; EJ60,115; EJ60,47), hasialdi HE29,53, hausiabar HE16,114, hautsiabartza HE40,214, higi-ahalmen HE17,11, higialdi HE32,48, ibillialdi (HE50,15; HE50,67), igurtzialdi HE18,56, jantzialdi EJ60,189, jarrialdi (EJ67,177; EJ67,101), jaulkialdi HE17,14, jetxialdi HE70,189

o + a

erasoaldi EJ71,34, igaroaldi EF52,52, jasoaldi HE26,292, joaldi EJ49,168; EJ49,147

i + u

geldiune HE35,75; EB20,26; EB20,12; HE31,71; EI94,24

a + e

mintzaera HE38,159, pentsaera HE27,386, predikaera EI94,44, sendaetxe HE55,40; EL70,122

a + o

pentsaordu EL70,159

i + o

ipini-ordu EJ07,2

XI.4.5. Kontsonante-topaketek eragindako hots-aldaketak

Topaketa gehienetan ez da aldaketarik. Zenbait topaketak batzuetan aldaketa eragiten du eta beste askotan ez. Hona hemen kasuz kasu topaketa-mota desberdinetan gertatzen diren aldaketak:

XI.4.5.1. kontsonante ozen (sonante) + herskari topaketak

r + b → r + p

Egia esan ezingo genuke aurreko kontsonante dardarkariak eragindako hots--aldaketa bezala formulatu. Izan ere, dardarkariak ez du inoiz ondoko kontsonantea ahoskabetzen. *bide/pide* alternantzia ikusi beharko genuke, beraz, hemen, ingurune fonetikoaren arauera esplika ezin daitekeena.

harpide HE17,70, oharpide HE40,24; HE40,215; HE40,171; HE40,143, ulerpide EJ56,53, sarpide HE15,23; EL70,65; EL70,133; HE15,8

Aldaketarik gabeko adibideak

agerbide HE17,62; HE38,160; HE38,171, azterbide EB20,45; EB20,37, bizkorbelar HE18,79, erorbide HE17,13; HE30,234; EJ71,40, igerbide HE40,142, okerbide EI94,81; EB20,36; EI94,33; HE17,50; HE17,52, sarbide HE17,21; HE17,34, sorbide EI94,45, sorburu EJ80,54; EB20,19; EB20,14, ulerbide EB20,28

n + b → n + p

aginpide (HE24,138, EJ69,67; EJ20,26), eginpide (HE18,109; EI99,157)

n + b → ø p

egipide EJ07,1, erantzupide EI94,62, esapide EJ56,24

Dardarkari gehi herskari multzoan esana errepikatu beharko dugu hemen ere, sudurkariak ezer egitekotan herskari ahostun bihurtzen bait du, hau da **p → b** aldaketa eragingo luke, ez alderantzizkoa.

Aldaketarik gabeko adibideak dira gehienak espero zitekeen bezala:

eginbehar (HE27,304; HE35,72; HE36,12; EI94,50; EI94,47; HE31,55; EI94,50; HE29,120), eginbide (EJ58,32; HE07,341; HE07,237; HE07,345; EF92,12; HE07,237; HE12,21; HE14,157; HE17,25; HE17,47; HE27,368; HE59,58; HE59,61; EJ71,10; EJ71,14; HE07,277; HE27,339; HE26,264; HE33,21; HE59,8; HE07,32; HE07,283; HE07,73; HE07,86; HE07,18; HE07,62; HE07,89; HE06,118; HEAX,1; HEAX29, HEAX35; HE59,75; HE06,118; HE06,85; HE06,83; HE06,82; HE06,61; HE31,73; HE07,98; EJ80,61; EJ80,59; EC48,173; EC48,304; EC16,13; EC16,117; HE60,169; HE54,164; HE06,58; HE06,47; EJ72,58; HE07,280; HE07,351; HE07,349; HE07,351; HE07,46; EJ54,741; HE59,15; HE58,77; HE59,14), entzunbide (HE07,244; HE07,238; HE07,245), erantzunbide EJ60,59, ezkonbidaia HE35,32, ezkonbide HE13,117, irtenbide (EJ51,31; HE50,53; EJ52,33; EJ52,13; EB20,44; EB20,49; EJ51,43; EJ52,29), jakinbide (HE17,50; EJ49,108; EJ07,1), konponbide HE27,377, zuzenbide (HE17,33; HE17,55; EI94,51)

l + b → l + p

azalpide HE34,52

Aldaketarik gabeko adibideak :

bil-behar HE17,36, galbide (HE23,138; HE40,136; EC61,52; EC61,52; EC61,38; HE13,144; EF92,94; HE17,50; HE27,324), helbide HE58,61, helburu (HE58,61; EJ52,52; EJ52,8; EF92,7; EL70,233), hil-bezpera EJ00,196, ibilbide (HE13,29; HE40,37; 3J52,12)

-n → ø

Adibideren baten lehen osagaiko azken sudurkaria galdu egin da (goiko *erantzupide*, etab.etan ere beste horrenbeste gertatu da)

jatoki HE45,198

XI.4.5.2. Kontsonante ozena + txistukaria

Ez da horrelakoetan txistukaria afrikatu bihurtzen, hau da, **n + z → n + "tz"** bezalako aldaketarik ez da gertatzen. Salbuespen bakarra *galtzori* EJ51,16 da. Badirudi, morfemen arteko mugak, hitz elkartuko bi osagaien artekoak alegia, eragozten duela bestela ohizkoa den aldaketa.

XI.4.5.3. Kontsonante ozena + k. ozena topaketak

Bi kontsonante ozen elkartzen direnean ez da adibidetegian aldaketarik ageri, kasu bakar batean izan ezik:

saneurri HE21,96; HE33,14; EC61,168

XI.4.5.4. txistukaria + herskaria

s + b → s + p

ihespide HE27,363, ikaspide HE39,87; EJ69,90

Aldaketarik gabeko adibideak :

abesbatza EL70,166; EL70,232, ikasbide (HE55,22; EJ68,17; EJ67,408; EL70,183; HE26,264; HE17,10; HE31,53; HE19,19; HE25,24; HE17,60; HE17,51; HE25,14; HE28,90; HE50,38)

Herskari belarea, aldiz, ez du txistukariak ahoskabetzen gure adibidetegiko *Jarleku* elkarteetan, **sg** multzoa bere hortan azaltzen da.

z + b → z + p

irabazpide (HE17,67; EB20,27; EB20,41; HE40,76)

Aldaketarik gabeko adibideak :

irabazbide (EI31,353; HE13,138; HE13,117), oldozbehar HE17,23, pozbide (EL70,153; EL70,182)

txistukari afrikatua + herskaria → txistukari frikaria + herskaria

erakustoki EJ56,115, idazgai HE30,229, idaztankera (HE19,16; EJ64,31; HE27,340; HE33,63...), onesdamu HE08,208, sinesgai EJ80,10

Txistukari afrikatua, dena den, beste kontsonante batzuren aurrean ere frikari bihurtzen da:

idazlan, idazmakina, idazmolde...

txistukari afrikatua + herskari ahostuna → txistukari frikaria + herskari ahoskabea

aberaspide HE17,14, erakuspide HE28,69; HE58,64, idazpuru HE26,267

Herskari ahostuna gordeaz:

sinesbide HE20,158, idazbide HE17, 47

Oro har esan daiteke hots-aldaketaren bat eragin duten kontsonante topaketetatik % 55ek bigarren kontsonantea *b* duela. Kasu hauek aztertuz gero, berriz, egiazta daiteke % 92tan hitz elkartuaren bigarren elementua *bide* dela.

Honek ez du esan nahi, ordea, bigarren elementua *bide* izanik hots-aldaketa erakusten duten agerpenen ondoan, osagai berberak dituzten baina hots-aldaketarik ez duten adibideak aurkitzen ez direnik. Bigarren elementua *bide* izanik hots-aldaketa duten agerpenak eta ez dutenak honako hauek dira:

eginbide (66), eginpide (3), egipide (1), , erantzunbide (1), erantzupide (1), ikasbide (14), ikaspide (2), irabazbide (3), irabazpide (5), sarbide (2), sarpide(4), ulerbide (1), ulerpide(1)

Azkue-k *Morfologia*-n dioena berrestera garamatzate datu hauek: «[Bide] En ciertas zonas, limitándose a algunos vocablos, se ha modificado en *-pide* sin influencia fonética aparente» (12. orr.)

Hots-aldaketaren bat eragin duten kontsonante-topaketetatik % 45ek lehen kontsonantea afrikatua du. Hauen arteko banaketa hauxe da: bukaerako kontsonantea % 76tan "tz" da eta % 24etan "ts". Gainera, lehen kontsonantea afrikatua den kasuan % 97tan hots-aldaketa gertatzen da afrikatua igurzkaritzen, frikaritzen delarik, besteak beste.

XI. 5. IDAZKERA

Adibidetegian aurki daitezkeen idazkera desberdinak honako hauek dira:

1. Bi osagaiak elkarturik: %74ean ageri da idazkera hau, adibideak konta ezin ahala eman daitezkeelarik:

abesbatza, adigai, agerbide, agerleku, arguibide, aterabide, azterpuntu, aztersaio, bilabide, vicilagun, bizitoki, borragoma, biltoqui, egonaldi, ehomakina, emanaldi, eracutsaldi, errebedar, estalgune, esertalde, ezartxotx, ezkonsari, iltoki, gordeleku, garbitoqui, izkiralege, janlecu, irarraldi, jarleku, sorleku, zorrotzarri, sarraldi, oroitarri, igarobide, planteamolde, salbabide, salneurri, saltoki....

autsiabartza, hazibide, azigai, helduleku, hezibide, ustuantxean, puztualdi (mugatzailetzat partizipioa dutenak)

Osagaien artean hots-aldaketaren bat gertatu izanik:

aberaspide, asmapide, banakola, bizipide, egotoqui, eiotaldi, erakuspide, errauts, biltorri, edatetxe, esataldi, arpide, eratorpide, idazkola, idazlan, igespide, ikastaldi, ikastetxe, jatoqui, itxurpide, jaiotegun, jaioterri, jaiotetxe, jorraldi, kontaldi, luzapide, sarpide, oroimin, sorterri, ulerpide, sortzaro...

2. Bi osagaiak marratxoz loturik: %22 inguru kasutan, hauetatik batzutan partizipioa delarik mugatzailea, eta ez aditzoina:

abia-leku, adi-bide, aguer-aldi, argitara-gai, atera-bide, bete-toki, bil-alde, bizi-poz, bizi-leku, egon-aldi, eho-makina, elika-gai, elika-toki, eman-agiri, eraman-indar, erdi--min, gertu-lan, gorde-leku, haz-pentsione, ikas-garai, ikas-ordu, ikas-etxe, ikus--muga, irabaz-lege, irakur-lan, irar-huts, ibil-egun, ibil-leku, jo-buru, itxaron-gela, irten-muga, jakin -iturri, oroit-harri, osa-lan, senda-indar, senda-etxe, sor-leku, sor--etchola, sor-herriño, sorrotz-harri, aspertu-aldi, erosi-txartel, asi-aldi, asi-garai, ibilli--aldi, idatzi-lan, jarri-aldi...

Hots-aldaketaren bat jasan duten elkarteak ere ageri zaizkigu inoiz marratxoz idatzirik:

ed-onci HE08, egin-pide EI99, ikast-aro EL70, ikast-etxe EL70, irart-oker HE27, itzurt-bide HE02, jaiot-etxe EL70, jaiot-hizkuntza EJ00, oroitz-arri HE17, sort-lur HE50, EJ00; sort-herri HE56, HE51, HE04, HE58, HE59

3. Bi osagaiak banandurik: ehuneko hiru-t'erdira ez dira iristen horrelakoak:

argui bide, bizi tankera, bici modu, egin molde, egin bide, erne lecu, eror leku, esan leku, etzan aldi, ezkon gai, gorde lecu, eda gai, iges aldi, ihes lekhu, erten aldi, itzul lan, jardun aldi, jar leku, pausa leku, salba bide, zirika aldi, esqueñi gai, ezkondu hitz, ezkontz lege, sor aldi...

IX. ATRIBUTU ETA KOORDINAZIOZKO ELKARTEAK

'Atributu eta Koordinaziozko Elkarteak' zeintzu diren erabakitzea zenbaitetan samurra gertatzen ez bada, hitzak berri samarrak direlako, edota menpetasunezko izen elkarteen eta aposizio arrunten arteko erdibidean daudelako, izan daiteke. Hala ere, oro har, lehen eta bigarren osagaien artean *den* lotura-aditza, aditz kopulatiboa, ezar daitekeenean *'Atributu Elkarte'* baten aurrean gaudela esango dugu. Beraz, sail honetan sartuko ditugu honako adibideok:

> afari-merienda, Ama Birjina[1], bertso-kanta HE31, irrifarre, kapitan pilotu HE27, nafar--euskaldun HE27, HE29, poema olerki HE31

Aipatu berri ditugun adibide guztiak ez dira, ordea, erabat modu berekoak. Izan ere, sail honi eman diogun izenak berak adierazten digu badirela bi azpisail bereizi beharrekoak:

1. Baditugu, alde batetik, osagaietako bat nagusitzen deneko elkarteak, besteak ia ia izenondo balioa hartzen duelarik. Horrelakoak ditugu, berehala ikusiko dugun bezala, esaterako

   > hegazkin-tramankulu HE21, Jainko haur HE16, neskatila zerbitzari HE20, harri zilindro HE29

   non *tramankulu* batez, *haur* batez, *neskatila*-z eta *harri*-az ari garen. Beste osagaiak (*hegazkin, Jainko, zerbitzari* edo *zilindro*-k), esanahiaren atal nagusia daramanari lagundu besterik ez dio egiten. Dena den osagai nagusia, zertaz ari garen adierazten duena, ez doa beti leku berean, batzuetan lehena bait da, bigarrena besteetan. Horregatik egin ditugu bi azpisail *'Atributu Elkarte'*en barnean.

2. Beste elkarte batzutan, berriz, bi osagaiek dute pisu bera esanahiari dagokionez. Horrelakoetan elkarteak adierazten duena hau da: bi osagaiek adierazten dutenez osatua dagoen 'zera' (pertsona, objektua...), bi osagaietatik maila berean duena, alegia. Azpisail honetan sar ditzakegu

   > afari-merienda, bertsolari-poeta EJ69, erretor bikario HE14, farre-algara HE44

   eta antzekoak.

Dena den, inguruko hizkuntzetan hitz-elkartuen sailkapenaz arduratu diren autoreek[2] aitortu duten bezala, eta beraien sailkapenetan ere hala atzeman daiteke bezala,

---

[1] Hemen ere izen ezagunak direnean ez dugu liburu-koderik emango.

[2] Ikus, besteak beste, Carr Ch. 1939: *Nominal Compounds in Germanic*, Oxford University Press, 328. or. e.h.; Granville-Hatcher A. 1951: *Modern English Word-Formation and Neo-latin*, Baltimore, 28 or. e.h., eta 1952: «Modern Appositional Compounds of Inanimate Reference» *American Speech* 27, 3-15 or.; Marchand H. 1960: *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*, Wiesbaden, 23-25 or. eta 1965: «On the Analysis of Substantive Compounds and Suffixal Derivatives not Containing a Verbal Element» *Indogermanische Forschungen* 70, 117-145 or.; Lifetree-Majumdar M. 1974: «Contribution à l'analyse des modes de composition nominale en français écrit contemporain» *Cahiers de Lexicologie* XXIV I, 63-84 or.

'*Atributu Elkarteak*' alde batetik, eta '*Koordinaziozko Elkarteak*' bestetik, bereiztea askoz errazagoa da, gero adibide jakin bat sail bateko ala besteko den erabakitzea baino. Izan ere, bi azpisail hauen arteko muga nahikoa irristakorra da, eta askotan benetan zaila gerta daiteke esatea gauza baten bi alderdi ari garen izendatzen, ala alderdi nagusi bat, besteak osatzen duena. Adibide bat ematekotan *irrati-iratzargailu* zer da: *irratia* bigarren maila batean *iratzargailu* dena, ala aldi berean, maila berean, *irrati* eta *iratzargailu* dena? Zer esanik ez, zailtasun hauek areagotu egin daitezke '*Atributu Elkarte*'etan lehen osagaia ala bigarrena nagusitzen den erabaki nahi dugunean. Adibide gisa, dena den, hona inguruko hizkuntzetan 'Atributu eta Koordinaziozko elkarteetan' sailkatu dituzten hainbat izen elkartu:

> fighter plane, mother country, keystone, toothpick legs, gentleman farmer, queen mother, brother student, servant-girl, pianist-composer, comedy-melodrama...
>
> Prinzgemahl, Königinmutter, Prinz-regent...
>
> king-cardinal, directeur-gérant, sécretaire-comptable, jardin-musée, ballet-comédie, oisseau-mouche, villes-soeurs, peuple ami, jupe-culotte, médecin-chef, cité-dortoir...

Zailtasunak zailtasun eta zalantzak zalantza, hala ere, azpisailak zehazten saiatuko gara. Dena den, horretan hasi aurretik, ezkerreko izenak izenlaguna daramaneko adibide pare bat aipatu nahi ditugu. Izan ere, Bai Atributu elkarteetan, bai eta Koordanaziozkoetan ere, bi izen elkartzen ditugu; areago, oro har, hitz elkartua, kategoria lexikoek (izenak, aditzak, izenondoak...) osatzen dutela, eta ez kategoria sintaktikoek, ere aipatu dugu inoiz. Horregatik, erabat berezia litzateke [[izenlaguna+izena] + izena] elkartea:

> «ez eta Pierre Etxepare bere anai apezari egin ziozkan lerroak» HE59,19
> «ez baitu legetzar hori onhartuko katolikoen buruzagi Aita Sainduak» HE14,157

eta badirudi bi kasuoetan izenlaguna, ezkerreko izenari, *anai* edo *buruzagi*-ri, dagokiola, ez izen elkartu osoari; hau da, ez da 'bere apeza, anai dena' (*A* den *B* irakurketa lukeena), edo 'bere + anai apeza' (apez den anaia, *B* den *A*), baizik 'bere anai, apez dena'. Bigarren adibidean oraindik garbiago azaltzen dela egitura hori esango genuke: *onartu*-ren subjektua *Aita Saindua* dugu, *katolikoen buruzagi* dena. *A* den *B* egituraren aurrean gaude, baina *B*, izenlagunak eta izenak osatzen dute. Sintaxi eta lexikoaren arteko muga-mugan dauden egiturak dira, beraz, bi hauek (eta antzeko guztiak), kasu-marka (datiboa lehen adibidean, ergatiboa bigarrenean) bukaeran azaltzen zaigu, IS bakarra dugun seinale; baina badirudi IS horren barnean beste bi IS ditugula aposizioan.

Honek ez du esan nahi izenlaguna agertzen den bakoitzean ezkerreko izenari dagokionik:

> «bere ardi lagunen alhapidetik aldaratzen, eta hartantzen da» HEAX,83

Axularren adibide honetan, *bere*, *ardi lagun* azentu bakarraz ahoskatzen dugun izen elkartuari dagokio. Geure senak adierazten digu izenlaguna noiz dagokion

elkarte osoari, eta noiz ezkerreko izenari; eta azentua izan ohi da askotan bereizketa horren adierazle, ahoskeraz desberdintzen ditugularik:

bere + ardí lagùn (eten labur bat eginez izenlagunaren ondoren, eta bi izenak azentu bakarraz ahoskatuz)
katolikoen buruzagi + Aita Saindua (etena bi izenen artean eginez)

IX.1. ATRIBUTUZKO *AB* IZEN-ELKARTEAK

IX.1.1. *A* den *B*

Horrelako elkarteetan, bigarren osagaia da esanahi nagusia daramana, eta lehena, izenondo antzeko balioa hartzen duena. Gure adibidetegian jasotako era honetako elkarteak ondokoak ditugu:

Aita-Jaungoiko, Ama Lur HE31, atso andre HE39, aurpegi-orri HE31, bertso-kanta HE31, dorre-etxe, Eliza Ama, eskola-etxe HE23, giltz-hitz HE27, giltzarri HE27, hegazkin-tramankulu HE21, itsaso ozeano HE04 , Jainko aita, Jainko haur HE16, "larru gorri" indio EI94, makina-tresna HE31, otso-zakur HE52, patruila kotxe HE31, Pobreza Dama HE54, poema olerki HE31, Seme Jainko, taberna-etxe HE22, trapu--zatar HE50, trator-makina HE31

«"Larru Gorri" indioek ez dutela vietnamdarrekin batere batasunik senditzen» EI94,39
«Koartelerantz zihoazen beren patruila kotxean» HE39,49
«Pobreza dama ederraren bitartez onela serbitzen gaitu» HE54,168
«midikua dator bere otso-zakurrarekin» HE52,15
«zinea egiteko, filmatzeko, makina-tresna bat eskuanda egoan Etxauri jauna» HE31,79
«itsaso ozeanoaren kosta bazterra» HE04,62

Baina, *Hitz-Elkarketa 1*-eko sailkapenari atxekiz, gure adibidetegian bada beste multzo bat, bigarren azpisail berezia merezi dezakeena:

abrebestiaki, andredona, giza-pertsona, izelonbrea, usatortola, usocolumba

erakoek osatzen dutena. Izan ere, elkarte hauetako bi osagaiek adierazten dute gauza bera, edo beretsua, eta horrexegatik deitu zituen Tovar-ek (1959)[3] '*geminado semántico*', eta beste zenbait autorek '*tautologia*'[4]. *Itsaso ozeano* HE04 ere 'tautologia' ote dugu, ala 'itsaso den ozeano' bezala ulertu behar ote da? Era berean, inon sartzekotan, badirudi '*geminatu semantiko*'en artean sartu beharko genituzkeela azken urteotan sortu zaizkigun bikoteak, bi leku-izenez edo bestelako deiturez osatuak, euskalduna bata, erdalduna bestea:

EAJ/PNV, EHU/UPV, FV/ET, Irun-Urantzu, Mondragon-Arrasate, Pamplona-Iruñea, PSE/PSOE, Vitoria-Gasteiz

---

[3] Tovar A. 1959: «Geminados Semánticos en vascuence» *Ioanni Dominico Serra ex Munere Laeto Inferiae. Racolta di studi linguistici in onore di G.D. Serra*, Universita degli studi di Napoli, Istituto di Glottologia, Libreria Liguori, 367-371 or.

[4] Ikus, esaterako, Carr (1939:330 e.h.).

IX.1.2. *B* den *A*

Non lehen osagaia den esanahi nagusia adierazten duena, eta bigarrena izenondo kutsua hartzen duena. Azpisail honetakoak lirateke gure adibidetegiko hitz elkartuok:

> Alkate-asto HE21, Ama Birjina, Ama Neskuts HE21, ardilagun HEAX, armario--biblioteka HE35, artzipreste pintore HE31, asto-eme EJ79, aurseme HE21, bitarte--inguru HE16, Christo munduaren saluaçallea EJ57, diru-urre HE43, etxe bizitza, gizon ale HE17, harri zilindro HE29, hiriburuzagi HE04, Ilargi Amandre HE24, illotza, iturburu, kanon-eredu HE26, Kapitain pilotu HE27, langile gizon HE58, makila borra HEAX, mutil koxkor, mutil saltari HE50, neska-lagun, neskatila zerbitzari HE20, oilo kolka HE18, okilama HE39, pago lizar HE29, paraje-bazter HE31, udatiar-turista HE31, zakur galgo HE22, zeinu seinale HE08, zerrama HE18
>
> «Simbolo edo siñu señale» HE08,105
> «bertako paraje-bazterren bat izango da» HE31
> «gizon ale baten esku naroak zer dezaken» HE17,36
> «okilamak umeengana itzultzean habia sugez beterik aurkitzen duenean bezalako higuina» HE39,55
> «sardiña jaten ari diren mahaia, bi aulki eta armario-biblioteka bat» HE35,62
> «udatiar-turista eta begiluze ikustezaleentzako ez jagok lekurik an» HE31,34
> «orduan alkate-astok be suiñari esteak atara eutsozala be guzurra izango da?» HE21,39

Adibide hauetako bat edo beste 'tautologia'tzat ere har daitezkeela dirudi, bi osagaien esanahia oso berdintsua den neurrian: *udatiar-turista* eta *paraje-bazter* bata erdal hitza eta bestea euskal ordaina (edo alderantziz, bata euskal hitza, eta bestea erdal ordaina) bezala uler daitezke.

IX.1.3. *A* nolako *B* da

Hirugarren azpisail bat ere egin daiteke, konparazio edo erkaketa dakarten elkarteekin. Hauetan, osagaietako bat besteak adierazten duenarekin, edo beronen alderdiren batekin, alderatzen da:

> begi gaztainak HE18, diru-piriri HE18, etxe-orratz HE44, gaisquin diabru HE20, izen arrano HE27
>
> «baina diru-piriri nortara jausiko...?» HE18,30
> «begi gaztainak, eta lepondoa motza» HE18,33
> «hainbat etxe-orratz egin izaten dira aspaldiko urteotan Bilbon» HE44,26
> «ze izen arrano ote da hori?» HE27,311
> «gurago neban neure albuan euqui gaisquin diabruba» HE20,63

Adibide hauetan, gaztainaren kolorearekin alderatzen ditugu begiak, edota orratzaren luze-estuarekin etxea. Aurreko saileko *alkate-asto*, *otso-zakur* edo *Ama-Lur*-ek ere hemen izan dezakete lekua, hor ere bai bait dago alderaketa 'alkate' eta 'asto'aren zenbait atributuren artean, edo 'lurra' eta 'ama'ren artean; zer esanik ez, 'otsoaren antza duen', 'otsoa bezalakoa den' zakurrari deitzen diogu *otso-zakurra*.

Begibistakoa da, bestalde, horrelako adibideak aurreko bi azpisailetakoak baino askoz urriagoak direla.

Hitz-Elkarketa/1-eko sailkapenean 'Atributu eta Koordinaziozko elkarte'etan agertzen diren *doctor theologo* HE03 eta *dotor mirikua* HE04, agian 'Aposizio elkarte'etan, '*jaun/andre*' osagai dutenekin batera eman daitezke, hauetan ere *do(k)tor*, 'praenomen' gisa har daiteke eta.

IX.1.4. Emankortasuna

Eguzki-lore motako elkarteek adinako emankortasuna izan ez arren, bi izen Atributu elkartea edo Koordinaziozko elkartea osatuz aurkitzea ez da oso zaila, bereziki '*B* den *A*' motako Atributu elkarteak aski ugariak dira Hizkuntza teknikoan ere aurkitzen ditugu halako sorketak, hizkuntzalaritzan, adibidez[5]:

zero morfema, zero-desinentzia, zero-egoera, zero-gradu, zero-zeinu

Dena den, aipatu berri ditugun adibideok Atributu Elkarte diren ala Aposizio Elkarte, ondoren, Aposizio Elkarteak aztertzean, eztabaidatuko den auzia da.

IX.1.5. Berrelkarketa edo garapena

Adibidetegian horrelako pare bat baino aurkitu ez badugu ere, lehen edo bigarren izena aldi berean egitura elkartua izan daiteke:

«aurquindedin presentean Christo munduaren saluaçalleac guregatic, eta gure onetan» EJ57,27
«"larru gorri" indioek ez dutela vietnamdarrekin batere batasunik senditzen» EI94,39
«ai, goratzalle xoxokumeok» HE17,28

Berrelkarketak lirateke, era berean, *emakume arrai-saltzaile*, *aita-seme saskigileak*, *apez eskolemaile* etab.

IX.1.6 Osagaien arteko hots-aldaketak

Honela laburbil ditzakegu gure adibideetan gertatzen diren hots-aldaketa bakanak:

1. Bokal kontrakzioak edota bokal aldaketak, **-e/-o** → **-a** motakoak:

gizagazte HE57, larrabaso HE31, oila-koroka HE18, usatortola HE12

Bigarren izenaren ondoan badira, ordea, *uso-tortola* eta *uso tortola* HE54, *asto--emea* EJ79 eta *ollo loka* HE17 ere. Eta inoiz aldaketarik jasaten ez duten lehen osagaiak: *Jainko, atso* edo *bertso* bezalako izenak.

---

[5] UZEI, *Hizkuntzalaritza Hiztegia/2*, Elkar, Donostia, 224 or.

2. Bi silabatik gorako osagaia izanik azken bokala galdu dutenak:

iturburu, trator-makina HE31

3. Kontsonanteren bat galdu edo aldatu egiten dutenak:

izelonbrea (← izen+nonbre)[6]

IX.1.7 Idazkera

Era guztietako idazkerak aurki ditzakegu gure adibidetegian, idazkera bat besteei nabarmenki gailendu gabe:

a. Bi osagaiak banandurik:

Aita Jaungoiko, Ama Birjina EI31, HE01, HE29, ama neskuts, anai euskaldun, ardi lagun, arri zilindro, artzai adiskide, atso venterea, barre algara, begi gaztaina, Birjina Ama, Doctor Theologo, Dotor mirikua HE04, Eleissa Ama Santa, errial cidarra HE20, eskola etxe HE23, giltz harri HE27, gizon ale, goratzalle xoxokume, guizon necazaria HE12, hiri buruzagi HE04, ilargi amandrea, itsaso ozeano, Jainko aita, Jainko haur, makila borra, ollo loka HE17, ostatu etxe, paraje bazter HE31, patruila kotxe, Pobreza Dama, poema olerki, Seme Jainko, siñu señale HE08, uso tortola HE54, zakur galgo HE22.

b. Bi osagaiak marratxoz loturik:

Ama-Birjina, armario-biblioteka, arpegi-orri, asto-emea, bitarte-inguru HE16, diru--piriri, diru-urhe HE43, dorre-etxe, errandoi-tantai HE31, etxe-orratz, giltz-harri HE27, giltz-hitz, hegaizki-tramankulu, Jainko-aur, kanon-eredu, makina-tresna, oila--koroka HE18, otso-zakur, paraje-bazter HE31, poema-olerki, taberna-etxe, trator--makina, uso-tortola HE54, Virgin-amandre ED46

Eta oro har marratxoaz elkarturik aurkitzen ditugu bi leku-izenez osatutako bikote geminatuak[7].

c. Bi osagaiak elkarturik:

abrebestiaki, andredona, aurseme, bertsokanta, etxebizitza, giltzarri, gizagazte, illotz, iturburu, larrabaso, okilama, pagolizar, usatortola HE12, zerrama

Era guztietako jokabideak ikus ditzakegu, bada, nahiz elkarturik idaztea izan gutxien azaltzen dena. Autore berak izen bera bi eratara, marratxoz loturik edo marratxorik gabe, idatzitako adibideak ere ez dira falta:

uso tortola/uso-tortola HE54, paraje bazter/paraje-bazter HE31...

---

6 -nn- → -n- → -l-, hitz zaharretan, bokal artean, -l-, -n- baino askoz maizago agertzen da eta (ikus Mitxelena 1961:320).

7 Azken orduko seinaleetan azaltzen den loturaz, / motakoaz, alegia (*EAJ/PNV, EHU/UPV*) ez gara arduratuko, berez ez bait da inoiz bestelako hitz-elkartuetan azaltzen. Beste kontu bat da, leku, erakunde... baten euskal eta erdal izena ematen ari garela adierazteko bide egoki izan daitekeen ala ez kontutan hartzea.

Ondoko bi hizkuntzetan jokabide desberdinak ditugu idazkerari dagokionez. Espainieraz hitza oraindik ongi finkatu gabe dagoenean, marra darama: *hombre--rana, casa-cuna*[8]. Frantsesez, aldiz, Grevisse-k (1975:131) dioenez, 1878. urteko *Dictionnaire de L'Academie* delakoak, hitz elkartu pilo bati marra kendu zion, eta 1935.ekoan jokabide bera izan zuen. Hala ere, araugabeko hitz anitz nabarmentzen da oraindik frantsesez. Praktikan idazlearen aukeran gelditzen da zenbait hitzetan marra jartzea, baina anarkia honen aurka R. Thimonnier-ek (1974, 111) honako araua eman zuen: marra erabili osagaietatik bat ongi konprenitzen ez denean, edota hitz elkartuak esanahi ezberdina hartzen duenean.

IX.2. KOORDINAZIOZKO ELKARTEAK

IX.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Hasieran esan bezala, pertsona, objektu... beraren bi alderdi, maila berekoak, izendatzen dituzten elkarteak sartuko ditugu hemen:

> afari-merienda, alkate-idazkari HE39, bertsolari-poeta EJ69, dunbada-zarata HE31, ebi-langar HE50, erraldoi-tantai HE31, erretor bikario HE14, farre-algara, gailur--punta HE29, irrifarre[9], Jainko-gizon EC07, kantero-barren(d)ero HE23, napar erdaldun, napar euskaldun, ozpin-beaztun EJ59, prantses euskaldun, snack-bar HE35, talo--esne EJ49[10].

> «laño lodi ta ebi-langarra erortzen ari zan» HE50,62
> «errandoi-tantai aundi baten antzekoa» HE 31,39
> «kañoien dunbada-zaratak-eta joan zirala andik» HE31,47
> «Kristo Jainko-gizon hori ideia bat besterik ez da» EC07,31
> «irribarrez, beti argi, sinismendun joan zan» HE31,16
> «talo-esnea jaten astera ginjoazen, eta ango gure algarak eta parrak» EJ49,87
> «esan zak kantero-barren(d)ero aizela» HE23,132
> «herrietako erretor bikarioak oro beren etxetarik kanpo emanak edo ematen ari» HE14,154[11]
> «Urepel'eko ardi dizdiratzaillea, bertsolari-poeta bikain da trebea» EJ69,51

Kategoria gramatikalei dagokienez, berehala ohartzen gara bai elkarte osoa eta bai osagaiak ere, izenak direla.

---

[8] M. Seco, *Gramática esencial del español. Introducción al estudio de la lengua*, Aguilar, Madrid, 1972, 193.or.

[9] Osagai bakoitzaren esanahiari begiratuz 'tautologia'tzat har badaiteke ere, elkarte osoaren esanahia desberdina da, 'ez irria eta ez barrea, erdibideko zerbait baizik'.

[10] Beste zenbait lekutan *taloa ta esnea* esango lukete. Alde honetatik adibidetegian jaso ez dugun *kafesne / kafia t'esne* parekoak lirateke.

[11] Agian 'Dvandva elkarte'tzat ere har daitekeena. Ik. *Hitz-Elkarketa/1*: 151-175.

Dena den, hasieran esan bezala, ez da askotan erraza izen elkartu jakin bat, Atributu elkarte edo Koordinaziozko elkarte den erabakitzea. *Alkate-idazkaria*, esaterako, Koordinazio elkartea dela esan dezakegu, pertsona berak bi eginkizunak, alkatearena eta idazkariarena, betetzen dituelako. Era berean, Atributu elkarteen artean sartu dugun *artzipreste-pintore* hemen koka zitekeen, pertsona beraren bi alderdi adierazten dituela esanez. Baina 'artzipreste'az gainera 'pintore' ere badenaz ari garela ulertzen badugu, Atributu elkarteen artean utziko genuke. Halaber, *armario-biblioteka* zer da: 'armarioa, biblioteka ere badena' ala 'bi eginkizunak aldi berean betetzen dituen haltzaria'? Eta *kapitain pilotu* ez ote 'norbait' aldi berean kapitain eta pilotu, bi lanbideak bereganatzen dituena, eta horrenbestez, Koordinaziozko elkarte?

Eta, alderantziz, *snack-bar*, ezin ote daiteke pentsa 'bar' denik, 'snack' ere badena, Atributu elkartea beraz? Beste horrenbeste esan daiteke *napar euskaldun*, *napar erdaldun* edo *prantses euskaldun* izenez.

Guzti honen ondorioa honakoa izan daiteke: Atributu elkarteak eta Koordinaziozkoak, teorian, definizio mailan, bereiztea ez da zaila. Adibide jakinak sailkatzerakoan, bi osagaien arteko erlazioa nolakoa den (biak maila bereko, ala bata nagusi) erabakitzean egon daitezke (eta egon ohi dira) ikuspuntu desberdinak. Eta hortik sortzen dira zalantzak. Hala ere, zenbait adibide garbi asko Koordinaziozko elkartetzat, eta beste batzuk Atributu elkartetzat hartzen direnik ezin uka daiteke.

IX.2.2. Emankortasuna

Euskaraz orain arte Koordinaziozko elkarteak ez dira ugariegiak izan. Kontutan izan behar dugu, dena den, Lifetree-Majumdar-ek, frantsesezko Koordinazio elkarteak direla eta, esandakoa: azken urteetan, eta bereziki kazetaritza mailako hizkeran, garatu direla horrelako elkarteak, alegia.Pertsona batek orain arte lanbide desberdin kontsideratzen zirenak bereganatzen dituela, edota areto bat, esaterako, ekitaldi desberdinetarako erabiltzen dela adierazteko sortzen diren elkarte hauek nekez aurkitzen omen dira hizkuntza mintzatuan. Euskaraz ere gaurko lanbideak, *director-gerente*, *director-productor*... bezalakoak, edo *hospital-facultad*, *galería-sala de conferencias* etab. esan edo erabili ezinik ez legoke.

IX.2.3 Berrelkarketa edo garapena

Adibidetegian ez zaigu halako kasurik azaldu.

IX.2.4. Osagaien arteko hots aldaketak eta idazkera

Osagaien arteko junturan ez da hots-aldaketarik agertzen. Eta idazkerari dagokionez, gehienetan bi osagaiak marratxo bidez elkarturik aurkitzen ditugu:

afari-merienda, alkate-idazkari, bertsolari-poeta, dunbada-zarata, ebi-langar, erraldoi--tantai, erretor bikario, farre-algara, gailur-punta, Jainko-gizon, kantero-barren(d)ero..., snack-bar, talo-esne, ozpin-beaztun

Gutxiagotan agertzen dira bi osagaiak banandurik:

napar erdaldun HE29, napar euskaldun HE27, HE29, prantses euskaldun HE29

Eta behin bakarrik bi osagaiak elkarturik:

irribarre, irriparra

X. APOSIZIOAK

X.1. SARRERA

Lehenik eta behin Aposizio hitzak zer adierazten duen, edo termino horren bidez zer adierazi nahi dugun argitzea komeni da. Izan ere, alde batetik, bi motatako Aposizioak bereizi izan dira gramatiketan: batzuk, Aposizio esplikatiboak (ez-murrizgarriak), aurrekoari buruz azalpen gehigarria ematen dutenak; besteak, murriztaileak, aurretik aipatutakoari mugak ezartzen dizkiotenak, honen eremua murrizten dutenak. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak.I*-eko adibideak (306-307. or.) jasoaz,

> Gasteizen, Euskadiko hiriburuan, taberna gehiegi dago
> Pellok, atzo aipatu nizun lagunak, andregaia utzi egin du

aposizio ez-murrizgarriaren exenplu dira, "Euskadiko hiriburuan" eta "atzo aipatu nizun lagunak" aurretik daramaten izen sintagmaren erreferentzia bera dute eta; ezaugarri berri bat adieraztea eta ez beste da beren funtzioa. Halakoak dira ondoko bi adibideetako *Axular Sarako errotora* eta *Druso neure aita* ere.

> «Druso neure aita, eraatsiric dagoz oraindino zuben irudinac soldauben bijotzetan» HE20,210
> «Axular Sarako errotorak bildua» HEAX,1

Beste hauetan, aldiz,

> Lasa andereak deitu dizu
> Itziar andereñoari esan behar diogu
> Gipuzkoa plazan dago denda hori
> Arrantzaleak taberna oso polita da

deitura eta ondoren izen arrunt bat dugu, lehenaren funtzioa bigarrenaren (izen arruntaren) erreferentzia zehaztea izanik. Goiko adibideetan andere, andereño, plaza eta tabernen multzotik bat ateratzen dugu eta singularizatzen deituraren laguntzaz.

Bigarren adiera hau da hitz-elkartuen barnean Aposizio elkarteak aztertzean kontutan hartuko duguna. Beste modu batera esanda, aztertuko ditugun elkarteetako Aposizioak murriztaileak dira[1].

Bestalde, Hitz-Elkarketaren barnetik ere, Aposizio hitza egitura desberdinak izendatzeko erabili dute hizkuntzalariek[2] (batez ere guk Atributu eta Koordinaziozko

---

[1] Dena dela, kontutan izan behar da Aposizio deritzan fenomeno linguistikoa oso zabala dela. Ikusi besterik ez dago ondoko autoreek eman dioten trataera: Dubois-Charlier F, 1970: *Eléments de linguistique anglaise: I. Syntaxe*, Larousse "Langue et Langage", Paris; Lewandowski T., 1982: *Diccionario de lingüística*, Cátedra, Madrid; UZEI, 1982: *Hizkuntzalaritza Hiztegia*, Donostia; Villasante L., 1978: *Estudios de Sintaxis Vasca*, Editorial franciscana Aránzazu, Oñate.

[2] Ikus, adibidez, Darmesteter 1874: *Traité de la formation des Mots composés dans la Langue Française* (1967, Paris, Librairie Honoré Champion), 139. or.; Jespersen 1942: *A Modern English Grammar* VI (Morphology), London, 147-8. or., edo Granville-Hatcher 1952: «Modern Appositional Compounds of Inanimate Reference» *American Speech* 27, 3-15. or.

elkarte deitu ditugun egituretarako erabili izan da termino hau). Gainera, deitura kontuak gora behera, Atributu eta Koordinazio elkarteetan aztertu ditugun egiturak eta oraingoak, Aposizio elkarte izenez bataiatu ditugunak, batera azterturik aurkituko ditugu hitz-elkarketaz arduratu diren hizkuntzalarien lanetan. Dena dela, aztergai ditugun elkarteek ezaugarri morfologiko eta semantiko bereziak dituztenez, egokiago iruditu zaigu sail berezi bat eskaintzea.

Ohar bat azkenik adibidetegiaren gainean. Ohizko adibidetegiaz gain oraingoan beste hainbat material ere baliatu ditugu, Aposizio elkarteen inguruko zenbait auziz jabetu eta gaur egungo euskara teknikoan elkarte hauek duten eragina ikusten laguntzen dutelakoan. Baina adibide hauek testuan bakarrik azaltzen dira; ez ditugu bukaerako Adibidetegi zabalean jaso.

X.2. EZAUGARRI MORFOLOGIKO ETA SEMANTIKOAK

Osagaien kategoria gramatikala aztertuaz, ohartzen gara askotan izen propioaz eta izen arruntaz eratzen dela elkartea. Izen arrunta, aldi berean, biziduna nahiz bizigabea izan daiteke, bereizketa hau garrantzitsua gertatzen delarik osagaien hurrenkera finkatzerakoan. Izan ere, 'izen propioa + izen arrunt bizigabea' nahitaezko hurrenkeraren ondoan, 'izen propioa + izen arrunt biziduna' zein 'izen arrunt biziduna + izen propioa' hurrenkerak aurkitzen ditugu. Horrela:

X.2.1. Izen propioa + izen arrunt bizigabea

Modu honetakoak ditugu hurrengo adibideak:

Aloña mendia, Alos-Torrea, Altzarrate baserria, Altzola ballara, Alverna mendia, Andia-mendia, Aralar mendia, Argin baserria, Arrua-erreka, Auspoa liburutegia, Baeza hiria, Baigorri-eskualdea, Balerdi-punta, Begoña erria, Benitosoro, Donine--eguna, Donian bedarrac, Errondilla kalea, "Euskaltzale" kazeta, Gainza-malloa, Gibraltar-estua, Irati erreka, Irati-mendi(ak), Irati-soro, Izpegi-mendatea, Lastur ballara, Laurkin ballara, "Mariaren alabak" elkartea, Jakin taldea, Oriamendi, Palatino mendia, "Patterns of Culture" liburua, "Que sais-je" bilduma, Sena bidea, Santiyo mendia, Santiago-jaiak, "The cultural background of personality" liburua", Tiber ibaia, Tolosa erria, Urkiola mendia, Uztegia-malloa, Zubeltzu-torre, Frantzia mitoa...

«Oste andiak eltzen dira Urkiola mendira» HE21,27
«Erreka ondoan, Zubeltzu-torre izena duan baserria dago» HE29,37
«Ari ayekin igo giñan Balerdi-puntara» HE50,63
«Metale baino gorago, baserri polit bat dago; Benitosoro dauka izena» HE29,16
«Errondilla kaleko bigarrengo dendan» HE53,25
«Hau hurbildik ezagutzen dut, Jakin taldean sortu zelako» EI94,34
«Hain zuzen Frantziako "Que sais-je" bildumaren antzeko zerbait egitea» EI94,34
«Ahantzi behar ez den Frantzia mitoa» HE56,27

Ikus daitekeenez, gehienetan, lehen osagaia, kale, liburu, mendi, baserri... baten deitura da. Horrela 'singularizatzen' da hain zuzen, kale, liburu, mendi edo baserri hori klase bereko beste elementuetatik (hots, beste kale, liburu, mendi eta baserrietatik). Aposizio elkarteak, beraz, zerbait 'bakarra' adierazten du; hori du berezitasun. Goiko adibideek merezi dute, halere, iruzkin zehatzagoren bat; izan ere:

1. Deitura, ez da beti izen propioa, hau da, elementu bakarra [+izena, -arrunta] subkategorizazioa lukeena. Batzutan, izen sintagma oso bat, areago, perpaus oso bat (sintaxi-egitura bat, azken batetan) bihur daiteke deitura. Hor ditugu *Que sais-je, patterns of culture, the cultural background of personality...* Halaber berez izen arrunta den unitatea ere bilaka daiteke deitura, hala nola *"Euskaltzale" kazeta* diogunean. Liburu, antzerki-lan, kazeta, etab.etan oso maiz aurkituko ditugu horrelako egiturak. Deiturak hartzen duen egitura hartzen duela, ordea, axola dena, hurrengo izena bakar egiteko, singularizatzeko balio izatea da.
2. Aposizio-elkarteen ezaugarri funtsezkoenetako bat izen sintagmak mugatuak osatzearena da; beste modu batera esanda, Aposizio-elkarteak beti mugatua behar du izan: *Santiyo mendia* esan eta idatzi behar da beti, eta ez **Santiyo mendi*; *Baigorri eskualdea* eta ez **Baigorri eskualde* etab. Honen ondoan kontutan hartzen badugu osagaien hurrenkera 'izen propioa + izen arrunt bizigabea' dela[3], ohartuko gara zein gaizki jartzen diren gaur egun euskaraz denda, jatetze... eta antzeko izenak. *San Migel gozotegia* edo *Aloña jatetxea* ipini behar da; ez **San Migel gozotegi*, **Aloña jatetxe* edo **gozotegi San Migel*, **jatetxea Aloña*. Eta euskaraz eta erdaraz eman nahi denean, *restaurante Aloña jatetxea, bar Gatzaga taberna* dira zuzenak, hau da: erdal izen arrunta, erdian izen propioa eta azkenik euskal izen arrunta.
3. Elkarte osoa deitura bilakaturik aurkitzen dugu beste batzutan: *Benitosoro* ez da soro baten izena, baserri batena baino, adibidean ikusten denez; halaber gertatzen da *Zubeltzu-torre* baserri-izen bilakatuan ere. Horrelakoetan Aposizio-elkartea ihartu egin dela esan daiteke. Beste batzutan ihardura ez da hain nabarmena, baina hala ere izen propioa eta izen arrunta beti elkarrekin esaten ditugu; izen propioak galdua du iadanik bakarrik erabilia izateko ahalmena. Hala gertatzen da esaterako, *Oriamendi* elkartean, ez dugu inoiz "*Oriara* igo naiz" edo antzekorik esaten izen horretako mendira igo naizela adierazteko. Aposizio elkarteen ezaugarrietako bat, haatik, deitura soilik erabili ahal izatea da, hau da, "Erniora igo naiz" zein "Ernio mendira igo naiz", "Obabakoak irakurri dut" edo "Obabakoak nobela irakurri dut" etab. esateko oztoporik ez dugu. Arazoak, noski, deitura bereko

---

[3] Axularren *mendi Pirineoak* erabat salbuespenezko hurrenkera da Axularrengan berarengan ere, erdal hurrenkeraren eraginez sortua datekeena: «zu izan zara Echaus, mendi Pirineoetan, Alduideko hegaletan (...) dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme» HEAX,5

'zera' bat baino gehiago direnean sortzen dira; *Oria* izeneko ibaia, auzoa eta mendia ditugunean, esaterako. Hemendik etor daiteke, besteak beste, elkarteko bi osagaiak beti elkarrekin azaltzea. Dena dela, *Oriamendi*-ren kasuan elkarte osoa izen propio bihurtu dela argi ikusten da izen sintagma mugatzailerik gabea osatzen duelako: "*Oriamendi* Donostian dago" eta ez "**Oriamendia* Donostian dago".

4. Izen arrunta bizigabea dela zehaztu dugu, baina izen propioaz ez dugu halako informaziorik eman. Izan ere, gerta daiteke pertsonari dagokion deitura aurkitzea izen bizigabearen deituratzat, *San Migel mendia* elkartean gertatzen den bezala.

5. *Donian bedarrac* bezalako elkarteak, izen propioaz eta izen arruntaz osatuak egon arrean, ez dira *Arrua-erreka* bezalako Aposizio-elkarteen pare-parekoak, izen propioak ez bait du lore bakar bat singularizatzen, lore-klase bat baino. Alde honetatik *Errezil sagarrak* edo *Donian bedarrac* elkarteetan lehen osagaiak deitura ez baina klasea, mota ematen du aditzera; bi osagaien arteko erlazio ez dago, beraz, *Eguzki-lore* elkarteen Subsumptive izeneko azpisail gisa ikusiko dugun 'espeziea - generoa' erlaziotik urrun, *makal zugatza*, *marmol harria* edo *tabako bedar* bezalako elkarteetan dugunetik alegia. Azken adibide hauetan ere lehen osagaiak badakar nolabaiteko singularizazioa, baina liburu, erreka, mendi... bakarrarena izan ordez, klase osoarena. Horrenbestez, badirudi 'singularizazio' erlazio semantikoari dagokionez hari jarraia dugula, 'zera' bakar bat singularizatzetik klase osoa singularizatzera doana.

6. Esan berri duguna kontutan izanik berehala ohartuko gara *San Juan bezpera* modukoak ez direla Aposizio-elkarteak; izen propioa ez da hor izen arruntaren deitura, ez dago *San Juan* izena duen bezperarik. 'San Juan egunaren bezpera' adierazten dugu *San Juan bezpera* elkarteaz; beraz, menpetasunezko izen-elkartua da, ez Aposizio-elkartea. *San Juan eguna* etab., ostera, aposizio-elkartetzat har ditzakegu: eztabaida daiteke *San Juan* egun jakin bati ematen diogun deitura den ala eleizak *San Juan* gogoratzeko, omentzeko... duen eguna (eta horrenbestez menpetasunezkoen artean sar zitekeen); dena dela, modu batera nahiz bestera ulertu, balio du egitura horrek egun bakar bat singularizatzeko; horregatik sartu dugu elkarte-mota honetan.

7. Azkenik, 'izen propioa + izen arrunt bizigabea' elkartearen ondoan 'izen propioa + *-ko/-en* + izen arrunt bizigabea' ere badugula ezin ahantz daiteke; batez ere herri, hiri, kale edo plaza izenetan *Tolosa herria* bezain hedatua edo agian hedatuagoa da *Tolosako herria*[4]. Areago, zenbait kaleren izenetan bigarren egitura da aukeratu dena, *Antso Jakitunaren hiribidea* adibidez. Halaber hor dugu adibidetegian *Magallanas-en estua/Gibraltar-estua*, *Magallanes* pertsona deitura izateak azal

---

[4] Ikus, adibidez, zer dioen Sarasolak bere *Hauta-lanerako euskal hiztegia*-n *ibai* izenaren sarreran:

«Urola (lehen Urolako) ibaia jaiotzen den tokian»

dezakeena[5]. Edonola den, garbi dago *Tolosako herria* eta *Tolosa herria* baliokide diratekeela, herriaren deitura adierazteko bi modu aukerazko, baina *Tolosako kalea* eta *Tolosa kalea* ez direla goiko bikotearen parekoak: lehen kasuan izen sintagma erabat normala dugu, izenlagunaz eta izen sintagmaz osatua[6], eta beronen bidez 'Tolosa izeneko herrian dagoen kalea' aditzera ematen dugu; bigarrenean, 'Tolosa izeneko kalea'z ari gara, Aposizio-elkarteaz, beraz. Hau hala izanik harrigarri egiten zaigu adibidetegiko *Otzaratchoff irabazkunde* elkartea, normalean irabazkundeek, garaikuntzek, ez bait dute deitura berezirik izaten; gehienez ere garaikuntza non gertatu zen adierazten dugu[7] izenlagunaz baliaturik horretarako. *Otzratchoff-eko garaikuntza* da, ondorioz, euskaraz erabiliko genukeena, eta ez:

> «Otzaratchoff irabazkundearen edesti au ez da gero emen asmau dogun guzurra» HE21,70

Sarreran esan dugunez, Aposizio-elkarteak aztertzerakoan ohizko adibidetegiaz gain zenbait testu tekniko ere begien aurrean izan ditugu[8]. Hona testuotan aurkitu ditugun 'izen propioa + izen arrunt bizigabea' Aposizio-elkarteak:

---

[5] Dena den aposizio-elkarte teknikoetan dagoen nahastea ikusirik,

> Gibbs-en printzipioa, función de Gibbs, fonction de Gibbs, Gibbs function
> Joule efektua, efecto Joule, Joule effect
> Ampere-ren legea, ley de Ampere, loi d'Ampère, Ampere's law
> Beaufort eskala, escala Beaufort, échelle Beaufort, Beaufort scala

komeniko litzateke *-en/-ko* genitibo marka eta aposizio-elkartearen arteko erlazioa mugatzen saiatzea. Baina nabarmena da inguruko hizkuntzetan duten jokabide bikoitza ere.

[6] Ikus honetaz Trask R., 1983: «Euskal Izen Sintagmaren Egituraz» *Iker-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 599-611. or.

[7] Oso ezaguna da borroka edo guda jakin bat gertatu zen lekuaren izenaz lagundurik esatea, *Orreagako guda* bezalako sintagmak osatuaz.

[8] Zientzi Fakultatean erabiltzen diren testu-liburuak edo bertan aurkezturiko doktorego tesiak izan dira eskuztatuak; beraz, goi-mailako hizkuntza teknikoaren ordezkari on samarrak direla esaten ausart gintezke. Hona zeintzu diren testuok:
AGIRREGABIRIA J.M. eta beste 1986: *Fisika Orokorra (II)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
ANTIGÜEDAD I. 1983: *Geologia 1. Barneko geodinamika*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo
IUPAC 1979: *Kantitate eta unitate kimiko-fisikoetarako sinboloera eta terminologiaren eskuliburua*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo
ORTIZ URIBE I. 1984: *Toluenoaren klorometilazioaren analisia eta modelatzea*. Doktorego-tesia, UPV-EHU, Leioa. Argitaratu gabea.
PEREZ IGLESIAS J.I. 1986: *Cerastoderma edule (L.) (Bivalvia: Cardiidae): Hazkuntza eta ugalkuntzaren energi oinarriak*. Doktorego-tesia, UPV-EHU, Leioa. Argitaratu gabea.
URKAREGI A. 1985: *Biostatika*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
UZEI 1984: *Biologia 1. Landare eta animalien izenak*. Elkar S.A. Donostia.
UZEI 1988: *Biologia 4. Zoologia hiztegia*. Elkar S.A. Donostia

Napoli hiria, Darro ibaia, Krakatoa sumendia, Michigan lakua, Till glaziara, Virginia estatua...

Beste hauetan, aldiz, izen propioak pertsona adierazten du, ikerlari baten izena:

Celsius eskala, Geiger kontagailua, Gutenberg izena, Helmotz energia, Joule efektua, Klevin tenperatura, Weald konplexua, Weibel gratikula, Winkler metodoa, Golgi aparatua, Leydig zelula, Descemet mintza...

Baina goraxeago aipatu dugun 'izen propioa' / 'izen propioa + *-ko/-en*' alternantziaren arauera beste hauek ere azaldu zaizkigu:

Coulomb-en legea, Helmotz-en energia, Joule-Thompson-en koefizientea, Joule-ren experimentua...

X.2.2. Izen propioa + izen arrunt biziduna

Gehienetan izen arruntak pertsonaren lanbidea, gizartean duen maila edo bestela hiztunarekiko ahaidetasuna adierazten du; lehen osagaiak, berriz, pertsona horren deitura:

Barrueta tabernaria, Bizente Mayo tabernaria, Elissalde apaiza, Etxegaray apeza, Elosu mirikua, Errenderi aba, Esaias profeta, Jean etxepare mirikua, Ieremias profeta, Jesus aurra, Iob saindua, Ionas profeta, Jose Mari Lertxundi bertsolaria, Juan Huarte idazlea, Mikhail laguna, Moris ertzain-burua, Nabukodonosor erregea, Oseas profeta, Rodrigo artzaia, San Jose eguna, San Juan eguna, deun Koldobika batza, San Lukas ebanjelista, San Mateo ebanjelista, San Pedro eguna, San Roke eguna, Simbad marinela, Zabaleta anaiak, Zubillaga adiskidea...

«nor atzera itzul urteen buruan, hartaz kanpora, oso eta bizi —Simbad marinela geroago bezala—, bere jaioterri harritsura?» HE27,323
«Juan Huarte idazleaz solasik entzuten da noizbehinka» HE52,3
«jokatuko neuke mutillok dirala deun Koldobika batzakoak» HE21,62
«eskerrak, Moris ertzain-burua tarteka emen azaldu zaidanari» HE57,116
«erraiten du Iob sainduak, deabruaz mintzo dela» HEAX,39

Azken adibide honek merezi du iruzkin berezia, izan ere, horrelakoetan *saindu* izena dela esan daiteke eta *Iob* zein sainduz ari garen adierazten digun izen propioa. Beraz, ez dago arazorik aposizio-elkartetzat hartzeko. Eta adibidetegian adibide bakarra jaso izanarren, garbi dago multzo handi baten adierazle dela berau. *San Tomas* bezalakoez, ordea, honakoa dio Euskaltzaindiaren Gramatikak[9]:

«Baina "Santa Ines", "San Anton", "San Pedro", "Santa Anastasia" eta horrelakoetan, multzo osoa, *san(ta)* eta guzti, izen berezitzat hartu behar da. Hain zuzen, "San Anton", dagoen dagoenean, saindu baten izena dugu, oso osorik, pertsona baten izena "Patxi" edo "Miren" izan daitekeen bezalaxe»

---

[9] Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatikal. Lehen Urratsak-I*, Bilbo, 310. or.

Horrelakoak dira hain zuzen goian aipatu ditugun *San Lukas ebanjelista* etab. *Deun Andoni* HE21, 27 bezalakoetan, azkenik, ez dugu garbi ikusten 'izen arrunt biziduna + izen propioa' hurrenkerako aposizio-elkartetzat hartu behar den ala *deun* erdal *san(ta)*-ren kide soil den, eta elkarte osoa izen propioa ondorioz.

Adibide ugaritasun honen ondoan testu teknikoetan adibide gutxi aurki daitezke eta gehienetan dibulgazio-mailako testuak dira 'izen propioa + izen arrunt biziduna' moduko aposizioak dakartzatenak:

J. Hutton geologo eskoziarra, Laplace matematikaria, Jaroskeosky zientzilaria...

Izen propioa + izen arrunt bizigabea sailean komentatu dugun *Otzaratchoff irabazkunde*-aren antzekoa da, azkenik, *Miren-alabak*: elkarte horren adiera ez da eta *Miren* izeneko alabak, deitura hori duten alabak, 'Mirenen alabak' baino; eta euskaraz hori esateko modu bakarra izenlaguna gordetzea da, hau da, *Mirenen alabak* sintagma osorik esatea. Aipatzekoa da, bestalde, *Otzaratchoff irabazkundea* eta *Miren-alabak*, biak, Kirikiñorenak izatea, mende-hasierako garai horretan eta Mendebaldean bakarrik sortu bait dira euskaraz horrelako elkarteak, lehen osagaitzat izen propioa dutenak, baina bi osagaien arteko erlazioa menpetasunezkoa izanik.

«Jokatu neuke ... neskok dirala Miren-alabak» HE21,62

X.2.3. Izen arrunt biziduna + izen propioa

Izen arrunta biziduna delarik (eta halakoa denean bakarrik), goian ezinbestekotzat jo dugun hurrenkera, izen propioa lehenik eskatzen duena, alda daiteke. Batez ere ahaidetasuna adierazten duten izen arruntekin erabili ohi ditugu halako hurrenkerak, baina bestelako izenekin (*errege*, *sekretario* edo *ikazkin*) ere ez da adibiderik falta:

adiskide "Aitzol", aita Astibia, aita Erramun, aita Salbatore Mitxelena, aita San Antonio Urkiolakoa, aita Santo Domingo, aita santu Gregorio hamargarrena[10], aita santu Honorio hirugarrena, aita santu Inozentzio hirugarrena, anai Franzisko, anai Maseo, anai Faustino, anai Joxantonio, arreba Begoña, emazte Klara, emazte Petra, errege David, errege Dionisio, errege Faraon, ikazkin Erramun Mari, illoba Endrike, lagun Borras, maisu Juan, profeta David...

«Adiskide "Aitzol"-i beste goxoki bat ematearren» HE17,54
«Aita santu Gregorio amargarrenak, bere ordeko biali zuan artan» HE54,158
«ageri da errege David baithan» HEAX,51
«ain zuzen ere, basora doa ikazkin Erramun Mari» HE18,79
«ene anai Joxantonio» HE50,15

---

[10] Izen bereko aita santu bat baino gehiago izan ohi denez zaila da horrelakoetan *hirugarren*, *hamargarren* etab. aposizio-elkartetik bereiztea, zenbaki ordinalak ere singularizatzeko balio du eta.

Aipatzekoa da dena den izen arruntak behin baino gehiagotan ezkerrean daraman izenlaguna, *ene anai Joxantonio* HE50, *bere illoba Endrike* HE57, *nere lagun Borras* HE57... Aposizio-elkarte hauek egiazko hitz-elkartu balira, izenlaguna (*ene*, *bere*) elkarte osoari legokioke (ikus *etxeko txori-kaiola* non ez garen 'etxeko txori'az ari, 'txori-kaiolaz, etxekoa denaz' baizik); baina hala al da? Ez ote *ene anai* osagai bat eta *Joxantonio* bestea? Esan ere, seguruenik ez genuke *ene / anai Joxantonio* esango, *ene anai / Joxantonio* baino. Beraz, pentsa daiteke sintaxi-mailako aposiziotik ez ote gauden gertuago, nahiz elkarte osoa aposizio murrizgarria denik ezin den ukatu.

Begibistakoa da, bestalde, aposizio-elkarteen eta zenbait atributu-elkarteren arteko lotura. Izan ere, *(bere) anai apeza* HE59,19 (atributu-elkartea) eta *(ene) anai Joxantonio* HE50,15 (aposizio-elkartea), *(katokikoen) buruzagi aita sandu* HE14,15 (atributu-elkartea) eta *aita santu Gregorio hamargarrena* HE54,170 (aposizio-elkartea), osagaien kategoria gramatikalak bereizten ditu: atributu-elkarteetan bi osagaiak izen arruntak dira, aposizio-elkarte hauetan osagaietako bat izen propioa da. Aposizio-elkarteen funtsezko ezaugarritzat hartu dugun singularizatze edo bakartzearena, aldiz, aipatutako adibideetan, guztietan gertatzen dela esango genuke. Honek erakusten digu bi elkarte-mota hauen arteko aldea oso xumea dela zenbaitetan[11].

X.2.4. *Jaun/andere* osagaitzat duten Aposizio-elkarteak

Izen propioa eta izen arrunt biziduna biltzen dituen aposizio-elkartearen kasu berezitzat har dezakegu hau, izen arrunta begirunezko deitura edo antzeko zerbait denez. Eta goian esandakoaren haritik, hurrenkera bat nahiz bestea dira zilegi hemen ere, hau da, izen propioa lehen edo bigarren delarik. Begirunezko deitura hori ez dugu, ordez, izen propioekin soilik erabiltzen, gizakia, hobeto esanda, pertsona batek gizartean duen estatusa, adierazten duten izen arruntekin ere elkartzen ditugu *jaun* eta *and(e)re*. Orduan ere bi hurrenkerak aurki ditzakegu, *jaun/and(e)re* bigarren lekuan ipini ohi da mendebaldeko euskalkietan, lehen lekuan ekialdekoetan:

> alkate jauna, abade jauna, Aingeru Irigarai jauna, Antonio Elosegi jauna, apaiz Lorenzo Izagirre jauna, Balerdi jauna, Basarri jauna, bikario jauna, Bizente Mayo jauna, Calbeton jauna, Dassance jauna, erretore jauna, errotari andrea[12], Ibarguren jauna, Iriarte jauna, Jainko jauna, Lorenzo Izagirre apaiz jauna, Martinez jauna, Moris jauna, obispo jauna, Ruth Benedict anderea, Santus jauna, Vargan jauna, "Zato" jauna,

---

[11] Eta gertatzen diren zalantzen lekuko hor utzi dugu *Ilargi amandre*, esaterako, bi elkarte-motetan, nahiz hor seguraski *amandre*, *jaun/and(e)re* bezala, deituratzat hartu behar dela dirudien.

[12] Non *andre* deituratzat har daitekeen nahiz sexuaren adierazletzat (bigarren kasuan atributu-elkarteetan kokatuko genukeelarik). Berriro ere bi elkarte-moten arteko mugak ez direla hain garbiak ikus dezakegu.

Zubillaga jauna, biltzar-buru-yauna, erregue jauna, sekretario jauna, amandrea[13], Jinko jauna, juez jauna/iuje iauna, compesore jauna, nagusi-jauna, Urlia yauna, ugazaba andrea...

«oiek zer egin duten eztiyou igerri, egiya esan biar errege jaunari» EJ78,37
«bedorren opizioa irakurri erazi diot erretore jaunari» HE16,15
«errotari andreak, ori igarri ebanean» HE21,94
«Juana Bixenta, nagusi jauna eta morroya» HE61,77

Eta *jaun/and(e)re* lehen osagai duten ekialdeko adibideak (edo hango eraginez mendebaldean sortuak):

Azkue jaun apeza, iaun Bertrand de Echaus, Larralde jaun apeza, iaun erregea, jaun alkatea, jaun apezpikua, jaun bikarioa, jaun deputatu, jaun erretorea, jaun midikua...

«Bidasoaz haraindian, Azkuen jaun apeza buru» HE59,17
«gure jaun deputatu, zenator eta ministroek baino ohointza gutiago eginik» HE14,150[14]
«ene iaun Bertrand de Echaus, Tursko arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari» HEAX,3

Erdal *don*-en ordain den *on* ere aurki daiteke:

«On Lope harriturik dago eta mezu bat igorri dio» HE52,21

Andre-k bereziki izan du erabilera poetiko modukoa izen bizigabeei, baina emetzat hartu direnei, erantsirik:

Ilargi Amandre, andre Yakintza, andre Kultura

«... arroxko ta artobero-uxai omen-naiz. Oietaz gañera, buru-arlotea: andre Yakintza, andre Kultura, askorik maite ez dutenetakoa, alegia» HE17,54
«Illargi Amandrea, zeruan ze berri?» HE24,68

X.2.5. Izen arrunta + izen arrunta

Aposizio-elkarteetan bereizgarritzat jo dugun bakartzea ez da lortzen izen propioaren laguntzaz soilik, izen arrunta ere erabil daiteke hurrengo izen arruntaren deitura gisa, ondoko adibideek erakusten duten legez:

analfabeto hitza, "apartheid" politika, burruka hitza, "cuarta" gaitzizena, "ghetto" espiritua, katoliko izena, kultura hitza, "politika" hitza, "marxismo" hitza, sozialismo hitza, sozialista izena, tonto izena...

Testu teknikoetakoak dira, berriz, hurrengoak:

Feed-back mekanismoa, Geotematika hitza, deriba-teoria, solido zurrun kontzeptua...

Lehen osagai letrak edo sinboloak dituzten adibide teknikoak:

A puntua, B eta C behatokiak, ß kuartzoa, X izpia, E-W norabidea, D bitamina, f zenbakia, p(A) zenbakia, A multzoa, K aldagaia...

---

[13] Zenbait lekutan bederen iharturik dagoena, 'gurasoen ama' adieran.

[14] *Jaun* ez bakarrik *deputatu* izenarekin, *zenator* eta *ministro* izenekin ere badoala pentsa daiteke.

Sail honetan sartu beharko genituzke gaur ohizko den hurrenkeraren aurkakoa erakusten duten Axularren adibideok ere: *kap.ii.* HEAX,37; *kap.iii.* HEAX,47... Gaur *ii kapitulua*, *iii kapitulua* etab. esango genuke.

Edota lehen osagai siglak edo laburpenak, eta zenbakiak dituztenak (jakina, aposiziotzat kontsideratu ahal izateko, zenbakiari ezin eman dakioke balio kardinal edo ordinalik):

> CODATA txostena, DMT elementua, GFB balioa, BPGK izena, 1.2. sekzioa, 2.3.3.1. irudia, 3.1. taula, 0.52. faktorea...

Hemen sar daitezke Fisika eta Matematiketako hainbat formula ere:

> $p = p_1 + p_2 + ... + p_n / n$ kantitatea
>
> $\frac{dN\ (t)}{dt}$ deribatua
>
> $7x - 2 = 0$ ekuazioa

edo produktu kimikoen formulak:

> $-CH_2C1$ taldea, -OH taldea, C^{14} karbonoa, ClNa gatza...

Atributu eta Koordinaziozko elkarteetan aipatzen genituen

> zero morfema, zero-desinentzia, zero-egoera, zero-gradu, zero-zeinu

ere hemen sartzea egokiago dela dirudi, nabarmena da eta *Donian-bedarrac* bezalakoekin duten lotura. Baina bigarren hauek legez, desinentzia edo morfema 'klase' batez ari garenez, zalantzak sortzen zaizkigu aposizio-elkarteetatik subsumptive--elkarteetara doan bidean izan dezaketen kokaguneaz.

X.3. EMANKORTASUNA

Hizkuntza teknikoetako adibide ugariek erakusten duten erabateko emankortasunaz gain, hurrenkera dela eta sortzen diren auziak dira hemen aipatzekoak. Euskaraz erdal terminoak egokitzean ez bait dugu jakiten askotan zein hizkuntza hartu behar dugun eredu, 'mugatzailea + mugakizuna' hurrenkera duena (ingelesa edo alemana) ala 'mugakizuna + mugatzailea' hurrenkerakoa (frantsesa edo espainiera). Hona zalantza horretatik sortutako hainbat jokabide:

> amuarrain ortzadarra[15] (trucha arco iris, truite arc-en-ciel)
> ortzadar-boa (boa arco iris, rainbow boa)
> suge koral (sugea) vs. koral-arrain (arraina)
> perloi-lira (perloia) vs. lira-hegaztia (hegaztia)

---

[15] Gogoan izan dezagun, dena den, amuarrain klase baten izena dela (eta horrenbestez aposizio-elkarte eta subsumptive-elkarteen artean dabilela), baina, aldi berean, bi osagaien artean alderaketa erakusten duten adibideak atributu-elkarteetan aipatu ditugula (*Eleiza Ama* etab.).

Eta eredu anglogermaniarrari jarraiki, alderaketa ere baduten *mailuarraina* eta *manta-arraia*.

X.4. BERRELKARKETA ETA GARAPENA

Bi aposizio-elkarte ageri zaizkigu

> apaiz Lorenzo Izagirre jauna HE50, Lorenzo Izagirre apaiz jauna HE50, Azkue jaun apeza HE59, Larralde jaun apeza HE59

non badirudien *jaun apez/apaiz jaun* ulertu behar dugula eta horri, deitura, izen propioa, erantsi zaiola.

Badugu adibidetegian menpetasunezko izen elkartuari erantsiriko *jaun* ere: *biltzar-buru-yauna* HE17.

Testu teknikoetan menpetasunezko hitz-elkartu batetiko aposizioa ageri da ondokoetan:

> ß partikula-kopurua, f(x) dentsitate-funtzioa, x ume-kopurua, n_1-1 askatasun gradua...

X.5. HOTS-ALDAKETAK

Aposizio-elkartearen izaerak berak pentsaraz ziezagukeen bezala, ez da hots--aldaketarik gertatzen bi osagaien artean.

X.6. IDAZKERA

Bai adibidetegian bai hitz teknikoetan ere bi osagaiak bereiz idazteko joera nabarmenki gailentzen da. Bi osagaiak loturik, toponimo bihurtu diren *Benitosoro* eta *Oriamendi* izen propioetan soilik aurkitu ditugu. Eta marra ere gehienbat mendi izenetan, nahiz bestelakoetan ere inoiz behin ageri den, toponimo pare bat barne:

> San Miel-mendia HE21, Santiago-jaiak HE29, Gainza-malloa HE50, Uztegi-malloa HE50, Zubeltzu-torre HE29, Jesus-haurra HE51, Gibraltar-estua HE33, Irati-mendiak HE29, Izpegi-mendatea HE17, Irati-soro HE29, Donine-eguna HE24, Balerdi-punta HE50, Baigorri-eskualdea HE59, Arrua-erreka HE29, Aralar-mendi HE18, HE50, Alos-torrea HE24, Andia-mendia HE24.

III. ASMO-ELKARTEAK

Sail honetan bildu ditugu, mugakizuntzat, bigarren osagaitzat, "asmoa", "joera", "grina"... adierazten duen elementuren bat dutenak. Bigarren osagaitzat, beraz, *gura, nahi, behar, gose, egarri, min, uste, beldur, asmo*... bezalakoak izango ditugu.

Ez da, ordea, mugakizunaren esanahia sail honetako elkarteek duten ezaugarri amankomun bakarra. Horretaz gain (edo agian esanahi-berdintasun hori badelako), beste ezaugarri hauek ere aipa daitezke:

1. Guztiak 'Menpetasunezko Hitz Elkartuak' direla esan daiteke, hau da, bigarren osagaiaren kategoria gramatikala hartuko du elkarte osoak; elkartearen esanahi nagusia ere bigarren elementuak, mugakizunak, emango du. Baina, Menpetasunezko Elkarteen artean, ondoko puntuetan zehazten saiatuko garen berezitasunak dituzte.
2. Zenbaitetan bigarren osagaia, mugakizuna, izen bezala nahiz izenondo (hots, atributu) bezala ager daiteke: *gose, egarri*, esaterako, bi erabilerok dituzten elementuak dira:
   a. goseak/egarriak nago
   b. gose/egarri naiz
3. Beste batzutan, mugakizuna aditz-formen barnean ere aurki dezakegu, modal modura edo. Horrelakoak ditugu *behar, nahi* edo *gura*, berez izenak izan arren, **edun* aditzarekin elkartuz aditz esapideak osa ditzaketenak, eta beste partizipio baten ondoren ere ager daitezkeenak[1]. Eta horrenbestez Asmo-elkarte saileko izen-elkartu ez, baizik aditzaren osagai modal liratekeenak. Hala ere, kontraste gisa, batzuren eta besteen erabilera desberdinaren argigarri, *etorri behar dut*-en saileko adibide mordoska ematen dugu adibidetegian.
4. Zenbait mugakizunekin (*nahi, behar, gura, uste*...) mugatzailea, lehen osagaia, azkenik, izena edo aditz partizipioa/aditzoina izan daiteke.

Aipatu berri ditugun ezaugarri hauek biltzen dituzte, oro har, sail honetako elkarteen berezitasunak, eta, ondorioz, bereizten menpetasunezko beste elkarteetatik.

Ondoren, mugakizuna oinarri hartuz, banan banan aztertuko ditugu elkarte-mota desberdinak.

III.1. A/x + GURA

III.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Mugatzaileari dagokionez, beronen kategoria gramatikala bi modutakoa izan daiteke: izena edo aditz-partizipioa.

---

[1] Ikus *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*, 159-161 eta 444-455. or.

Mugakizuna, *gura*, izena da berez, baina aditz elkartea ere osa dezake **edun* laguntzaileari erantsiz (*gura dut*). Gainera, beste izen bati loturik hitz elkartua osatzen duenean, hitz hau izena izan daiteke zein izenondoaren funtzioa —atributua, alegia— bete dezake. Hortik, hain zuzen ere, ondoko bikoteen arteko bereizketa:

a. ura gura dot
b. urgura naz

era berean,

a. ikasgura naiz
b. ikasgurarik ez dut

Behin edo beste *gura* horri izenondo balio markatuagoa eman nahirik edo, *-ko* atzizki adjektibatzailea eransten zaio, *gurako* bihurtuz: *handikigurako, jakingurako*. Hona hitz elkartu horietako batzuk adibide gisa:

a. Izena + *gura*

farregura, handikigura, handikigurako, hazkura, jolas-gura, lan azkura, logura, senar gura

«'gure artean' honek egundoko barregura eman zion Joni» HE39,92
«euren ondorenguac diriala gaurco jaun, andiqui eta andiquigurac» HE20,94
«guk ez degu jolas-gurerik eukitzen» HE21,71
«arakinak jolasa-gure ziran» HE22,35
«ibiltari gabian, logura goissian» HE20,123
«senarr gurarik dagozalako gazterik neskatsak larri» EJ70,114
«andi-eche, ta andiquiguracuenetan otseinac jaten dabee bakarturic» HE20,111
«bizkor-belarra jan dute, nonbait: sartu zaie lan azkura» HE18,79

b. Aditz-partizipioa/aditzoina + *gura*

bihurtu gura, bizigura, eroan-gura, ezkongura, hil gura, ikusgura, jakigura, koixu--gura(n)

«biurtu-gurarik, geyenak or dabilz oin gorrotoz suturik» EJ77,92
«bana badaquizu ez dala bardin gabeco jaquiguria ta goissecua» HE20,116
«zertara datoz bestelea nere bizigura ta biotz-lillurak» HE34,25
«mutil orditu bat yatorko... itsu-soñura eroan-gurarik» EJ77,38
«ezcon-gurari lecu gueyegui eman» HE07,320
«neure senarr maitea dago or il gurarik» EJ70,58
«maisu Juan, asco da gauco verbeeta jaquinguracoric» HE20,110

Bi osagaien arteko erlazio semantikoa dela eta, elkarte hauetan, mugatzaileak 'zertakoa' (hau da, 'helburua, xedea') ematen duela esan daiteke. Hala, *bizigura, esangura, ezkongura* hitz elkartuak 'bizitzeko gura', 'esateko gura' eta 'ezkontzeko gura'-ren baliokide dira esanahiaren aldetik.

Lehen osagaia izena denean, berriz, 'zertakoa' adierazten duen eta mugatzaile den 'aditz izendua + *-ko*' du pareko esanahiz. Hala: *farregura* = 'farre egiteko gura', *senargura* = 'senarra hartzeko gura', *handikigura* = 'handiki izateko izateko gura'...

III.1.2. Emankortasuna

'Aditza + *gura*' egiturak nahi besteko ugaritasuna du mendebaleko euskalkian. 'Izena + *gura*' egiturakoak erabilera zabalagoa du euskalkietan, nahiz eta honelako hitz elkartuak lehen osagaia aditza dutela sorturikoak baino askoz urriagoak izan. Haatik, honelako hitz-elkarketak bidea zabalik du beste hitz elkartu berriak sortu ahal izateko.

III.1.3. Berrelkarketa eta garapena

'Izena + *gura*' elkartea erabil daiteke mugakizun gisa hitz elkartu berri bat osatzeko: *lan-azkura*.

Horretaz gain, mugatzaileari dagokionez, beste ezaugarri hau ere aipatu behar da: 'aditza + *gura*' egituretan, aditz hori bere osagarri guztiekin joan daitekeela eta osagarri horiek aditzaren araberakoak izango direla:

a. gezurra egia bihurtu gurak ez du lekurik
b. inor baino hobeto bizi gurak zer dakar?
c. gauza guztiak jakin gurak galdu du

Ezaugarri honek, bestalde, izakera berezia ematen die elkarte hauei, hitz elkartuko osagaiak kategoria lexikal txikienak (izena, aditzoina, izenondoa, adberbioa...) izan ohi direlako, eta ez perpaus-zatiak. Sintaxiaren eta lexikoaren artean, mugako egiturak direla esan daiteke.

III.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Honako aldaketa hauek ageri dira hitz elkartuon uztarduran:

a. **-tz + g-** → **-z + k-**: txistukari afrikatua frikari bihurtzen da, eta herskari ahostuna ahoskabe. *Hazkura* (baina *hatzgura* ere ageri da inoiz).

b. **-tz + g-** → **-z + g**: herskari ahostuna gordeaz, *idazgura*

III.1.5. Idazkera

Ez dago idazkera bateraturik. 'Aditza + *gura*' egituran badirudi marratxoa erabiltzeko joera nagusitzen dela, baina badira bi osagaiak berezirik idazten diren adibideak ere, bai eta loturik ageri direnak ere. 'Izena + *gura*' egituran, berriz, marratxoa azaltzen da gehienetan, baina ia beste hainbatetan bi osagaiak loturik ikusten ditugu; berezirik gutxiagotan. Beraz, nolabaiteko lotura jartzen diete idazle gehienek hitz elkartu hauei, marratxoa nahiz zuzeneko lotura. Badago, hala ere, idazkera hori bateratu beharra. Nahasketa hori baztertu eta idazkera batera daiteke 'izena + *gura* / aditza + *gura*' bi egiturak loturik edo marratxoa dutela idatziz, eta ez bereiz. Horrela, 'aditza + *gura*' hitz elkartua eta *gura izan*/**edun* perifrasia bereizirik geratuko lirateke idazkera aldetik. Honela:

a. esangura dut (= esateko gura dut/naiz)
b. esan gura dut (= esan nahi dut)

Elkartu zaharrak, ia ihartuak, direnean, *hazkura* bezalakoak, bi osagaiak elkarturik idatz daitezke; berriak, aldiz, marratxoaz.

III.2. A/x + NAHI

III.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

'Aditz-partizipioa + *nahi*' eta 'izena + *nahi*' dira bi egiturak. Mugatzailea, beraz, aditz-partizipioa edo izena izan daiteke. *Nahi* mugakizuna, berriz, izen gisa agertzen zaigu gehienetan, baina izenondo bezala ere joka dezake.

a. Aditz-partizipioa + *nahi*

atera-nai, atseguin artu naya, bizi nahia, erran-nahi, esanahi, jakin-nahia, joan naia

«egondu zen nekerik ekusi ezpalu bezala, ta atera-nai bat erakusten etzuela» HE13,22
«edo nescacha mutillen batzarreetara, eta azalprintz oneco guciaquin atseguin artu naya izan oi cenduan?» HE07,142
«irekidura, bizi nahia, odolaren mintzoa» HE56,9
«haueik ezein ere erran-nahirik ez ukhaiteaz» EJ61,19
«barnean dagoen hitzak esanahia argitzen du» EJ56,59
«erle joan naia, ez ezti, ez bresca» HE20,172
«haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia» HE59,6

Azken bi adibideetan izenondo eta atributu funtzioa duten elkarteak ditugu. Izan ere, (erle) *joan naia* ez da 'joateko nahia, desira', 'joateko nahia, desira duena' baino; eta, era berean, 'haurra zen oro jakiteko nahia zuena'.

b. Izena + *nahi*

aundinai, batasun-nahia, burruka-nai, lonaia, onginaya, zorion-nahia

«batasun-nahiak gorpuzten saia gaitezen» EI94,31
«aundinai, alper eta tripazai galantak besterik ezpaitziren» HE28,60
«lonaia aizatzen dute ipuiez ta kantuz» HE18,92
«lanbide onegatic ondo-nai aundia aguertu zion» HE45,210
«izugarrizko onginaya agertu zien» HE54,174
«ez dio maitasunak ernatu zion zorion-nahiari ukorik egingo» HE27,299
«ire burruka-nai au bearko nik jaso» HE18,42

Adibideotan ikus dezakegunez, izenondo (*handi*) edo aditzondo (*ondo*) bat ere izan daiteke inoiz mugatzaile.

Bi osagaien arteko erlazio semantikoa ere aurreko azpisailean aztertutako 'A/x + *gura*'-ren parekoa da, 'zertakoa' adierazten du. Hitz elkartu eta sintaxi-egituren arteko kidetasunak, beraz, lehen azpisailean aipatutakoak bezalakoak dira:

a. atera-naia = ateratzeko nahia
b. borroka-nahia = borrokarako nahia/borroka egin nahia

III.2.2. Emankortasuna

Elkarketa honek aukera zabala du bai 'aditza + *nahi*', bai 'izena + *nahi*' egituretan ere.

III.2.3 Berrelkarketa eta garapena

Ez dago berrelkarketarik lehen osagaiaren aldetik, aditz esapideak izan ezik: *atsegin hartu nahia*. Mugatzailea aditza denean, aditz horri dagozkion osagarriak har ditzake: *oro jakin nahi, santu izan nahi* bezalakoak, *gura* mugakizun duten elkarteetan bezala. Beraz, hauek ere ezingo genituzke egiazko hitz elkartutzat hartu, mugako egituratzat baizik.

Bigarren osagaia ere garaturik ageri da *jakin nahiKO*, *handinahiKERIA* bezalakoetan, lehena *nahi* izena *nahiko* izenondo bilakatuaz; bestea, berriz, izenondotik abiatuta izen bihurtuz.

III.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Bi sudurkari elkartzean, sudurkari bikoitza soildu egiten da batzutan: *joan nahi* →*joanahi, esan* + *nahi* →*esanahi*. Dena den, bi osagaiak elkarturik idazten direnean bakarrik gertatzen da soiltze hau. Ikus bestela: *erran-nahi*.

III.2.5. Idazkera

'Aditza + *nahi*' egiturak berezirik edo marratxoaz elkarturik idazteko ohitura nabarmentzen da; gutxienetan azaltzen dira bi osagaiak loturik. 'Izena + *nahi*' egituran, berriz, marratxoa gailentzen da, gutxiagotan azalduaz bi osagaiak loturik, eta bereiz behin bakarrik.

Honen aurrean, lehen osagaia izena denean, marratxoaz idaz daiteke elkartea, loturik idazteko ohitura dagoen elkarte zaharrak errespetatuz.

III.3. A/x + -GALE

III.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Elkarketa honetan erabil daitezkeen osagaien kategoria aurrekoen antzekoa da. *Gale* mugakizuna izena dugu jatorriz, nahiz eta gaur egun ez den hitz elkartuetatik kanpo hitz beregain gisa erabiltzen[2]. Mugatzaileak, berriz, aditza, izena eta inoiz

[2] Ikus Azkuek dioena: «Es de advertir que no se usa ya este elemento como elemento separado» (*Morfología Vasca:* 199§.)

aditzondoa —*gora*— ditugu. Bestalde, *gura* eta *nahi* bezalaxe izenondo gisa ere erabil daitezke elkarketa hauek, gehienetan izen kategoriakoak izan arren. Gaur egun elementu beregain ez izatea atzizkien artean sailkatzeko arrazoi izan badaiteke ere, esanahiak eta lehen osagaiaren kategoria gramatikalak 'Asmo-elkarte'etara hurbiltzen du *-gale*. Dena den 'aditza + *behar/nahi, gura*' aztertzean, perpaus osagaiak gordetzen dituztenak sintaxiarekin mugan daudela esaten genuen. Era berean behin baino gehiagotan aurkituko ditugu hitz elkarketa eta eratorpenaren arteko mugan daudenak ere, edo agian sail batetik bestera pasatu direnak (jatorrizko saileko zenbait ezaugarri gordeaz). *Gale*-ren kasuan beste elkarteekin dituen kidetasunak kontutan izanik, 'Asmo-elkarte'etan aipatzea erabaki genuen.

a. Aditza + *gale* : *jangale, egingale, jogale*
b. izena + *gale* : *negargale, atsegale, logale, jolasgale, hazkale*
c. aditzondoa + *gale* : *goragale*

«goragale larria sentitzen zuen» HE39,14
«eta eche-inguruan badabill ciquina eta goragalea emateco eran» HE08,93
«apariak on dagizutela il baduzute jangale» HE18,40
«ez jangalerik, ez ta parrik» HE18,53
«'orain galdu aiz' dio berritzu jogale» HE18,138
«neska bera da, bere lana egingale» HE18,94
«eta neuri ere idazgura suntziturik, logale nago» HE34,30
«señale ona da biotzeco pena finbat sentitzea offendituas alaco jauna, ta negargale oroitzeas» HE07,211

Bi osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, lehen osagaia aditza denean, aurreko azpisailetan bezalaxe, 'zertakoa', 'helburua', litzateke; hau da, 'aditz partizipioa + *gale*' egiturak aditzak dioena egiteko gogoa adierazten du. Ez dago esan beharrik, hemen ere *-t(z)eko* daraman forma osoaren balio semantikoa duela. Beraz:

a. jangale = jateko gale
b. jogale = jotzeko gale

Lehen osagaia izena denean, berriz, izen horrek dioena egiteko gogoa adierazten du:

a. logale = lo egiteko gale
b. negargale = negar egiteko gale

III.3.2. Emankortasuna

Oso gutxi erabiltzen da hitz elkartu berriak sortzeko. Horren ordez gehiago jotzen da beste elkarketa edo esate-moduetara, nahiz eta, hitz berriak sortzeko, elkarte-modu honetara jotzea gaizki ez legokeen. Kontuan hartu behar da, ordea, gorputzarekiko joera eta gogoak adierazteko erabili izan dela.

III.3.3. Berrelkarketa eta garapena

Adibidetegian ez da ageri alerik ere, baina *goragaletu* bezalako garapenak ez leudeke gaizki eginak.

III.3.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Adibidetegian ez da aldaketa fonetikorik ageri, baina *hazkale* bezalako elkarteetan txistukari afrikatua frikari bihurtzen da, eta bigarren osagaiaren hasierako herskari ahostuna, ahoskabetu; bestelako forma ere ageri da, hots, *hazgale*.

III.3.5. Idazkera

Bi osagaiak beti loturik doaz eta hala beharko dugu erabili, gaur egun izentzat baino gehiago atzizkitzat jotzen bait da. Beraz, lehen osagaiari atxekirik idatziko dugu beti.

III.4. A/x + GOSE, EGARRI

III.4.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Bi osagai mugakizunok, elkarrekin zerikusi handia dutelako, batera aztertuko ditugu. Halere, alde txiki bat badago bi horien artean osagai mugatzailearen aldetik: *gose*-k aditza eta izena bait ditu mugatzaile, *egarri*-k, ostera, izena bakarrik.

a. aditza + *gose*: *jakin-gose, jan-gose*

b. izena + *gose/egarri*

aginte-gose, barruikara-gose, diru-gose, egi-egarri, espantu-gose, zuzen-gose

«orrelako barru-ikara-gose bai-nazu» HE57,110
«beintzat ez dau ichutuco au diru gosiac» HE20,50
«alta ez ziren ez espantu gose» HE56,28
«ez du aginte goseak ekarri, jakin goseak baizik» HE27,339
«guerri cerdenaz maquilla baga jan gosiagaz besteti» HE20,65
«egi-egarriak, zuzen-goseak gida gaitza» HE28,81

Erlazio semantikoa aztertzerakoan, 'aditz-partizipioa + *gose*' egiturak, mugatzaile den aditzak dioena egiteko gogo bizia adierazten duela ikusten dugu:

a. jakin-gose = jakiteko gose
b. jan-gosea = jateko gosea (gogo bizia)[3]

'Izena + *gose/egarri*' egiturak, berriz, izenak dioena egiteko, izateko... gogo bizia adierazten du. Hala *lan-gosea* dioenak, 'lan egiteko (lanerako) gogo bizia' dio. Eta honela, lehen osagaiak eskatzen duen araberako 'aditza + *-teko*', edo helburua/xedea adierazten duen *-(ra)ko* kasu-marka daraman egituraren balio semantikoa du.

---

[3] Dena den *jan* hemen izen bezala ere har daiteke: *jana*.

III.4.2. Emankortasuna

Zerbaitetako gogo bizia adierazi nahi denean honelako hitz-elkarteak egin daitezke, nahiz adibidetegian adibide askorik azaltzen ez den. Baina *gose* edozein motatako aditz eta izenekin erabili da; *egarri*, izenekin bakarrik.

III.4.3. Berrelkarketa eta garapenak

Adibidetegian berrelkarketa bakarra ageri da, mugatzailea delarik aldi berean elkartua: *barru-ikara-gose*.

III.4.4. Hots-aldaketak eta idazkera

Adibidetegian ez da bi osagaien artean inolako hots-aldaketarik ageri.

Idazkerari dagokionez, adibide gehienetan bi osagaiak bereiz ageri dira, marratxoa behin bakarrik erabiliaz.

III.5. A/x + USTE, USTEKO

III.5.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Osagaien kategoria gramatikala aztertzean ohartzen gara 'izenondoa + *uste*' egitura dutela adibidetegian ageri diren hitz elkartuek. *Uste* izenak *-ko* atzizki adjektibatzailea hartzeko aukera du:

eder-uste, handi-uste/hantuste, handi-usteko, noble-uste, on-uste, zintzo-uste, zintzo-usteko

«gere au aunditzat yoa barkatu: ezta eder-uste, baizik eta zigorrari ez igesi naia» HE17,58
«aitatuko dizkiotegu 'odolkera', aundi-ustea» HE17,55
«aundizkiak bizi ziren etxe orretan, edo aundi-ustekoak beintzat» HE53,42
«eta an guchi arrotasun eta andiustez lausotuac» HE40,135
«antuste utsa litzake gerozko damurik gabe jokatu nai izatea» HE34,40
«antuste, edo soberbiaren becatua» HE07,301
«kofradia,... bere noble-usteari euste-arren kondepekoai sarrera ukatuz» EJ70,184
«gure artzain on-uste osoduna» HE21,26
«neska petral orrek, zenbait neskatxa zintzo-usteko jantziko lituzke» HE57,140

Adibide guzti hauek 'izenondoa + *uste*' egituradunak dira. Ez da, beraz, adibidetegian 'aditz-partizipioa/aditzoina + *uste*' egiturakorik ageri. Baina *etorri beharra* hitz elkartu bada, eta halakotzat aztertu dugu, era berean *etorri uste(ko)* ere hitz elkartu izango da. Badakigu *uste* + *izan*/**edun* aditz-perifrasia dela (*gura*/*nahi*/*behar* + *izen*/**edun* diren bezalaxe), baina horretaz gain izen soil ere bada, beste horiek

bezala. Berezitasun bakarra, 'aditz-partizipioa + *uste*' ekialdekoa izatea litzateke. Horretaz aparte, *gura, nahi, behar*-ek bezalaxe aditz partizipioa har dezake osagai mugatzaile eta bien artean hitz elkartua sortu. Izan ere badirudi euskaraz *garaiz etorri usteak galdu nau* bezalakoak esateko eragozpenik ez dagoela. *Hura bil ustez* dio Lafittek (1944: §875).

Esanahiaren aldetik, egitura hauen ordain izan daitekeen perpauseko aditzaren atributua biltzen du lehen osagai den izenondoak. Ondorioz, 'lotura-aditzaren forma jokatua + *-lako* + *uste*' esapideak duen esanahi bera dute aztergai ditugun elkarteek ere. Beraz, hitz elkartu horiek 'ederra, handia, noblea, ona, zintzoa delako uste(a)' esan nahi dute. Eta mugakizuna *uste* + *-ko* baldin bada, 'ederra... delako ustea duena'.

Beste horrenbeste esan daiteke bestelako edozein aditz-motaren partizipioa/ aditzoina + *uste* egitura daramaten hitz elkartuez ere. Horrela,

garaiz iritsiko direlako/iristeko ustetan = iritsi ustetan joan dira
apustua irabaziko dutelako/irabazteko = irabazi ustetan dabiltza

edota

hura bil ustez = biltzeko/bilduko dutelako ustez

esapideetan ageri diren *iritsi ustetan, irabazi ustetan, bil ustez* bezalako hitz elkartuak egin daitezke, eta egin ere euskara mintzatuan egiten dira, nahiz eta hemengo adibidetegian ageri ez.

III.5.2. Emankortasuna

Nahi adinakoa da bere mailan, izenondo guziak erants bait dakizkieke *uste* eta *usteko* mugakizunei. Mugatzailea aditza denean ere nahi beste hitz elkartu sor daitezke.

III.5.3. Berrelkarketa eta garapena

Ez da halako kasurik ageri adibideetan.

III.5.4 Osagaien arteko hots-aldaketak

Hots-aldaketa bakarri ageri zaigu, *-i* bokalez amaitzen den bi silabako lehen osagaiak azken bokal hori galdu, eta ondorioz kontsonante herskaria *-t* bihurtzen duena:

handi + uste → hand + uste → hantuste

III.5.5 Idazkera

Osagaien kategoria gramatikala eta hots-aldaketak kontutan izanik, honako bereizketak egin ditzakegu:

a. hots-aldaketa gertatu den kasu bakarrean bi osagaiak elkarturik ageri zaizkigu: *hantuste*

b. mugatzailea aditza denean bereiz idatziko genituzke bi osagaiak: *bil ustez*

c. mugatzailea bestelakoa denean, hots, 'izenondoa + *uste*' modukoetan, bi osagaiak marratxoaren bidez elkartzea da bi osagaiak loturik idazteari gailentzen zaion joera.

III.6. A/x + MIN

III.6.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Elkarte multzo honetako gehienetan bezalaxe bi mugatzaile mota ageri dira Asmo-elkarte honetan ere:

a. Aditz-partizipioa + *min* : *apurtu-min, jakin-min*

«moral-esiak apurtu-minez dijoa» HE28,71
«oso konprenigarri da nere jakin-min hori» HE33,3

b. Izena + *min* :

afari-min , ele-min, etxemin, euskaldun herri-min, haundimin-azi, larri-min, listu-min, maite-min, maitemin...

« Mikelak, aldiz, afari-min du» HE18,89
«behin eta berriro irakurtzen zuen etxeminak ateratako negar isil ugariz» HE39,35
«aundimin-azi eragikorrak aginduz» HE17,10
«beatzetan irra ta agoan listu-min» HE18,109
«maiteminak leher zorian zeukanean» HE27,301
«benetan maiteminduta ezkondu ziran» HE31,15
«nekea..., asperra, ogemina...» HE17,48

Elkarte hauen eduki semantikoari dagokionez, partizipioa lehen osagai dutenek, aditzak dioena egiteko gogo bizia adierazten dute. Izena mugatzailea denean, berriz, izenak adierazten duen hori egiteko edo, lehen osagaia izenondoa baldin bada, hori izateko gogo bizia; hala nola:

apurtu-min = apurtzeko gogo bizia
herri-min = herria ikusteko edo herrira itzultzeko gogo bizia
handi-min = handi izateko gogo bizia, eta abar.

III.6.2. Emankortasuna

Gura eta *nahi* mugakizun dituzten elkarteen erabilera baino askoz murritzagoa da aztertu berri ditugun hauena.

III.6.3. Berrelkarketa eta garapena

'Izena + *min*' elkartea behin ageri da beste mugakizun baten mugatzaile, hala nola *haundimin-azi* izenean. Adibide bakarra izateak, baina, ez du esan nahi horrelako gehiago sor ezin daitekeenik.

III.6.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera

Ez zaigu adibidetegian hots-aldaketa bat bakarra ere ageri. Gure adibideen idazkerari begiratuaz, berriz, bi osagaiak loturik edo marratxoaz elkarturik daude, erdi eta erdi gutxi gora behera.

III.7. A/x + BEHAR

III.7.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Hemen ere, orain artekoetan bezalaxe, aditz-partizipioa edo izena izan daitezke mugatzaile; mugakizuna, *behar*. Kontutan hartu behar da, bestalde, *gura* eta *nahi* bezalaxe, hau ere aditz-perifrasiko elementu izan daitekeela. Hortaz, bereizi egin behar dira *ikasi behar dut / ikasi beharra dut* bi egiturok. Lehenengoan *behar izan* aditzeko elementu dugu *behar*; bigarrenean, 'partizipioa + *behar*' forma duen izen elkartuaren osagai mugakizuna.

a. Aditz-partizipioa/aditzoina + *behar*

adierazi beharra, agindu beharra, antzaldatu beharra, ibili beharra, ihes egin beharra, joka beharra, sor(tu) beharra...

«lan ori nola egina dan adierazi beharra dago» EJ60,9
«argitara emandako puntuok arakatu beharrean gaude» EJ52,7
«edari mingots ori edan-bearra gauza gogorra da» EJ77,48
«arrapatzen nauen bakoitzeko eginbearra diat ori» HE17,18
«batasun eguiazcoa galdubearra badago» HE40,170
«arrezkero... anaien-arteko bata-besteen etsai joka-bearra» EJ70,191
«ene ametsaren sor-bearra» HE17,67

b. Izena + *behar* :

diru beharra, herio-beharra

«gerra galtzen badegu, diru beharrik ez dago» EJ60,45
«ura erio-bearra nerea!» HE34,44

c. Aditzlaguna + *behar* : *gogoanbehar(tu), gorabeharra.*

«gogoanbehar 'pesar'» HE01,86, HE01,92
«su-garren gorabear kizkurrari begiak yosita» HE17,19

Mugatzailea aipatutako hiru gramatika-kategorietako bat izan daitekeenez, erlazio semantikoa ere hiru eratakoa dateke: bata 'zertakoa, xedea' adierazten duena. Mugatzailea partizipioa denean gertatzen da hau: *ibili beharra* = 'ibiltzeko beharra'. Egia esan, bikote honetan forma elkartua da erabiliena. Partizipioa, perpauseko beste zenbait osagarriz lagundurik doanean (eta eman ditugun adibide gehienak horrelakoak dira), ordea, mugako egitura izateaz gain, balioa ere aldatu egiten da askotan: *edari mingots ori edan-bearra gauza gogorra da* dioenak, ez du adierazi nahi 'edari mingotsa edateko beharra', baizik 'edari mingotsa edan behar izatea'. *Batasun eguiazcoa galdubearra badago* esatean ez dirudi 'galtzeko beharra dagoela' aditzera eman nahi dugunik, 'galdu behar bada' esateko beste modu bat besterik ez litzateke. Zenbaitetan, beraz, 'partizipioa + *beharra*' egiturak, 'partizipioa + *behar izan*', Aditz-elkarteetan aztertutako egiturarekin lotura estuagoa dutela esan daiteke, *behar* izenarekin baino.

Bigarrena, 'zerena' erlazio bezala defini dezakegu, mugatzailea izena denean aurkituko duguna: *diru beharra* hitz elkartuak eta *diruaren beharra* izen sintagmak esanahi bera dute.

Eta hirugarrena, lehen osagaia aditzondoa edo aditzlaguna denean gertatzen da. Hor izen elkartuaren ondoan izan dezakegun perpaus atalean partizipioa agertuko litzaiguke: *gogoanbehar* = *gogoan IZAN behar* biak pareko izanik edukiaren aldetik.

III.7.2. Emankortasuna

Oso emankorra da aztertu dugun elkarte mota, bai mugatzailea partizipioa/aditzoina denean, bai eta izena denean ere, 'zerbaitetako edo zerbaiten beharra' adierazteko hitz-elkarketa honetara jotzen dugu gehienbat eta.

III.7.3. Berrelkarketa eta garapena

Mugatzailea *ihes egin* bezalako esapidea izatetik kanpo ez dugu bestelako berrelkarketa edo garapen adibiderik aurkitu.

III.7.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Adibidetegian ez da inolako aldaketarik ageri, kasu batzutan aditzoina eta beste batzutan (gehienetan) partizipioa osorik azaltzea ezin bait da hots-aldaketatzat hartu.

III.7.5. Idazkera

Mugatzailearen kategoria gramatikal desberdinak kontutan hartuaz aurkeztuko ditugu adibidetegian aurkitu ditugun idazkera-modu desberdinak ere:

a. Partizipioa + *behar* : adibidetegian bi osagaiok bereizirik 38 aldiz aurkitu ditugu, 25 aldiz marratxoaz elkarturik eta loturik 9 aldiz. Loturik ez idazteko joera behintzat garbi nabarmentzen da.

b. Izena + *behar* : bi osagaiak marratxoaz loturik edo banandurik ageri zaizkigu (erdi eta erdi gutxi gora behera); bi osagaiak loturik ez dira inoiz azaltzen.

c. Aditzondoa + *behar* : bi adibideak marratxoz elkarturik ageri zaizkigu.

III.8. A/x + BELDUR

III.8.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Egitura nagusia 'izena + *beldur*' da. Inoiz 'aditz-partizipioa/aditzoina + *beldur(ez)*'. Bigarren egitura honi buruz esan behar da adibidetan beti *-z* kasu-markaz azaltzen dela, aditzlagun balioa hartuaz, beraz.

a. izena + *beldur*

andre-beldur, egi-beldur, negu-bildurti

«ez izan noski egi-beldur ta bai osoki gizon» HE17,11
«zozo-bikote datorrenean ez dira negu-bildurti» HE18,70

b. aditz-partizipioa + *beldur*

hil beldurrez, erori beldurrez

Izenarekiko hitz elkartuak ageri dira adibidetegian Aditzarekikorik, berriz, ezta bat bera ere. Hala ere *hil beldurrez* bezalakoak ezagunak dira euskara mintzatuan behintzat. Eta partizipioa lehen osagai denean ere elkarte osoak beste kasu-markak hartzea ez dirudi gaizki legokeenik. *Amiltzeko beldurrak atzera eragin dit* perpausaren ordez, *amildu bildurrak atzera eragin dit* esan eta idaztea gramatikaren arauerakoa da, noski.

Bi osagaien arteko erlazio semantikoa aztertzean, aurreko Asmo-Elkar-teetan bezalaxe, mugatzailea izena denean, 'zeren beldur' adierazten da: 'egiaren, andrearen, neguaren beldur'. Edo, beste modu batera esanda, 'egiari, andreari, neguari beldur' diogula. Aditza denean lehen osagai, aldiz, *-t(z)eko* da parafrasi ordaina, 'hiltzeko beldur'.

III.8.2. Emankortasuna

Ez dago dudarik edozein izeni erans dakiokeela, nahiz adibidetegian adibide gutxi ageri den; eta aditzari ere bai, noski, adibidetegian horrelakorik ageri ez bada ere.

III.8.3. Berrelkarketa eta garapena

Berrelkarketa kasurik ez zaigu ageri adibidetegian; bai, ordea, *negu-bildurti*, non *negu-bildur* izena *-ti* eratorpen atzizkiaren bidez garatu den izenondo bihurtuz.

III.8.4. Hots-aldaketak eta idazkera

Ez da hots-aldaketarik ageri adibidetegian. Ez dirudi gainera elkarte hauetan aldaketarik egiteko joerarik dugunik, *hozpeldur* edo antzekorik esatekorik, adibidez.

Idazkera dela eta, 'izena + *beldur*' egituretan, gehienetan marratxoa aurkitzen da; 'partizipioa + *beldur*' modukoak, aldiz, oro har banandurik idatzi izan dira.

III.9. A/x + LARRI

III.9.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Larri kategoriaz, izenondoa izan daiteke, eta baita izena era 'estura', 'beharra' adierazten duen heinean. Eta elkarte hauetan izena dugu, 'estura bizia' adierazten duena. Mugatzailea, berriz, aditza edo izena izan daiteke, 'Asmo-elkarte' gehienetan bezalaxe. Beraz, hortik sorturikoa ere izena da.

a. aditza + *larri* : jakinlarria
b. izena + *larri* : txixalarria, kakalarria, heriolarria

«ta orra, yakinlarri orretxek eraso gaitu oraingo aldian» HE17,75

Erlazio semantikoa: elkarte mota honetan lehen osagaia izena bada, izen horrek adierazten duena egiteko estura bizia du ematen aditzera. Beraz, 'zertako' esanahia daraman aditz esapidea (mugatzaile den izena barne hartzen duena) + *-ko* (egiteko...) dago hor azpian. Eta mugatzailea aditza denean ere gauza bera gertatzen da. *Ito-larria* bezalako hitz elkartuak entzuten dira euskaldunen ahotik.

III.9.2. Emankortasuna

Oso gutxi erabilitako osagaia dugu *larri* hitza. Oso semantika-eremu estuko izenei datxekiena, bestalde, gorputz-beharrei dagozkien izenak bait dira gehienbat, eta mendebaldeko euskalkietara mugatua.

III.9.3. Hots-aldaketak eta idazkera

Ez da hots-aldaketarik ageri. Eta idazkeraz den bezanbatean, ditugun adibide urrietan loturik idazteko joera nagusitzen zaio marratxoaren erabilerari.

III.10. A/x + GOGO

Gogo-k izen kategoria du, eta adibidetegian izen mugatzailearekin elkarturik azaldu zaigu. Elkar daiteke *izan*/**edun* aditz laguntzailearekin ere, *gogo izan*/**edun*, aldiz, ekialdeko euskalkietan erabiltzen den aditz elkartea sortuz (ikus 'Aditz-elkarteak').

«leitzarrak ez ditugu berriketa-gogo» HE18,137
«mirikuak gerla aintzineko bere bihotz-erredura eta jazar-gogoa» HE59,15

Esanahiari dagokionez, *gura*, *nahi*, *gale* mugakizunek bere mugatzailearekin duten bezalakoxe erlazio semantikoa nabari da hemen ere: 'berriketarako gogoa', 'jazarrerako gogoa', alegia.

Ez da hots-aldaketarik nabari eta adibideok marratxoaz elkarturik agertzen zaizkigu.

III.11. A/x + ASMO

Egituraren aldetik bi eratako mugatzaileak ditu elkarte honek ere: partizipioa (perpauseko osagarriz lagundurik doana eta, ondorioz, mugako egitura duguna) eta izena. Mugakizunà, berriz, *asmo* izena.

a. aditza + *asmo* : egin asmo, hornitu asmo, jetxi asmo

«an eta emen eraskin batzuk egin asmotan ginan» EJ60,15
«apaingarriz edo osagarriz ornitu-asmotan, ez natzaizu batere okertuko» EL70,21
«bueltatu nitzan atzera, kale aldera jetxi asmuan lengo biria artzera» EJ66,146

b. izena + *asmo* : amorru-asmo, batasun-asmo

«emakumeak ere..., besterik gabe, Aramaio guziari su emateko amorru-asmotan» EL70,36«garbi ikusi da Euskaltzaindiak eskainitako batasun asmo eta arauek izan duten baietza eta eragina» EJ56,54

Orain arteko 'Asmo elkarte'etan bezalaxe 'zertakoa' da bi osagaien arteko erlazioa. Beraz *batasunerako asmo* egitura garatua eta *batasun asmo* forma elkartua baliokidetzat jo ohi ditugu.

Adibide bakan horietan ez da berrelkarketa eta garapenik ageri, ez eta hots-aldaketarik ere. Idazkerari dagokionez, bi osagaiak bereiz idatzirik edo marratxoaz loturik daude.

IV. IZAERA - ELKARTEAK

Izaera - elkarte izenpean bildu ditugun hitz elkartuek, honako ezaugarriak dituzte:

1. Izenondo kategoriako hitz elkartuak dira.
2. Lehen osagaia aditza da, edo beste kategoria baten ondoan aditza ere bai.
3. Esanahiari dagokionez, berriz, bigarren osagai diren *ezin* eta *gaitz* oso antzekoak genituzke, eta *erraz* antonimoa, aurrekoen kontrakoa adierazten duena.
4. *Hitz-Elkarketa/1*-eko sailkapenarekin alderatuz, A-*zale*, x-*zale* gehitu da sail honetan elkarte osoak izenondo kategoria hartzen duelako. Lehen osagaiaren kategoria gramatikala kontutan hartuz, aldiz, mugatzailea izena nahiz aditz-partizipioa izan daitekeenez, Asmo-elkarteekin lotura ere baduela nabaria da. Baina elkarte osoaren kategoria gramatikalari eman diogu lehentasuna, eta hori izan da arrazoia A-*zale*, x-*zale* egitura Izaera-elkarteetan sartzeko.
5. *Bera* mugakizun duten elkarteak, azkenik, atera egin dira sail honetatik. Izan ere, *bera*-k jatorrizko esanahia, hau da, 'bigun' adiera gordeaz sortzen diren elkarteen artean:
   a. *Gaztanbera* bezalakoak Hitz-Andana Ihartu dira.
   b. *Bihotzbera* Bahuvrîhi elkartea da, 'bihotz biguna duen' norbait adierazten du eta.
   c. *Minbera*, *sinesbera*, *sentibera* etabarretan *bera*-k ez du 'bigun' adierazten, joera, erraztasuna baino; eta bakarrik izenondo gisa erabiltzen denean, hau da elementu beregaina denean, ez du halako adierarik hartzen. Egokiago dirudi, beraz, Hitz-elkarte sintetikoetan erabilitako kriterioak berriro aplikatuz, Eratorpenean aztertzeko uztea.

IV.1. x-GAITZ, x-ERRAZ

Erraz eta *gaitz* bi antonimoen bidez sortu elkarteak elkarren pareko direla ez da dudarik (bigarrena hemen aipu ditugun Izaera-elkarte horietaz kanpo ere beste elkarte batzutan agertzen zaigula ahantzi gabe[1]). Kidetasun horrexegatik aztertuko ditugu elgarrekin hain zuzen.

---

[1] *Gaitz* izenondo gisa izen batekin ere elkar daiteke, Hitz-Andana Ihartuen sailekо elkarteak sortuz: *bekaitz*, *ameskaitz*, *harkaitz*... Bestalde aditz esapide batzu badira *gaitz*-ekin moldatuak, dela izenondoarekin: *gaitzetsi* (*gaitzeritzi*), dela izenarekin: *gaitzegin*, *gaitzerran*.... Atzizki gisa erabilia omen da oraino bizkaieraz, *-egi* ere egiten den moduan: *handigatx*, *luzegatx*... Azkue eta Villasaantek atzizkien artean sartzen dute *gaitz*. Baina hiztegietan osagai beregaina denez, hitz elkartuko bigarren osagaitzat hartzea egokiago dateke.

IV.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Elkarte hauetako osagaien kategoria gramatikalak aztertuaz,

aditzoina + izenondoa→ izenondoa

motakoa dugu elkarte hau. Erran gabe doana: hego aldeko testuetan aditzoinak askotan euskara batuaren partizipioaren itxura du: *landugaitz*, adibidetegian (*langaitz* gainera anbiguo samarra gertatzen da *lan* izen balioan ere har baitaiteke).

Xehetasun gehiegizkoetan sartu gabe ere, premiazkoa dirudi elkarte honen berezitasunaren argitzeko, bi izenondo horiek (*gaitz* eta *erraz*) predikatu osagarri gisa agertzean darakusten jokabide bereziari ohartaraztea. Alabaina, holako pareak molda daitezke:

(1) (a) liburu hauek erraz dira irakurtzen / -tzeko (/*tzea)
(b) liburu hauek irakur errazak dira

(2) (a) holako oinazeak gaitz dira pairatzen / -tzeko (/*tzea)
(b) holako oinazeak pairagaitzak dira

Oso mugatuak ditugu era horetan erabil daitezkeen izenondoak. *erraz* eta *gaitz* baditugu, eta gero, sinonimo batzu, hala nola zub. *ehi* eta *aise(ta)* naf.-lap. *neke* edo *gaixto*. Hor dugu *gogor* ere: adibidetegian *sineste* aditzarekin baizik ez da agertzen, eta ez dirudi beste aditz askorekin kausitzen den (*egos(go)gor* eta besteren bat). Kontuan har, *gogor* eta *gaitz* elkarteetan desberdinki aritzen direla. *Sinesgogor* sinesleari doakion kualifikatzailea da (erd. *incrédule*, *incrédulo*); *sinesgaitz* berriz, sinestearen objektuari dagokio (erd. *incroyable*, *increíble*.) *Gogor* produktiboa balitz, azpisail honetakoa litzateke. Adibidetegian *entzungogor* ere bada, iduri bailuke, *entzun(go)gor* dugula hor. Azkenik, *edansarri* ere Izaera-elkartetzat hartuko genuke:

«ez deust ecec gorroto ta iguin gueijago emoten nequezale edan-sarri, ta ardao zaleeguijac baño» HE20,44

(1a) eta (2a) bezalako esaldiak aditz iragangaitzekin ere osa badaitezke ere, badirudi, halare, (1b) eta (2b)ko elkartea aditz iragankorrekin bereziki egiten dela (izenondoak, nolabait, elkarteko aditzaren objektu izan daitekeen izen bat modifikatzen edo kualifikatzen duelarik).

Ez dirudi elkarteko aditza iragankor (hobeki esateko objektuduna) izatea arras beharrezkoa den. Segurenaz ere joera besterik ez da, *gertagaitz* bezalako formak ez dira ezinezkoak. Adibidetegian den adibide bakarra[2] *konformagaitz* dukegu (*iragan-*

---

[2] Itxurazko bi salbuespen badira, ongi azterkatu ondoan objektudunak direla ikus baitaiteke: *mintza erraz* eta *huts egin erraz*. Lehenean, *mintza(tu)* aditzak ipar aldean duen erabilbide berezi baten ondorioa da, hartan *mintza(tu)* iragankorra baita: *gizon hori maiz mintzatzen dut → gizon hori mintza erraza da*. Bigarrenean, idioma-objektu bat (*huts*) bada aditz lokuzioan, baina halare honek batzutan beste objektu bat ukan dezake: *aurtengo etsaminak*

gaitz) forma bera ere badugu bestalde), iduriz, aditz iragangaitz batekin moldatua baita. Dudazkoa da zenbatetaraino ongi moldatua den (goian erranaaren arauera *konforma gogor* igurika zitekeen hemen), baina askok onart bide lezakete. Horiek hola honela gelditzen zaigu forma hauen eskema:

aditzoina + *gaitz/neke/gaixto/erraz/ehi*

Hona adibidetegian aurkitu ditugun mota horretako elkarteak:

-erraz:

adierraz, arin-erraz, biharerraz (*behar* bizk.)[3], huts egin erraz, etenerraz, autsi-erraz, igaro erraz, landu-errez, menerrez, molderraz, sinets-errez, ulerterraz

-gaitz:

aldagaitz, ezagugaitz, gozakaitz, konformagaitz, landugaitz, moldakaitz, pairagaitz, saldu-gaitz, sinetsgaitz, uxagaitz

-ehi: ikas-ehi

-gogor: entzungor, sinhets-gogor

Adibide zenbait:

«euskera jator eta adierraz bat» EJ64,33
«lanaren kontrola da sindikatuen harmarik gogorena, eta harma hau aldagaitza eta mugatua da» EJ52,35
«xamur, etenerraz, lerden» HE34,54
«era askotara ezagugaitza bilakatzen delako» EI94,53
«igaroerraza eguiten jaquee, daruen biar gogor ta necatsuba» HE20,125
«gainera, arabez mintzatzaileek ikas-ehi zuten» HE30,205
«euskera hizkuntza basati eta landugaitzatzat hartzen zuten» HE36,27
«bacoitzak bere nai erara artu bear dituelaco dotrina moldacaitz» HE40,19 (Bahuvrîhi elkartetzat ere har daitekeena gorago esanaren arauera)
«nehoren eskolan eskolatua eta dizipulu molderraz izaitea» HE26,74
«textoari astuntasun pairagaitz bat emanaz» HE36,19
«esenzialista joera hori gure pentsamentuan sakonegi itsatsita dago, hain da uxagaitza» EI94,74

---

huts egin ditut. Hots, ez dira bi elkarte horiek egiazko salbuespenak, adibidetegiko esaldiek erakusten dutenaz:

"Hiriart-Urruty hurbilago zitzaion, mintza errexago" HE59,8
"Bazinaki zoin huts egin errexak diren (...) ihizi bitxi hek!" HE59,90

Bada oraino beste kasu bat aipatzeko: *moldagaitz*. Batzutan *molda(tu)* + *gaitz* elkartearen balioa du (hau da *molda erraz* izenondoaren antonimoa da), baina *molde* + *gaitz* beste elkartearen ondorioa ere izan daiteke, orduan *baldar*, *malestruk*, etab. esan nahi baitu. Adibidetegian azken mota honetakoak dira adibideak; Bahuvrîhi elkarteetatik oso gertu, beraz.

[3] *Behar* berez izena den arren, *behar egin* aditz esapideko balioan agertzen dela dirudi, hots, 'lurra behar egiteko erraza da' parafrasia emango genioke *lur biarerraza* sintagmari: "lurra samur eta biarrerraza da" HE20,149

IV.1.2. Emankortasuna

Dakigunaz, euskaraz izenondo gutxi batzurekin dugun elkartea da hau, gehienetan hitz katean autonomiarik ez duten erator-atzizkiak kausitzen baititugu aditzoinei erantsiak: *-kor*, *-garri*, *-kizun*... Hala ere izenondo jakin hauek (*erraz*, *gaitz*...) bigarren osagai dituzten elkarteek emankortasun osoa dute aditzak objektudunak direlarik, besteekin mugatua.

IV.1.3. Berrelkarketa eta garapena

Ez zaigu halako adibiderik azaldu. Halere *jasan eta pairagaitz*, *bil eta atxeki erraz* bezalako berrelkarketek edo *moldagaizkeria* erako garapenek ez dirudite ezinezko.

IV.1.4. Hots-aldaketak

Izaera elkarteetan honako hots-aldaketak atzeman ditugu:

1. Txistukariaren ondoan herskari ahostuna ahoskabe bilaka daitekeenez (*sineskaitz*), iduri luke hego aldeko zenbait euskalkitan *-kaitz* forma analogiaz edo hedatu dela: *moldakaitz*, *gozakaitz*..
2. Espero zitekeenaren aurka, txistukari afrikatua ez da frikari bihurtu ez eta ondoko herskaria ahoskabetu: *sinetsgaitz* EJ72,64
3. Lehen osagaia bi silabako izanik **e** → **a**, *moldacaitz*
4. Zenbait bokal kontrakzio ere gertatzen dira: *molderraz*.

IV.1.5. Idazkera

Gaitz eta *gogor* gehienetan lehen osagaiari loturik aurkitu ditugu, inoiz behin marra ere azalduaz. *Erraz* bigarren osagai duten elkarteetan era guztietako idazkerak aurki ditzakegu: bi osagaiak loturik (beste bi aukerak baino zerbait gehixeagotan), marraz loturik edo bereiz emanik. Loturik idaztean, aditzoinaren bukaeran edo junturan **-t** baliatua da, beregainki kontsonante, guziz afrikatu batez, bukatzen delarik: *ulerterraz*, *sinesterraz*. Ezin da, beraz, jokabide bateraturik ikusi. *Ehi*-rekin dugun adibide bakarra, berriz, marraz idatzirik dago.

IV.2. x-EZIN

IV.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Semantikoki *ezin*, *gaitz* eta *erraz* izenondoetarik hain urrun ez bada ere, alderdi askotarik arras desberdinak dira bata, eta beste biak. Beraz, *ezin*-ekilako elkarteak azpisail batetan ikustea egokiago iruditu zaigu.

Dakigunaz, *ezin*, moduzko aditz partikula eta izena ere izan daiteke. Ez ordea besterik gabe izenondo. Izaera elkartekide gisa, erran daiteke bi modutan agertzen zaigula *ezin*, bietan aditz batekin uztartua delarik: edo honen aurrean, edo atzean, *ezin-egon*, *egon-ezin*.

Benturaz, bi baliabide hauek banaketa dialektala dute, bigarren hau markatua-edo iduritzen baitzaie ipar aldekoei. Hala izanik ere, bada besterik ere. Hurbilagotik ikertuz, alabaina, bi eskema hauek baititugu kausitzen:

(4) (a) *ezin* + partizipioa/partizipioa + *ezin*
(b) aditzoina + *ezin*

IV.2.1.1. Ezin + partizipioa/ partizipioa + ezin

Ez dirudi *ezin* + partizipioa forma guztiak egiazki elkarteetan sartu behar direla. Maiz, alabaina, partizipio usaiazkoa baitugu *ezin* partikularekin erabilia, hala nola izenondoekin ere egiten ahal baita: *ezin ederrago zen; ezin atzeman nuen.*

Hala ere, ardura, *ezin*-ekin erabilia denean partizipioak halako autonomia hartzen du. Gehienetan, orduan, izenlagun gisa erabilia da, partizipioari *-z* instrumentaleko marka eta *-ko* lotzen zaizkiolarik: *ezin preziatuzko, ezin ikusizko, ezin hautsizko...*

Partizipioa bere hartan utzirik ere kausitzen da forma hori, eta orduan izen gisa erabiltzen ohi da: *batzordekideek beren ezin etorria bidali dute*; *haur horiek ezin egonak hartuak dira*[4]. Eta izen kategoriako elkarteak diren heinean, hain zuzen, Izaera elkarteen sailekoak ez bide dira, Asmo elkarteen kide baizik; hots, *etorri beharra* eta *etorri ezina* edo *ezin etorria* oso gertukoak dira:

«kultura ahituen garaietan sortzen den egonezinaren molde bat» HE36,14
«baña, itxuraz-bestez, ezinegon urduria dek» HE 17,18

IV.2.1.2. Aditzoina + ezin

Ezin aditzoin bati ondotik lotzen zaiolarik garbiago da elkarte izaera. Itxura guztien arauera,'aditzoina + *ezin*' elkartearen sortarazteko, mugapen sintaktikorik ez da.

Zenbaitetan izen gisa erabilia bada ere, ez da dudarik gehienetan izenondo izaten dela elkartea (erdarazko *in-* duten izenondoen pareko edo).

---

[4] Naski, *ezin*-ekin ere partizipioak bestalde ukan ditzakeen baliabide guztiak baditu, izenondo ere gerta daitekeelarik: *lan ezin egin batzu manatu dizkigute*; *jateko ahotik ezin utziak ukan ditugu eztei horietan*. *-zko*-rekilako formez ere gauza bera erran daiteke. Halere, *ezin* gabe hain emankor eta sorterraz ez direnaz geroz, benturaz, egiazko elkarteak izan gabe ere, aipamen berezia merezi dute.

Adibidetegian gutitan agertzen da, mota horretako lau elkarte baizik ez baita aurkitzen: *ase ezin, egon ezin, neka ezin, konta ezin.*

Hona adibideak:

«paperginak ase-ezin batzu omen dira-ta» HE17,22
«hauen obrak, edizio kontaezinen bitartez, euskal etxe zahar guztietan aurki daitezke» HE36,28
«aberetxo oiek zomorro iltzale neka-ezinak dira ta ezkutatuko balira» EF92,49

IV.2.2. Emankortasuna

-zko-rekilako izenlagunen sorketa emankorra da, prozesu sintaktikoa baita (ez egiazki lexikala). *Ezin* + partizipioa elkarketaren emankortasuna urria dela dirudi: *ezin-egon, ezin-etorri, ezin-joan,...*, baina hori aditz-partizipioek substantibatzeko, izen bihurtzeko agertzen duten zailtasunari zor zaiola esan daiteke; partizipioa + *ezina(a)* elkarketa aldiz, askoz emankorragoa zaigu: *irakurri ezina, egon ezina, esan ezina, ibili ezina*... Ia edozein partizipiok onartzen duen elkarketa da, Asmo elkarteetan aztertutako partizipioa + *behar/nahi* bezalaxe. Aditzoina + *ezin* elkarketa ere, izenondo baliokoa erabat emankorra da (dena dela kontutan hartu behar da mendebaldean askotan partizipioa erabiltzen dela aditzoinaren ordez).

IV.2.3. Berrelkarketa eta garapena

Ezin + partizipioa elkarteetan ez zaigu berrelkarketa ez eta garapenik agertu; izan ere zail dirudi halakorik egitea. *Ezin* bigarren osagai izanik (lehen osagaia partizipioa zein aditzoina dela) berriz, nahiz adibiderik aurkitu ez dugun, *denbora berean joan eta egon-ezinean nengoen* edo *liburu irakur eta ulertezina* onargarritzat joko genituzke. Era berean izenondo kategoriako elkartea *-tasun* atzizkiaz garatuko genuke *ulertezintasun* bezalako izenak sortuaz.

IV.2.4. Hots-aldaketak

Jaso ditugun adibideak guti izaki, ez dugu osagaien arteko hots-aldaketarik atzeman. Zerbait aipatzekotan, *ulertezin* edo *ikustezin* bezalakoetako loturazko herskari ahoskabea, **t**, azpimarratuko genuke; alde honetatik, erabat parekoak ditugu *ulerterraz* eta *ulertezin.*

IV.2.5. Idazkera

-zko-rekilako formetan beti bereiz idatzia da *ezin.* Izenarekin ez da jokabide finkaturik; adibidetegiko exenpluetan marratxoa erabiltzen da edo bi osagaiak loturik idazten dira.Izenondo kategoriako elkarteetan ere orotarik aurkitzen da, marratxoa ardura erabilia denarren. Ez daiteke, beraz, jokabide nagusirik aipa.

IV.3. x-ZALE ELKARTEAK

IV.3.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Sarreran esan bezala, *zale* bigarren osagai duen elkartea orohar izenondoa delako sartu dugu mota hau Izaera elkarteetan (ohar gaitezen, dena den, gizakiari dagokion izenondo denean erraz erabil daitekeela izen gisa). Halere, izenondo elkarte hauetan lehen osagaiaren kategoria ez da guztiz goikoetan bezalakoa.

IV.3.1.1. Izena + zale

Hau da maizen aurkitzen den kategoria elkarketa, izena oro har arrunta, baina propioa ere izan daitekeelarik:

aberezale, abertzale, aharrazale, alaja zale, anekdotazale, apustu-zale, Arantzazu-zale, ardao zale, argi-zale, arima zale, arlozale, edertizale, atzerri-zale, atomolle zale, bakezale, basozale, bedar zale, berrizale, bertso-zale, biraozale, Birjiña-zale, dantza zale, demazale, dialektikazale, diru-zale, disputa zale, dotrina-zale, edari-zale, edertzale, egizale, eizazale, eliza-zale, euskal-zale, erri-zale, emakumezale, emaztezale, erdalzale, errebolucio zale, errepublikazale, Erromazale, euskaltzale, eusquera zale, euskozale, pamparroi-zale, fedezale, piestazale, fuerozale, garau zale, gazte-zale, gerrazale, gimnasi-zale, gizartezale, gizonzale, gogo-zale, goizale, goxo-zale, guduzale, haragizale, haritz-zale, haurzale, Heladezale, erri-zale, uri-zale, kondairazale, osto--zale, huskeri zale, Iainkozale, idolozale, ilunbezale, industriazale, ipui-zale, iseka--zale, jakintzazale, Jeltzale, jolas zale, kezka-zale, klitxezale, konfort-zale, latinzale, Lakedaimoni-zale, lepozale, liburu zale, literatur-zale, Mao-zale, mendizale, mikatz--zale, mutilzale, muxarzale, nasketa-zale, naziozale, negar-zale, neskazale, odolzale, ollo zale, oñaze-zale, okelazale, ospezale, ostrazale, pinu-zale, pipazale, sagardozale, txino-zale, soinuzale, sorguintza zale, sozialismo zale, sutondozale, tradizinozale, txori-zale, umezale, zerbeza zale, txurrutzale...

«Ez zen kriterio literario batetan oinarritu, kriterio anekdotazale batetan baizik» HE36,21
«Barojaren ilunbe ilunbezaleak» HE27,376
«Bestetik Mao-zaleak —radikalak—» EI94,75
«mutil txurrutzaliak bazaituzte maite» HE25,43
«ankapetutako errepublikazaleen minak lagunduta» HE28,78
«cristaua, emendic aurrera ez sinistu emengo atso gaisoac sorguintza zale dirala» HE07,223

IV.3.1.2. Izenondoa + zale

Orohar izenondotzat hartzen ditugun elementuekin ere ager daiteke *zale*, baina badirudi halakoetan izenondoa substantibaturik agertzen dela, hau da, izen balioa hartzen duela, 'ixilaren zale', 'garbiaren zale', 'txukunaren zale'... genituzkeelarik

ondoko adibideen parafrasiak. Beste hitzetan esanik, izenondoa hor *ixiltasun* edo *garbitasun*-en kide dela dirudi.

geldizale, erdikoizale, ixilzale, garbizale, txukun zale, zeatz zale

«gisatxarra, zeatz zalea, erraztua, ayolagabea» HE24,9
«Bere formazioz, beraz, erdikoizale eta zentralista da» HE37,117
«"Orain galdu aiz" dio berrituz jogale, asieran ari zan bezain txukun-zale» HE18,138

IV.3.1.3. A-ra + zale

Adibidetegian horrelako bi bakarrik aurkitu arren, *zale* elkar dakioke *-ra* kasu-markaz lagunduriko izenari:

«Honenbestez esana dago, nozki, ez naizela aurrera-zaleegia, baizik eta atzerazale (...), geldizale edo astiro ibilzale horietakoa» HE27,340

IV.3.1.4. Aditz-izena + zale

Adibide gutxi batzutan, lehen osagaia *-tze* atzizkiak eraturiko aditz-izena da:

«Bi-iru itz alkar-ari zorrotzez biltze-zale» HE17,14
«Robert Lafont-ek eta eskualdekatze-zaleek Frantzian egin nahi luketena» EI94,38
«Begiluze ikustezaleentzako ez jagok lekurik an» HE31,34

IV.3.1.5. Izen sintagma/aditz sintagma + zale

Azpisail honetan bildu ditugu *zale*-ren aurretik aditz-partizipioa (bakarrik, nahiz beste perpaus-osagarri batzuz lagundurik[5]) erakusten duten adibideak. Halaber, lehen osagaitzat izen sintagma osoa (bi izenlagunez hornitua) eta perpaus mugagabea duena ere.

astiro ibilzale, bere burua erakustezale, kontuak garbi, txukun eta egunean berean eramanzale, kixkali-zale, egin-zale, jakinzale, guziac galdu-zale, esaldiari itz alperrak iñausi-zale, izen aundi bat irabazi-zale, bidera zitzaizkion nahaste guztietan murgildu-zale, ondo bizizale, gauzak beren farr-adarretatik oratu zale, puro erre-zale, arraultza jarri zale, gogaiak etorri-ala yaulkitzezale, Monet-en inpresionismuko lauko-zale

«Gogai-ta mintzo miatze ortaz alde, labur-nai ere badezu Lizardi, esaldiari itz alperrak iñausi-zale alegia» HE17,14
«Gamiz ezagutzen zutenendako ez harrigarri, kontuak garbi, txukun eta egunean berean eraman-zale zenez gero» EJ00,196
«Ni ez naiz kixkali-zalea, egin-zalea baizik» EJ60,42
«Monet-en inpresionismuko lauko-zale nozu» HE31,64

---

[5] Halakoetan, adibidetegian partizipioa + *zale* besterik ez dugu jaso, bestela luzeegi gertatzen baita.

IV.3.1.6. Zalantzazkoak

Zale-ren ezaugarri morfologiko eta semantikoak aztertzean ezin ahantz ditzakegu ondoko bi puntuok:

1. Ekialdeko euskalkietan ekintzaren egilea adierazteko (mendebaldeko *-tzaile*-ren pareko) ere erabiltzen dela. Horregatik zenbait adibidetan zail gertatzen da aditzoina + *zale* (=*tzaile*) ala izena/izenondoa + *zale* den erabakitzea. Horrelakoak dira hurrengo biak:

   «Cadiz'ko konstituziño berdinzalea» HE28,76
   «Liburuaren sendogarri ta indargarri izan ditezen eta dudazaleentzat sinisgarriago egin dezaten» EJ60,16

   non konstituzioa 'berdinaren (=berdintasunaren) zalea' nahiz 'berdintzailea, berdintzen duena' izan baitaiteke. Bigarren adibidean ere 'dudaren zale direnak' edo 'dudatzaileak, dudatzen dutenak' izan zitekeen, baina mendebaldeko testua denez, izena + *zale* elkartearen interpretazioa hobets daiteke.

2. Bestalde, zenbaitetan *zale*-k bigarren adiera bat hartzen du 'ofizioa' adierazten duelarik orduan: *arrantzale*, *esnezale*, *taxizale*... Bi ñabardura dituzte adibide hauek: izenak dira batetik (eta ez izenondo goikoak bezala), eta 'ofizioa' adieran bakarrik erabiltzen ez den *zale* dute bigarren osagai bestetik. Bi arrazoi hauek direla medio, atzizki izatetik oso urrun ez bide dagoela esan daiteke. Ondorioz, badirudi $zale_1$ eta $zale_2$ bereiz ditzakegula, egiaz zaletasuna adierazten duena lehena, ofizio adiera damaiguna bestea.

IV.3.2. Emankortasuna

Emankortasun osoko elkartea dela begi-bistakoa da. Ia edozein izeni, aditz-sintagmari eta izen sintagmari lot baitakioke *zale*.

IV.3.3. Berrelkarketa eta garapena

Ugariak dira adibidetegian zehar jasotako berrelkarketa kasuak, lehen osagaia aldi berean *Eguzki-lore* motakoa, hitz-andana ihartua, *eta* juntagailuaz elkartua... izan daitekeelarik:

aari-apustu zale, aari-talka zale, auntz-euskera zale, aita santu-zale, aker-euskera zale, alcandora eder, samur edo bigun zale, konzeptu eta arrazoi zale, bertso-berri-zale, dotrina berri zale, bertso ta bertsolari-zale, betekada ta ordikeri zale, mentalitate estuzale, euskal-liburuzale, eusquera garbi zale, soinketa gimnasi-zale, gogoizti-zale, idazkera berrizale, irabia edo errebolucio zale, jaki on ta edari on zale, jan-edan zale, len-apustu-zale, mendigoizale, paraje urdinabar zale, teoria haundi ta solemne zale

«Artzaiak bakarrik ez dira bada aari-talka zaleak» HE50,71
«Aztalak edez bildu, soinketa gimnasi-zale bilakatu, ta sorbalda-soineko motzak eramaten dituzte» HE38,161

«Zu alcandora eder, samur edo bigun zalia zara» HE20,137
«Gogoizti-zale aundiak dira benetan euskotarrak» HE24,8

-tasun , *-keria* eta *-tu* atzizkien bidez garaturik ditugu ondoko elkarteak:

diru-zaletu, euskaltzaletu, euskaltzaletasun, foruzaletasun, garbizalekeria, errizaletasun, errizalekeria, sutondo-zaletu, zahar nahiz berri zaletasun

«Zaharzalea nauzue, baina zahar naiz berri-zaletasunean beharrezkoa dirudi neurriak» HE27,344
«Zaartuko al gera ta sutondo-zaletuko» HE17,55
«XX.gn. mendearen hasierako garbizalekeriaren bihia» HE36,27

IV.3.4. Hots-aldaketak

Elkarte hauetan, ohizkoak diren hots-aldaketak aurkitu ditugu:

1. **-i** → **Ø** kasu bakar batean: *abertzale*
2. **-a** → **Ø** lehen osagaiak bi silabatik gora dituenean eta ondoren **-r**→ **-l**: *euskalzale*, *erdalzale*
3. Inoiz behin **t** lotura kontsonantea agertzen da lehen osagaiaren amaierako kontsonante apikariaren eta *zale*-ren hasierako txistukariaren artean: *arrantzale*, *euskaltzale*, *Jeltzale*

IV.3.5. Idazkera

Orotariko idazkerak aurki daitezkeen arren, hiru joera desberdin atzeman uste ditugu:

1. Izena nahiz izenondoa + *zale* egituran adibideetako %55a inguru loturik idatzi da, %30a gutxi gorabehera marraz eta gainerakoak bereiz. Bi osagaiak loturik ematea da, beraz, joera nagusia.
2. Bestelakoetan, lehen osagaia luzeagoa (izen sintagma edo aditz sintagma nahiz partizipioa) delarik, marraz nahiz bi osagaiak elkarturik, bietako idazkerak parekatuak daude, inoiz behin bereiz ere idatziaz.
3. Berrelkarketetan, azkenik, *zale* aurrekotik bereiz idazteko joera da nagusi, eta bigarren mailan, parekaturik, marraz nahiz ezkerreko osagaiari loturik.

VII. LOTSA-GABE, LO-FALTA

Esanahia dateke bi elkarte-mota hauek sail bakarrean biltzeko arrazoia. Izan ere bietan, bigarren osagaiak, 'gabezia, eza' adierazten du, nahiz erabat sinonimoak izan ez. Horretaz gain, bietan lehen osagaia , gehienetan, izena izan ohi da. Baina desberdintasunak ere badirenez (*gabe*-k gehienetan izenondo elkarteak sortzen ditu; *falta*-k, aldiz, izen elkarteak, esaterako), elkarte-mota bakoitza berezi aztertuko dugu, antzak eta diferentziak hobeto nabarmenduko direlakoan.

VII.1. *LOTSA-GABE* MOTA.

VII.1.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Lehen arazoak *gabe* beraren izaerak sortzen ditu. Alde batetik, garbi dago Postposizioa dela[1], agian jatorriz Postposizioa dela ere esan daiteke. Bi ezaugarri garbi ditu, balio hau noiz duen jakiteko:

1. Beti adberbio balioa du, inoiz ez izenondo balioa.
2. Eta askotan (ez beti) partitibo marka hartzen du aurretik doan sintagmak.

   «Manterolaren bertso-bilduma ta "Cancionero Vasco" ori eten gabe aitatuko dira emen» HE61,27

Aztergai ditugunak, ordea, izenondo (eta izen) elkarteak dira, *gabe* bigarren osagaitzat dutenak. Beste arazo bat sortzen zaigu, ordea, horrelako elkarteetan: *gabe* zer da hitz elkartuko bigarren osagarri ala eratorpen atzizki? Azkuek, Lafittek edo Villasantek[2] eratorpenean aztertu dute atzizkitzat hartuaz. Espainolezko *sin-* (*sinrazón, sinfín, sinúmero, sinsabor, sinvergüenza...*), frantsesezko *sans-* (*sans-coeur, sans-culotte, sans-façon, sans-gene, sans-souci...*) aurrizkiak edo ingelesezko *-less* (*speechless, motherless, endless, headless, restless, heartless, legless, needless...*) atzizkia bezalaxe.

Zalantza honen aurrean, hitz elkartu eta eratorriaren arteko muga zedarriztatzeko askotan *autonomia lexikala* kontutan hartzen denez, hots, elementu hori beregain den ala ez, bera bakarrik erabil daitekeen ala ez, gaur egun postposizio gisa guztiz erabilpen zabala duen *gabe* honek erabilera autonomoak badituela esan dezakegu. Esate baterako, Azkuek (1905-6) bere hiztegian aipatzen dituen adibideetara jotzen badugu, honakook ikusi ahal izango ditugu:

---

[1] Ikus Villasante L. 1978, *Estudios de Sintaxis Vasca*, Oñate, editorial Franciscana Aránzazu, 78-80. Edo Euskaltzaindia 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak.I*, Iruñea, 441

[2] Azkue R.M. 1923-25, *Morfología Vasca*, 220§ (1969 Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)
Lafitte P., 1944, *Grammaire Basque*, 84§ (1979 Donostia, Elkar)
Villasante L., 1974, *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas*, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 75. or.

GABE 2. "pobre, desprovisto": "gabeak hatsa karats" (Oihenart. Prov. 173)
"gabea pairagarri, ukhana hundagarri" (BN)
3. "privación"; "gabeak irets ez gaitzan" (Duv. Gen XLII-2)

Eta Azkueren hiztegi berari jarraituz aurreraxeago *gabetu, gabezia* hitzak ageri zaizkigu gaur egun duten erabilera berarekin.

Beraz, eta arazoa guztiz erabakitzeko asmorik gabe, ondorio labur batzu atera genitzake orain arte azaldutako honetatik: zalantzarik gabe orain arte morfologilariek eratorpen-atzizkien artean aipatu izan badute ere, ez da arrazoirik falta hitz elkartuen artean aipatzeko, osagarri honen autonomia lexikalaren lekukoak dituguneż gero. Orohar esan daiteke postposizio gisa partitiboari loturik agertu ohi den *gabe* honek (*surik gabe, gu gaberik, neke gabetarik...*) erabilera lexikal autonomoak ere badituela, eta hitz elkartuetan bigarren osagai gisa erabiltzen dela izenondoak eta izenak sortuaz.

Elkarte osoaren eta lehen osagaiaren kategoria gramatikala kontutan izanik, honako sailkapena egin dezakegu:

1. $_{iz.}$**[izena + *gabe*]** $_{iz.}$**:** elkarte osoa izena da, bai eta lehen osagaia ere:

atsekabe, bidegabe, burugabe, ditxagabe, dohakabe, erlijiogabe, eskolagabe[3], nahigabe, ustekabe, zuzengabe

«atsekabe horien iturria ez zen kapitalismoa» HE58,74
«Jaunari egin diozkan bidegabeaz» HE07,298
«titchacabeen ohi da consolationea» HE03,101
«bere begiz ikusten dituen dohakabeari» HE27, 384
«gurasoen zuzengabeak eta biotz-gogorkeriak okerreratu zun» HE28,56

2. $_{iz.}$**[aditzoina + *gabe*]** $_{iz.}$: *ezkon-gabeak*

«ezkondutakoen deportea, ezkon-gabeak humillatzea dela pentsatu ohi dut» HE35,30

3. $_{iznd.}$**[izena + *gabe*]** $_{iznd.}$: izenondoa izen sintagmaren barnean nahiz predikatu sintagma funtzioan aurki daiteke; predikatu denean, ordea, oso zaila izaten da postposizio den ala izenondo elkartu den ikustea.

adargabe, amagabe, antsikabe, axolakabe, beldurgabe, dohakabe, errugabe, eskergabe, eskolagabe, grauzkio-gabe, kordegabe, lur-gabe, hondragabe, paregabe, preziogabe, zentzugabe, zorikabe...

«berez, jaiotzez eta naturaz, adargabea delako» HE27,388
«apaiztegian berdin ezetsiak direteke hala amagabeak nola amonadunak» HE39,39
«ez bait zaio arrotz eta ajolagabe eguneroko errealidade hau» EI94,50
«"escoja" hitz errugabea iraintzat hartu eta fraile bertsogile bat hautaturik» EJ00,188

---

[3] Hauetako asko berez izenondoak dira, izenondo bezala ere aurki daitezkeenak ('ni naiz munduan dohakabea' etab.), baina zenbait kasutan izen balioan ageri zaizkigunak.

«bere erlijioa haragi-gabe egon zen, lur-gabe, gizadi-gabe, eta mistikazko iruditzapen huts» EJ51,30[4]
«o aberastasun preziogabia pobretasun santua» HE54,169

4. $_{\text{izond.}}$**[aditzoina/partizipioa + *gabe*]** $_{\text{izond.}}$**:**

atergabe, hezigabe, kutsagabe, ikasigabea, jorratu gabea, osagabea, sinisgabea, jakin gabeak

«baina hartarako ikasliburuek eta eskolak kutsagabea dagoelarik» EJ00,185
«ezpaitzen ain ikasigabea Simonide» HE38,165
«il-bildur onek mendera ditu ni lako ezigabeak» HE18,115

5. **izena + *gabeko***: askotan izenondo bezala izenaren eskubitara azaldu ordez, izenaren ezkerretara ere ager daitezke *-ko* atzizkia hartuaz[5]:

akats gabeko, behar gabeko, bihotz-gabeko, funts gabeko, gorputz-gabeko, ohargabeko, pare gabeko, baztergabeko...

«gorputz-gabeco = incorporal» ED46,7
«gaurko gizonarentzat behar gabeko oztopo» EI94,53
«ba dakit "gazte naiz esperientzia" ez zela izan akats gabekoa» HE35,3
«pare gabeko begi argiyak» HE61,37

VII.1.2. Emankortasuna

Oso egitura emankorra da zentzu pribatiboa adierazteko, hizkuntza teknikoan ere adibide bat baino gehiago aurki daitekeelarik.

VII.1.3. Berrelkarketa eta garapena

Adibideetan ez da berrelkarketa kasurik azaltzen, hau da, ez dugu aurkitu ez *gabe* hitz elkartu bati erantsirik, ez eta *lotsagabe* moduko egiturarik beste hitz elkartu baten barruan. Horrelako egiturak garaturik, aldiz, ondoren eratorpen atzizkia dutela, bai atzeman ditugu:

[A - *gabe*] + *-tu/-tasun/-keria*

atzizkiez eratuak dira:

antsigabetasun, burugabekotasun, bidegabekeria, lotsagabekeria, atsekabetu, odolgabetu...

VII.1.4. Osagaien arteko hots-aldaketak

Elkarte-mota honetan gertatzen den hots-aldaketa bakarra, bigarren osagaiaren, *gabe*-ren hasierako herskari ahostuna ahoskabetzea da:

atsekabe, dohakabe, ustekabe, antsikabe, zorikabe HE28

---

[4] Postposizio bezala ere uler daitekeena, seguru asko.

[5] Ikus Euskaltzaindia 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak. I* (Eraskina), 49-60

Herskari ahostun eta ahoskabearen arteko alternantziaz mintza gintezke orokorki, zeren zenbait kasutan aldaketa honen iturria lehen osagaiaren azken kontsonantea dela esan dezakegun arren, beste askotan ez bait dago horrelakorik aipatzerik. Mugak inon ipintzekotan, ahoskabetzerik gertatzen ez den kasuetan ipin ditzakegu. Izan ere, adibidetegian kontsonante ozen baten ondoren beti *gabe* forma aurkitu dugu, inoiz ez *kabe*:

> adargabe, baztergabe, eskergabe, atergabe, beldurgabe, lurgabe, ohargabe (baina oharkabe ere oso hedatua dago zenbait hizkeratan), etengabe, zuzengabe, jakin gabe, ezkongabe, odolgabe

Gainerakoan *gabe* osagaiaren hasierako herskariak alternantzia ageri du, hau da, goian aipatutako ingurunetatik kanpo, *gabe/kabe* formak, itxuraz inolako lege fonetikok eragin gabe azal daitezke. Hala ere badirudi alternantziak ez direla normalean izen edo izenondo jakin batean gertatzen; baizik eta forma bata edo bestea nagusitzen dela.

Dena den, alternantzia honek, gaur egun, ez duela elkar-jotze kontsonantikoekin, hots, inguramendu fonetikoekin, zerikusirik esan dezakegu, eta elkarte berrietan aldaki ahostuna bakarrik erabiltzen dela; alternantzia, elkarte zaharretan bakarrik gordetzen da. Gogoan izan dezagun, gainera, herskarien artean ahostun/ahoskabe alternantzia hitz-hasieran gertatzen dela (*gakoa/kakoa*)[6]. Ohar bedi, azkenik, adibidetegian agertzen diren ahoskabetze-kasu guztiak bokale artekoak direla.

Eta bestalde, fonetikaren arloan euskaraz hain ezaguna den asimilazio aurrerakoiaren eraginik ez da nabari gure adibidetegian *gabe* osagaiaren hasierako herskariaren gainean:

> bihotz + gabe → *bihozkabe (hizkera mintzatuan erabili arren)
> gorputz + gabe → *gorpuzkabe
> toles + gabe → *toleskabe (hizkera mintzatuan erabili arren)

Behar bada etimologia zaletasunak edo elkartearen berritasunak, kohesio-faltak alegia, esplika dezake adibidetegiko lotura fonetikoaren ahulezia hori.

Azentuari dagokionez, garbi ageri du hitz-elkartuaren bigarren osagai honek azentu sendoagoa duela postposizio denean baino. Izan ere postposizio denean aurreko atalari zeharo loturik dagoelarik, ahozko mintzairan monosilabikoa izatera iristen da sarri:

> ogirik gabe ogi'ik pe

---

[6] Ikus L. Michelena 1961: *Fonética Histórica Vasca* 12. kapitulua.

VII.1.5. Idazkera

Hiru eratako idazkerak azaldu arren, bi osagaiak elkarturik idaztea nagusitzen zaie beste biei:

1. Bi osagaiak elkarturik:

   adargabea, amagabeak, antsikabe, axolakabe, atergabe, atsekabe, ajolagabe, baztergabeko, beldurgabea, bidegabe, burugabe, titchacabe, dohakabe, erlijiogabe, errugabe, eskergabe, eskolagabe, frugabe, ezigabeak, hondrabague, ikasigabea, kordegabe, kutsagabea, lotsagabe, nahigabe, ohargabean, ohargabeko, osagabea, paregabea, preziogabia, sinisgabea, tolesgabea, ustekabe, zentzugabe, zorikabe, zuzengabe...

2. Bi osagaiak bereiz: gutxitan

   akats gabekoa, behar gabeko, iaguin gabeac, iorratu gabea, pare gabeko

3. Marratxoz loturik:

   beldur-gabe, biotz-gabeko, funts-gabekoek, haragi-gabe, lur-gabe, gizadi-gabe, gorputz-gabeco, grauzkio-gabea, utsik-gabeko, odol-gabetuak

VII.2. *LO-FALTA* MODUKOAK

VII.2.1. Ezaugarri morfologiko eta semantikoak

Hasieran esan bezala, *lo-falta* modukoen sailean agertzen zaizkigun hitz elkartu gehienak izenak dira, izen sintagmak osatzeko gai direnak, ondoren edozein kasu-marka erantsirik azalduaz:

batasun-falta, harreman-falta, lo-falta, praktika-falta, estilo-faltak, euskal kontzientzia faltak, egur-faltarik, borobiltasun falta hartaz, jakin faltaz...

«Gaurko sensibilitateari hain atsegin zaion arkaismo eta borobiltasun falta hartaz» HE36,11
«bigarrenik, batasun falta» HE35,4
«mendi aietan, gaur ere noski egur-faltarik ez da izango» EJ49,31
«literaturaren eta bizitzearen arteko harreman falta» HE36,12
«praktika falta, jauna» HE39,28
«batbederak ikhas beza Iainkoaren legea, iakin faltaz har eztezan ezkerreko bidea» EJ80,57
«cer escacenduen latinic, ez jaquin faltas eztidila desconsola» EJ57,44

Adibideetatik bi ondorio atera ditzakegu:

1 *Falta*-ren ezkerretara doan osagaia izena nahiz partizipioa izan daiteke, baina bigarren kasuan, hots, 'partizipioa + *falta*' elkarketa dugunean, elkarte osoa adberbio balioan azaltzen zaigu *-z* kasu-marka hartuaz (*jakin faltaz...*).

2. Nahiz gure adibideetako *falta, falta izan* aditz esapidekoa izan 'izena + *falta*' elkarteak izenak dira, eta, horrenbestez, izen sintagmak osatzen dituzte, edozein kasu-marka har dezaketenak.

VII.2.2. Emankortasuna

Adibide gehiegi bildu ez badugu ere, 'gabezia' adierazten duten izenak sortzeko oso bide egokia dela eta aurrerantzean ere hitz berri mordoa sor daitekeela dirudi.

VII.2.3. Berrelkarketa

Lehen osagaia, izena, aldi berean izan daiteke egitura elkartua:

euskal kontzientzia falta HE36 harreman falta HE36

«euskal kontzientzia faltak zekarren probintziakeria» HE36,34

VII.2.4. Osagaien arteko hots-aldaketak eta idazkera

Ez da inolako hots-aldaketarik ageri bi osagaien artean. Idazkeraren aldetik, gehienetan banandurik idatzi dituzte bi osagaiak, inoiz marratxoaz; elkarturik behin ere ez ditugu aurkitu.

1. Bi osagaiak banandurik:

   estilo faltak, batasun falta, harreman falta, praktika falta, euskal kontzientzia faltak, borobiltasun falta, jakin faltaz...

2. Marratxoaz loturik:

   lo-falta, egur-faltarik

VII.3. IZENA + *EZ(A)*

Pribazioa, gabezia, adierazten dute, azkenik, beste hauek ere, ia ia ohar modura biltzen ditugunak:

«bere onetik ateratzen zuen Rikardo euskal editorialen axolarik- eta pulamenturik--ezak» EI94,33
«espontaneismoa, intransijentzia, kezkarik-eza» EI94,33
«euskel-idazleen sari-eska-eza» HE17,66

Ez(a) bereziki mendebaldeko euskalkietan 'ez izatea' adierazteko erabiltzen den izena dela esan genezake. Horrela uler daiteke aurretik doan izenak partitibo marka hartu ahal izatea. Eta datu honek berak, hots partitibo markak, zalantzak sortzen ditu egitura hauek hitz elkartuen artean sartzekoak ote diren ala ez. Marka gramatikalen bat dagoen heinean, badirudi berriro ere mugara eraman beharko genituzkeela.

V. EZKONBERRI ELKARTEAK

V.1. EZAUGARRI MORFOLOGIKO ETA SEMANTIKOAK

Elkarte-mota honetan, aditz-partizipioa (inoiz aditzoina) eta *berri* izenondoa elkartzen ditugu[1]. *Berri*-k partizipioarekin elkartzean duen balioa mugatzeko hiztegietara jo dezakegu, *berri* izenondoak dituen adieren bila. Honela, *Hauta-lanerako Hiztegia*[2] eskuztatuz gero, ondokoa aurkituko dugu:

> «*Berri*. izond. 1. Duela gutxi sortua, azaldua, ezagutua, gertatua; lehengoaren ordezkoa. Ant. *zahar*. ı Zahartu edo higatu gabea, freskoa. 2. (Aditzaren era burutuaren ondoren, honi "duela oso gutxi" esannahia gehitzen diola)»

Izenondoaren adiera, ñabardura, desberdinetatik, bakarra da, beraz, 'partizipioa + *berri*' elkartean azaltzen zaiguna.

Elkarte osoaren kategoria gramatikalari dagokionez, berriz, hiru sail bereiz daitezke:

a. $_{\text{izond.}}$[**partizipioa + *berri***]$_{\text{izond.}}$: izenondoa, nahiz izenaren eskubitara, izen sintagmaren barnean, nahiz atributu sintagma edo predikatu sintagma funtzioan aurkituko dugu. Ez da ahantzi behar, azkenik, izenondoak izen balioa ere har dezakeela (batez ere, *Bahuvrîhi*-elkarteetan diogun legez, [+gizakia] motako izenekin doanean). Izenondo balioko elkarteak ditugu adibidetegiko gehienak:

> aberastu-berri, amaitu barri, aurkitu berriak, bota berri, egin barrija, ekarri-berria, eraiki berria, erre-berriac, esan berria, etorri berria, etsitu-berri, ezagunberri[3], ezkonbarri, galdu berria, hasi-berri, aurreguin-berria, ill barri, iragan berri, irten berria, jeki--berri, jaio-berri, jantzi-barri, hausi-berria, maite-berria, mintzatu berriak, sar berri, solta berri, sorthu berria, ume-eguinberri, zeartu-berria, zimentatu berria, argitara--berria, atera-berria, bukatu berria, bota-berriak, bazkaldu berriak, eginberriak, irakin--berria, jakin-berriak...
>
> «oraintxe dago amaitu barri hogeitamar pisuko etxe-orratz eder bat» HE44,26
> «Indiako literatura aurkitu berriak eragin behar ziola» HE27,340
> «sasitza bat behetik, zulo egin berri bat alboan eta asto zaharra pinu bati loturik beste aldean» HE39,68
> «ezkonbarri gazte batzuk etorri ziran errira gerrate aurrean» HE31,36
> «uma jaio-berriari parre eragiten egingo dituzte alegin danak» HE25,30
> «Aranatarrak, galduta dagozan zarrak, oraingo sortu-barriak» HE31,49
> «Tarteko auzi-mauziak jakiteko, or dezu Aita Lizarralde'ren liburu atera-berria, kondaira bikain opa-guzizkoa» EL70,11

---

1 Honek ez du esan nahi *berri* izenarekin ere batu ezin daitekeenik, baina 'izena + *berri*' Hitz-andana Ihartua litzateke, izen kategoriakoa. Toponimian ere adibide asko daude: Etxeberri, Iturribarri, eta hainbeste.

2 Sarasola I., (1985): *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, GAKP

3 *Ezagun* izena ere izan daiteke, eta, ondorioz, elkarte osoa 'Hitz-andana Ihartua' litzateke: «ezagunberri zenbait egiten ari naiz» HE17,23

Zahar delarik *berri*-ren aurkakoa, antonimoa, ez da harritzekoa *il-zar* bezalakoak aurkitzea:

«il-zar aietako bat piztuko ba'litz (...) ai ordun nolako arrazoiz otsegingo lizuke, gaurko erromes orri» EL70,75

Era berean, ñabardura semantikoak alde batera utzirik, antzeko egiturak osa ditzakegu *hurren*-ekin ere:

«oraindik, dakidanez, hilurren ez nagoelarik, gainera» HE27,365
«berotu bear du poliki eguerdirako, agorra illurren izanagatik» HE17,39

b. **[partizipioa + *berri*] + -N**: 'noiz' adierazten duen aditzlaguna osatuz:

abiatu berri hartan, bekhatu egin berrian, errebelatu berrian, hasi berri hartan, iraungi berrian, erten berrian, yaio-berritan, bota-berrian, egin-berrian, jetxi-berrian...

«jeisterakoan zikiña esnetara erori izan balitz, jetxi-berrian esnea bereala igazi bear da» EF92,93
«landareetara bota berrian aunditu egiten dira ta berde ilunagoa artzen dute» EF92,32
«nik ez nuen bortxarik eta indarkeriarik nahi hasi berri hartan» HE27,395
«abiatu berri hartan, maiz behatzen du gibelat» HEAX,117

c. $_{\text{aditz forma}}$ **[partizipioa + *berri* + laguntzailea]**$_{\text{aditz forma}}$: hots, aditz jokatuaren barnean:

alda berri (zenik), aurkitu berri (zuen), buka berri (zuten), sartu berri (naute)

«oraintxe sartu berri naute iriko polizi-kartzelan» HE57,114
«beren sesioa buka berri zuten herriko aingeru jagoleak» HE39,21
«J.K. Gerrak aurkitu berri zuen "Acto para la Nochebuena" teatro lana» HE36,28
«alda berri zenik ere ez zekien» HE39,9

Kasu hauetan *bide*, *hurran*, *omen*, *ote*... etabarrekin batera aztertu beharko genuke (ikus *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* II, 508 or.), aditzaren barnean, beraz, partikula edo hitz modal gisa. Hauen kideak ditugu, partikula edo hitz bakoitzak aditz formari ematen dioen ñabardura izanik desberdintasun bakarra:

«hemengo aldia egin hurran baitut» HEAX,9

Ez dute, bada, egitura elkartuekin zerikusirik. *Berri*-k aditzari eransten dioen ñabardura, 'duela gutxi gertatua'rena da. Erka ditzagun, esaterako, bi adibideok:

«Juan Karlos Gerrak aurkitu berri zuen "Acto para la Noche Buena" teatro lana»

eta

«Juan Karlos Gerrak aurkitu zuen "Acto para la Noche Buena" teatro lana»

Lehenbizikoan, Juan Karlosen aurkikuntza bidenabar baino ez da esaten, gauza jakina eta ezaguna bezala ematen da; eta momentua, garaia, azpimarratzen da. Bigarrenean, berriz, Juan Karlos Gerrak aurkitu zuela esaten da, besterik gabe. Beste adibide honetan ere, antzera ikus daiteke:

«Basurde izua jeiki da»

jeikitzearen konprobazioa da;

«basurde izua jeiki-berri da»

esaldian, berriz, ez da jeikitzearena, duela gutxi gertatuarena, baizik. "Aurkitu berri zuen" edo "jeiki berri da", "aurkitu zuen" eta "jeiki da" izaten jarraitzen dute. Adizki horiek ez dira aldatzen, berdinak jarraitzen dute izaten *berri* sartu arren.

Egia da, bestalde, predikatu funtziodun hainbat *berri* eta aditz jokatu baten barnekoak ez dabiltzala bata bestetik oso urrun. Zenbaitetan zalantzak ere izan ditzakegu 'partizipioa + *berri*', predikatu sintagma den ala aditz jokatuaren zati:

«basurde izua jeki-berri da, bero dago oraino ogea» HE18,71
«jeki-berri baitzen» HE18,52

Nola ulertu behar dira perpausok? Bi eratara uler daitezke:

basurde izua (Subjektua) jeki-berri (Atributu Sintagma) da (lotura aditza)
basurde izua (subjektua) jeki-berri da (aditza)

Era berean:

«berotasunak ahatz erazirik kremailera (objektua) solta berri (predikatu sintagma) zuela (aditza)»
«berotasunak ahatz erazirik kremailera (objektua) solta berri zuela (aditza)»

etab. Horrelako zalantzak argitzen dira partizipioa eta laguntzailea bat ez datozenean, hau da, partizipioa nor-nork motakoa izanik laguntzailea nor-motakoa denean (*salto ederra bota berri naiz*) edota 'partizipioa + *berria*' dugunean (*esan berria, etorri berria...*), predikatu sintagmaren interpretazioa delako posible bakarra.

Hasierako baieztapenaz, lehen osagaia partizipioa eta inoiz aditzoina izan daitekeela, alegia, adibidetegian agertu zaizkigun 'aditzoina + *berri*' guztiak autore berarenak dira, Larraun-en *Hil ala bizi* liburukoak. Garbi dago, beraz, partizipioa dela elkarte hauetako lehen osagaia.

V.2. EMANKORTASUNA

Aditzak adierazten duen ekintza duela gutxi jazoa dela adierazteko erabat modu emankorra gerta daiteke, bai izenondoak osatzerakoan, bai eta aditz forma baten barnean erabiltzeko ere (nahiz bigarren erabilera hau askoz urriagoa izan praktikan).

V.3. BERRELKARKETA

Berrelkarketarako aukera bakarra, partizipioari dagokion aditzoina aldi berean egitura elkartua izatea da:

bekhatu egin berrian HEAX, aurreguin berriac HE07, ume-eguinberri HE45, EF92

«emacume aurreguin berriac utzi dezaquee meza dembora pusca batean» HE07,49
«gurdi berri bati erantsi zizkaten bi bei ume-eguinberri» HE45,195

Asi berri-berria, aldiz, ezingo genuke berrelkarketatzat hartu. *Berri*-ren errepikapenak, beste edozein izenordainenak bezala, gradu gorena adierazten du, 'oraintxe bertan hasia' edo:

> «nik beintzat aldi artan ez nekien euskeraz, -ikasten asi berri-berria nintzan orduantxe» EJ67,64

Garapenaren adibiderik ez da azaldu; izan ere, zaila dirudi 'X + *berri*' elkarteari atzizkirik eranstea.

V.4. OSAGAIEN ARTEKO HOTS-ALDAKETAK

Ez da hots-aldaketarik gertatzen partizipioaren eta *berri*-ren artean. Salbuespen bakarrak *jayoperriac* HE07 (liburu horretan bertan ere *jayoberria* aurkitzen da) eta *janz-berriac* HE20 dira. Lehen kasuan, partizipioa bokalez bukatzen denez, garbi dago ez dela ingurune fonetikoa herskaria ahoskabetzearen eragile; *berri/perri* alternantzia bidez esplikatzea beste aukerarik ez dugula dirudi; baina alternantzia hori ez da maiz gertatzen dena (*bide/pide*-rena bezala), kasu honetan bakarrik aurkitu izanak erakusten duenez.

Zailago da bigarren adibidea esplikatzea, nolatan ez den *janz* aditzointzat hartzen. Baina harrigarri samarra da *sartubarrijac* dioen Mogel bizkaitarrak kasu bakar horretan partizipioa ez erabili izana.

V.5. IDAZKERA

Osagaiak elkarturik, bereiz nahiz marratxoaz loturik aurki baditzakegu ere, nabaria da loturik idatzitako adibideak bestelakoak baino askoz gutxiago direla. Aditz jokatuaren barneko *berri* bereiz aurkitu dugu beti.

a. Bi osagaiak banandurik:

> abiatu berri (hartan), alda berri, amaitu barri, aurkitu berriak, aurkitu berri (zuen), bota berri, buka berri (zuten), eguin barrija, bekhatu egin berrian, eraiki berria, errebelatu berrian, esan berria, etorri berria, ezkon berri HE23[4], galdu berria, hasi berri hartan, aurreguin berriac, ill barri, iragan berrien, iraungi berrian, erten berrian, irten berria, jaio berria HE13, HE35, EJ67, jaio berri (nintzela) HE27, mintzatu berriak, sar berri, sartu berri (naute), solta berri, sorthu berria, zimentatu berria, bukatu berria, bazkaldu berriak, egin berriak EJ72, asi berria EJ66, il berria EJ66.

b. Marratxoz loturik:

> aberastu-berri, ekarri-berria, erre-berriac, etsitu-berri, ezagun-berria HE17, eskon--barriak EJ70, hasi-berri, jeki-berri, jaio-berri HE08, HE25, yaio-berritan, jantzi-barri,

---

[4] Izenondo bera bi modutara aurkitu dugunean ematen dugu ondoan erabilera bakoitzaren kodea.

janz-barrijac, jausi-berria, ler-berri, maite-berria, sortu-barriak HE31, HE52, zeartu--berriak, argitara-berria, atera-berria, bota-berrian EF92, bota-berriak EF92, egin--berrian EF92, azi-berria, irakin-berrian EF92, jakin-berriak, jetxi-berrian EF92[5], sortu-barria EJ77

c. Bi osagaiak elkarturik:

ezagunberri HE17, ezkonbarri EJ70, EL70, HE34, HE57, jaioberri HE07, HE17, sartubarrijac HE20, sortuberriak EB20, ume-eguinberri, asiberriac HE40

---

5 Liburuaren kodea erantsi dugu, zenbaitetan, marratxoa, autore batek ia sistematikoki aplikatzen duen aukera ere badela adierazteko.

VI. BAHUVRIHIAK

VI.1. EZAUGARRI MORFOLOGIKO ETA SEMANTIKOAK

VI.1.1. Izena + izenondoa

Bahuvrîhi terminoa Panini-ren garaikoa, hots antzinako indiar gramatikalariek emana dugu. Beronen ordez, Compuestos Posesivos erabili zuen Azkuek bere *Morfologia Vasca*-n[1], urte mordoska beranduago Aita Villasantek *Palabras vascas compuestas y derivadas* liburuan[2] berriro jaso zuena, parentesi artean indiarren termino kidea emanaz. Hitz elkartu mota honen berezitasuna honetan datza gure bi gramatikalarion ustetan: *-dun* atzizkiaren ezabaketa bidez sortuak izatean, hain zuzen[3]:

> «Como se ha indicado ya, cuando el sufijo *dun* se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos, que son precisamente estos: los posesivos»(Azkue 1923-25: 592§).

Definizio honetan, ezabatzen den elementuaz gain, elkartzen diren osagaien kategoria gramatikala ere ematen zaigu: izena eta izenondo edo adjektiboa. Eta hitz elkartu osoaren kategoria zein den erabakitzerakoan askotan zalantzak sortzen bazaizkigu ere, oro har horrelako elkarteak Izenondo Elkartuak direla esan daiteke. Oso mota emankor eta ugaria da, bestalde, euskaraz; hor ditugu, adibide batzuk beste askoren artean:

> abarka zar, adarmotz, adar aundi, adar-oquer, akalde-zabal, ao-goxo, ao-andi, aho mehar, aho-zabal, ahoxuri, aintzin churi, albo-zabal, alderdi-gutxi, eltze-me, Atorra zaar, Prakerre, aurpegi-luze, begi-illun, begi-alai, buruzuri, begibakar, begibeltz, muxugorri, begi-bizi, okotz-zorrotz, begi busti, kopet illun, begi eder, okotzaundi, begi-ezkel, begi-gorri, begiluze, begi-urdin, belarluce, belarri-motz, anka-motz, esku--motz, besamotz, betaurreko-aundi, biotz-illun, bizar-beltz, bizargorri, kaskazuri, bizar luze, bizkar guri, bizkar-uzkur, buru-arin, buru gorri, buru makur, buztan-motx, esku-atsegin, esku-kako, escuoquer, praka-zabal, gona-motz, Galtza-zahar, gazurontzi zikin, gerrieder, gerri-mako, lepa-kupi, gibel-urdin, grauzkio-motz, ankaluze, ankamakur, ankamei, ankarin, ille-arro, ille kixkur, ille-motz, ipur baltz, ipurdi-latz, ipur--lodi, epur-talata, iztar-nagi, tontor-garai, sudurruts, titi-aundiak..
>
> «Zezena adarduna da... baina adarmotz ere izan daiteke» HE27,387
> «Lece aho meharra» HE03,102
> «Pillota-toki albo-zabalean» HE17,45
> «Mari-begibakarra, ken zan besteko makarra» HE18,92
> «Arpegiz, sudurkako, begi-bizi, okotz-zorrotza» HE17,39

---

1 Azkue R.M., 1923-25: *Morfología Vasca* (1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)

2 Villasante L., 1974: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu

3 Ez dugu ahantzi behar, bai Azkue eta bai Villasanterentzat hitz elkartuak *elipsi* bidez sortzen direnik.

«Ez det dama begi eder, desiatzen beste ezer» HE61,85
«Arakoxe apaiz begi-urdinak» HE17,39
«Orrako mutiko argal betaurreko-beltz ori» HE17,23
«Euskal semerik begikoena, zintzoena, biotz zabalena» HE28,75
«Gizaseme aundi sendo igar bizar-beltz bat» HE17,39
«Agure kaskazuri ta bizar luze» HE22,37
«Oroit adi, oroit, gizon bizi-labur, lur pixkat aizela, autsa ez bertzerik» EJ50,74
«Nere behi, ahuntz eta ardi bizkar guriak» HE51,33
«Berrogeitamar urte inguruko gizon txiki buru soil bat da» HE35,77
«Adan praka-zabal ta Eva gona-motzen belaun zarekoak garela erakusteko» EJ06,74
«Neure emazte ankarin, ttotta non dan ba dakin» HE18,67

Azkuek esandakoaren ildotik, izenondo elkartuaren ezkerretara azaltzen zaigun izena da hanka arina, gona motza, buru soila, albo zabala... duena.

Izenondo diren aldetik, bestalde, erraz ulertzen da askotan izen bezala erabiltzea, pertsona izen gisa ere aurkitzen direlarik hainbatetan, goitizenak eratzeko batipat:

«Bakizu nor zarien zuek, batau ta bestiori? Atorra zaar da Prakerre» EI99,156
«Gure begi-alai, buruzuri txikia» HE17,18
«Etzait oraindik azten begibakarren patua» HE18,72
«Begi-gorri bat dator aiton Olentzaro» HE18,127
«Icusi dozu inos onelanguac cer eguiten dabeen idi ta belarluciac illten ditubenian?» HE20,53
«"Bizargorri" pirata famatuaren eskuadraren aurka» HE33,71
«Euskal Herriko handizki eta eskuzuri gehienek bazekiten horren berri eta joaten ziren ehizira» EJ53,117
«An perretxikoa, gibel-urdiña izaten zan asko» HE29,113
«Beste zokoan dira Peru ta Ankamakur» HE18,33

Izenondo kategoriako Bahuvrîhiak bezalaxe, izen kategoriakoen adibideak ematen etengabe jarrai genezake. Bahuvrîhiak funtsean izenondo elkartuak direla esateak, ordea, badu bere eragina aztertu berri dugun kasuan, honako galdera honi erantzuna ematera behartzen bait gaitu: izenondoak ezkerretara izena eskatzen duenez, zein da goiko adibideetan, eta oro har izen gisa azaltzen zaizkigun guztietan, isilpean utzi dugun izena? Nola jakin zein edo zer den [izena+izenondoa] duena? Euskaldunek ez dute erantzuna ematerakoan inongo zalantzarik izango; izan ere Bahuvrîhiak oro har izen bizidunei erasten zaizkien izenondoak dira, gehienetan gizakiei, gutxiagotan animaliei. Horrexegatik da askotan Bahuvrîhiaren barneko izena bizidunari bakarrik dagokiona, bizidunek bakarrik duten zerbait adierazten duena:

adar-okerra, aurpegi-zimela, begi-alai, okotz-zorrotza, begi-urdin, belarluziak, biotz--zabala, betaurreko-aundi, bizar-beltz, kaskazuri, buru-bero, bizkar guri, buru soil, buztan-motz, eskuzabal, Galtza-zahar, gona-gorri, ankarin, ille kixkur, kopeta zuri, moko biphil, mutur zikin, papargorri, Prakagorri, tripaundi, Txanogorri, txapelgorriak edo txima-luze

entzun edo irakurtzen duenak, berehala antzemango dio, ezkerrean izenik ez ikusita ere, zein izen legokiokeen izenondo elkartu hauei.

Baina Bahuvrîhiek gehienetan izen bizidunen ezaugarriak jasotzeak ez du esan nahi izen bizigabeekin ere antzekorik egin ezin daitekeenik. Horrela, nahiz euskal tradizioan nahikoa urriak izan, hor ditugu:

«(Etxe txikitxo) aintzin churi bat» HE51,42
«Pillota-toki albo-zabalean» HE17,45
«Lece aho meharra» HE03,102
«Udako astegun buruzuri luzeetan» HE44,33, (ia lexikalizatutzat jo dezakegun *astegun buruzuri* izen multzoa)
«Erabili dudan eta darabildan hizkuntza, honen bestez, ez da grauzkio-motza grauzkio--gabea baino» HE27,388
«Aldatz, ipurdi-latz» HE18,61
«Ta amets ipurtzuriak zer dira?» HE17,68
«Atera zuen andi pipa kerten motz bat» HE19,24

eta agian itzuri zaigun besteren bat izan dira adibidetegian topatutakoak. Horrelakoetan, ordea, nekez utziko dugu izena isilpean; ez dugu besterik gabe *kerten-motza*, *grauzkio-motza*, *albo-zabala* edo *aintzin churia* esaten, berauei dagozkien izenak (*pipa*, *hizkuntza*, *pillota-toki*, *etxe*) asmatzen ez genuke jakingo eta.

Bestalde, izenondoak atributu sintagma osa dezake, eta *nola*? galderaren erantzun bezala ere erabil dezakegu. Modu honetako erabilerak ditugu ondokoak:

«Gose amorratuagaz, arpegi-larri ta esteak gili-gili estuan» HE31,63
«Esnetan ustu ziraden amak, ordura artean begi-illun» HE18,70
«Aurki giñake belarri-motz, anka-motz eta esku-motz» HE17,50
«Oi! Zu gabe, urrun nauzu, biotz-illun» EJ50,13
«Goseak ez du barkatzen eta itsas bazterrera itzuli zen buruapal gizona» EJ53,136
«Buru makur egonik ez ziagu ezer egiten» HE39,46
«Erdi-jantziz, ille-arro, atera gelatik» HE18,52
«An zian magal-arro soin berriarekin» HE18,23

Goiko adibideon azalpena «magala harro duela», «ilea harro duela», «burua apal duela», «bihotza ilun duela»... izan daiteke. Baina guztiak izenondo bezala, izen baten eskubitara ere erabil daitezkeela badakigu. Beste kasuren batean, aldiz, zalantzak sortzen zaizkigu atributu sintagma (predikatu sintagma) Bahuvrîhi den ala ez erabakitzeko:

«Ezin-jekia botaz ta arekin maindire, jantzi-arin dioaz otzak bildurtzeke» HE18, 124

jantzi-arin orain arte aztertutakoen pareko elkartea ote dugu? Esan al daiteke «gizon jantzi-arina»? Ala beste balioren bat dugu hemen?

VI.1.2. Zenbatzailea + izena

Bada, ordea, Hitz Elkartu Posesiboen artean Azkuek aipatzen duen bigarren mota bat:

«Hay también curiosos compuestos posesivos formados por la elipsis del sufijo *ko*. Su elemento regente y básico suele ser un numeral» (Azkue, *Morfología Vasca*: 593§).

Bigarren mota honetakoak ditugu:

«Beren hiruadarrak egur pilo gainean utzi zituzten» HE39,44
«Iruortza» HE20,148
«Batak lau-ortza eta bestiak aria» HE53,29
«Amalauzanko, prailemotxo, ipixtiku eta beste orrelakoak» HE24,40

Izena + izenondoa egitura dutenak ez bezala, hauek izen balioa hartu ohi dute, oro har tresna-izenak direlarik. Bada, ordea, adibidetegian zalantzazko iruditzen zaigun kasu bat:

«Lehenengo eta bigarren hiruileak ordaintzeko dirua eskatzen huen» HE39,33

Badirudi hau ere *-ko* ezabatuaz edo lortu dela. Baina 'trimestre' adierazteko *hiruileak* ala *hiruileko* ote jatorrago? Ikus dezagun, honen ondoan *-ko* gordetzen duen beste adibide bat:

«Kristo aitzineko milurtekoa baino lehen» HE30,214

atzizkia duen heinean, hain zuzen, Bahuvrîhien artean sartuko ez genukeena[4].

VI.1.3. Bestelako Bahuvrîhi Exozentrikoak (Posesibo ez direnak)

Orain arte aztertu ditugun egiturak, Azkueren 'Posesivo' deiturapean sar genitzakeen, «edute» ideia nolabait suma daitekeen heinean. Hau da «hiru hortz dituen (tresna)» → hiruortzekoa → hiruortza. Edo «adarrak okerrak dituen (animalia)» → adar okerduna → adarrokerra. Hitz elkartua sortzeko egiaz elipsirik dagoen ala ez, hots, *adarraoker* edo *hiruortz* sortzeko nahi eta ez eman ditugun erlatibozko egituretatik abiatu beharra dagoen ala ez alde batera utzirik, izenondo elkartu hauen esanahia goian egin antzera azal dezakegula dirudi. Azpian, beraz, ezkerreko izenak «edukiko» luke eskubiko izenondoa.

Bada, ordea, beste deitura bat gaur egun askoz hedatuagoa dena: Exozentriko terminoa[5]. Modu batera baino gehiagotara definitu izan bada ere, gure artean behintzat, oro har, Carr-ek (1939: xxvii)[6] emandakoa nagusitu da: Bahuvrîhien berezitasuna, elkarteko bi osagaietatik kanpo geratzen den hirugarren elementu, ideia bati erreferentzia egitea da. Horregatik, Azkuek eta Villasantek Posesivo deitu dituzten egiturak Exozentrikoak dira definizo honen arauera; baina ez dira egitura exozentriko

---

[4] *«Kidetasun aundiagoa dago Etxahun eta ots-urriko paristar olerkari baten artean»* HE28, 58 adibideko *ots-urriko* Hitz Elkarketatik atera eta eratorpenera eraman beharko genukeen bezala.

[5] Ikus Villasante, 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, 20, Mitxelenaren oharra: «Los compuestos exocéntricos coinciden muy aproximadamente con los *bahuvrîhi* de los gramáticos indios».

[6] Carr Ch. 1939, *Nominal Compounds in Germanic*, Oxford, University Press

bakarrak. Bakanago izan arren, bada beste Exozentriko mota bat euskal autoreek aipatu ez dutena, gure adibidetegian *etxekalte*, *urka-bear*, *on-behar*, eta *zinegotzi* izen elkartuek adierazten dutena:

> «Etxe-kalte, kalejuela, prakaman, txanbolin, milonbres da beste ezizen batzuk ezizentzat» EI99,163
> «Bi alkate, lau zinegotzi ta probestu batez osatua zegoena» HE33,33
> «Urka-bear bakoitzak bere egin-okerra berez naiz bestez, ba zun koplatzeko oitura» HE18,112
> «eta halakoak eta halakoak, haina eta hainak maiz dira gaizki eta on-behar» HEAX,45

Elkarte hauen kategoria izena da, eta egitura [izena + aditz partizipioa] esan genezake, *behar izan*, *kalte egin* aditz esapideen aurrean gaudela esan bait daiteke. Halaber, guztiek izen bizidunak, gizakiak adierazten dituzte, edota [+gizakia] motako izenari dagozkion izenondoak dira: «etxeari kalte egiten diotenak», «urkatu behar dutena», «onaren behar dena» eta «zina egotzi dutenak». «Edute» ideiarik ez dugu, bada, hemen; horregatik genioen Posesivo deituratik kanpo geratzen direla. Dena den, hasieran esan bezala, oso adibide gutxi ditugu era honetakoak, eta horrexegatik, hain zuzen ere, galde dezakegu egiaz horrelakoak Bahuvrîhi elkarte diren ala ez. Izan ere, *behar* bigarren osagai dutenak Asmo-elkarteetan sar ditzakegu, *erle joan naia* edo *oro jakin-nahia (zen haurra)* bezalakoen pare-pareko direlakoan. Bada, ordea, desberdintasun txiki bat *urka-bear* eta *on-behar*-en artean, lehen osagaiaren kategoriak dakarkiena: (ohizkoago den partizipioaren ordez dagoen) aditzoina lehen kasuan, izen balioa hartzen duen izenondoa bigarrenean. Alde honetatik, *urka-bear* da *joan-nai*-ren pare-parekoa, ez bestea. Hortaz, Asmo-elkarteetan lekurik ez badu, zein elkarte-motatakoa da *on-behar*? *Etxe-kalte* eta *zinegotzi* izenekin batera, Egile-elkarte sintetiko soiletan sar daitekeela esango genuke; *diru maite* 'dirua maite duena' eta *etxe-kalte* 'etxeari kalte egiten diona' edo *on-behar* 'onaren behar dena', *zinegotzi* 'zina egotzi duena' modu bereko egiturak dirudite, bigarren osagaia, mugakizuna, (inolako atzizkirik gabe) aditz-ekintzaren egilea adierazten duena eta mugatzailea objektua biltzen duen izena direlarik. Baina aipatu adibide guztietan hitz elkartuaren esanahia ulertzeko, formalki agerian ez dagoen zerbait kontutan hartu behar denez, elkarte Exozentrikoetatik ez bide daude oso urrun; eta askotan gertatzen diren (geuri ere sailkapenean zehar gertatu zaizkigun) zalantzen adibidetzat eman nahi izan ditugu hemen *etxekalte*, *urka-bear*, *on-behar* eta *zinegotzi* elkarteak.

VI.1.4. Zalantzazkoak

Ondoren, Bahuvrîhien artean sailkatzeko era bateko nahiz besteko zalantzak sortzen dituzten hainbat egitura aztertuko ditugu.

a. Bukaeran eratorpen-atzizkia dutenak

[1. osagaia + 2. osagaia + eratorpen atzizkia] moduko egituretan atzizkia bigarren osagaiari ala hitz elkartu osoari dagokion erabaki beharko dugu. Hau da

$$[1.\ \text{osagaia}] +\ _{[2.\text{osagaia}]}[X + \text{erat. atz.}]_{[2.\ \text{osagaia}]}$$

ala

$$_{[\text{hitz elk.}]}[1.\ \text{osagaia} + 2.\ \text{osagaia}]_{[\text{hitz elk.}]} + \text{eratorpen atzizkia}$$

dugun. Bigarren egituraren aurrean gaudela erabakitzen badugu, azken batean hitz eratorria izango dugu, oinarritzat lexema soila izan ordez elkartua duena. Horrenbestez, halako egiturek eratorpenean izango lukete beren lekua, nahiz elkartua den aldetik oinarria bera ere, atzizkia alde batera utziaz, azter daitekeen hitz elkarketaren barnean. Edota, nahiago bada, Bahuvrîhi elkartearen garapena direla esan daiteke eta, ondorioz, 'Berrelkarketa eta Garapena' atalean aztertu adibideok.

Hau da, bada, ondorengo adibideetan erabaki beharko duguna. Atzizki desberdinen arauera adibideak sailkatuaz, honakoa aurkitzen dugu adibidetegian:

-ik:

aho zabalik, beso zabalik, buru-makurrik

Hauetan 'izenondo elkartua + *-ik*' dugula pentsa dezakegu, izenondoak hasieran aztertutako izena + izenondoa, egiturako sailetan sartuko liratekeelarik. Hala ere *beso zabalik* adibideak[7] berezi samarra dirudi. Izan ere norbait *beso-zabala* dela esan, edota *beso zabalik* (dagoela) esan ez bait dirudi gauza bera esaten dugunik. Ez ote da, bada, zuzenagoa *beso* + *zabalik* zatiketa? Hala balitz, adibide hori Aditzondo elkartu sailera pasa beharko genuke, Jardun elkarte sintetikoetan kokatuaz.

-ki:

eskuzabalki.

Kasu honetan ere itxuraz ez dago arazorik *eskuzabal* + *-ki* egitura proposatzeko, oinarria izenondo elkartu Posesiboa litzatekeelarik.

-tasun:

gogo-zabaltasun, gogo-zindotasun, biozberatasunez, buru-arintasun, itz ugaritasun.

Egitura hauek, berriz, bi interpretazioak onartzen dituztela dirudi. Izan daiteke *-tasun* atzizkia izenondo elkartuari erantsia, *gogo-zabalei*, *gogo-zindoei*, *biozberei*... dagokien kualitate abstraktua adieraziaz; nahiz *gogo* + *zabaltasun*, *buru* + *arintasun*... 'gogoak duen zabaltasuna', 'buruak duen arintasuna'... bezala hartuaz. Dena den *itz ugaritasun*-ek ez dirudi lehen interpretazioa hain erraz onartzen duenik. Izan ere, ba al dugu *hitz-ugari* izenondo elkarturik, 'norbait hitz-ugaria da' edo antzekorik? Azken adibide honetan 'norbaitek hitzetan duen ugaritasuna' edo horrelako zerbait adierazten duen izen elkartua dugula pentsa daiteke, atzizkia bigarren osagaiari soilik dagokiola.

---

7 *«Ezpainak zabalduz eta hertsiz, beso zabalik»* HE35,45.

-tu:

bekoki tximurtua, itxuratxartu, biotz-gogortu, bihotz-zimurtu, buru-makurtuago.

Adibide hauetan, hasieran planteatzen genuen egitura bikoitza (*-tu* bigarren osagaiari soilik ala Bahuvrîhi osoari dagokion, alegia), era honetara ulertu beharko genuke: gerta daiteke *bekoki zimur*, *bihotz-gogor*, *bihotz-zimur* edo *buru-makur* Bahuvrîhiei *-tu* atzizkia erantsiz aditz eratorriak sortzea (*luzatu*, *argaldu*...-ren parekoak hein batetan); baina, orduan, beste edozein aditz bezala jokatuko genituzke. Hala gertatzen da hain zuzen

«Bat biotz-gogortu egin dalako» HE50,9
«Badirudi eginahalean ihardun duela bere seme hori bezten, itxuratxartzen eta oinperatzen» HE27,337

adibideetan. Beste hauetan, aldiz,

«Ulezuridun, eskuazaldu eta bekoki tximurtua» HE31,18
«Joan zanean baino buru-makurtuago etorri zan gixajoa» HE31,36
«Buru-bero edo bihotz-zimurtu zenbaitek bakarrik zuen noizbehinka saltsa nahasten» HE52,18

izenondo edo izen gisa azaltzen zaizkigu. Horrenbestez, 'Izena + Partizipioa' sailean ere erraz sar ditzakegu, *gogolandu* etabarrekin batera, hau da, hitz elkartu sintetiko lirateke orduan. Honek, noski, esan nahiko luke *bekoki* + *tximurtu*, *buru* + *makurtu* egituratzat hartzen ditugula, eta ez aditz eratorri bezala.

-keria:

bihozberakerietan, buru-berokeria.

Oro har *-tasun* atzizkiaz esanek balio dute, *-keria* izenondoei erasten zaien atzizkia denez. Ez dago, beraz, arazorik *bihozbera* + *-keria*, *buru-bero* + *-keria* bezala hartzeko, nahiz beste interpretazioa ere *buru* + *berokeria*, ezinezko ez den.

-aldi[8]: burzoro-aldi

Adibide honetan ere erraz har dezakegu *burzoro* Bahuvrîhia, *aldi*-ren lehen osagaitzat. Egitura osoa, beraz, *aldi* aztertzen dugun lekuan aztertu beharko genuke, Bahuvrîhien sailean 'izena + izenondoa' egitura bakarrik hartuaz kontutan.

b. Izena + huts(-ik/-ka...)

esku hutsik, esku huts, ankutsik, larru hutsik, makutsik, ortutsik, esku-huska, zaltuts, begi-uts, lau-uts, musu-huts, mutur-uts, pardeluts, otar-hutsik, sudurruts, kantzontzillo utsik...

---

[8] *Aldi* dagoeneko atzizki bilakatua den ala oraindik ere elkarketako osagai den alde batera utziaz, azken elementutzat *aldi* daramaten adibideak emango ditugu besterik gabe.

Huts bigarren osagai duten egitura hauek izenondo gisa oso gutxitan erabiltzeak harritzen gaitu:

«Larrain sudurruts betaurreko-aundi burusolla» HE17,47
«Zelai lau-utsetik bulartu» HE17,36
«Olerki-buru soil honetaz, musu-huts honetaz, ikus gorago "zenbat idatzi zuen euskaraz" txatala» EJ00,202

Besteetan, nahiz *huts* bera bakarrik inolako atzizkirik gabe azaldu, predikatu sintagma edo aditzondo balioa hartzen duela esan daiteke:

«Mugazaia badatorkie. Ni begi-uts» HE17,40
«Zaltuts igan eta, handik baitzeramatzaten azpian putarka» HE59,25

Gehienetan, ordea, *esku-hutsik* gisako formak erabiltzen ditugu, eta ez «neska esku-hutsa», «ume hanka-hutsa», «gizon kantzontzilo hutsa»... Izena + Izenondoa egiturako Bahuvrîhiekin oro har halakorik gertatzen ez delako aipatu ditugu puntu berezi batean 'izena + *huts(ik)*' egiturak, bakarrik hain sarri azaltzen ez den Bahuvrîhia oinarri duten aditzondo eratorritzat har daitezkeelakoan.

c. Izena + gorri(-rik, -an...)

buluz gorri, anka gorririk, icaragorrijan, larrugorrian...

Gorri-k 'soil' adiera duenean, *huts*-ekin ikusi dugunaren antzekoa aurkitzen dugu: aditzondo balioan azaltzen zaigu, ez izen baten eskuinetara izenondo elkartu bezala. Honek, [izena + *gorri*] egiturak Bahuvrîhitzat hartzeko zalantza handi samarrak sortzen dituzte. Izan ere *olerki musu-huts* esan daiteke; beste kontu bat da maizegi ez azaltzea. Baina *ume hanka gorria* edo *gizon larrugorria* esaterik ba al dago? Ezetz dirudi. Ondorioz, agian egokiago litzateke Aditzondo esapide edo direla esatea.

d. Beste hainbat esapide

lauorri (utzi), mizpira-makila eskuan (atera), aho betean (aritu), aho-batezko, erio--suerrean...

Aurrekoetan nolabaiteko zalantzak izan baditzakegu Bahuvrîhiekin loturarik duten ala ez eztabaidatzerakoan, argi dago goiko adibideek ez dutela Bahuvrîhiekin zerikusirik, ez bait genituzke inoiz izenondo ez eta izen gisa ere erabiliko. Aditzondoak besterik ez dira.

Ondoko hizkuntzetan ere aspaldidanik dira ezagunak Bahuvrîhi edo Exozentrikoak. Halakoak aztertu dituzten autoreen artean batzuk besterik ez aipatzearren, hor ditugu Paul, Bloomfield, Marchand, Rohrer, Guilbert...[9] Autore hauek jasotako hainbat adibide ematekotan, berriz:

---

[9] Paul H. 1920, *Deutsche Grammatik*, Band V, Teil IV: Wortbildungslehre, Halle, Max Niemeyer, 29-31

cul-terreux, casque-bleu, cordon-bleu, Pur-sang, bec-croisé, compte-gouttes, couvre--lits, gratte-papier, porte-brosses, nettoie-vitres...
redbreast, paleface, high-hat, rubber-neck, highbrow, grey-coat, redcap, hotbrain, whitecoat...
matapolvo, espantapájaros[10], sacacorchos, portamaletas...
Grossschnauze, Grünschnabel, Rotkäppchen, Blaustrumpf, Silbermund, Steckkopf...

VI.2. ELKARTE HAUEN EMANKORTASUNA

Nabaria da Bahuvrîhi elkarteen emankortasuna eta herri-hizkeran izan duten eta duten indarra. Lehen puntuan ikusitako kategoria gramatikal desberdinen elkarketak direla eta, 'izena + izenondoa' modukoak dira ugarienak eta emankorrenak. 'Izena + partizipioa' erakoak (*zinegotzi*, *etxe-kalte*) askoz urriagoak dira. Beste horrenbeste esan daiteke 'zenbatzailea + izena' egituraz ere.

VI.3. BERRELKARKETA ETA GARAPENA

Bahuvrîhi bat beste baten barnean aurkitzea ere ez da ezinezko, nahiz horrelakoak Orixeren *Euskaldunak* poeman bakarrik aurkitu izan gure adibidetegian:

«Noraiño mugatu duk, beso pipa-kirten?» HE18,37
«Or, berriz, iztar-nagi, beso asto-kako» HE18,23
«Gazurontzi zikinak (dira), Baraibarkoak» HE18,63
«Mami-jaleak dira Errazkingoak, zapata orpo-makurrak Albisukoak» HE18,63

Adibide hauek ikusi orduko ohartzen gara, ordea, ez dela egia hasieran esan duguna, ez dugula Bahuvrîhi bat beste baten barruan. Areago, nahikoa egitura desberdinak jasotzen dituztela lau adibideok: *gazurontzi zikin*-en, esaterako, ez dugu inon Bahuvrîhirik; ezer izatekotan izen elkartua eta izenondoa (ikusi egin behar Hitz--andana Ihartua osatuz ala izen multzo soila). Eta guztia metafora gisa erabiltzen da Baraibarko jendearekin erkaketa edo konparazioa egiteko.

Errazkingoak *zapatak* direla esatean ere antzeko metafora dugu, baina hemen metafora honen barnean badugu *orpo-makur* Bahuvrîhia ('orpo makurra duten zapatak bezalakoak lirateke Errazkindarrak').

Bloomfield L. 1933, *Language*, Holt, Rinehart and Winston (1961: 235-237)
Marchand H. 1960, *The Categories and Types...* : 42-44
Rohrer Ch. 1967, *Die Wortzusammensetzung im modernen Französisch*, Tübingen: 135-148
Guilbert L. 1971, «De la formation des unités lexicales» Introduction au Grand Larousse de la langue française, T.I, Paris: LXXV- LXXVI

[10] Horrelako egiturak Elkarte-sintetiko bezala ere aztertu izan dira. 'Bestelako Bahuvrîhi' atalean aipatu dugunaren beste adibide bat genuke, Sintetikoen eta Bahuvrîhien artean batzutan sortzen diren zalantzena. alegia.

Lehen bi adibideetan, berriz, metafora, erkaketa, Bahuvrîhi ez den izen elkartuaren eta ezkerreko izenaren artean gertatzen da: *asto-kakoak* edo *pipa-kirtenak* bezalako besoak dituztenak dira pertsona horiek. Beraz Bahuvrîhia inon egotekotan, hemen legoke, egitura osoaren eta azaltzen ez den laugarren izen bizidunaren arteko erlazioan.

Garapena dela eta, ikus VI.1.4. puntuko **zalantzazkoak**, eta hauen barnean, 'bukaeran eratorpen atzizkia dutenak' direla eta genioena.

VI.4. OSAGAIEN ARTEKO HOTS-ALDAKETAK

Bahuvrîhiko bi osagaien artean, printzipioz, orain arte aztertu ditugun elkarteetan bezalakoxe hots-aldaketak gerta daitezke. Hala ere, askotan, inolako aldaketarik jasan ez duten elkarketak aurkitzen ditugu

VI.4.1. Bi silabadun lehen osagaietan

— *aho* forma aurkitu dugu kasu guztietan:

aho betean, aho-batezko, ahobatasun, ao-gozo, ao-andi, aho meharra, aho-zabal, agoxabalik, ahoxuri

behin izan ezik: *akalde-zabal* HE18,99

— *asto*: asto-kako HE18,23

— *begi*:

begi-uts, begi-illun, begi-itsuka, begi-alai, begibakar, begibeltz, begi-bizi, begi busti, begi-illun, begi eder, begi-ezkela, begi-gorri, begiaundi, begiluze, begi-urdin, begi zabal, begi-zorrotz

— *bet-*: betizu HE18, betoker HE57

— *beso*:

beso pipa-kirten, beso asto-kako, beso zabalik, beso-gainka, beso-geldirik

— *besa*: "Besamotza"

— *Etxe*: etxe-kalte

— *Gogo*: gogo-zabaltasun, gogo-zindotasun

— *Kaska*: kaskabeltzak, kaskagogorrak, kaska zuri, kaskutsik (kontrakzio eta guzti azkena)

— *lepa*: lepa-kupi, lepa-gorria

— *lepo*: lepho mehe, lepo-zikin

— *Moko* beti: moko-luxe, moko-biphila, moko fier, moko-fin...

— *Zango*: zangomotza.

— *Zalt-*: zaltuts HE59

VI.4.2. Hiru silabadun lehen osagaietan

— *belarri* : belarri-motz HE17

— *belar-* : belarluciac HE20

— *ipurdi* behin : ipurdi-latz HE18

— *ipur(t)* -: ipur baltz, epur-talata, ipur-terre, ipurtzuriak.

Oro har inolako aldaketarik jasaiten ez duten *aurpegi, alderdi...* bezalakoak ez ditugu kontutan hartu.

VI.4.3. Kontrakzioak

ank-okerra, ankutsik, kopet-ilun, kaskutsik, makutsik, neskutz, Prakerre.

Oro har, bada, **-a + o-/u-/i-/e-**, hau da, lehen osagaiaren azken **-a** eta bigarren osagaiaren hasierako bokalaren artean (hala ere *tripa erre* HE19). Bestelakoetan:

lauorri, ao-andi, buru-arlote, buruapal, buru-aundi, esku-atsegina, escuoquer, gerri--eder, iruortza...

Oro har, bada, ez dirudi aldaketa gehiegirik gertatzen denik gure adibidetegiko Bahuvrîhietan.

VI.5. IDAZKERA

Idazkerari dagokionez ere, era guztietako adibideak aurki ditzakegu:

a. Bi osagaiak elkarturik: oro har horrela idatzirik aurkitzen ditugu Bahuvrîhi zaharrak, hots-aldaketak jasan dituztenak:

betizu, Besamotza, betoker, kaskazuri (baita kaska zuri ere), ankutsik, ipurtzuriak, ortutsik...

Hala ere, hor ditugu

ipur-lodi, epur-talata, ipur-terre, ank-oker, kopet-ilun.

Elkarturik aurki ditzakegu era berean hiru-lau silabako Bahuvrîhiak, inoiz behin hortik gorakoa:

adarmotz, adarraundi, ahoxuri, agoxabalik, begibakar, begibeltz, begiaundi, bihozberakeria, "Bizargorri", biozberatasun, "Burubeltza", buruberokeria, buruapal, burusoila, sudurruts, burugogor, buruzuria, escuoquer, eskuzabalki, eskuzuri, eskumotzegi, gibelurdin, amalauzanko, ankaluze, ankamakur, ankamei, anakarin, illezuri, kaskabeltzak, kaskagogorrak, mantangorri, muturgaizto, muxugorri...

b. Marratxoaz elkarturik: beste askotan, ordea, hiru-lau silabako Bahuvrîhietako osagaiak, zer esanik ez hortik gorakoak, marratxoaren bidez elkarturik idatzi izan dira:

adar-oquerra, ao-goxoen, ao-andi, ao-xabal, albo-zabal, alderdi-gutxi, eltze-me, aurpegi-zimela, arpegui-andi, begi-alai, begi-illun, begi-bizi, okotz-zorrotza, begi-ezkela, begi-urdinak, belarri-motz, anka-motz, esku-motz, beso-zabalik, beso-geldirik, betaurreko-beltz, betaurreko-aundi, biotz-estua, bihotz-zimurtu, bizar-beltz, bizar-zuria, bioz-gogor, buru-berokeria, buru-arintasun, buru-arin, bizi-labur, bizkar-makur, bizkar-uzkur, buru-makurrik, begi-bakar, buztan-motxa, esku-zabalik, esku-kako, gibel-urdin, gona-motz, gogo-zindotasun, ank-okerra, gona-gorri, grauzkio-motza, oin-zuri, ego-zabal, iztar-nagi, ipurdi-latz, ille-luze, okotz-zorrotza, kopet-iluna, kapelu-makurra, gerri-mako, lepa-kupi, lepo-zikin, moko-biphila, moko-fin, mutur-beltza, moko-luxe, odol-bero, papar-gorri, txima-luze, titi-aundiak, sudur-makurra, orpo-makurrak, soñeko-zimur...

c. Bi osagaiak bereiz: horrelako adibideak ere ugari aurki ditzakegu:

adar handiak, abarka zar, aho zabalik, aintzin churi, Atorra zaar, begi zabala, musu gorriya, bekoki tximurtua, beso zabalik, biotz zabalena, kopet illun, bihotz gogorra, bizkar beltz, buru argi, buru makur, buru soil, ule zuri, ille kixkur, kaska zuri, bizar luze, kerten motz, kapela gorri, lepho mehe, moko biphil, mutur luze, mutur zikin, musu gorri, sudur handi, tripa erre, txapel oker, ciscu estu...

Era guztietako idazkerak aurkitu arren, ugariena marratxoaren erabilerari dagokiona dela argi dago. Bi osagaiak elkarturik idatzitako adibideen kopurua eta banandurik idatzitakoenaren artean ez dago alde handirik.

XII. *ERDI-ASE* ELKARTE MOTA

XII.1. EZAUGARRI MORFOLOGIKO ETA SEMANTIKOAK

Sail honetan *erdi* lehen osagai duten elkarteak bildu ditugunez[1], lehenik, osagai honen xehetasun eta ñabardurak aztertuko ditugu. Izan ere, adibideak ikusita, *erdi*, neurri bati aplikatzen ez zaionez, ez da frakzio zehatza[2]. Beraz, hemen definizio onargarriak dira:

> Erdi. iz. 1. Bi parte berdinetan zatitu den osotasunaren zati bakoitza. 2. Mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea. 3. adlag. Erdizka[3].

Elkarte honen azterketan zehar ikusi ahal izango dugunez, '*erdi* + X' elkarteetan hirugarren balioa, 'erdizka' nagusitzen da. Horixe da elkarte berezi bat egitera bultzatu gaituena. Lehen balioa hartzean, *erdi*, bigarren osagai izan ohi da 'X + *erdi*' elkarteak osatuz (*Eguzki-lore* elkarteetan aztertzen direnak): *bide-erdi*, *naranja--erdi*... 'Mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea' adierazten duenean, berriz, lehen osagai izanarren, '*erdi* + X' elkarte horiek (*Ertamerika*, *erdibide*, *Erdi Aro*...) erabat *Eguzki-lore* elkartetzat hartzen ditugu. Hau da, beste edozein menpetasunezko izen elkarturekin ez dute inolako desberdintasunik, *erdi* beste edozein izen gisa agertzen zaigu eta.

Bigarren osagaiaren kategoria gramatikala kontutan hartuz, berriz, honako azpisailok bereiz ditzakegu. Elkarte osoak bigarren osagaiak duen kategoria gramatikal bera hartuko duela kontutan izanik:

a. *Erdi* + izenondoa

> erdi ahalge HE59, erdi ase HE04, erdi basati HE39, erdi elbarri HE33, erdi intelijente HE35, erdi liberal HE40, erdi lo HE52, erdi zuri HE20, erdi-belarrimotz EJ53, erdi-eri EJ54, erdi-ezagun HE17, erdi-hil HE18, erdi-itxu HE20, erdi-lauso EJ50, erdieze HE34

Azpisail honetan sar genitzake era berean, bigarren osagaia aditz-partizipioa deneko adibideak, horrek izenondo iharduna duelako:

> erdi baltzituba HE20, erdi desjabetuak HE56, erdi edanak HE56, erdi eginak HE20, erdi erantzia HE57, erdi gorritua HE20, erdi itxiak HE35, erdi izitua HE59, erdi murritubac HE20, erdi sendatua HE23, erdi zartua EJ79, erdi-etsitua HE59, erdi-hazitako EI94[4], erdi-ikasi HE17
>
> «Ixilik jartzen nintzan, erdi ahalge» HE59,27
> «Erdi asexe zirenean» HE04,63

---

[1] Beste frakziorik ez bait dakusagu lehen osagai bezala, ez eta *laurden* ere, nahiz bigarren osagai izan daitekeen: *ordu laurden* etab.

[2] Egiaz neurri balioa dueneko adibideak *litro-erdi*, *metro-erdi*... bezalakoak dira. Ikus horretarako *Hitz-Elkarketa/2* dagokion azpisaila.

[3] Sarasola I. 1985: *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* (Ebaki-Gabizain), Donostia, GAKP

[4] *-tako*, aditzondo-atzizkia + *-ko* -ren bidez izenondo balioa hartzen duena.

«Sokratesen pentsamenduak horbelak iruditzen zitzaizkion emakume erdi basati haren ondoan» HE39,92
«Osagarri ttipikoa, beti eri edo erdi eri bizi da» EJ54,749
«bertso berri polit bat biar nuke jarri neska erdi zartuen konsolagarri» EJ79,36[5]
«Oilloa baitabila suge erdi-illarekin» HE18,106
«Ventera andra zar erdi ichu bat» HE20,191
«Erdi lo zaldiak eramaten zuela...» HE52,11
«Betuliac erdi zuri...» HE20,72
«Bere obrera erdi gorritu, erdi baltzitubaz» HE20, 128
«mutillak bertsoak jarri zizkioken da neska gaixoa erdi erotuta ibilli uan» EJ62,84
«Oraindik erdi sendatua nintzala» HE23,96
«euskera umetan erdi-ikasi, gero erdi ortatik iru laurden atzendu...» HE17,59

b. *Erdi* + aditza

Aurreko azpisailean sartu ditugun adibideetan partizipioak izenondo balioa hartzen bazuen, azpisail hauetako bigarren osagaia, aditz-partizipioa, aditz balioan azaltzen zaigu. Horrenbestez, ondoren doazen elkarteak aditzak direla esango dugu; baina azpimarratzekoa da elkarte hauen urritasuna aurrekoekin, izenondo baliokoekin, erkatu ezkero. Izan ere, aditzarekin *erdizka* aditzondoaz baliatu ohi gara 'erabat ez' adierazteko (*erdizka egin, erdizka irakurri...*):

erdi iratzartzen HEAX, erdi lagundu HE20, erdi-goseak (egon) HE55, erdientzun HE34

«euri geldiaren betiko mezua erdientzun du nere biotz unkituak» HE34,63
«...erdi lagundu ceunstan maico erregubac eguiten» HE20,68
«lo datzanak, erdi iratzartzen denean, egiten du zenbait mugida» HEAX,49
«erdi-goseak dago-ta» HE55,49[6]

c. *Erdi* + aditzondoa

Aditzondo kategoria gramatikalaren azpian bildu ditugun bigarren osagaiak, morfologikoki, modu batera baino gehiagotara daude eratuak:

1.-*ik* atzizki adberbiala partizipioari edo izenondoari erantsiaz: *edanik, beztiturik, gaixorik...*

2. -*ka* eratorpen-atzizki adberbiala izenari erantsiz: *irrintzika*

3. -*ta* atzizki adberbiala partizipioari erantsiz: *galduta, ezkutatuta, itxita...*

4. -*ki* atzizki adberbiala izenondoari erantsiz: *makinalki*

5. Azkenik, adberbio balioa -*n* eta -*z* kasu-markez ere lor daiteke: *negarrez, pakean, txantxetan, damuz...* Horrelakoetan, nahiz eta *negar, damu* etab. izenak izan, -*z* edo

---

[5] *Neska zahar* hitz-andana ihartua ebakitzen duen *erdi* tartekatuaz sortua.

[6] *Goseak egon* aditz esapidearen barnean azaltzen delako hemen eman duguna, baina *erdi--gose* izenondo elkartutzat ere har daitekeena.

-n kasu-markekin bakarrik azaldu zaizkigunean, eta ez beste kasu-markaren batekin, aditzondoen sailean sartu ditugu. Izan ere, *erdi-damuz* azaltzeak, esan nahi al du *erdi-damuak* edo *erdi-damuari* formak ere baditugula? Ezetz iruditu zaigu, eta horregatik, berriro esan, sartu ditugu '*erdi* + aditzondo' sailean.

erdi-sapusturik HE15, erdi beztiturik HE58, erdi billosik, erdi edanik, erdi erotuta, erdi ezkutatuta HE19, erdi gaixorik, erdi galduan, erdi galduta HE21, erdi galduta, erdi hitzez HE59, erdi itxirik/hertsirik, erdi itzal (hartan) HE34, erdi jantzita EJ81, erdi larrugorrian, erdi lotan, erdi makinalki HE39, erdi mixerian HE29, erdi negarrez HE22, EJ49, erdi parraz HE54, erdi preziyuan HE61, erdi tatarraz HE31, erdi utsik, erdi-aserrez HE15, erdi-damuz HE18, erdi-errenka HE17, erdi-illunean HE34, erdi-irrintzika HE18, erdi-jantziz HE18, erdi-negarrean HE18, erdi-pakean HE18, erdi-txantxetan EJ64, erdiustuta HE15

«Erdi beztiturik nagoela entzuten ditut» HE58,83
«erdi itzal artan bere begirunea josi zait» HE34,44
«Neska gazte pillo bat ikusi ei eban, erdi billosik» HE31,27
«konortea erdi galduta geratu zan gizajoa» HE21,92
«...erdi gaixorik eta ainbeste zereginez beterik» EJ59,13
«erdi-irrintzika asten da Mainazi gaillena» HE18,93
«begiak erdi hetsirik» HE52,9
«Arpegia zuri ta ganera erdi larrugorrian» HE54,154
«erdi lotan egonik...» EJ49,109
«horri bat irakurtzen hasi zen erdi makinalki» HE39,34
«banan ortan ari zala, ia erdi negarrez ikusten nuan» EJ49,83
«narrastuta eta erdi tatarraz, betiko etxeratu jakun» HE31,24
«Aurrena, erdi-txantxetan asi nintzan sukalde kontu ta arazoetan» EJ64,80
«erremientak norbaiti erdi preziyuan edo kasik debalde al banizka saldu» HE61,151
«bakan adierazten ditu, erdi hitzez orduan ere» HE59,103

d. *Erdi* + izena

erdi arrain HE24, erdi berba HE20, erdi bertsolari HE55, erdi bide EJ62, erdi emakume HE24, erdi erdara HE20, erdi estoka HE59, erdi etorkin HE33, erdi jokalari HE55, erdi logale HE58, erdi sorgin EJ48, erdi ungide HE59, erdi-eskale HE43, erdi-euskaldun EJ64[7], erdi-euskalerri HE31, erdi-euskara HE59, erdi-gauza HE16, erdi-ilunpe HE59, erdi-inguruko(ak) HE31, erdi-izkera EJ59, erdi-kaskoin HE59, erdi-maila EB20, erdi-parte EL70, erdi-uharte HE33, erdidotrina HE40, erdigaixo HE31

Hasieran hiztegietatik jaso ditugun *erdi*-ren bi balioak nola banatzen diren aztertzean, ohartzen gara *erdi*, izenondo edota partizipioarekin, aditzarekin, eta aditzondoekin (*-n*/*-z* kasu-markez osatutako izen sintagmak barne direla)[8] elkartzen

---

[7] Bigarren osagaia jatorriz izenondo izanarren, izen balioan agertzen denean, sail honetan sartu dugu.

[8] *Erdi prezioan* dugu hor salbuespena, *erdi* = 'mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea' denez.

dugunean, 'ia, ez erabat, erdizka' balioa hartzen duela. Izenarekin elkarturik ditugun adibideetan, bi balioak ikus daitezke; batzutan 'ia, erdizka':

«bi erdi bertsolari, ta irugarrena Aiete'ko baserritar bat» HE55,9
«Alostorreko lehenen alaba erdi sorgintzat jotzeraino» EJ48,25
«hemendik aintzineko Etxahun, erreka-joa, desohoratua, erdi-eskale biziko da» HE43,13
«aurrerazale genuen gure autorea, batetik eta erdi etorkin, bestetik» HE33,23
«apaingarriak ere erdi-euskaldun batenak dira» EJ64,59
«esnea be bai, erdigaixoentzako» HE31,35
«odol galtzeak egotxirik erdi logale batean erori zitzaion» HE58,57
«erdi ilunbetako ixiltasun eztia dut laket» HE59,80
«gogoratuizi, alde batetik, zuen euskera ori, erdi-izkera ezkel zatar bat dala» EJ59,101
«ederki zaindu zuen Peñiskola-ko erdi-ugartea» HE33,51

Ohar gaitezen 'erdĭzka' balioko izenetatik gehienak predikatu sintagma edo prolatiboa (*erdi sorgintzat*) osatzen dutela; hots, izenondoak ere hartzen duen funtzio berean (*tontotzat hartu, alai-alai bizi...*) agertzen zaizkigula. Eta hor ditugu jatorriz izenondotzat har daitezkeen *euskaldun* eta *gaixo* ere.

Bestetan, 'bi partetan zatitu den osotasun baten parte bakoitza' adierazten duela izenaren ezkerretara doan *erdi*-k esan daiteke (gogora dezagun aditzondo balioko *erdi prezioan* adibidean ere balio hau dugula)[9]:

«laminak erdi emakume, erdi arrai» HE24,60
«euskara nahi zuen, ez erdi-kaskoin, erdi-eskuara» HE59,12
«erdi bertsolari ta erdi jokalari gera» HE55,10[10]
«hegi batean estoka, erdi estoka, erdi ungide, bere ezpain lodien artean xilo hertsi biribil bat zaukana» HE59,65
«erdi erdera ta erdi eusquera» HE20,196

Hasieran aipatutako lehen balioa, berriz, 'mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea' alegia, izenarekin elkartzean bakarrik hartzen du *erdi*-k :

«har dezagun lansaria erdi maila batetan» EB20,27
«joandako mendearen erdi-aldera, azterketa auek egiten asi zirenean» EC07,31
«Erdiaroko gaztelutorrea dirudi Torrezarrek» HE31,18
«erdi bidean gosaldu, zatotik trago ederrak eginez» EJ62,60 (biderdi-ren ordez ote?)
«ikaragarrizko basilika berria egiten asi dira, lengo elizatxoa erdi-partetik erroiztuz» EL70,254

Hasieran esan bezala, ez ditugu nahasi behar '*erdi* + X' moduko bi egitura desberdinak, hots '*erdi* (=erdizka) + X' eta '*erdi* (='distantzia berera dagoen puntua') + X'. Lehena bakarrik da aztergai duguna, bigarrena, *Eguzki-lore* sailekoa. Balio desberdintasun hori, bigarren osagaiaren kategoria gramatikalean ere nabarmendu da

---

[9] *Erdi*-k balio hau hartzen duenean, ohizko lekua bigarrena du: *naranja-erdi, litro-erdi...*

[10] Adibideotan, 'osotasun baten parte bakoitza' balioa, *erdi ..... erdi*, kontrajartze horren bidez lortzen dela esango genuke.

adibidetegian: '*erdi* (=erdizka) + izenondo/partizipio, aditzondo' bait dugu gehienetan (izenen bat ere azaldu arren); eta '*erdi* (=distantzia berera dagoen puntua) + izena' kategoria gramatikalak elkartzen bait ditugu bigarren kasuan.

Adibide hauen zenbait zertzelada semantiko ere eman daitezke, beti ere *erdi*-k esangura nagusitzat 'bukatu gabeko' duela kontutan izanik. Akabatu gabekoa adierazten duelako ez da harrigarri, esaterako, adibide batzuk gutxiespen ñabarduratxoa izatea: *erdi-ikasi, erdi-intelijente, erdi-galdu, erdi-edana, erdi-sorgin...* Esanahiari begira, bada, beste modu batera sailka daitezke goiko adibideak.

Giza ekintzak gizarte, psikologia eta fisiologia mailetan sailkatzen baldin baditugu, horietan, eta ez erabat abstraktu diren elkarketetan aurkituko dugu *erdi*. Horrela:

a. Psikologia sailean ezar genitzazke:

erdi-ahalge, erdi-basati, erdi-damu, erdi-farrez, erdi-etsitu, erdi-hasarre, erdi-izutu, erdi-negarrez, erdi-pakean, erdi-txantxetan, erdi-zapuztu.

b. Gizarte hiztegi sailekoak lirateke:

erdi-basati, erdi-berba, erdi-belarrimotz, erdi-bertsolari, erdi-bilusik, erdi-dotrina, erdidesjabetu, erdi-erdara, erdi-eskale, erdi-etorkin, erdi-euskaldun, erdi-ezagun, erdi-hizkera, erdi-ikasi, erdi-jantzi, erdi jokalari, erdi-lagundu, erdi-liberal, erdi-maila, erdi-miserian, erdi prezio.

c. Fisiologia hiztegi sailean:

erdi-ase, erdi-edanik, erdi-elbarri, erdi-entzun, erdi-eri, erdi-erotu, erdi-ezkutatu, erdi-gaixorik, erdi gose, erdi-hazi, erdi-hil, erdi irrintzika, erdi-itxu, erdi-lauso, erdi-lo, erdi-logale, erdi sendatu, erdi zahartu, erdi zuri.

Sailkapen horietatik kanpo oso hitz gutxi gelditzen da, Izadi hiztegiko bakan batzu kenduz gero: *erdi-arrain, erdi-ilun, erdi-ilunbe, erdi-itzal, erdi-uharte.*

Ondoko hizkuntzetan euskaraz *erdi* lehen edo bigarren osagai delarik adierazten ditugun balioak zein osagaiez eta nolako egituren bidez adierazten dituzten aztertuaz, honakoa ikus dezakegu:

1. Espainieraz beti lehen osagai diren *medio/-a* edo *semi-z* baliatzen dira hiru balioak adierazteko:

semicorchea, semicircunferencia, semicírculo...
semidifunto, semidiós, semidragón, semihilo...
media naranja, mediodía, media luna...
medio tonto, medio asado, medio vestido...

2. Frantsesez ere *semi-* eta *mi-* osagaiak (aurrizkitzat har daitezkeenak) azaltzen dira ezkerrean:

semi-aride, semi-automatique, semi-direct, semi-nomade...
mi-jambe, mi-chemin, mi-clos, mi-corps...

3. Ingelesez *semi-* batez ere hitz teknikoetarako gordeaz (*semi-arc, semi-amplitude, semi-molecule...*), *half* osagaiaz (beti ezkerrean doanaz) baliatzen dira euskal '*erdi* +X' eta 'X + *erdi*' adierazteko:

   half-way, half-brother, half-sister, half-day, half-price, half-witted, half-baked, half--hearted...

4. Alemanez, '*Mittel* + X' egiturak 'distantzia berera dagoen puntua' adierazten du eta '*halb-* + X' darabilte beste bi balioetarako:

   Mittelpunkt, Mittelgang, Mittelstück, Mittelfinger, Mittelohr...
   Halbkreis, halbgelehrt, halbbearbeitet, Halbkugel, Halbffinale, Halbbruder, halbdunkel, Halbgott...

XII.2. IZEN ELKARTU HAUEN EMANKORTASUNA

Erdi-k zehaztasunik adierazten ez duela dakigunez, haren erabilpena ugaria da. Izenondoari eta izenondo nahiz aditzondo balioko partizipioari elkar diezaiokegula kontutan izanik, gainera, nahi adina '*erdi* + X' elkarte sor daitezke (*erdi-sendo, erdi--sendatu(a), erdi sendatuta; erdi-gose, erdi gosetu*[11], *erdi goserik; erdi-ero, erdi--erotu, erdierotuki*). Ematen dugun zerrenda ikusita, hitz elkartu horiek herrikoiak direla konturatzen gara, baina ez dirudi gaurko euskarak, euskara tekniko, hiritarrak, hitz berri askorik sortu duenik bide honetatik. Behar bada gutxiespen ñabardura lortzeko, gaurko euskaldunek nahiago dute edo *basa*-z baliatu. Dena den 'erdizka' balioa soilik, gutxiespen ñabardurarik gabe, adierazteko euskarak aspaldidanik duen bidea da.

XII.3 BERRELKARKETA EDO GARAPENA

Bigarren osagaia izan daiteke elkarte hauetan, aldi berean, hitz elkartua. Dena den horrelakoak ez dira adibide asko, agian herriak luzeegiak ez baititu gogoko:

erdi-belarrimotz, erdi-euskalerri, erdi-larrugorri, erdi-logale

Bigarren osagai horiek, ikus dezakegunez, mota desberdinetakoak dira: bahuvrîhiak, menpetasunezko elkarketak...

XII.4. OSAGAIEN ARTEKO HOTS-ALDAKETAK

Erdi lehen osagaia bi silabakoa izanik, normala litzateke azken bokala, **-i** erortzea, ondorioz gerta daitezkeen kontsonante aldaketei bide emanez. Gure adibidetegian ez

---

[11] *Erdisendatu, erdigosetu* bezalako aditzek ez digute pentsarazi behar *erdi* oro har aditzei ere elkartzen zaienik, horiek *erdigose, erdisendo* izenondoetatik eratorritako aditzak direlako.

zaigu halako aldaketa bakar bat ere azaldu, baina, interesgarri direlakoan, zubereraz aurkitzen diren ondoko adibideok emango ditugu gerta daitezkeen aldaketen lekuko:

a. *ert-* + herskaria (ahostuna zein ahoskabea)—> *er* + herskari ahoskabea:

erdi + egosirik → erkosirik, erkhosirik[12]
erdi + gordin → erkordin, erkhordin
erdi + gose → erkose, erkhose
erdi + kide → erkhide
erdi + dohainik → erthohainik

b. *Ert* + bokala, edota aspirazioa → *ert* + bokala/*erth*

erdi + hüts → erthüts
erdi + ütsü → erthütsü
erdi + hordi → erthordi
erdi + hun → erthun

Dena den, gure adibidetegian *erdi* bere osotasunean gordetzen da, goian ikusitako aldaketen antzekorik gertatu gabe. Badirudi, beraz, adibidetegian mendebaldeko euskalkietako adibide zaharrak ez ezik, ekialdekoak ere jasotzen direnez, *erdi* lehen osagai denean, hots-aldaketetarako joerarik ez dela ageri.

XII.5. IDAZKERA

Elkarte bateko osagaiak idazteko ditugun hiru aukeren artean, honako joerok nabarmentzen dira aztergai dugun elkarte motan:

a. Bi osagaiak bereizirik idazten dira oro har bigarren osagaia aditza edota partizipioa denean, nahiz salbuespenik ere ez den falta:

erdi egin, erdi izutu, erdi sendaturik, erdi lagundu, erdi iratzartzen, erdi baltzituba, erdi gorritua, erdi izitua, erdi zartua, erdi erantzia, erdi edanak, erdi itxiak, erdi murritubac, erdi desjabetuak, erdi eginak...
erdi-ikasi, erdi-etsitua (marratxoaz); erdientzun (elkarturik)

b. Marratxoaz loturik eta banandurik, desberdintasun nabarmenik gabe, '*erdi* + izenondoa', '*erdi* + izena' egituretan:

erdi-aldera, Erdi-Aro EL70, EC07, EJ50, EJ51, erdi-bertsolari EJ64, erdi-euskaldun, erdi-euskalerri, erdi-gauzik, erdi-izkera, erdi-ilunbe HE59, erdi-lauso, erdi-liberal, erdi-mallako HE40, EB20, erdi-parte, erdi-ugarte, erdi-hil, erdi-eri EJ54, erdi-lauso, erdi-itxu, erdi-ezagun, erdi-hazitako, erdi-goseak, erdi-eskale, erdi-euskara, erdi-gau--za, erdi-ingurukoak, erdi-kaskoin...
erdi ilunbetako HE59, Erdi Aro EC07, HE36, EJ54, EJ61, erdi belarrimotz, erdi berba, erdi bertsolari HE31, erdi bidean, erdi emakume, erdi arrai, erdi erdera, erdi eusquera,

---

12 Oso adibide berezia, ez bait da normala bigarren osagaiko lehen bokala, **e-**, erortzea.

erdi eri EJ54, erdi estoka, erdi ungide, erdi hitzez, erdi inguruan, erdi itzal, erdi maila EB20, erdi mixerian, erdi preziyuan, erdi ahalge, erdi basati, erdi ase, erdi elbarri, erdi intelijente, erdi zuri, erdi lo, erdi etorkin, erdi jokalari, erdi logale, erdi sorgin...

c. Elkarturik idatzita daudenak, azkenik, gutxienak ditugu:

erdieze, erdigaixo, erdibitu, erdidotrina, Erdiaro HE31, erdibide, erdiune...

XIII. HITZ-ANDANA IHARTUAK

XIII.1. IZEN-SINTAGMA BARNEKO HITZ-ANDANA IHARTUEN SORRERA ETA BILAKAERA

Hitz bakar-bakun batez, lexema soil batez alegia, ezin adierazi duen (edo, zeinnahi arrazoirengatik, hala adierazi nahi ez duen) hainbat kontzeptu, lanabes-tresna, gogo--irrika edo jardun-prozedura hitz-andana batez izendatu ohi du sarri gizakiak: hitz bi, hiru edo gehiagoz osaturiko sintagma-eraikuntzaz. Hizkuntzak hartarako eskaini ohi dizkion erabide ugarietariko batez baliatzen da halakoetan.

Izendapen-mundua hornitzerakoan badu euskarak, beste hainbat hizkuntzak bezala, konbinatoria lexikal arras aberatsa eskaintzen dion alor-barrutia: izen-sintagmaren esparrua hain zuzen. Hor sartzen dira, besteak beste, ondoko hedabide hauek:

a. **Ab**: **izena+izenondoa** hitz-segidak: *etxe zuria, sagu txikia, agure zaharra, egun ederra.*

b. **B-A**: **izena+izena** elkarketa: *lur-muturra, zezen-plaza, ero-etxea, baratxuri-zopa.*

c. **Bko A**: **izenlaguna+izena** hitz-segidak: *Loiolako zubia, mendiko etxea, iturriko ura, baratzeko pikoa.*

d. **Bren A**: **izenlaguna+izena** hitz-segida: *laguntxoaren poza, Tomasen txapela, markesaren alaba, haurraren negarra.*

Hauek dira, askogatik, euskal izen-sintagmaren lau hedabide nagusiak: hedabide biluziak dira bi lehenak, hitz-oin edo tema soil-hutsak inolako lotura-hizkirik gabe elkarren ondoan eman ohi dituztenak; eta hedabide jantziak, aldiz, azken biak, berarizko juntagailuz itsasten bait dira halakoetan eraikuntzaren lehengai diren lexema biak. Lau sintagma-eraikuntza molde horietatik bigarren motakoak bakarrik dira bestalde erabidearen berezkotasunaz, hitz elkartu; gainerakoak, ez.

Gauza batean baino gehiagotan berdinak dira dena den, honetan eta hartan bereziak izanik ere, hedabide guztiok. Horrela:

a. eraikuntza sintagmatiko libreak dira guzti horiek. Gizakiak berariaz alda ditzake, hizkuntzak eta testuinguruak eskaintzen dizkioten aukerez baliatuz, bertako elementu lexikal bata zein bestea: *etxe zuria* ordez *etxe beltza* edo *jauregi zuria* esan dezake hiztunak, horrela, gogoak eta komenentziak agindu ahala; eta *zezen--plaza*-ren ordez, jakina, *zezen-festa* edo *herriko plaza*. Era berean, *Loiolako zubia* ordez *Loiolako geltokia* edo *Zurriolako zubia* lexema-bikoteak aukera ditzake eta, beste adinbat eginaz, *laguntxoaren poza* ordez *laguntxoaren lotsa* edo *amonaren poza*. Libreak dira, hizkuntzaren arauek berez eskain dezaketen askatasun-mailan, eraikuntza sintagmatikook.

b. Sintaxi mailan libreak izateaz gainera biziak eta beteak dira berez, semantikaren alorrean, hitz-andana horiek: eraikuntza osoaren esanahia bere osagaien esanahiak bateratuz eskuratzen da. Beste hitzetan esanik, hitz-andana osoaren esanahia

osagai biek berez duten esanahiek motibaturik (definiturik) dago: *etxe zuria* kolore zuriko etxea da; *ero-etxea* eroak egon (hobe, agian, eduki) ohi diren etxea da; *mendiko etxea* mendian dagoen etxea eta, azkenik, *haurraren negarra* berak egin (egiten) duen negarra.

Beharrak edo gogoak eraginik, horrelako nahi adinbat eraikuntza libre eta bizi sortu eta sortzen ditu hiztunak bere mintzajardunaren arian. Hitz-bikoteak bezala hirukoteak, laukoteak edo enekoteak ere berdintsu sor ditzake gainera hiztun horrek, joko-arau jakinen barnean, gogoan darabilen esanahi-eremua ñabardura, azalpide eta adierazpen-mugarri ugariagoz hornitu nahi izan ahala: *etxe zuria* ordez *etxe txikitto aitzin zuria;* esan dezake, horrela, edota *Goiko galtzadako-etxe zuria;* era berean, *ero--etxea* ordez *Santagedako ero-etxe famatua* esan dezake, *Loiolako zubia* ordez *Loiolako harzubi zaharra;* eta, asmamenez urri baina behialako maitasun-bertsoen jakitun baldin badugu hiztuna, *markesaren alaba* ordez *Astigarragako markesaren alaba enamoratua* esan ahal izango digu.

Era honetako eraikuntza sintagmatiko gehienak konbinazio lexikal libre eta bizi--beteak dira: lexema-multzoak dira alegia, ez lexema bakarra; hots, entzute hutsarekin euskaldun arruntak erabat ulertzen eta berehala "josten" dituen hitz-kateak. Esanahiaren aldetik lexema bakoitza zeharo bere buruaren jabe da halakoetan; eta multzoak, morfosintaxi mailan elementu bateratu bat izanik ere, ez du ezinbestean semantikazko batasun finkorik ageri.

Kasuan kasuko konbinatoria lexikal libreaz sorturiko hitz-andana bizi-bete horietariko banaka batzuk traiektoria berezia izan ohi dute ordea. Beste gainontzeko sintagma-eraikuntza guztiak bezain libre eta bizi-beterik jaiotako hitz-andanok ihartu egiten dira, izan ere, erabileraren (erabilera oso jakin baten) poderioz eta denboraren arian. Eta, horrela, sorreran beste guztiek bezain berea zuten semantikazko bizitasuna (eta horrekin batera, lehentxoago edo geroxeago, askatasun sintaktikoa) partez edo osoz galtzera iristen dira. Ihartu egiten dira: hots, hasieran hitz-andana libre bizi-beteak zirenak hitz-andana ihartu bilakatzen dira.

XIII.1.1. Ihartze-mailak

Ikus dezagun, hitz gutxitan esanik, guzti honen zenbait adibide xehe. Horrela, ezerezetik osotasunerainoko ibilbideari mugarriak ezarriz, hiru fasetako ihartze-bide hau azter dezagun:

a. Lehen fasea: ihartu gabeko hitz-andana libreak, *erantzun motza; eguraldi hotza.*

b. Bigarren fasea: ihartze-bidean dauden hitz-andanak, *galtzamotxak (prakamotxak); gerra hotza*

c. Hirugarren fasea: zeharo iharturiko formak. Osabetezko hitz-andana ihartuak, *zipotza* (< ziri, zihi+motza); *izotza* (ihintz+hotza).

Eraikuntza sintagmatiko berbera ageri da, bistan denez, adibide guztietan: *izen+izenondo* segidaz osaturiko **Ab** hitz-andana. Sintagmatikaren aldetik eramolde berekoak dira, beraz, hirurak; eta morfosintaxiaren ikuspegitik ez legoke, ondorioz, fase desberdinez zertan hitzeginik.

Besterik da, ordea, semantikaren ikuspegitiko emaitza: esanahiaren aldetik badago desberdintasunik hiru fase-multzo horien artean; eta horrexegatik komeni ere da, neurri on batean, zatibanaketa hirukoitz horri ekitea. Horrela:

XIII.1.1.1. Ihartu gabeko hitz-andana libreak (izen-sintagma arruntak)

Lehen fase honetan, hitz-andana bizi-betea da begien aurrean daukaguna. Bai *erantzun* eta bai *motz* (eta berdin *eguraldi* nahiz *hotz*) esanahi propioz bete-beterik dauden hitz biziak dira. Eta zuzen-zuzenean beraiek motibaturiko eraikuntza sintagmatiko bizi-librea da, orobat, *erantzun motz* hitz-andana: *erantzun*-en eta *motz*-en esanahiaz "elikatzen" da, funtsean, *erantzun motz* eraikuntza; *eguraldi*-ren eta *hotz*-en esanahiez osatzen da, era berean, *eguraldi hotz*-aren esanahia. Osagaien esanahiaz esplikatzen da, alegia, erabidearen berezkotasunez gainera, lexia osoa.

Lehen fase honetako adibideetan ez dago ihartze-arrastorik, ez asko eta ez gutxi: *etxe txikia, zakur gaiztoa, mutil bizkorra, bide zabala, gabardina zaharra, aurpegi itsusia* edo *txantxangorri kantaria* bezalaxe **Ab** moduko hitz-andana ihartugabeak direla esan daiteke, bere batezbestekoan, *erantzun motza* eta *eguraldi hotza* sintagma-eraikuntzak.

Gainerako sintagma-eraikuntza libreetan bezala ez dago hor esanahi-batasun sendorik. Unitate lexikal bi daude hor, ondorioz, eta ez unitate lexikal bakarra: *erantzun* eta *motz* lexemak (orobat *eguraldi* eta *hotz* esanahi-unitateak) ditugu eskueran, alegia, nor bere azentuatze-molde berariazkoaz eta aparteko idazkeraz (inor gutxi agertuko litzaiguke kasu honetan, alegia, *erantzun-motz, erantzunmotz* edo *erantzumotz,* edota *eguraldi-hotz* edo *eguraldihotz* grafien alde).

XIII.1.1.2. Osabetezko hitz-andana ihartuak

Hirugarren fasean, aitzitik, kontrako puntan gaude: zeharo iharturiko hitz-andana baten aurrean. Hor ez dago eraikuntza sintagmatiko libre batek berez duen konbinazio-askatasunik: *zipotz*-en ondoan *zi(ri)luze*-rik edo *zi(ri)lodi*-rik ez zaigu geure gogara, kasu honetan, eratzea bururatzen; ez eta, era berean, *izotz*-en ondoan *izbusti* edo *izepel* modukorik. Eta, eskuartean dugun gairako hori baino garrantzitsuagoa dena, hor ez daude bi unitate lexikal, lexema bakarra baizik: *ziri+motz* elementuen (berdin *ihintz, hotz* bikotearen) jatorrizko berez bereko izaera hura, aspaldi batean sortu zenean begien bistakoa zatekeena, zeharo galdurik dago egungo hiztunentzat. Hitz bakar bana dira, euskaraz mintzo den nornahirentzat, bai *zipotz* eta bai *izotz*.

Semantikazko finkapena eta higadura gertatu da itxuraz, mendeen joanean, hasierako hitz-andana horietan. Eta finkapen-higadura horrek unitate lexikal edo lexema berri bakar bat sortarazi du: gauza bat da, gaur egun, edozein eratako *ziri motz*-ez jardutea, eta bestea *zipotz*-az hitzegitea. Era berean, *izotz*-az ari denari ez zaio okurritzen elementu hori beste ihintz-mota batzurekin konparatzea. Inon baino argiago ikusten da, horrelakoetan, H. Marchand-en *informant morphemes* eta *analyst morphemes* arteko bereizkuntzaren garrantzia: hizkuntzalari saiatuaz aparte inor gutxi konturatuko da *zipotz* hitza *ziri+motz* hitz-andanatik datorrela, *izotz-a ihintz+hotz*-etik, *otordu* hitza *ogi+ordu* andanatik eta *aitorenseme* lexia *aita onen seme* eraikuntza libretik.

Hitz-andana ihartuak, beren azken fase horretara iristean, jatorrizko osagaien motibazioa galdua dutelarik idiomatizaturik erabiltzen dira, esanahi bakar bat eskuratuz eta eskainiz. Eta, hainbat kasutan (cf."otordua prest al dago?"), esanahi hori hasierako adiera hartatik aski urrunera iristen da. Behialako *ogi+seni*-a, itxuraz, sukalde-, berogailu- eta labadora-marka bat bihurtu zaigu *Otsein*-en kasuan; *aker+larre*-a, era berean, hasierako denotazio-eremutik irten eta, nola-halako plazer-bide isil-gordeen nahiz ageri-zaratatsuen mundu zabaleko ikurritz moduan, *akelarre* kosmopolita bihurtu zaigu.

Erabat iharturiko hitz-andanok berekin eraman ohi dute, azentuazio eta idazkera mailan ere, hainbat ezaugarri propio: berariazko azentu-batasuna eskuratua izan ohi dute horiek, esanahiaren aldetikoaz gainera, maiz-sarri; eta idatzi ere loturik, hitz bakar bati dagokion eran, idatzi ohi dira gehienetan: *zipotz, izotz, senar, opil, galeper, baserri, otordu, otsein, deiadar.*

XIII.1.1.3. Ihartze-bidean dauden hitz-andanak

Lehen eta hirugarren faseak punta banatako egoerak dira: hitz-andana bizi-libreak, inolako ihartze-seinalerik gabeak lehenengoak; eta zeharo ihartuak, behialako bizi-askatasun haren arrastoak oro aspaldi galduak dituztenak, aldiz, azkenak. Punta-egoera bi horien artean tarte-bitarte zabala dago ordea, zuriaren eta beltzaren arteko kolore-sorta ugariaren moduan. Tarte-bitarteko egoera horretan (egoera horietan) dauden hitz-andana desberdinek osatzen dute, hain zuzen, oraingoan aztergai dugun bigarren fasea. Ihartze-seinale batzuk, baina ez denak, partez edo osoz ageri dituzten sintagma-eraikuntzak bilduko dira funtsean bigarren fase honetara.

XIII.1.2. Ihartze-neurpideak

Ihartze-prozeduraren luze-zabala neurtzeko, ondoko bost erizpideok hartuko dira gidari:

a. desmotibazioa: osagaien (batez ere sintagma-buru edo muin den osagaiaren) esanahiak, higaduraz edo finkapenez jasandako bilakaera edo aldaketa.

b. jatorrizko lexema bikotea lexema-bakarturik agertzea.

c. azentu-batasuna eskuratzea.

d. osagaiek beren junturan berarizko hots-eraketa agertzea, eta

e. grafiazko hitz-batasuna lortzea.

Lehenengo bi erizpideak aski antzekoak izanik ere merezi duke, apika, bata zein bestea berariaz aztertzea.

Ihartze-kontua eta ihartze-mailak direla-eta orain arte emandako azalpen desberdin gehienak eta han-hemen aurkezturiko sailkapen eta sailkapen-saio erabilienak bost erizpideon argitan aski era koherentean baterabildurik eskain daitezkeela uste da. Eta hori da, hain zuzen, ondoren eskaini nahi dena.

XIII.2. IHARTZE-EREDUAK

Har ditzagun horretarako ondoko adibideok, eta ikus dezagun hauetariko bakoitzaren ihartze-moldea eta ihartze-maila, goiko lau erizpide horien arabera, zenbatekoa den: *galtza-motxak, gosari-txikia, neskazaharra, gerra hotza, emagaldua, udaberria, harkaitza, oilarra, Gernikako Arbola, etxekoandrea, Herriko etxea, (h)ilbeltza, iteulia, gaztanbera, Aita santua, gurpidea, Gurutze Gorria, Pantera Beltzak, Etxe Zuria, Estatu Batuak.*

Hitz-andana aski desberdinak dira horiek, bistan denez, eta izen-sintagmetatiko ihartze-prozedura gehientsuenen adibiderik ez da bertan falta. Adibide batzuetarik besteetara alde nabarmenak egonik ere badirudi posible dela azpimultzo funtsezkoak eratzea. Ondoko bost ereduok dira, itxuraz, azpimultzo adierazgarrienen lekuko:

1. *galtza-motxak* eredua
2. *Gernikako Arbola* eredua
3. *iteuli* eredua
4. *emagaldu* eredua
5. *gerra hotza* eredua

Ikus ditzagun hortaz, banan bana, azpimultzo-eredu bakoitzaren ihartze-ezaugarriak:

XIII.2.1. *Galtza-motxak (praka-motxak)* eredua

a. Lehenengo ihartze-erizpideari dagokionez, horra zer den ageri: sintagma-buruaren esanahiak ez du semantikazko higadura edo aldaketarik ageri: *galtza-motxak* galtzak dira noski. Beste hainbat esan daiteke *motx* osagaiaz ere.

Osagai bakoitzak bere esanahi-eremua aldatua ez daukan arren hitz-andana osoaren esanahiak ageri du ordea, nabarmenki agertu ere, higadurarik. Bere adiera

ezin da, jadanik, osagai bien esanahi-konbinazio hutsez eskuratu: motz xamar gelditzen diren galtzak (behar baino bi, bost edo hamar zenbimetro laburrago gelditzen direnak, kasu), ez dira *galtza-motxak*. Idiomatizazio-fenomenoak erasana dago, beste hitzetan esanik, hitz-andana hori.

b. Bigarren ihartze-erizpideari dagokionez ere, erantzuna baiezkoa da bete-betean: lexema bakar bat da, funtsean, *galtza-motxak* sintagma-eraikuntza. Jatorrizko sintagma-buruaren kategoria gramatikal berbera (hots, izena) duen lexema bakarra da hori, hain zuzen ere. Eta ondorioz, **Ab** eraikuntza ez baina **A** izen-lexema denez, ezin perpaus-jardunaren baitan **Ab** eraikuntzen konbinatoria sintagmatikoa onar eta erabil ere dezake: ezin litezke, horrela, **Ab** moduko hitz-andana libreen kasuan hain berezkoak diren sintagma-erabideok sortu eta erabili:

"Oso *galtza-motxak* erosi dizkiote"
"*Galtza-motxagoak* nahiago nituzke aukeran"

Esandako guzti horren arabera lexema-bakarra da, ondorioz, *galtza-motxak* hitz-andana. **A** izen-lexema izateaz gainera ezinbesteko plural-beharra du gainera, kasu honetan, eraikuntza honek: hori beste kanpo-arrazoiei zor zaie ordea, bistan dagoenez, eta ez da berez ihartze-jardunean kontuan hartu beharreko ezaugarri propioa.

c. Hirugarren ihartze-erizpideari dagokionez, azentu-batasuna jadanik eskuratua duela esatea gehiegi litzateke apika *galtza-motxak* eraikuntzaren kasuan. Bistan dago, halere, jatorrizko **Ab** eraikuntza librearen (hots, *galtza motxak* markatugabearen) ondoan aski doinuera desberdinaz ahoskatzen dituela euskaldun petoak bata eta bestea.

d. Laugarren erizpideaz denaz bezainbatean, osagaiek ez dute inolako desitxuratzerik ageri: banakako osagaien ahoskera bera ageri dute, inolako alomorfo edo hitz-aldaerarik gabea, hitz-andana ihartuaren atal bi horiek. Bigarren osagaiaren hipokoristiko-seinale den bustidura hori ere jatorrizkoa da, bestalde, eta ez ihartze-kontuari berariaz datxekiona.

e. Boskarren erizpideari doakonez, azkenik, ez dago arau finkorik: bada eraikuntza osoa hitz bakar baten moduan idazten duenik (*galtzamotxetan*), bada marraz idazten duenik (*galtza-motxetan*) eta ez da falta, bakanagoa izan arren, hitz bitan idazten duenik ere.

Bost erizpideon arabera *galtza-motxak* hitz-andanaren ihartze-prozedura dagoenekoz aski aurreratua dagoela esan daiteke beraz: erabatekoa da b) erizpidearen arabera, eta aski garatua a) eta c)-ren ildotik; d) eta, batez ere, e) erizpideetan ageri da aitzitik, inon agertzekotan, osabetezko hitz-andana ihartuetatiko aldea.

Eredu honetako adibideak dira ondokoak: *gosari-txikia, neskazaharra, udaberria, urregorria, ilbeltza, oilarra, urteberri, euskaldunberria, Alderdi Eder, Donostizar, eleder, elezar, elgorri, praidebarri, arrilandu, zorion, zorigaitz, zoritxar....*

«Gavel jaunak urregorrizko erregela bat erakusten derauku» HE26,281
«Arrilanduzko etxeaurre-arpegia dauko» HE31,18
«Donostiko jardineruen kapataza izan zan, Gipuzkoako plazan ta Alderdi-Eder'en ta, ibiltzen ziran lanean» HE23,53

Aurreko puntuan ikusitako *galtza-motxak* hitz-andanaren pare-parekoak dira, funtsean, adibide hauek ere. Horrela:

a. Lehen erizpideari dagokionez, eta berriro esamolde bizietara itzuliz, gauza bat da norbaiti gosari txikia edo "almuerzo escaso" ematea (eta hargatik norbait hori goseak uztea), eta beste bat inori goizeroko gosari-txikia "desayuno" (Azk. H."desayuno ligero", Lha.H.,"petit déjeuner[1]") eskaintzea.

   Beste hainbat esan daiteke, bere neurrian, *euskaldunberri* eraikuntzaz: euskaldun berriak oro ez dira, hori eta horrenbestez, *euskaldunberri*. Arras dudagarria da, horrela, "jaioko dira berriak" kantatu zigunak era honetako *euskaldunberriak* ere gogoan ote zituen, eta bere irudimeneko *euskaldun berrien* multzoan sartzen. Gauza bat dira izan ere euskal belaunaldi berriak, behinola "gazte gera gazte" sailean astero plazaratu ohi zirenak kasu, eta beste bat heldu-aroan beren buruak euskalduntzera (nola-hala euskalduntzera) iritsitako gizakiak, euskotar zein atzerritar. Era berekoa da, orobat, *neskazaharren* kontua: *neskazarrak* ez dira neska zaharrak. Zein gazteago eta zein zaharrago izan daitezke noski, gainerako gizakiak bezala, neskak eta neskatilak. Hirurogeitamar urtetik gorako neskarik ez genuke ordea, seguruenetik, inon aurkituko. Bai ordea, eta ez hain bakan, *neskazahar* mutxurdinik.

b. Lexema-bakarturik daude, orobat, hitz-andana guztiok. Erromako Eliz Amaren santu-zerrenda arretaz aztertuz gero izango dira noski, eta ez banakak apika, santu izateaz gainera beren bizi-denboran seme-alaba jakinen aita izandakoak. Horiek genituzke hain zuzen, "asunto" honetaz besterik ez bageneki, aita santuak. Aita santu horiezaz aparteko beste norbait adierazten dugu ordea eskuarki, batzuek eta besteok, *Aita santu* eraikuntzarekin: Erromako Eliza Katolikoaren aldian aldiko burua. Adiera bakarreko erreferente horrek frogatzen du hain zuzen, berriro ere, lexema-bakartasunaren norainokoa.

XIII.2.2. *Gernikako Arbola, aitapontekoa* eredua

Aurreko pasartean ikusitako **Ab** eraikuntza ihartu samarren pare-pareko kasuak dira, hainbat alderditatik begiraturik, honako honetan ageri direnak. Horrela:

---

[1] AZKUE, R.M. (1905-06): *Diccionario Vasco-español-francés* (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca)
LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris, G. Beauchesne Editeur

a. Semantikazko finkapena jasana dute. Bestela esanik, hitz-andana hauen esanahia ezin atera daiteke bere osagaietatik soil-soilik. Posible litzateke, horrexegatik, ondoko era honetako perpaus-moldeak aurkitzea:

> Herriko etxe guztiak erre ziren azken gerratean, *Herriko etxea* izan ezik.
> Gernikako arbola guztiak, *Gernikako Arbola* izan ezik, mogarratzeko agindua eman du bertako Alkate jaunak.

Desmotibazioa eta semantikazko finkapen-higadura aski nabarmena da, beraz, hitz-andana hauetan ere.

b. Lexema-bakartzea ere begien bistakoa da. Adiera-bakartze horren ondorioz, eraikuntza libreen garapen-askatasun morfosintatikoa ere galdu egiten du hitz--andanak. Ezin esan liteke, horrela, "*etxeko-bigarren-andre* baten bila dabil", "*Erdikaleko* laugarren atarian sartu da" esaten den eran. "Bigarren *etxekoandre* baten bila" beharko luke, aitzitik, testuinguru honetan.

c. Azentu aldetiko bateratze-lana ere begien bistakoa da: era batera ahoskatzen da "etxeko andre guztiak mezatara joanak dira", eta beste batera "*etxekoandre* guztiak mezatara joanak dira".

d. Hots-aldaerazko desitxuratzerik ez dute, aurreko azpimultzo-ereduan bezala, hitz--andanok ageri: eraikuntza "gardenak" dira, alde horretatik.

e. Grafiazko trataeraz denaz bezainbatean, azkenik, ez da joera bakar-nagusirik ageri: ohiturak eta ohiturak daude. Askotan, gainera, lotura-molde batez tratatzen ditugu adibide konkretu batzuk eta bestelako moduan beste hainbat.

Zertan bereizten dira hortaz, oinarriz eta funtsean, *Gernikako Arbola* moduko hitz-andanak *galtza-motxak* eredukoetatik?. Ondoko puntu honetan, nagusiki: **Ab** erabideaz osatuak direla *galtza-motxak* eredukoak; eta **Bko A** erabideaz, aitzitik, *Gernikako Arbola* modukoak.

Azken hauen multzoan sartu dira, funtsezko bereizgarririk ez dutelakoan, **A Bko** moduko erabide zaharkituaz behinola sorturiko hitz-andanak ere *(aitapontekoa, Jaungoikoa...)*.

> «Gorputz sendoa eta goi-bei luze-xamarra etxekojauna» HE31,82
> «Norbaitek bazaitu maite, datorren urtez garai ontako etxeko-andretu zaite» HE18,132
> «Bera zan errikoetxe edo kontzejuan» HE16,26

XIII.2.3. *Iteulia, gurpidea, galsoroa, artizarra, iturburua* eredua

Aurreko bi kasuetan gertatzen denaren aurka desmotibazio urria ageri dute, halakorik ezer ageri badute, multzo-eredu honetako hitz-andanek. Guztiak **B-A** erabidezkoak izateaz gain (eta, ondorioz, lexema-bakartzearen kontua ezinbestean beste kasuetan baino irristakorragoa gertatzeaz batera) osagaien desitxuratze-maila da, eraikuntza hauetan, ezaugarririk deigarriena: aspaldi bateko **B-A** hitz-elkarteak

(hots, hainbat hitz-erroren itxura orain ez bezalakoa zenekoak) izatearen ondorioz hots-aldakera jakin nabarmenak ageri dituzte hitz-andanok eraikuntza barneko hitz--junturetan. Eta, horren ondorioz, bat eginik idatzi ohi dira normalean. Dena den ez da askotan erraza izaten adibide jakin bat oraindik ere *Eguzki-lore* elkarte emankor den ala Hitz-Andana Ihartu den erabakitzea: izan ere desmotibazioa ez da erabateko kontzeptua, hor ere mailak daude. Eta osagaien arteko hots-aldaketak ere oraindik gardenak diren elkarteetan atzematen dira.

XIII.2.4. *Emagaldua, gaztanbera, harkaitza* eredua

Azter ditzagun hitz-andana hauek ere goiko bost erizpideen arabera. Horrela:

a. Lehen erizpidearen arabera, osagaiek nork bere esanahia aski normal mantendu arren eraikuntza osoaren semantikazko finkapen ohargarria gertatu da, jadanik, lehenengo eta hirugarren adibideetan bederen: *emagaldua* ez da, izan ere, esanahiaren ikuspegitik *ardi galdua* edo *denbora galdua* moduko sintagma-eraikuntza librea; zer galdu duen, eta nola, esaten digu bide batez hitz-andana horrek. Eta ez digu "plus" hori berariazko morfema-hitzez adierazten, jatorrizko **Ab** eraikuntza libreak bere osotasunean jasandako higadura eta finkapen semantikoaz baizik. Zailagoa litzateke agian *gaztanbera* kasuan finkapen-lan hori noraino burutu den esatea: euskalki batetik bestera (Azk.H.) ageri den adiera-aniztasunagatik, bereziki, litzateke hori zailago. Pentsatzekoa da hor ere, dena den, basanafar-baztandarren *gaztanbera* inork gutxik parekatuko lukeela gaur egun gogorra ez den gazta batekin.

   Harkaitz-en kasuan, berriz, bistan dago sintagma osoaren higadura aski nabarmena dela: *harri+gaitz* hitzek ezin esplika dezakete gaur egun, bere adiera zehatz--konkretuetan, *harkaitz*en adierazpen-arloa.

b. Lexema-bakartzea zinez gertatua dago, ondorioz, kasu hauetan ere: izen-lexema hutsak dira, dagoeneko, bata zein bestea. Eta izen gisa jokatzen ere dute, funtsean, perpaus-jardunaren baitan: nori okurrituko litzaioke, horrela, pertsona *oso emagaldu*-ez hitzegitea, tabernariari *gaztanbera-bera* bana eskatzea, edota *harkaitz* egiez jardutea?

c. Azentu-kontutan ere batasun-bidean barrena abiaturik daude, dagoeneko noraino iritsi diren esatera ausartzen erraza ez izan arren, goiko hiru adibideetariko edozein.

d. Osagaien desitxuratzeaz, bestalde, zera esan daiteke: hitz-andana bakoitzeko osagai biak euskaldun arruntarentzat oraindik aski ulergarriak gertatu arren hitz--junturetako hots-aldaketa edo sandhi-fenomenoak bestelako (batez ere **B-A** *eguzki-lore* moduko) hainbat hitz-elkarteetan bezalaxe gauzaturik ageri dituztela. Aspaldi batean sorturiko hitz-andanak direlako gertatu bide da aldaera hau, batez

ere: temaz temako hitz-pilaketa biluzietan sandhi-arau jakinak bete ohi ziren garaietakoak dira, antza, batzuk zein besteak; eta etorri ere hortik datorkie, itxura osoz, elkarrekiko antz-usaina. Horrela:

gaztana+bera → gaztanbera (ikus kanpana+dorrea→ kanpandorrea)
eme+galdua → emagaldua (ikus etxe+leku→ etxaleku)
harri+gaitz→ harkaitz (ikus, ardi+ola → artola)

Egungo hitz-elkarketetan horrelako araurik ez da ordea, normalean, errespetatzen (*fede+liburu* eraikuntza ez luke inork *fedaliburu* moduan esango, ez eta *alkate+bilera* hitz-andana librea *alkatabilera* idatziko edota *safari+gidari* bikotea *safalgidari* eran ahoskatuko).

Ondorioz, atal honetako adibideok ere berekin dute deblauki hitz-aldaera ihartuen hainbat izaera-marka: XIII.2.1. atalekoak berak baino ihartuagoak dira hitz-andanok, konkretuki, laugarren erizpide honi dagokionez.

e. Idazkera aldetik ere, azkenik, aurrekoek baino ihartze-seinale nabarmenagoak dituzte hitz-andanok berekin: loturik idatzi ohi dira, aurreko kasuan baino agitz sarriago, era honetako eraikuntzak.

Laburbilduzko ondorio moduan, semantikazko higadura edota finkapen-maila hain gogorra ez izan arren *emagaldu, gaztanbera* edota *harkaitz* moduko eraikuntzak XIII.2.1. (eta XIII.2.2., beraz) atalekoak baino ihartuago ageri ote diren-edo dirudi. Sail berean sar daitezkeela dirudi ondokoak ere:

«burdin-ori edo brontzezko zortzi aingeruak» HE31,71
«bi usapal elkarri urrumaka bezelaxe, gizonok» HE57,120
«zazpi hogerleko, zortzi pezeta gorri, zazpi zakur haundi eta hamaika tipi» HE39,57
«bildots eta ardi zârrak an dakartza aurrean, artantxu ta beorrak utzirik larrean» HE18,16

XIII.2.5. *Gerra hotza, basati ona, Gurutze Gorria, Ostiral santua, Pantera Beltzak, Etxe Zuria, Errege Katolikoak, Estatu Batuak, Itsas Gorria, Ekialde Hurbila, Herbehereak; Parisko Komuna, Aingeru Goardakoa; Lehen Ministroa, Jesusen Bihotza* eredua

Aski multzo berezia osatzen dute era honetako hitz-andanek; eta on izango da, beren izaera xeheaz jabetzeko, testu-adibide banaka batzuk eskainiz hastea. Honela:

«bero-bero ibili zen luzaroan gerra hotza» HE27,375
«Estatu Batuetan bizi arren, jatorriz asiatarrak dira indio hauek» EI94 39
«Ostiral Santu eguna zen» HE23,42
«Errege Katolikoen garaian gertatu zen izen-trukatze hau» HE33,19
«Astero Lehen Ministru aldatzea zen» HE58,63
«Aiek, zuen aingeru goardakoak izango ituan» HE29,136
«Rousseauren «basati ona» gogoratuko liguke Rikardok» EI94,30

Adibideok adierazten digutenez puntu bat dute hitz-andanok, nagusiki, oraindaino ikusitako guztiengandik sendo bereizten dituena: erdaratiko kalko lexiko-sintagmatikoak dira. Hots, beste hizkuntza batean ihartu ondoren hitzez hitz itzuliz, jatorrizko sintagma-eredua ahal zen guztian bere hartan mantenduz eta bide batez erdal iturburuko ihartze-markak erantsiz, sortu eta sortzen ditugu euskaldunok era honetako eraikuntzak. Batzuk, *espiritu santua, ostiral santua, Aingeru Goardakoa, Jesusen Bihotza, kanposantua, Testamentu Berria* edota *txakurtxiki* zein *txakurrandiak* adibidez, aspaldidanikoak dira. Gehienak, ordèa, berriak eta are berri-berriak *gerra hotza* 1950az geroztikoa da nolanahi ere, eta *Pantera Beltzak* 1970 ingurukoa. Arras ulergarria da hori, dena den, euskal hiztun-herriak bere etxe-giroan eta auzo--harremanetan azken mende-laurdenean bereziki bizi izan duen bestelakotze, sakabanatze eta leher-eztanda kontuan izanik.

Berezitasunak berezitasun hitz-andana ihartutzat hartu beharrekoak dira dena den, nor bere neurrian eta bizi-indarrez, erdaratiko kalko lexiko-sintagmatiko hauek: gainerako hitz-andana ihartuentzat esandako hainbat kontu oso-osorik errepika daiteke hemen ere. Horrela, besteak beste, esanahiaren finkapena ageri dute: *ex nihilo* edo hobe, agian, erdal iturritik beretik gertaturiko finkapena da honako esanahi--berritze hau; eta hemen ez dago beraz, beste kasu gehienetan bezala, mendeen joanean esanahiak ustez ustegabean jasandako higadura-bilakaerez hitzegiterik.

Orain arte esandako guztia izen-sintagma asko edo gutxi ihartuei buruzkoa izan da. Ihartze-fenomenoa ez da ordea izen-sintagmen ohizko alor-barrutira mugatzen: perpaus-eskemaren beste hainbat eremutara hedatzen da, aitzitik, zein joriago zein murritzago. Hona hemen, labur bilduz, ihartze-lanaren beste zenbait ezarpen-eremu.

XIII.3. GAINERAKO HITZ-ELKARTEETAKO HITZ-ANDANA IHARTUAK

XIII.3.1. Hitz-elkarte sintetikoak

Aditz-muinaren ezker-hedapenezko hitz-andana gehienetan ez da, normalean, ihartze-fenomeno handirik ageri. Horrela, eta egile-elkarte sintetikoei gagozkiela, ihartu gabeko hitz-andana bizi-bizitzat har daitezke *kale-garbitzaile, harri-jasotzaile, soinu-jo(tzai)le, berri-ekarle, adar-jotzaile, aterki-saltzaile, zauri-osatzaile* edo *pipa-hartzaile* modukoak. Beste hainbeste esan daiteke, gainera, *begi-mingarri, etxe-galgarri, neke-aringarri*, modukoez edota *behor-gidari, basurde-ehiztari* edo *zerri-azterlari*-ez. Ekintza elkarte sintetikoei dagokienez, orobat, ihartu gabeko hitz--andana biziak dira gehienak: *zikiro-jatea, kontu-hartzea, arta-zuritzea, ipuin-kontatzea, odol-galtzea, lur-saltzea, izen-trukatzea*, etab.; bai eta *olerki-sariketa, gizon--bilketa, jantzi-garbiketa, hats-beherapena*, eta abar.

Badira ordea, guztiarekin ere, neurri ohargarri batean iharturik ageri diren hitz--elkarte sintetikoak.

Adibiderik puntakoenak alde batera utziaz (*oilar+igaite*-tik omen datorren *oilarite*, kasu)[2], badirudi bi eratako ihartze-prozedurak direla alor honetan kontuan hartu beharrekoak.

a. Aditz-erro hutsaz osaturikoak: *okin, harakin; betzain; zaldun*. Aditz-morfo horiek egungo perpausgintza librearen erabileremutik at geraturik hitz-aldaera zaharkituak izatea da, neurri handienean, multzo honetako ihartze-iturri nagusia.

b. Hitz-junturetako hots-aldaketa soilari zor zaizkion ihartze-fenomenoak: *itaite, atximurka = [h]atz+zimur+ka* .

Guztiarekin ere oso gutxi dira, izen-sintagmakoekin edo are, soil-soilik, **B-A** erabidekoekin konparatuz, hitz-andana ihartuok.

XIII.3.2. Bestelako hitz-elkarteetakoak

Hitz-elkartearen muina edo hedapen-gunea adizkia edo adizkitzakoa duten eraikuntzetan ageri da gainerakoan, halako neurri batean, hitz-andana iharturik. Ondoko hauek dira, labur bilduz, alorrik adierazgarrienak.

a. Aditz-elkarteak. Ohargarriak dira, sail honetan, *etsi*-morfemadun elkarte ihartuak: *sinetsi, ihardetsi, ebatsi, jaretsi*... hitz-andana ihartuak dira, orobat, bestelako hauek ere: *itzeuki, harjo, uranditu, egurastu*. Eta iharturik dago orobat, beste arrazoiengatik bada ere, *goazeman* eredua.

b. Asmo-elkarteetan ez da hitz-andana ihartu askorik ageri. Eta, halakoetan ere, zalantzazko kasuak dira hainbatean: *hazkura, hantuste*...

Laburbilduz bada, ihartze-neurpideetan aipatutako bost erizpideak oinarri hartuz eta halere askotan ihartze-maila zenbaterainokoa den erabakitzeko zailtasunak izango ditugula kontutan izanik, orain arte aztertutako Hitz-Andana Ihartu motak bitan bana ditzakegu:

1. Beste edozein elkarteren ihartzetik sortuak (XIII.2.3. eta XIII.3. sailetan aztertuak), hots-aldaketak (orain arteko elkarte-mota desberdinetan ikusi ditugunen parekoak) jasan dituztenak eta orohar elkarturik idazten direnak.

2. Izen sintagmaren esparruko diren egituretatik sortuak, hau da, 'izena + izenondoa' (**Ab**) edota 'izenlaguna + izena' (**Bko A, Bren A**) egiturakoak. Hauetan gutxienez higadura semantikoa beharko dugu Hitz-Andana Ihartu izatera iritsi direla esan ahal izateko; bestela, sintaxi-egitura soil gisa aztertuko genituzke, eta ez Hitz-Elkarketan leku egingo. Bi ihartze-maila bereizi ditugu horrelakoetan (XXX.2.1.,

---

[2] Michelena L, 1961: *Fonética Histórica Vasca* , (2ª edición, Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, 1977), 68.or.

XIII.2.2., XIII.2.4. eta XIII.2.5. sailetan esanaren arauera). Orohar esan daiteke ihartze-bidean aurrera egin duten neurrian hots-aldaketak gertatu direla eta bi osagaiak elkarturik idazteko joera agertzen dela. Ihartze-maila hain handia ez denean, aldiz, osagaiak bereiz idazteaz gain, hots-aldaketak ere nekez aurkituko ditugu.

ADIBIDETEGIA

KODEEN AZALPENA

EB20 ANSOLA, G.: *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*, Gero, Bilbo, 1972.

EB87 SAN MARTIN, J.: *Gogoz. Gure Herriko gauzak. Cosas de nuestro país*, GAK, Donostia, 1977.

EC16 LAPHITZ, F.: *Bi saindu heskualdunen bizia*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

EC48 AGUIRRE, J.B.: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac* III, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

EC61 AÑIBARRO, A. Fr. P.A.: *Vici bedi Jesus. Escu-liburua, ta berean eguneango cristiñaucereguiñác*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

EC70 VILLASANTE, L.: *Jesukristo*, SGEP, Donostia, 1969.

ED46 Ik. HE08.

EF92 GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA: *Nekazaritzako Irakurraldiak. Mendi-aldeko ikastolaentzat*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1933.

EI31 MENDIBURU, S. (P. Altuna prestatzailea): *Aita Sebastian Mendibururen idazlan argitaragabeak (II). Fest-egunetako irakurraldiak. S.Franc. Xabierren bederatzi--urrena. Larramendiz karta*, Mensajero, Bilbo, 1982.

EI50 VILLASANTE, L.: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, EFA, Oñate, 1974.

EI58 ARCHU, J.B.: *Bi mihiren gramatika. Uskara eta Franzesa*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1979.

EI94 ELKAR-LANEAN: *Rikardo Arregi*, Jakin, Arantzazu, 1979.

EI95 EUSKALTZAINDIA: *Euskera*, XXVI (1981-1).

EI99 X.X.: *Euskalzale*, I, 1897.

EJ00 GOIKOETXEA MAIZA, I.: *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe alavés del siglo XVIII*, Diputación Foral de Alava/Euskaltzaindia, Gasteiz, 1983.

EJ03 ARTOLA SAGARZAZU, F. "Bordari"; ARTOLA SAGARZAZU, R.: *Aritz beraren adarrak*, Auspoa (156. zk.), Tolosa, 1982.

EJ04 TREKU, M.: *Mattin, nere gizona*, Auspoa (158. zk.), Tolosa, 1982.

EJ05 ONAINDIA, S.: *Eskutitzak. Euskal literaturari buruz*, Egile Editore, Bilbo, 1974.

EJ06 EUSKO IKASKUNTZA: *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1923.

EJ07 X.X.: *Ibaizabal 1902-1903*, Sendoa, Donostia, 1982.

EJ20 AZURMENDI, J.: *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Hordago, Donostia, 1979.

EJ40 SAGARNA, A.: "Maiztasun-bihurtzaile elektronikoen eta korronte alternoko motoreen bitartezko abiadura aldagarrizko eragingailuak (I)", in: *Elhuyar*, 25. zk., 1980, 21-38. orr.

EJ48 ETXAIDE-ITHART, J.: *Usoa alostorreko*, Hordago, Donostia, 1981.

EJ49 ALKAIN, I.; ZAVALA, A.: *Gerrateko ibillerak* (II), Auspoa (149. zk.), Tolosa, 1981.

EJ50 SARASOLA, I.: *Gerraondoko Euskal-poesiaren antologia (1945-1964)*, Lur, Donostia, 1973.

EJ51 TXILLARDEGI: *Euskal Herritik erdal herrietara*, Egile editore, Bilbo, 1978.

EJ52 ELKAR-LANEAN: "5. U.E.U.", in: *Zehatz* 3. zk. (1978ko Urtarrila/Otsaila).

EJ53 SATRUSTEGI, J.M.: *Axelko eta otsoko. Abereen ipuinak*, GIE, Donostia, 1983.

EJ54 DAVANT, J.L.: "Udan irakurriak", in: *P. Lafitte-ri omenaldia*, (Iker-2), Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

EJ55 LIZARRAGA, J.: *Doctrina christioarén cathechima. I. Fede christioarén gáin*, Inst. Príncipe de Viana/Euskaltzaindia, Iruñea, 1979.

EJ56 EUSKALTZAINDIA: "Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak", *(Euskera*-ren separata), Euskaltzaindia, Bilbo, 1979.

EJ57 BERIAYN, Iuan: *Tratado de como se ha de oyr missa, escrito en Romance, y Bascuence, Lenguages de este Obispado de Pamplona*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1980.

EJ58 POUVREAU, S.: *Les Petites oeuvres basques / Andre dana Maria priuilegiatua*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

EJ59 AGIRRE, D.: *Kresala*, EFA, Oñati, 1976[5].

EJ60 ALKAIN, I.; ZAVALA, A.: *Gerrateko ibillerak.I.*, Auspoa (148. zk.), Tolosa, 1981.

EJ61 KRUTWIG SAGREDO, F.: *Sua ez da hilten*, Haranburu Editor, S.A., Donostia, 1983.

EJ62 GARMENDIA, Tx.: *Bordaberri'ko gozo-mikatzak*, Auspoa (170. zk.), Tolosa, 1983.

EJ63 URQUIAGA, E. (Lauaxeta): *Bide-barrijak. Nuevos rumbos*, Geu, Bilbo, 1980.

EJ64 ARRUE, A.: *Jan edanak*, CAP, Donostia, 1979.

EJ65 SATRUSTEGI, J.M.: *Bordel bertsularia*, Auspoa (45-46. zk.), Tolosa, 1965.

EJ66 LAZKANO, P.; ZAVALA, A.: *Tiro tartean bertsotan*, Auspoa (168. zk.), Tolosa, 1983.

EJ67 ZAVALA, A.: *Xenpelar Bertsolaria*, Auspoa (88-89-90. zk.), Tolosa, 1981.

EJ68 ARROSAGARAY, J.C.: *California-tik kantuz*, Auspoa (163. zk.), Tolosa, 1983.

EJ69 BASARRI: *Kezka-giroan*, Auspoa (169. zk.), Tolosa, 1983.

EJ70 AZKUE, E.M.: *Parnasorako bidea*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1979.

EJ71 ETCHEHANDY, M.; PUCHULU, R.: *Jondoni Pauloren gutunak,* Elkar, Donostia, 1983.

EJ72 ELISSAMBURU, J.B.: *Piarres Adame.* LAFITTE, P. (ITURRALDE, P.): *Murtuts eta Bertze...*, Elkar, Donostia, 1982.

EJ75 X.X.: *Escualdun cocinera. Ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake*, P.-A. Cluzeau baithaco inprimerian, Baiona, 1864.

EJ76 AZKARATE, R.: *Galtzaundi ta beste bertso asko*, Auspoa (7. zk.), Tolosa, 1961.

EJ77 ZAMARRIPA, P.: *Gora begira. Olerki goi-usañekoak*, E. Verdes-en irarkola, Bilbo, 1927.

EJ78 ZAVALA, A.: *Arrantzaleen bizitza*, Auspoa (133. zk.), Tolosa, 1978.

EJ79 ZAVALA, A.: *Ustu ezin zan ganbara (Txirritaren zenbait bertso ta gertaera)*, Auspoa (126. zk.), Tolosa, 1976.

EJ80 ETXEBERRI, J.: *Manual devotionezkoa (Lehen zatia). (Edizio kritikoa P. Altunak paratua)*, Euskaltzaindia, (Euskararen lekukoak 3), Bilbo, 1981.

EJ81 LERTXUNDI TA BAZTARRIKA, J.M.: *Polli ta Pello. Bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*, 1910.

EL70 MITXELENA, S.: *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, EFA, Arantzazu, 1951.

HEAX Ikus HE11.

HE01 DETXEPARE, B.: *Olerkiak*, Edili, Donostia, 1970.

HE02 LEIZARRAGA, J.: *Euskal Protestantismoa zer zen*, Lur, Donostia, 1970.

HE03 ETXEBERRI, J.: *Manval devotionezcoa, edo ezperen oren oro escvuetan errabillitçeco liburutchoa*, Hordago-Lur (Euskal Klasikoak), Donostia, 1978.

HE04 ETXEBERRI, J.: *Lan hautatuak*, Lur, Donostia, 1972.

HE05 LARREGUY, B.: *Testamen çaharreco eta berrico historioa, ...*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

HE06 CHOURIO: *Jesu-Christoren imitacionea*, Hordago-Lur (Euskal Klasikoak), Donostia, 1978.

HE07 AGIRRE, J.B.: *Jaungoikoaren legueco amar aguinteen gañean erakusaldiac.* 2, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

HE08 UBILLOS, F.J.A.: *Christau doctriñ berri-ecarlea Christauari dagozcan eguia sinisbeharren-berria dacarrena*, Hordago-Lur (Euskal Klasikoak), Donostia, 1978.

HE09 BARTOLOME STA.TERESA, Fray: *Euskal-errijetaco olgueeta, ta dantzen neurrizco gatz-ozpinduba*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

HE10 Ik. HE05.

HE11 AXULAR: *Gero*, Jakin, Oñati, 1977.

HE12 URIARTE, Fr. J.A.: *Biblia edo Testamentu zar eta Berria*, Hordago-Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.

HE13 MENDIBURU, S.: *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai*, E. Lopez, Tolosa, 1904.

HE14 HIRIART-URRUTY, J.: *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Oñati, 1972.

HE15 AZKUE, R.M.: *Aitaren Bildur*, Garmendia y Cía Impresores, Bilbo, 1917.

HE16 URRUZUNO SALEGI, P.M.: *Sasiletrau baten ziria, ta abar*, Auspoa (113. zk.), Tolosa, 1973.

HE17 LIZARDI: *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972.

HE18 ORIXE: *Euskaldunak*, Auñamendi, Donostia, 1976.

HE19 APAOLAZA, A.: *Patxiko txerren*, Auspoa (8. zk.), Tolosa, 1962.

HE20 MOGUEL, J.A.: *Peru Abarka*, Gerediaga Elkartea, Durango, 1981 (1881ekoaren facsimil-a).

HE21 KIRIKIÑO (BUSTINZA, E.): *Egunekoa*, Labayru, Bilbo, 1981.

HE22 X.X.: *Aizkolariak eta beste ipui asko,* Auspoa (23. zk.), Tolosa, 1963.

HE23 APALATEGI, F.: *Euskal mutillak armetan* (I), Auspoa (3. zk.), Tolosa, 1961.

HE24 ASKOREN ARTEAN: *Itzaldiak (Irugarren salla)*, Donostia, 1924.

HE25 ANDUAGA, G.: *Bertso-bilduma*, Auspoa (52-53. zk.), Tolosa, 1965.

HE26 ALZO, P. Diego B. de: "El superlativo absoluto en el euskera hablado", in: *BRSVAP*, VIII-2 (1952), 239-257. orr.; VILLASANTE, L.: "Literatur-euskara Laphurrtarr klassikoaren gain eratua (III)", in: *ibid.,* 259-298. orr.

HE27 MITXELENA, L.: *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor, Bilbo, 1972.

HE28 ETXAIDE, Y.: *Amasei seme Euskalerriko*, Kuliska Sorta, Zarautz, 1958.

HE29 ARRIZABALO, J.M.; ZAVALA, A.: *Baso mutillak*, Auspoa (134. zk.), Tolosa, 1979.

HE30 MIRANDE, J.: *Jon Miranderen Idazlan Hautatuak*, Gero, Bilbo, 1976.

HE31 BITAÑO: *Bigarren Atalak*, Kuliska Sorta, Zarautz, 1967.

HE32 ECHEPARE, J.: *Mendekoste Gereziak eta beste*, Goiztiri, –, –.

HE33 BOZAS-URRUTIA, R.: *Nere herriaren ibilladiak eta gora-beherak...*, SGEP, Donostia, 1976.

HE34 TXILLARDEGI: *Leturiaren egunkari ezkutua*, Bilbo, 1957.

HE35 SAIZARBITORIA, R.: *Egunero hasten delako*, Lur, Donostia, 1969.

HE36 SARASOLA, I.: *Euskal literaturaren historia*, Lur, Donostia, 1971.

HE37 ARREGI, R.: *Herriaren lekuko*, Jakin, Oñati, 1972.

HE38 PLATON/ZAITEGI, Y.: *Platon I. Oturuntza, Protagora, Menon*, Izarra Inp., Usurbil, 1975.

HE39 LARRAUN: *Hil ala Bizi*, Ed. Elkar, Urketa, 1973.

HE40 X.X.: *Liberalen dotriña pecatu da*, Barcelona, 1884.

